

Colección
MENDAUR
bilduma



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko
Andres Iñigo



ISBN 84-95438-24-0



9 788495 438249

Colección **MENDAUR** bilduma



Jose Mari Satrustegi:
ereile eta lekuko

Andres Iñigo



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Colección **MENDAUR** bilduma

I

Jose Mari Satrustegi:
ereile eta lekuko

Andres Iñigo



Liburuaren izenburua: Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko

Liburuaren egilea: Andres Iñigo Ariztegi

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.

ISBN: 84-95438-24-0

Legezko Gordailua: NA-2917-2005

Nafarroako Gobernua.
Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
(Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuaren bozeramailea)
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Tf.: 848427121
Faxa: 848427123
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Tel.: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
info@euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	XIII
-------------------------	------

Edizioa:

—Artikuluen izenburuak kronologikoki	3
—Artikuluen izenburuak alfabetikoki	5
—Testuak transkribatzean erabilitako irizpideak	7

Artikuluen bilduma kronologikoki	13
---	----

Eranskinak:

—Satrustegiren hizkeraren zenbait ezaugarri	241
—Zenbait esapide	251
—Hiztegi hautatua	255
—Aurkibide onomastikoa	283
1. Toponimoak.....	283
2. Antroponimoak	291
3. Bestelakoak	298

HITZAURREA

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak 2002ko ekainaren 27an bi aldetako lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, aurreko hitzarmena ordeztu zuena. Hitzarmen berriaren helburua zen lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, erakundearen jardueran ahalbidetzeko bere egiten zituzten konpromisoak, finantzarioak zein materialak, arautzea. Jardueran sartzen dira Euskaltzaindiak izaera orokorraz egiten ahal dituen lanak ere. Hitzarmenak dagoeneko lau urteko indarraldia du eta hari esker 2002, 2003 eta 2004. urteei dagozkien ekitaldiak, Nafarroako euskararen aldekoak hain zuzen, garatu dira. Honetaz gain, 2005eko martxoaren 16an Hitzarmenaren eranskina, urte honi dagokiona, sinatu da.

Andres Urrutia Euskaltzaindiko buruak 2005eko ekainaren 28an, Nafarroako Unibertsitateen Udako Ikastaroetako V. Aldiko irekieran eman zuen ikasgai magistralaren kariatara esan zuen “hitzarmen honek ahalbidetu duela, ikuspuntu ezberdinetatik, komuna izan dugun eta dugun zerbaitetan, hots, Nafarroako euskararen esfortzuak bateratzea”. Hitzarmenak jarduteko era komuna ere ezarri du, hainbat arlotan isla duena: Nafarroako mintzaira eta euskalkien inguruko ikerketa proiektuak, hauen biltzea hiztegi eta gramatiketan, hizkuntza-atlasak egitea, nafar idazleek euskaraz idatzi dituzten lanen argitaratzea, jardunaldiak egitea eta Nafarroako euskararako interesa duten hainbat gairen inguruko txostenak.

Gauzak horrela, Hitzarmen horren ondorioz garatu beharreko beste jarduerak da hizkuntza eta literatura aldetik interesa duten lanen argitaratzea, helburu honi indar berria emanez, orain arte egindakoa aberasteko.

Hau dela-eta, MENDAUR bilduma sortu da, orain aurkezten duguna, iradokizun erakargarriak dituen izena erabiliz.

Bilduma honetako lehen liburukia Jose Mari Satrustegiri, euskarari buruzko ikerketa linguistikoa eta etnografikoa egiteagatik horren pertsona entzutetsua izan zenari, eskaini zaio, berezko izenarekin: *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*. Euskaltzaindiak Nafarroan zuen lehen ordezkariak eginiko eta *Príncipe de Viana* gure aldikarion argitaraturiko artikulua biltzen ditu liburu honek.

Argitalpenaren oinarriko ildoak dira euskara eta onomastika.

Beste argitalpenetan bestelako gaiak aztertuko dira. Besteak beste, bilduma honetako bigarren liburukia izanen dena: *Baztango Mintzoa: Gramatika eta Hiztegia*.

Ekimen hauek guztiek ematen diote esanahia Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko duen helburuari, kasu honetan Euskaltzaindiarekin lankidetzan, eta beti ere legeria konstituzional, foral eta, noski, europarrarekin bat.

*Pedro Pegenaute Garde,
Unibertsitateetarako eta Hizkuntza
Politikarako zuzendari nagusia*

Iruñean, 2005eko azaroan

ESKUTIK ESKURA

Ituren herri nafarrari begira dagoen *Mendaur* mendiaren izena dator argitalpen bilduma berri honen letra larrietan. Bilduma bera Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernua ondu dute, euren arteko hitzarmenaren babespean eta estalpean. Bi mila eta bigarren urteko ekainaren hogeita zazpian sinatu zen hitzarmena eta horren ondorioz, bi Erakundearen arteko ordezkariak hala adostuta, sail berri hau sortzea erabaki zen, nafar euskalgintzaren emaitzak bideratzeko eta argitaratzeko.

Erkidego horren lehen lana hauxe bada ere, aurki plazaratuko dira bestelakoak, jarraitutasunez jokatu nahi dugulako bi Erakundeok, euskararen aitzinamenduan egiten diren ahaleginak jendaurrean modurik egokienean jarri.

Lehena izanik, bertara bildu dira Jose Maria Satrustegi (1930-2003) euskaltzainkide nafarraren hainbat artikulua, *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian argitaratuak. Artikuluen kronologia (1966-1973) aski esanguratsua da eta euren gaiak, euskara eta onomastika, aintzat hartzeko modukoak direla ezin uka.

Hortaz, liburuaren tituluak laburbiltzen ditu egilearen asmoa eta ekina. Izan ere, *ereile* eta *lekuko* izan zen Satrustegi Nafarroan. *Ereile*, aspaldiko tradizioari eutsi ziolako, aldi berean, *lekukoa* ere bazela, garai bateko bizimoduaren testigantzarik eskaini zion pisu nabarmenaren bidez.

Hark bazituen horretarako trebezia eta jakituria. Luze izan zen euskaltzain osoa eta Nafarroan Euskaltzaindiak izan duen lehen ordezkaria. Hats luzekoa ere, hark moldatu zuen gauzak egiteko tankera, *Príncipe de Viana* aldizkarian ez ezik, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari filologikoa ere abiarazi eta bideratu baitzuen herioak eraman arte.

Ibilbide jarraikoa, beraz, Satrustegirena. Ez norabiderik gabekoa, egoki asmatu eta zertu zituelako, lehen esan bezala, aurrekoak biltzea eta atontzea, gerogarrenekoak ere zokondoan utzi gabe. Erroak iraganean izan arren, etorkizunari begira bizi zen Satrustegi. Horrexegatik jakin zuen nafar euskaltzale belaunaldi berriei euskararen lekukoa ematen eta eskualdatzen.

Halaxe hartu zuen Andres Iñigo Iturengo euskaltzain nafarrak Satrustegik urtetan eraman zuen Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkarietza. Eskutik eskura, inoizkorik zuzenenean. Halaxe ere, hartu du ardura harenak biltzeko eta egungo irakurleari eskaintzeko, denboraren joan-etorriak eskatzen dituen gutxieneko aldaketak eta egokitzapenak eginez. Bistan da horixe dela biderik fidagarriena eta seguruenak garaiotako euskaltzalea sasoi bateko testuetara erakartzeko eta zaletzeko.

Are ohargarriagoa da bere lana, kontuan hartzen badira artikuluko horien bi gai nagusiak, euskara eta onomastika, eskutik eskura ere etorri zaizkiola Andres Iñigori, biotan uztartzen baitira bi euskaltzain nafarren kezka eta arrangurak. Harako helmuga jarri zion, jarri ere, Andres Iñigok bere buruari, testuon argitalpenaren beharraz sarri-sarri (sarriegi, beharbada) ohartzen nionean.

Orduko konbentzimenduak ekarri du oraingo liburua. Edizioa ez ezik, hitzau-
rea, aurkibide erabilerrazak eta eranskin baliotsuak (hizkeraren ezaugarriak, esapi-
deen bilduma, hiztegi hautatua...) gaineratu dizkio Iñigok Satrustegiren idatziari. Ho-
rren karian, aise eta eroso ibiliko da batetik bestera orrialde hauen erabiltzailea. Hor
dago zin-zinezko iparrorratza, irakurle abisatua hitz eta lerroetan barna eramango
duena.

Izen eta izan handiko euskaltzalea genuen Jose Maria Satrustegi. Horrelakoak,
tamalez, aipuetan agortzen zazkigu maizegi, euren barne muinetan daramaten sako-
neko mezua eta esanahia aintzat hartzeke.

Aurkaria da horretan liburu hau. Xedea du behinolako nafar euskalgintza azpi-
marratu, Satrustegiren luma bidegile duela. Ez du gorai patze huts eta soiletan geratu
nahi, eguneroko euskaltzaletasunaren tresnagintzan ikusten baitu bere zereginik pre-
ziatuena.

Hala nahiko zukeen Satrustegi berak eta hala eskaintzen zaie belaunaldi berriei.
Lan onak uzta ona. Horra erranairu zaharra. Uzta batzeko, zernahi gisaz, aurretiaz
ereintza egokia egin behar. Satrustegik, aldekoak zein aurkakoak gorabehera, Nafa-
roako lurrean erein zuen euskararen hazia. Gu geu, aldiz, orduko ereintzaren uzta go-
zatzeko eta berriro ere euskararen ereile izateko abagune ezin egokiagoan gaude
orain, Andres Iñigo batzailearen esku zolia ararteko dugula.

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Luis, Karmentxu, Pilartxo eta Maria Jesus Satrustegi Zubeldia,
Jose Mari zenaren anai-arrebei.

Maribi Betelu Satrustegi,
Milikonea-ko ilobari.

HITZAURREA

Esku artean duzun liburu honetan daukazu Nafarroako Foru Diputazioak euskara sustatzeko argitara eman zuen *Príncipe de Viana* aldizkariaren gehigarri hilabetekarian Jose Mari Satrustegik euskaraz idatzi zituen artikuluen bilduma. Artikulu horiek kronologikoki jarri ditugu eta bakoitzaren oinean adierazten dira, letra etzanean, aldizkariaren urtea, zenbakia, hilabetea eta orrialdea. Adibidez: 1966, 1, otsaila, 3. or.

Gehigarri hilabetekari hau Nafarroako Diputazioak zuen Euskara Sustatzeko Atalak –‘Sección para el Fomento del Vascuence’ izenekoak– sortu zuen *Príncipe de Viana* aldizkariaren osagarri gisa.

Hasiera batean *Roncesvalles* izena eman zitzaion. 1966ko otsailean argitara eman zen aldizkariaren lehendabiziko alean RONCESVALLES izenburutzat daraman editorialak honela dio:

En el reciente Symposium de Prehistoria y Etnografía organizado en Pamplona por la Institución ‘Príncipe de Viana’, quedó grabada una inquietud en la mente de todos: El vascuence se muere en Navarra. En realidad el vascuence se está muriendo desde hace siglos. Todavía no hace uno que se hablaba a las puertas de Tafalla y durante estos cien años se ha replegado al Norte de Pamplona. (...) Si el vascuence se muere en Navarra será porque los navarros son indiferentes a la extinción de este misterioso legado de nuestra antigüedad. Pero si los navarros quieren, el vascuence no morirá y se hermanará con el glorioso idioma nacional sin menoscabo de nuestra propia cultura. Al contrario, signo de cultura será poseer el vascuence junto al castellano, como es signo de cultura amar y cultivar lo que es bello, propio y ancestral.

‘RONCESVALLES’ quiere cooperar en esta tarea que es a la vez sentimental y cultural y que está en la propia línea de nuestra Institución ‘Príncipe de Viana’ a quien ninguna cosa del sentimiento y de la cultura navarra le es indiferente. Antes bien, ‘Príncipe de Viana’ estima que el vascuence, una vez muerto, no se podrá restaurar como los Monasterios y los Castillos. Y si el vascuence muere habrá desaparecido un verdadero Monumento Nacional de nuestra española patria.

‘RONCESVALLES’ se abre a los escritores y lectores navarros y no navarros que sientan amor al vascuence. Amor puro, sin trastienda ni complicaciones.

Gainerako orrialdeetan ere *Roncesvalles* ageri da eta laugarren orrialdean bi ohar datoz. Bat, elebiduna, idazleak parte hartzera animatzen dituen:

‘RONCESVALLES’ admite y agradecerá la colaboración de todos los navarros que se interesen por el vascuence / ‘RONCESVALLES’ek euskararen alde lan egin nai duten nafartar guztiak onartuko ditu bai ta eskerronak emango ere.

Bestea, gaztelaniaz, harpidetza egiteko eredu, honela dioena:

Don desea recibir a domicilio y gratuitamente el suplemento ‘RONCESVALLES’.

Bigarren aleak, 1966ko martxokoak, lehendabiziko orrian *Roncesvalles* izenari eusten dio, bigarren orritik aitzina, ordea, *Príncipe de Viana* jartzen du; eta aldaketa

bera dakar lehen aipatutako laugarren orriko bi oharretan. Hirugarren aletik aitzina *Roncesvalles* ez da lehendabiziko orrian ere ageri.

Jose Mari Satrustegik berak 1970eko “Atzera begira” artikuluan (ikus 157. or.) ematen du aldizkariaren izenarekin izandako aferaren berri. Honela dio:

1966. otsailean agertu zen lehenbiziko zenbakia. Gure asmoa *Roncesvalles*, napar izen zahar eta entzunarekin bataiatzea zen. *Orreaga* ere aipatu zuen norbaitek, baino bestea entzunagoa omen da. Izenburu euskal kutsukoa egina ginuen, otsailekoaren aurretik zenbaki muttu bat (numero gabea) atera ere bai. Harri bitxia bezela gorderik daukat aldizkaria jaio aurreko gutun hau. *Roncesvalles* dio orri buruan.

Izen berriarekin aldizkari bat sortzeko baimena behar omen da. Guk lana egin nahi ginuen, eta nola edo hala, lehenbailehen ateratzen hasi, *Príncipe de Viana* aldizkaria bazuen Napparoko Diputazioak eta haren anai txikia bezela ikusi zuen egunaren argia. Hamar hilabetez ez ginuen baztatu bere izenera itzultzeko asmoa, eta denbora hortako aleak hilabetearen izena bakarrik daramate, bat-banaka zenbatu gabe. Hamaikagarrenean hasi ginen kondatzen.

Behin baino gehiagotan entzun genion arruazuarrari M. J. Urmeneta diputatuak egin zuela aldizkariari *Roncesvalles* izena jartzeko proposamena.

Jose Mari Satrustegi aldizkariaren hasieratik zortzi urtez izan zen kolaboratzaile, 1966 eta 1973 bitartean, hain zuzen. Garai horretan 168 artikulua idatzi zituen euskaraz eta beste 9 gaztelaniaz. Lautik hiru izenpetuak daude. Gehienetan *J. M. Satrustegi*, *J. M. S.* edo *SAGI* ageri da, hiruzpalautan *S.*, eta batean *Sarabe* (Urdiaingo mendi baten izena). Badira, ordea, hogeita hamarren bat inolako izenperik gabe argitaratu arren, bere familiak eskura jarri digun dokumentu bati esker Jose Marirenak direla egiaztatu ahal izan ditugunak.

Kolaboratzaile oparoa izan zen. Hasiera-hasieratik hilabete gehienetan artikulua bat baino gehiago idatzen zuen, hiruzpalau askotan eta, erraterako, 1966ko abendu-koan sei artikulua bereak dira.

Ukitzen zituen gaiei dagokienez, erraten ahal da denetik idatzen zuela. Zail da artikulua guztiak gaika sailkatzea, horietako batzuek gai bat baino gehiago ukitzen dutelako, baina ikuspegi orokor bat ematearren, honako sailkapen hau egitera ausartu gara:

- Zenbait pertsonaiaren ezaugarri eta laudorioak: “Aleluia...!” (Tabera kardinalez), “Bordel”, “Lukas Zufiaurre”, “Manezaundi”, “Xalbador”, “Xalto”...
- Hilberriak: “Gizon haundi bat” (Aita Felipe Murietakoaz), “Heriotze” (Blas Fagoagaz), “Lukas hil da”, “Ubaldo Hualde hil da”...
- Euskarari buruzkoak. Batetik Nafarroako euskararen egoera mintzagai dutenak; gure hizkuntza eskoletan sartzeaz: “Euskera eskoletara”, “Altsasuko eskolak”..., zenbait herritako euskararen egoeraz: Altsasu, Arruazu, Etxarri Aranatz, Lekunberri, Luzaide, Uhartea Arakil... Bestetik, hizkuntzaren beraren inguruko egoera eta kezka azaltzen dutenak, bai Euskaltzaindiaren egin-beharrak: “Ereintza”, “Jaiotza”, “Txerto berriak”..., bai batuaren beharra: “Batasuna”, “Batasunaren alorrean”..., eta honen gaineko iritzi eta eztabaidak: “Zorigaiztoko *h* bat”, “Gipuzkera edo euskera batua?”, “Herria alkate”...

- Garaiko gizartearen arazoak: “Artzai euskaldunak”, “Gaua da”, “Oihanzaleak”, “Pakea”, “*Requiem* antzua”, “Zer gertatzen da euskaldunen artean?”... eta ireki beharreko bide berriak: “Ultzama egunko egunean”, “Elkartzearen beharra”, “Oskotz”...
- Herrietako ohitura, jai, ospakizun eta abar: “Artzai txakurren saioak”, “Ezkilak”, “Ezkil jotzaleak”, “Inauteak Nafarroan”, “Lakuntzako Pertza”, “Zezenak”...
- Garaiko gertaera eta ideien kritika: “Aingeru txuriak”, “Besteak bezala”, “Gure beste harra”, “Herrietako festak”, “Herrietako txabolak”...
- Nafarroako zenbait herri eta lekutako deskribapenak: “Aralarko basiliza”, “Baztango Ballea”, “Leire”, “Olite: Erriberriko gaztelua”, “Saraguetako margolak”, “Zaraitzuko Ibarra”...
- Ipuinak: “Beleak kua kuaa!”, “Milakotxu”, “Oilarrak kukurruku”...
- Olerkiak: “Eguberri”, “Egutegia”, “Elur melur”, “Ur goiena”...
- Herri kantua eta bertsoak: “Eguberri kantua”, “Maiatz kantua”, “Natibitate gaua”, “Pazkuetan alegarena”, “Santi batek andere”...
- Onomastika. Zenbaitetan toponimia gaiak erabiltzen baditu ere, hala nola: “Etxe izenak”, “Herri izenak”, “Kale izenak”, “Leku izenak”..., antroponimia da bere gai nagusia eta bereziki ponte izenak. 1970etik aitzina ekiten dio gai honi, modu orokorrean artikulua pare batean: “Eta euskal izenak zer?”, “Nafarroako izen zaharrak”, eta hogeiren bat artikulua ponte izenei eskainiz: “Ainhua”, “Aitor”, “Aitziber”, “Amaia” ... “Oier”, “Unai”, “Zuria”.
- Beste artikulua bakan batzuk ere baditu, pertsonaia historiko, liburu berri eta abarrei buruzkoak eta zenbait elkarrizketa. Eta azkenik, *Príncipe de Viana* aldizkariaren beraren nondik-norakoaz, eta honen defentsaz idatzitako dozena erdi bat: “Arnas berri”, “Arnas berri dela eta”, “Atzera begira”, “Bertsolarien deia”, “Lehenbiziko urteburua”, “Urte bat”.

Bilduma honi guztiari *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko* izenburua jarri diogu. Zer dela eta? Ereintzarako lurra prestatzearen eta ereintza beraren ideia behin eta berriz ageri-agerian dagoelako artikulua bilduma honetan ukitzen dituen gai gehienetan, hots, euskararen aldeko eginahal guztietan, hala nola, eskoletan euskara zekiten haurrei sariak banatzen ibili zirenean, euskara eskoletan sartzan hasi zirenean, ikastolen sorreran, Euskaltzaindiaren lan isil eta erabaki garrantzitsuetan, *Príncipe de Viana* aldizkariaren sorrera eta hedatzean, euskaldunak euskaraz idaztera bulkatze lanetan..., hots, Jose Mari bera lekuko izan zen euskararen sutapenerako egitasmo eta ekitaldi haietan guztietan. Hona hemen ideia hori azpimarratzen duten zenbait aipu:

- Erein gabe ez dago ezer biltzerik, hori edozein nekazarik badaki. Ez da, beste alde, lanik hoberena lur iraultze eta ereitea ... Haurrak ditut nik orai gogoan eta Euskal Herriko eskolatxoak heldu dazkit burura. Hizkuntzaren aldetik, behintzat, aspaldi erein gabeko esku txarretan dabilen baratze negargarria dugu gure eskolen hau. Haurrak dira edozein herriren lur haustekoa eta guk ereiteko biderik ez! (Euskera eskoletara, 26. or.).

- Guk ere lehenbailehen frutuak ikustea nahiago izango ginuen. Halare, giro txarrarekin hazia ereitea baino etxean egotea hobe dela eta, lurra irauli eta prestatzeari jo genion (Naparroko berriak, 87. or.).
- Idazleari orri txuriak ekartzen dizkion kezka berekin ditu Urteberriak. Nork daki haren berri? Nekazariaren ereitea bezela bizi nahiaren ametsez jantzia, uzta ditu ereileak begiak (Urteberri!!!, 77. or.).
- Bakoitzak ereiten duena bilduko du. Eta haizetan ereiten duenak trumoiak eta erauntsiak jasoko (Aingeru txuriak, 146. or.).
- Badira neguko lanbide ilunak, gero udan agertzen direnak. Udan garia bildu nahi duenak, neguan erein beharko du. Munduko legea da (Urdiain, 125. or.).
- Nekazariak ez du bere hazia lurpean uzteko ereiten. Noiz jaioko begira egoten da eta behar den guzietan jorratzen (Atzera begira, 157. or.).
- Euskal Herriko lau Diputazioak uztarturik tiratzen zuten goldea, ereintzako saio hartan. Geroztik egina du haziak elurte eta izozketa guziekin bere lurpeko negu luzea ... Udazkeneko ereintza ixila ekartzen dit gogora berrogeita hamar urte hauetako bere lan ilunak (Euskaltzaindia, I. Ereintza, 95. or.).
- Amesgarri da ama gaztearen haur jaioberria, pozgarri ereilearen begitan uzta horia, zozgarri biligarroaren oihaneko bizia. Hori ote da udaberria? (Udaberria, 127. or.).
- Eta *Príncipe de Viana* gure aldizkariak hirugarrena du Urteberri hau. Beste batzutan bezela, galdera bera egin lezake: balio ote du ereiteak? (Urteberri!!!, 77. or.).
- Duela bost urte *Príncipe de Viana* aldizkari hau sortu zelarik, euskera janzea izan zen gure helburua, ahalik eta txukunena jantzi eta ezagutaraztea. Ongi edo gaizki, hortan saiatu gera. Bere ondore pozgarria, Nafarroko euskaltzaletasun zabal hau izan da (Ez adiorik!, 178. or.).
- Ereintza. Aspaldiko lan ixila. Duela hamabost bat urte hasi zen gauza Iruñeko jaun batzuk Diputazioaren izenean euskaldun haurrerri sariak banatzen hasi zirenean herritan. Mendi txoko guzietan adierazi zuten bertsolariak zer gauza haundia zen euskera. Euskaldun festa jatorrak egin ziren baztarretan. Gaur hemen eta bihar han, udaberri baten argisientia izan zen Naparroan. Argiari begiak idekitzea: ereintza (Atzera begira, 157. or.).
- Ikastolak ugaritu dira eta eskualdunen kezka esnatu. Tafallan ikastola berria eta Olaztin (Olazagutian) beste bat... etorkizunaren ereintza sakona. Nork daki biharko egunean noraino heldu ginaizken. Negu aurrea, ereintza ixilaren denbora. Udaberri pozgarriaren bezera Euskal Herrian. Jaiotza, haurrak, hasiera (Udazkena, 144. or.).
- Nafarroan ikusten dugun euskaltzaletasunaren piztea ez da berezko laharraren etorrera. Indarketa latzarekin egina da aurretik negu sarrerako ereintza sakona, ixilkako lan asko da lurpean sartua. Udaberriko izpiak ikustean behartuak gera lan ixilaren aipatzera (Umeen deia, 183. or.).
- Urte hauetako lanak berea eman du. Gaur Naparroan euskeraz irakurtzen dela esan dezakegu, handik eta hemendik ikastolak ideki nahian datorkizu jendea eta euskera atari haunditik sartzen hasia da. Negu sarrerako ereintza baliosaren ondorea... Bai, zerbait aldatu da Naparroan ... Gure lehenbiziko eginkizuna bete dela esango nuke. Muga berri bat jartzen diogu Naparroko euskal ekintzari, ereintza gordinetik berdetza gozora dijoan muga. Vianatik Tudelara eta Aezkoatik Sakanara euskal gauzen gogoa pizturik ikusteko poza ... Lais-ter beste urrats batzuk ematekoak gera. Hasiera besterik ez luke izan nahi oraiko odol beritzeak (Arnas berri, 206. or.).

Azkenik, *Príncipe de Viana* aldizkariako Jose Mari Satrustegiren artikulua horietan ageri diren zenbait irudi eta argazki ere sartu ditugu liburu honetan.

EDIZIOA

ARTIKULUEN IZENBURUAK KRONOLOGIKOKI

1966			
ETXARRI ARANAZ	15	OSKOTZ	56
ITURMENDIKO HERRIA	16	ELKARTZEAREN INDARRA	57
GITARRA DELA ETA... ..	17	ZER GERTATZEN DA ESKUALDUNON	
ZORIGAIZTOKO <i>H</i> BAT	18	ARTEAN?	59
HERRITAKO TXABOLAK	19	MANEZAUNDI	60
MAIATZA	20	ENRIKE ZUBIRI	61
ULTZAMA EGUNKO EGUNEAN	21	UBALDO HUALDE HIL DA	63
MILAKOTXU	22	EZKILAK	64
HERIOTZE	23	LAKUNTZA	65
ZARAITZUKO IBARRA	24	LAKUNTZEKO PERTZA	66
GIZON HAUNDI BAT	25	EGUTEGIA	68
EUSKERA ESKOLETARA?	26	AITAXO	69
ORRIAGAKO AMA BIRJINAREN ELE		PAKEA	70
XAHARRA	27	<i>ZIGOR</i> OPERA ESKUALDUNA	71
MENDIZ	28	NATIBITATE GABEA	72
ARTZAI ESKUALDUNA	29	ZARAITZU. ESPARTZAKO EGUBERRI	
LUKAS ZUFIAURRE	30	KANTUA	74
GURE JOKABIDEA	31		
ARTZAI EUSKALDUNAK	32	1968	
OLITE: ERRIBERRIKO GAZTELUA...	33	MANEZAUNDIREN OMENALDIA	76
ELUR, MELUR	35	URTEBERRI !!!	77
EGUBERRI	36	SUEZIATIK ETORRIA	78
SANTI BATEK, ANDERE... ..	37	LEKUNBERRI	79
LUKASEN OGIBIDEA	38	LEKUNBERRIN... ZER BERRI?	80
SU BAZTERREAN	39	PAZKUETAN ALEGERENA	82
OILARRAK KUKURRUKU... ..	40	NUNGOA ZEN KRISTOBAL KOLON?	84
		NAPARROKO ERREGEAIA	85
		NAPARROKO BERRIAK	87
		ETA IRUÑEN ZER?	88
		ALTSASUKO ESKOLAK	89
		BIDEKO ARRANOAK	91
		ERRONKARIKO USKARA	92
		LUZAIDEN AMETSAK	93
		EUSKALTZAINDIA, I. EREINTZA	95
		ETXARRI ARANAZ	97
		BAKOITZARI BEREIA	98
		MAIATZ KANTUA	100
		EUSKALTZAINDIA, II. JAIOTZA	101
		BATASUNA	102
		SAN JUANEN KANTAITA	104
		SENDAGILEA	105
		EUSKALTZAINDIA, III. TXERTO	
		BERRIAK	106
		HUARTE DE SAN JUAN	108
		BEGI ZORROTZA	110
1967			
LUZAIDE	41		
URTE BAT	42		
UR GOIENA... ..	43		
BELEAK KUA, KUAA!	44		
LEHENBIZIKO URTEBURUA	45		
INAUTEAK NAPARROAN	46		
BAZTANGO BALLEA	47		
LEIRE	48		
AITZIBER	49		
LUKASEN LAGUNA	50		
ALTSASU	52		
URDIAINGO SAN PEDRO	53		
PEDRO DIEZ DE ULZURRUN,			
SENDAGILE JAUNA	54		
ZEZENAK	55		

LAKUNTZEKO PERTZA	111
ARALAR MENDIA	112
EZKIL JOTZALEAK	113
ARRUAZU	114
BATASUNA	115
GAUA DA...	116
EGUBERRI...	117
EUSKERA ESKOLETARA?	119

1969

ILARGIKO BIDEA	120
LUKASEN URTEBETETZEA	121
ARRUAZU	123
OIHANZALEAK	124
URDIAN	125
UDABERRIA	127
OTXOBI TANPORRERO	128
ALELUIA...!	129
EUSKERA ZERTAKO?	130
LUKAS HIL DA	131
BESTEAK BEZALA	133
BI GIZON ILARGIAN	135
HERRITAKO FESTAK	136
HUARTE ARAKIL	137
ARTZAI TXAKURRA	139
EZIN BERTZEAN...	141
ARTZAI TXAKURREN SAIOA	142
UDAZKENA	144
EUSKERAREN MUGAK	145
AINGERU TXURIAK	146

1970

BATASUNAREN ALORREAN	148
EUSKAL IZENAK	149
GUREA DELAKO	150
LUZAIDE	151
GAZTE GERA, GAZTE...	152
GIPUZKERA EDO EUSKERA BATUA?	153
NAPARROKO IZEN ZAHARRAK	155
LUZAIDEN HERRIA BORDEL BERTSOLARI ZANAREN OROIMENEZ	156
ATZERA BEGIRA	157
BESTE UDABERRIA	159
EUSKERAZKO HITZAK	161
HERRIA ALKATE	163
BORDEL BERTSULARIA	165
LAKUNTZAKO PERTZA	167
STOP	168
GAZTAIN HAUNDIA	170
MAITE	171

1971

ERREGEAK	172
AMAIA	174
SARAGUETAKO MARGOLAK	175
MARI	177
EZ ADIORIK!	178
AITOR	180
ANDRES NARBARTE «XALTO» ZENA	181
UMEEN DEIA	183
SUA ETA BIAK	184
IÑIGO	185
ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO	186
URDIAN. GAZTETXOEN TXOKOA ..	187
EDURNE	188
ARALARKO BASELIZA	189
AINTZINA	192
NEURRIKO ATORRA	193
UNAI	195
REQUIEM ANTZUA?	197
AMAGOIA	199
GURE BESTE HARRA	201
URDIAN	203
JUAN PEDRO IROZ	204
AINHOA	205
ARNAS BERRI	206
USOA	207

1972

BERTSOLARIEN DEIA	208
NEREA	210
ETA EUSKAL IZENAK ZER?	211
OIER	213
ARNAS-BERRI dela eta	214
HERRI IZENAK	216
ZURIA	218
KALE IZENAK	220
ENERIZ	223
ETXE IZENAK	224
XABIER	226
LEKU IZENAK	227
NORA	229
AITZIBER	230
ASIER	232

1973

NAPARROAREN ORDUA	233
GARIKOITZ	235
MAIDER	236
BARANDIARANDAR ON JOXE MIGEL. OMENALDIA	237

ARTIKULUEN IZENBURUAK ALFABETIKOKI

AINGERU TXURIAK	146	ENCICLOPEDIA GENERAL	
AINHOA	205	ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO	186
AINTZINA	192	ENERIZ	223
AITAXO	69	ENRIKE ZUBIRI	61
AITOR	180	ERREGEAK	172
AITZIBER (1967)	49	ERRONKARIKO USKARA	92
AITZIBER (1972)	230	ETA EUSKAL IZENAK ZER?	211
ALELUIA...!	129	ETA IRUÑEN ZER?	88
ALTSASU	52	ETXARRI ARANAZ (1966)	15
ALTSASUKO ESKOLAK	89	ETXARRI ARANAZ (1968)	97
AMAGOIA	199	ETXE IZENAK	224
AMAILA	174	EUSKAL IZENAK	149
ANDRES NARBARTE «XALTO»		EUSKALTZAINDIA, I. EREINTZA	95
ZENA	181	EUSKALTZAINDIA, II. JAIOTZA	101
ARALAR MENDIA	112	EUSKALTZAINDIA, III. TXERTO	
ARALARKO BASELIZA	189	BERRIAK	106
ARNAS BERRI	206	EUSKERA ESKOLETARA? (1966)	26
ARNAS-BERRI dela eta	214	EUSKERA ESKOLETARA? (1968)	119
ARRUAZU (1968)	114	EUSKERA ZERTAKO?	130
ARRUAZU (1969)	123	EUSKERAREN MUGAK	145
ARTZAI EUSKALDUNAK	32	EUSKERAZKO HITZAK	161
ARTZAI EUSKUALDUNA	29	EZ ADIORIK!	178
ARTZAI TXAKURRA	139	EZIN BERTZEAN...	141
ARTZAI TXAKURREN SAIOA	142	EZKIL JOTZALEAK	113
ASIER	232	EZKILAK	64
ATZERA BEGIRA	157	GARIKOITZ	235
BAKOITZARI BEREIA	98	GAUA DA...	116
BARANDIARANDAR ON JOXE		GAZTAIN HAUNDIA	170
MIGEL. OMENALDIA	237	GAZTE GERA, GAZTE...	152
BATASUNA (1968, ekaina)	102	GIPUZKERA EDO EUSKERA BATUA?	153
BATASUNA (1968, abendua)	115	GITARRA DELA ETA...	17
BATASUNAREN ALORREAN	148	GIZON HAUNDI BAT	25
BAZTANGO BALLEA	47	GURE BESTE HARRA	201
BEGI ZORROTZA	110	GURE JOKABIDEA	31
BELEAK KUA, KUAA!	44	GUREA DELAKO	150
BERTSOLARIEN DEIA	208	HERIOTZE	23
BESTE UDABERRIA	159	HERRI IZENAK	216
BESTEAK BEZALA	133	HERRIA ALKATE	163
BI GIZON ILARGIAN	135	HERRITAKO FESTAK	136
BIDEKO ARRANOAK	91	HERRITAKO TXABOLAK	19
BORDEL BERTSULARIA	165	HUARTE ARAKIL	137
EDURNE	188	HUARTE DE SAN JUAN	108
EGUBERRI (1966)	36	ILARGIKO BIDEA	120
EGUBERRI... (1968)	117	INAUTEAK NAPARROAN	46
EGUTEGIA	68	IÑIGO	185
ELKARTZEAREN INDARRA	57	ITURMENDIKO HERRIA	16
ELUR, MELUR	35	JUAN PEDRO IROZ	204

KALE IZENAK	220	OLITE: ERIBERRIKO GAZTELUA...	33
LAKUNTZA	65	ORRIAGAKO AMA BIRJINAREN ELE	
LAKUNTZEKO PERTZA (1967)	66	XAHARRA	27
LAKUNTZEKO PERTZA (1968)	111	OSKOTZ	56
LAKUNTZAKO PERTZA (1970)	167	OTXOBI TANPORRERO	128
LEHENBIZIKO URTEBURUA	45	PAKEA	70
LEIRE	48	PAZKUETAN ALEGERENA	82
LEKU IZENAK	227	PEDRO DIEZ DE ULZURRUN,	
LEKUNBERRI	79	SENDAGILE JAUNA	54
LEKUNBERRIN... ZER BERRI?	80	<i>REQUIEM</i> ANTZUA?	197
LUKAS HIL DA	131	SAN JUANEN KANTAITA	104
LUKAS ZUFIAURRE	30	SANTI BATEK, ANDERE...	37
LUKASEN LAGUNA	50	SARAGUETAKO MARGOLAK	175
LUKASEN OGIBIDEA	38	SENDAGILEA	105
LUKASEN URTEBETETZEA	121	STOP	168
LUZAIDE (1967)	41	SU BAZTERREAN	39
LUZAIDE (1970)	151	SUA ETA BIAK	184
LUZAIDEN AMETSAK	93	SUEZIATIK ETORRIA	78
LUZAIDEN HERRIA BORDEL		UBALDO HUALDE HIL DA	63
BERTSOLARI ZANAREN		UDABERRIA	127
OROIMENEZ	156	UDAZKENA	144
MAIATZ KANTUA	100	ULTZAMA EGUNKO EGUNEAN	21
MAIATZA	20	UMEEN DEIA	183
MAIDER	236	UNAI	195
MAITE	171	UR GOIENA...	43
MANEZAUNDI	60	URDIAN (1969)	125
MANEZAUNDIREN OMENALDIA	76	URDIAN (1971)	203
MARI	177	URDIAN. GAZTETXOEN TXOKOA ..	187
MENDIZ	28	URDIAINGO SAN PEDRO	53
MILAKOTXU	22	URTE BAT	42
NAPARROAREN ORDUA	233	URTEBERRI !!!	77
NAPARROKO BERRIAK	87	USOA	207
NAPARROKO ERREGAIA	85	XABIER	226
NAPARROKO IZEN ZAHARRAK	155	ZARAITZU. ESPARTZAKO	
NATIBITATE GABEA	72	EGUBERRI KANTUA	74
NEREA	210	ZARAITZUKO IBARRA	24
NEURRIKO ATORRA	193	ZER GERTATZEN DA ESKUALDUNON	
NORA	229	ARTEAN?	59
NUNGOA ZEN KRISTOBAL KOLON? ..	84	ZEZENAK	55
OIER	213	<i>ZIGOR</i> OPERA ESKUALDUNA	71
OIHANZALEAK	124	ZORIGAITZOKO <i>H</i> BAT	18
OILARRAK KUKURRUKU	40	ZURIA	218

TESTUAK TRANSKRIBATZEAN ERABILITAKO IRIZPIDEAK

Jose Mari Satrustegik euskara sustatzeko *Príncipe de Viana* aldizkariaren gehigarri hilabetekarian hasiera-hasieratik zortzi urtez jarraian idatzi zuen, hots, 1966 eta 1973 bitartean. Denera, 168 artikulua idatzi zituen euskaraz. Artikulu horien berrargitalpen hau prestatzean aintzat hartu nahi izan dugu egungo irakurlea, testu horiek ahalik eta modurik egokienean eskainiz. Horretarako, zenbait irizpide erabili dugu, gehienbat ortografiarekin eta zeinuekin zerikusia dutenak, baita hitzen elkarketarekin edota bereizketarekin ere. Irakurketa errazteko, aldaketa hauek gorabehera, egilearen testua osorik errespetatzea izan dugu helburu. Hori dela eta, aurkitu ditugun esaldi ilun batzuk —gure ustez *Príncipe de Viana*-ko edizioan izandako akats mekanikoen ondorioz—, bere horretan utzi ditugu; erraterako, «Testigu bat da hemen zuen berekin» (Milakotxu, 22. or.).

Kontuan izatekoa da J. M. Satrustegi euskaltzainaren idazki hauen kronologian 1968ko Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra dugula tartean eta, orduz geroztik, Akademia hartzen hasi zen erabaki eta arau garrantzitsuek eragin zuzena izan zutela Arruazuko euskaltzainaren lanean. Argi ageri da, zortzi urteko epe horretan, idazlearen bilakaera. Horregatik, testuak ahalik eta modurik bateratuenean ematearren, hitzen grafiari dagokionez batik bat, urte guztietako lanak berak azkenekoetan erabilitako irizpideetara egokitu ditugu. Hitzen gorputz fonikoak, aldiz, ahal izan delarik behintzat, aldatu gabe uzten saiatu gara, jakinik egitasmo hori aplikatzea ez dela beti erraz izaten, gure kasuan bezala, testu guztiak egilearen bilakaeraren helmugara egokitzea irizpidetzat hartzen denean. Horiek guztiak kontuan izanik, honako hauek dira erabili ditugun irizpide nagusiak:

1) Ortografia

- Hasierako urteetako testuetan, batik bat, erabiltzen duen apostrofoa (') kendu egin dugu: *Arbazu'n* → *Arbazun*, *Guridi'k* → *Guridik*, *Lukas'ek* → *Lukasek*, *New York'en* → *New Yorken*, *Suezia'tik* → *Sueziatik*, *22'an* → *22an*...
- Marra (-) ere kendu dugu: *Arnegy-ko* → *Arnegiko*, *Baxe-nabarreko* → *Baxenabarreko*, *begiratu-ta* → *begiratuta*, *Bortz-hiriko* → *Bortziriko*, *Eskual-Erria* → *Eskual Herria*, *gora-bera* → *gorabehera*, *sasi-jakintxu* → *sasijakintxu*, *Urdiain-en* → *Urdiainen*...
- Onomastikan, egileak emandako izenak eta aldakiak errespetatu ditugu, nahiz eta egungo forma onartu eta arautuekin bat ez etorri. Zuzenketa bat edo beste egin izan dugu, ordea, akats mekanikoak direla garbi ikusten denean;

erraterako, Zaraitzu Ibarrari buruzko artikulua batean beti *Zaraitzu* aldakia erabiltzen du, behin izan ezik. Horregatik, behin besterik ageri ez den *Saraitzu* forma *Zaraitzu* bihurtu dugu. Grafiari dagokionez, izen bera batzuetan erdaraz eta besteetan euskaraz ageri denean, euskarazkoaren alde egin dugu, hala nola: *Enrique* / *Enrike Zubiri* → *Enrike Zubiri*.

Bestelako eraginik ez duten kasuetan, grafia moldaketak sistematikoki egin ditugu. Adibidez:

- Ponte izenetan: *Amagoia* → *Amagoia*, *Amaya* → *Amaia*, *Idoya* → *Idoia*, *Sancho* → *Santxo*...
- Hagionimoetan: *Andra Mary Karmengoa* → *Andra Mari Karmengoa*, *Sanjuan festak* → *San Juan festak*...
- Deituretan: *Elguezabal* → *Elgezabal*, *Etxeverria* → *Etxeberria*, *Lecuona* → *Lekuona*...
- Toponimoetan: *Euskal Erria* → *Euskal Herria*, *Euskalerrria* → *Euskal Herria*, *Gecho* → *Getxo*, *Herriberri* → *Erriberri*, *Oyartzundik* → *Oiartzundik*...

Zenbait kasu berezitan, artikulua idatzitako garaian bizi ziren pertsonen izen-deiturak egileak idatzi bezala utzi ditugu; erraterako, “Urdiain. Gaztetxoentzako” artikuluan.

Izenen aldaerak ere, egileak eman bezala utzi ditugu, hala nola:

- Ponte izenetan: *Aintzina*, *Eneriz*, *Iziar*, *Sebeino*, *Usoa*...
- Izengoitietan: *Lazkau Txiki*...
- Hagionimoetan: *Andre Dena Mari Neketako*, *Gorputz*, *Korputz*...
- Deituretan: *Diez de Ulzurrun*...
- Toponimoetan: *Almandotz*, *Anitz*, *Aoitz*, *Arbazu*, *Arraiotz*, *Barzelona*, *Euskal Herria*, *Euskal Herria*, *Gazteiz*, *Huarte Arakil*, *Iruñen*, *Irurzun*, *Lakuntzeko*, *Lanz*, *Lekarotz*, *Nafarroko*, *Naparroan*, *Oronotz*, *Orriaga*, *Rusia*, *Tudela*, *Urdinen*, *Zangotza*...

— **H** letra. Erran bezala, irakurleari testu guztiak modurik bateratuenean eskaintzeagatik, grafia kontua besterik ez den hitzetan, sistematikoki sartu dugu: *aundi* → *haundi*, *biotz* → *bihotz*, *eriotza* → *heriotza*, *iru* → *hiru*... Grafia kontua baino gehixeago denetan ere, Satrustegi bera, garaiko erabakien arabera, zortzi urte horien buruan aplikatzen hasi zen beste zenbait hitzetan ere sistematikoki sartu dugu, erraterako: *alegindu* → *ahalegindu*, *aztu* → *ahaztu*, *beko* → *beheko*, *gora bera* → *gorabehera*, *len* → *lehen*, *lertu* → *lehertu*, *mai* → *mahai*, *mi* → *mih*, *nasketa* → *nahasketa*, *zar* → *zahar*...

Euskara batuaren lehen urratsetan ohikoak ziren edo egile batzuek erabiltzen zituzten *h*-ak, berriz, kendu egin ditugu: *hauzia* → *auzia*, *hauzokoena* → *auzokoena*, *Herriberri* → *Erriberri*... Halaber, eraman behar ez duten hitzetan aurkitu dugunean ere kendu dugu: *huste gabe* → *ustegabe*, atzera *hala* aurrera egin → atzera *ala* aurrera egin...; eta, azkenik, ez dagokion lekuan kausitu dugunean zuzendu egin dugu: *ohiana* → *oihana*...

— **Re** → *ere*, **ta** → *eta*. Bilakaera hauek argi ageri dira idazlearengan. Hortaz, koherentziaren mesedetan, bigarren formaren alde jokatu dugu: *frango-re* →

frango *ere*, Huarte *ta* Urmeneta → Huarte *eta* Urmeneta, euskal giroa dela *ta* → euskal giroa dela *eta*...

— Beste zenbaitetan ere idazlearen bilakaeraren arabera jokatu dugu. Erraterako:

- **ill** → **il**: *illargia* → *ilargia*, *istillu* → *istilu*, *millaka* → *milaka*, *mutilla* → *mutila*, *ollategi* → *oilategi*...
- **ñ / iñ** → **in**: *añarra* → *ainarra*, *baño* / *baño* → *baino*, *baña* → *baina*, *España* → *Espainia*, *gañera* → *gainera*, *iñor* → *inor*, *iñun* → *inun*...
- **y** grekoa. Hizki hori daramaten hitzetan ere, egileak zortzi urte horietan izandako bilakaeraren arabera, Euskaltzaindiaren egungo arauetara jo dugu: *bertso sayoa* → *bertso saioa*, *deya* → *deia*, *geyago* → *gehiago*, *goyen* → *goien*, *ipuyetatik* → *ipuietatik*, *jayetan* → *jaietan*, *jayo* → *jaio*, *mayatza* → *maiatza*, *Orhy* → *Orhi*, *sermoya* → *sermoia*, *Yainkoa* → *Jainkoa*. Irizpide bera segitu dugu eztabaidagarriagoak izan daitezkeen beste zenbait kasutan; erraterako, *Santiyo* → *Santio*, *seriyo* → *serio*.

Iparraldean erabiltzen den **y** hori, aldiz, *dd* bihurtu dugu: *yantza yauziak* → *ddantza ddauziak*, *yantzari* → *ddantzari*...

Bestalde, **y** letra kenduta izenak silaba bat galduko lukeen kasuetan, ez dugu aldaketarik egin, baina horrelakoetan forma berezi hori letra etzanez eman dugu: *Iyabar*-ko, *Iyabar*-en.

- Zenbakietan ere egilearen bilakaera izan dugu kontuan: *berrogei ta amar* → *berrogeita hamar*, *ogeita zortzi* → *hogeita zortzi*, *laurogeitamar* → *laurogeita hamar*...

— **J** hizkia idazleak erabili bezala utzi dugu: *ajola*, *nijoa*, *dijoa*...

— **Ch** → **tx**, **mb** → **nb**, **gue**, **gui** → **ge**, **gi** eta **v** → **b** sistematikoki aplikatu ditugu hitz arruntetan.

— Idazleak kontsonante herskari baten aitzineko afrikatua frikari gutxitan bihurtzen badu ere, azken forma hau hobetsi dugu kasu guztietan, bateratasun eta koherentziaren mesedetan: *ametsgarri* → *amesgarri*, *ametslari* → *ameslari*, *bihotzkada* → *bihozkada*, *bihotzkor* → *bihozkor*, *ezetzkoa* → *ezezkoa*, *hutskeria* → *huskeria*, *motzkeria* → *mozkeria*, *zugaitzdian* → *zugaizdian*.

— Aldizkarian idazterakoan egindako akatsak mekanikoak direla argi eta garbi ikusten denean, zuzendu egin ditugu, hala nola, *orden* → *ordez*, *beheralakoan* → *berehalakoan*...

2) Letra moldeak (larria, xehea, beltza, normala) eta zeinuak

— Irizpide bateratua segitzearren, honako aldaketa hauek sartu ditugu:

- Letra xehera aldatu ditugu egileak modu batera eta bestera idatzi dituen honako hauek:

– Larriz ageri diren zenbait titulu edo aipamen eta izen nagusi: ENRIKE ZUBIRI GORTARI, “MANEZAUNDI” → Enrike Zubiri Gortari «Ma-

- nezaundi»; MEZA SANTUA → Meza Santua; BORDELIA → Bordelia.
- Zenbait modutara ageri diren izengoitiak: BORDEL → Bordel. Baina izengoitia izen-deituren atzetik doanean, kakotx artean jarri dugu: Juan Etxamendi Larralde «Bordel», Andres Narbarte «Xalto».
 - Hasierako letra larriz ematen dituen zenbait hitz arrunt: Elizatxo → elizatxo, Erretablo → erretablo, Ibaia → ibaia..., eta herritarren izen: Luzaidarra → luzaidarra, Urdindarra → urdindarra.
 - Beltzez jartzen dituen zenbait ponte izen: **Aitziber** → Aitziber, **Unai** → Unai.
 - Etzanez idatzirik dauden deiturak: *Mendigatxa* → Mendigatxa.
- Egileak elkarrizketetako galdera eta erantzunak modu askotara azaltzen ditu. Molde bateratua aplikatu dugu, galdera eta erantzun bakoitzaren hasiera lerro berrian eta gidoi batekin markatua jarritz. Kakotxen artean, eta zenbait hitz moldatu gabe, erantzun eta aipu testualak; adibidez: «bañan bihotzak dio zoaz Euskal Herrira». Bestalde, kakotxen artean, baina letra etzanez eta grafia moldatu gabean utzi ditugu elkarrizketatuen euskalki bateko ezaugarri bereziak ageri direnean; erraterako, Luzaideko Maria Dolores Etxeberriaren edo Urdiaingo Lukas Zufiaurreren erantzunetan: – «*Altsuko gauzak dira oiek! Uste dute Erkuden, Aitziber eta Santa Marina, aizpak direla iruak. Bazen Urdinen gizon bat, Fermin Zelaia, gezurtiya ta jenerua. Nerekin asko ibiltzen zan*» (Lukasen laguna, 50. or.).
 - Halaber, letra etzanez transkribatu ditugu testuetan beste zenbait modutara ageri diren hauek:
 - Herri kantuak eta bertsoak, bai zuzenean entzun bezala jasoak, bai aipu testualak, hala nola, “Maiatz kantua”, “Otxobi tanporrero”, “Pazkuetan alegerena”, “Zaraitzu. Espartzako eguberri kantuak”,... artikuluetakoak.
 - Egileak dokumentu zaharretatik jasotako ponte-izenak, hala nola, “Euskal izenak” eta “Naparroko izen zaharrak” artikuluetakoak, eta herrietako toponimoak, erraterako “Leku izenak” artikulukoak.
 - Zenbait izen berezi: “atxetatupinak” → *atxetatupinak*, “txomin-erne” → *txomin-erne*.
 - Ironiazko hitzak: *jauntxo, jakintxu*.
 - Zenbait esapide: *kanpoan lili, etxean elorri*.
 - Beste hizkuntzetatik hartutako hitz, izenburu eta aipuak. Erraterako: “Artes y Oficios” → *Artes y Oficios*, “torero” → *torero*, “Viva el Bobo” → *Viva el Bobo*, Ogier de Dacia → *Ogier de Dacia*, Requiem → *Requiem...*
 - Liburuen, argitalpenen edo zenbait lanen izenburuak: AMAYA → *Amaya*, “Azpilicueta, el doctor navarro” → *Azpilicueta, el doctor navarro*, “Prosistas navarros” → *Prosistas navarros*, “Príncipe de Viana” / Príncipe de Viana / PRÍNCIPE DE VIANA → *Príncipe de Viana*, “Zigor” opera eskualduna → *Zigor* opera eskualduna.

- Letra beltzez utzi ditugu egileak indar berezia emateko hala idatziak zituen zenbait hitz (**batua, batasuna, ikastola...**) eta baieztapen (**nire ustez, aspaldi eman den urratsik astingarriena hauxe da Nafarroan**).
- Gainerako zeinuak: komak, puntu eta komak, etab. egungo erabilerara egokitzen saiatu gara, betiere testuen edukien arabera jokatu.

3) Hitz elkarketak eta bereizketak

- Grafia kontua besterik ez denean, egungo arauetara egokiturik idatzi ditugu: *ba dute* → *badute*, *ez aldira konturatzen* → *ez al dira konturatzen*, *jayo berria* → *jaioberria*, *hiri burua* → *hiriburua*, *otsegin* → *hots egin*, *erabat zapaldu ta* → *erabat zapalduta*.
- Aipatutako zortzi urte horietan bilakaera izan denean, azken idatzietako formak hobetsi ditugu, nahiz eta hitzaren gorputz fonikoan aldaketa gertatzen den. Beraz, egilearen bilakaeraren helmuga hartu dugu irizpide: *bait da* → *baita*, *bait zan* → *baitzan*, *etzaitut* → *ez zaitut*, *eztakit* → *ez dakit*.
Irizpide hori ez dugu erabili, ordea, egileak azkeneko urteetako testuetan elkarketa aplikatu arren, hitzaren gorputz fonikoan inoiz aldaketarik egin ez duenean: *bai dabilta* → *baidabilta*, *bai da* → *baida*, *bai zuen* → *baizuen*, *ez bai dute* → *ez baidute*, *jakin ta esan zidan* → *jakinta esan zidan*...
- Txikigarriak eta hipokoristikoak bere horretan utzi ditugu: *aitxur lanak*, *berritxu*, *ermitta*, *gutti*, *jakintxu*, *xalxa*, *xorginkeria*, *zittelkeriak*...

ARTIKULUEN BILDUMA
KRONOLOGIKOKI

ETXARRI ARANAZ

Sakanan (Barrankan) beti Sizan da itzal haundikoa Etxarri. Beste herritan ez ziren gauzak ikustera joateko bidea izaten ginuen gaztetatik. Zortzi urte nituela aditu nuen lehenbiziko aldiz *Ama begira zazu* eta, ordukotz, ongi kantatzen zuten Etxarrin! Esan ginezake, egiz, gogoan hartu ginuena: ez zela inguruan *zu bezalakorik*.



Urte asko joan dira geroztik, eta inguruetako jendeak oinetako asko hautsi du Etxarriko bidean: gizonak, hamarretik egiten diren feri eta merkatuen aitzekian; gazteak, igandetan ikasia dutelakotz bidea; haurrak, Andre Mari dela eta; ezkon berriak, etxea jartzeko.

Orai haunditu da, beso luze bat atera zaio Lizarraga aldera. Gizenduz dijoa Al-sasu aldeko baztarrean; baditu eskola berriak eta aipagarri dira urte hauetan egin diren lanak: kale, zine, fronton eta beste. Sakanako *jauntxo!*

Euskera kontuan ez da lehengo Etxarri! Pipia sortu zaio. Nundik edo nola? Ez da gure egitekoa. Guk dakiguna, Sakana jan dezakela Etxarriko harrak. Eta negargarri litzake bere lan txarra.

Zerbait egiten da. Igandetan hasi dira meza bat eskuaraz ematen. Zorionak dani! Iruñen bezela...; Madrilen ere ematen da meza hori. Eta ez da berdin...

Lantegiak (fabrikak) heldu zaizkio, herria gora dijoa, pozten gaitu Etxarriko azal-berritzeak! Jainkoak nahi zala arimak ez iges egitea. Sakanako itzal oneko arbola izaten segitzeko:

*Haurrak ikas zazue
Eskuaraz mintzatzen,
Ongi pilotan eta
Oneski dantzatzen.*

1966, 1, otsaila, 3. or.

ITURMENDIKO HERRIA

Iturmendik, Sorauren eta Doneztebeko Oiz herriak bezelaxe, Nafarroako Diputazioaren deiar adituz beren etxe, karrika, baztar eta etxarte guziak apaindu eta garbitu dituzte. Hona hemen Iturmendiko zatitxo eder baten ikuspidea.

Foto honi begiratzen hau da bururatzen zaiguna: hau bai Nafarra ederra, politta, txukuna. Iturmendi, Sorauren eta Doneztebeko Oiz herrien moduan beste gainerako herri guziak edertuko balira!!

Haurtxo bat dirudi
jaioberri,
hain xuri eta garbi
Iturmendik.

Haurtxo bat, iturri
zaharrari,
nunbaitik etorri
uretatik.

Haurtxo bat, haurtxo bi
eta aurkeri,
ez baidu ekarri
aita-amenik.

Haurtxo maitagarri
Iturmendi,
zengatik ez egin
eskuararik.

1966, 1, otsaila, 3. or.



GITARRA DELA ETA...

Gitarra gora eta gitarra behera, istilu gorria sortua dugu Eskual Herrian. Itxura gabeko borroka!

Donostian kantari gazte batzuk *Ye-ye* eta beste ritmo berri batzuk egin dituztelako beren oihuak zeruan jarri dituztenak izan dira gure artean. Ez da harritzekoa. Eskualduna, berez, hasarre bilatzalea da, eztabaida maite du eta elkar larrutzea ere bai.

Besteak beste, oraikoan gitarrarekin dute holako hoiek beren koropilorik haundiena. Aditzekoak dira hilabete pare hontan esan diranak!

Gitarra, beste gure arteko soinuak bezala, nunbaitik hartua dugu eskualdunok. Baina ez da gaurko gauza. Gaur baino gitarra gehiago zen gure herritan, duela berrogeita hamar urte.

Nire aitaren gazte denboran herritako mutilek bazituzten beren gitarra jotzaleak. Oraindik bizi dira batzuk, nahiz ez gitarrarik jo. Aitonak zionez, berriz, auzo-herritako mutilak edozein jaietan izaten zituzten elkarren arteko gorabeherak. Han esaten ziranak, gitarra soinuarekin lagunduz, kantuz botatzen ziren. Egia da ez zirela beti osorik itzultzen gitarrak beren etxetara eta, behin baino gehiagotan, odola egin zuten norbaiten buruan.

Laurogei urtez gorako gizon bati galdetu diot istilu honen berri. Bere gazte denboran Bizkaiko minetan ibilia baita. Pandero eta gitarra izaten omen zituzten igandetan. Mutilak bost xentimo ordaintzen zuten han ibiltzeko eta emakumeak ezer ez.

Gaurkoa da Eskual Herrian gitarra? Gaurkoa da Iparragirre eta Gernikako Arbola? Hori eta beste gauz asko ekartzen dizkigu gogora gitarra soinuak.

Eta joera berria izanik ere, berdin luke. Gure aurrekoak, mendialde guzitako haizeak hartuz bizitu dira eta beren denboran haize hoiek ez diote galterik egin. Eta bai mesede. Berritzen ez denarendako, heriotza dago. Orain baino lehen ere berrituz bizi izan da Eskual Herria.

1966, 2, martxo, 2. or.

ZORIGAIZTOKO H BAT

Bi aldiz baizik ez da atera *Príncipe de Viana*, eta istilu batzuk sortzen hasiak ditugu gure artean. *H* madarikatu bat agertzen hasi omen da, eta hori ez dela bidea...

Berri ona da, leitzen gaituztelako marka. Euskerazko aldizkari batendako gauza haundia. Bestalde, dena esan behar da, ez zaigu hain pozgarri iduritzen batasunerako duten nagikeria. Goazen piskaka.

Ez zen bakarra jaun harrena, baino bai zorrotz esana. Orai emango diot orduan aditu nahi izan ez zuen erantzuna. Bi alderdiak ezagutzeko, hona hemen bere hitzak, «Zer *h* eta zer zikinkeri!!». Erraz alde jota ere, aski lan izango du euskerak. Esaten ez diren guziak kendu eta kitto!! Erderaz egin behar litzaken bezela...

Utz dezagun erdera alde batera eta goazen gure etxekoarekin orai. Baziren bi anai, bat aberatsa eta non hilik ez zuena bestea. Honek ez zakien zer zen dirua, baino bazuen osasuna. Aberatsak osasunik ez. Beren kisa bizi ziren biak.

—Aizak hi! —esan zion, egun batez, aberatsak—, gaizki gaudek ala? Gure etxearen izen onarengatik elgarretaratu behar diau eta bat egin. Badiat nik dirua, hirekin izango diau osasuna.

—Zer diru eta zer zikinkeri! Ez diat hire beharrik. Erraz alde jota ere aski lan badiak zama eremateak...

Gure asmoa Naparroko eskualdun famili guzitan sartzea da, eta ez inor baztar-tzea. Naparroan bi joeretako eskualdunak bagira: *h* dunak, eta gabekoak. Anaien arteko batasuna nola egin ginezake? Duenari erabat kenduz? Ez duenari lagunduz?

Aberatsaren eskua zabalik dago: *zar* eta *zahar*, bi dira biak; *ari*-k (hilo) eta *aharik*-ek (carnero) ez dute elgarrekin ikustekorik. Berdin gertatzen da *zur* (madera) eta *zuhur*-ekin (recto, prudente).

Eta Erronkari aldean *h* hori gogorrago markatzen zuten. *Hori* (ese), Erronkarin '*kori*' zen; *hemen*, '*kemen*'.

Alderdikari izatea laike erabat alde batekoekin edo bestekoekin joatea. Bide erdi bat badago: bakoitzak beretik eskinak berdintzea. *Artu*, esate baterako, guk *h* bat (eman dezagun bokal artekoa), eta *utzi*, beste alderdikoek, gutxi balio duen beste bat (*urthe*, *senhar* eta modu hortakoak).

Batasuneko bidean pausu bat emana legoke.

Aberastu nahi ez duenak, pobre izateko bidea merke du.

1966, 3, apirila, 2. or.

HERRITAKO TXABOLAK

Bakoitzarendako bere herria bezalakorik ez! Eta etxeak? Etxe berriak egin ondolan, lurpeko zulo beltzak utzi nahi ez dituztenak ere gustora zeuden nunbait beren txaboletan!

Halare, gauzak direna dira, eta ez guk nahi ginukena. Gure artean bezala, badira herri txukun, garbi eta politak eta, bestalde, aurpegia garbitzeak kalte haundirik egingo ez lieken frango ere badugu.

Batzutan egin dira kaleak eta, xelebrekeria, zapeta berriak jantzita, eguneroko arropan, galtzik gabe, festara ateratzen den gizon tresondagarri bat iduri dute etxe gaitxoak. Eta hori aurpegira begiratuta! Bizkarrez, ez ikustea askoz hobe...

Herri askotako bazterrak hobe da, bai, ez ikustea. Oilategi baino axeri-zulo eta, hobeki esana izango litzake. Beti hala izan dira, egia da, inork ez ikusteko eginak ziren. Ifernuko etsaiari ez zaio gogoratzen bide berria handik botatzea! Hura lotsako bazterrak!

Txabolakeri hoiekin zer egin orai? Diputazioak diona: bota. Kendu bide berri baztarreko sutegi beltz, estalpe zahar eta kobakeri guziak. Jende itxuran jarri gauzak.

Bildur naiz, halare, esan horri ez zaiola kasu haundirik egingo eta izango da norbait txabiske berri egiten hasiko dena ere. Odolean dugu aginduaren kontrakoa egite hori...

Hori bai, gure herria bezalakorik ez! Politena, ederrena eta garbiena. Eta gu hitzauntzienak.

1966, 3, apirila, 3. or.

MAIATZA

Lesakako zahar bati adittuketu nion berriki erran xahar hau: «*Maiatza, neskatz ederra biño alferra; otzak eta gosiak illa; bere alkia suari eman ziona, menditik elurra ez ekartzeagatik*».

Ez dakit gure arteko erran honek —edo hobekigo, maiatza euskal izenak—, ikustekorik bai ote duen antzineko erromatarren sinesteakin. Ez dut uste.

Gure Maiatza, *Maia* latinetik heldu ote den erraten dute jakintsuek. Erromatar jentilen sinestean delako *Maia* hau jainko-emazte bat zen. Arrosaz eta liliz apaindu-tako gazte eder baten irudian agertzen zuten.

Biak —Maiatza eta Maia— gazte ederrak. Baino gurea, alferra. Eta ez nolana-hikoa, hotzak eta gosiak hil arterainokoa, elurra menditik ez ekartzeagatik, berotzeko bere alkia suari eman ziona.

Folklore eta Maia-Maiatzaren zalantzako hartu-emanak alde batera baztarturik, jo dezagun aurtengo maiatzara. Neskatz gaztea izan arren, ez zaigu azaldu oraindik ez gazte eta ez eder. Eta bai sorgin-atso zikin, zirtzil, gosetua. Eurria, lainoa eta hotza izandu dira bere lagunak. Karrika-dantza polita gauden urte sasoi berako.

Baino goazen kontuz. Ez da oraindikan hila. Gaztetzen ahal da, bere edertasunak xoratzen ahal gaitu. Agian bai. Bada beharrik bazterretan. Eskertuko genioke. Batez ere nekazariak. Etorri dedila eder eta langile. Lanik aski arkituko du.

Lantxo hau akitu bezelaxe, iduri du gure maiatza hasarretu zaigula. Sekulan bezain argitsu eta pinpirina gaur esnatu zaigu. Erran nahi liguke bezela: zuen kontuak, kontu; ni beti neskatz ederra, nahiz alferra.

1966, 4, maiatza, 2. or.

ULTZAMA EGUNKO EGUNEAN

Nafarroko mendiaren bale ederra Iruñetik 23 kilometrotara dagona. Orain bi urte Lizasoko herriaren salmentari buruz esamesa auniz eta izkribu gehiegi izan zirenian Ultzamako izena mundu guzian zabaldu zan.

Baino, beharrik, ordudanik Ultzama aurrera joaten hasia da.

Datorren udazkenian Ultzamako hamalau herrietako eskolan adineko umientzako Eskolategi bateratu berria lehen aldiz irikiko da, hamar miloi pezetako balioa izanen duena, bale guziko neskatico eta mutikoak, egunero beren herrietatik autobuse-tan eramanik, Eskolategi haundi bakar hontan bilduko dira egun osoan egoteko; bazkari eta guzi bertantxe emango zaiote. Ohitura den ikasketaz gainera, eguneroko orduerdi bateko euskera ikastaldia izango dute Ultzamako umiek, baita soinu eta euskal dantzen erakusketak ere.

Aiuntamendua Arraiz eta Alkozko herrien arteko «lantegietako zelai zabal eta propioa» apaintzen eta moldatzen ari da. Toki honek argi-indarra, ura, eta bideak behar ditu.

Lau lantegi edo fabrika dira Ultzamara etortzeko asmotan direnak. Hoietatik haundiena Frantziako Danone izenezko ongi ezagutua. Esnekiak edo esniarekin eginikako mozkinak egingo ditu. Fabrika honekin esnegintza indartu eta ugarituko da.

Lantegi hauek kanpora joateko jendearen joerako itzaldura ekarriko dute, uste denez.

Ultzamako Abelazkera-Ikastegi bat ipintzeko eginahalak eta urratsak ere emanak dira.

Golf Elkarteak golf jokatzeko zelaia prestatzeko azken lanak egiten ditu. Elkar-te honek turismo delakoaren zabaltzeko lehenbiziko bideak iriki dizkio Ultzamari.

Baino, guzien gainetik, Ultzamako hamalau herri guzietako urratserik onena elkartasuna izan da. Anaitasunak Ultzamari elkar nahia, poza eta indarra eman dizkio. Hauxe bai dela Nafarroko herri eta balle guzientzako gauzarik premiatsu eta beharrezkoena, Ultzama erakusten diguna.

Hontaz gainera, Ultzamako gaztediak bizikera onaren aldeko asmoak ditu. Frontoi haundi, eder, ertsi bat egitea, zine eta beste jostagarri batzuek izanen lituzkena, egitekotan dago.

Alkozko elizan dagon Belateko Amaren beila berpiztu da. Urteoro maiatzaren hamabostgarrenean izaten da eta bi azken urte hoietan gaztediari eskerrak indarberritu da.

Ultzamako Balea, gaurkoan, egiazko eraberritzeko bideetatik ibiltzen hasia dela pozez beterik erran dezakegu.

1966, 4, maiatza, 3. or.

MILAKOTXU

Milakotxu urdindarra izaten zen. Ase baino gose gehiago ikusi zuen bere denboran. Ogi zuria aberatsen gauza baizen, naskia jaten zuen Milakotxuk. Artirinez egindako ogi buruhaundi bati esaten zioten naskia, pobrien janaria.

Hori bai, basoko berri inork baino hobeki zekien, beti han zebilen! Nik uste, beheko basoko axeri eta azkonar guzietan ezagutzen zutela. Sokatik lotuta ekartzen zituena, txakurrak bezala.

Garai hartan hasarre haundiak izaten ziren aldameneko herrien artean, beti burrukan! Altsasuk eta Urdiainek San Pedro basoelizarengatik zituzten beren gorabeherak: altsuarrak haiena zela, eta urdindarrak ebeina. Izatez ere, elizaren erditik dijoa bi herrien muga. Sarrera Altsasukotik du eta Urdingoan aldarea.

Atal gainean badu harri marratu bat, Nafarroko lehenbiziko erregea han egin zutela esaten duena. Hala bada, ez bada, istilu haundiko ermitta izan da beti San Pedro.

Egun batez, Altsasukoko alkateak etorri izan behar zuen Urdiaina, mugarría lekuz aldatu zigogela esanez. Testigu bat da hemen zuen berekin. Urdindarrak ezetz eta besteak baietz, han ez omen zen konpontzeko biderik ikusten.

Milakotxuri hots egin zioten orduan. Gurutzearen gainean eskuak, eta denak agora begira:

—Jainkoaren izenean esan mugarrí hori mugiturik dagon edo ez.

—Ez! —esan zuen Milakotxuk—, oraindo ez duela denbora asko, horren gainen jan nuen nik naskia, bere lekuan dago.

Naskia aditzean, bar egin omen zuen Altsasukoko alkateak, baino urdindarrek irabazi kuestiua.

Gero, Urdingo alkateak lotsaia egin zion gizajoari:

—Zuk zertako esan duzu zer jan zinuen! Esan behar zinuen jan zinuela, baino zer, ez!

Milakotxu naski jale!!

Besteak azpitik: Eta zuek ezin, ni gabe!

1966, 5, ekaina-uztaila, 2. or.

HERIOTZE

Garagarrilaren 22an Erratzuko herrian Jaunaren besoetan azken hatsa emanik, gure adiskide eta apez jaun Blas Fagoaga zerura joan zaigu. Iruñeko Seminarioko erakasle zen Erratzuko Etxebeltzeko semea, duela 69 urte sortua. Goian bego. Baztandarrak euskalzale zintzo bat galdu dugu euskal gaietan jakintsua inor ez bezalakoa eta gure erakasle on izana. Euskal gramatikari ona, berboa edo aditza ongi erabiltzen zakiena eta seminarioko apezgaiei eskuara erakusten zabena. Apez euskaldun berriek harenganik ikasia ez du negurririk izan, lan aipagarria bai zinez.

1920garrengo urtean Lehendabiziko Meza eman zuen eta, apez berri egin ondo-rean, Lesakako herrian egon omen zen, baina han denbora gutti iraganik berehala seminarioko erakasle egin zuten eta geroztik eta orai artio seminarioan egona da.

1933garren urtean *Euskeraren Adiskideak* deitzen zen batasunak eratutako Olerki sariketa batean lehendabiziko saria ardietsi zuen. Olerki hoiek ez dakigu argitaratu ote zituzten, ez dugu hoiien berririk, baina olerki hoiek bai merexi luketela argitaratzea euskalzale guziek eskuara hura dastatu zezaten, tamalgarria litzake olerki hoiek ezkutuan egotea. Erdarazko lanak ere egin zituen eta gai hoietan dabilten jakintsuek Blas jaunaren idazkiak aunitz goresten dituzte.

Baztandar eta nafartar eskualdun guziok nahigabeturik gaude egiazko euskalzale bat galdu dugulakotz, baina hemen gelditzen garenok hil arte jarraituko dugu berak erakutsitako bidetik.

Mezetan mundu bat jende bildu zen, Baztan-Bidasoko apez gehientsuenak han ziren eta bai seminarioko erakasle guziak ere. Elizkizun hunkigarria izan da, meza eta otoitz guziak oso osorik eskuaraz eginik.

Gure doluminak familiari eta otoitz bat arimaren alde. Jainkoak eman dezaiola betiko atsedena.

1966, 5, ekaina-uztaila, 2. or.

ZARAITZUKO IBARRA

Zaraitzuko Baleak hamalau herri ditu: Izize (Iciz), Igarri (Igal), Itzalle (Izal), Gortza (Güesa), Ubelzieta (Ibilzieta), Sartze (Sarries), Galoze (Gallués), Uskartze (Uscarrés), Itzalzu, Orontze, Ezkaroze, Eaurta (Jaurrieta), Espartza eta Otsagabia.

Zaraitzu izen berdinako ibaiak ibarreko iparraldetik hegoalderaino iragaitzen du, Eaurtan aldamentik sortzen den erreka edo ibai txiki baten urak harturik.

Bale honek Nafarroko lurraldeen artean bere nortasuna badu, Baztan edo Erronkariako Baleak bezelakoa. Ibarreko Batzar Nagusiak bere aintzineko eskubide bereziak eta oso bakanazko doaik ere baditu.

Bale eder honen hiri nagusia Otsagabia da, Zaraitzuko herrietan haundiena dena.

Otsagabiko elizak hamasei mendeko erretablo balio haundiko bat du greko-erromano lankeraz egina, eta zilarrezko egikeraz landua.

Otsagabiako begiratzailer eta zaindaria Muskildako Ama Birjina da, eta herritik hurbil den mendi batean kokatu elizatxo batean dagona. Hamahiru mendeko iduria da, erromanozko tankeraz egina.

Zaraitzuko mendirik goiena *Orhi* mendia da, bi mila metrotik gorakoa. Mendi hau lerdin, lirain eta txairoa da, gure anaia den Frantziako Zuberoko euskal lurralderen mugaldean dago. *Abodi*-ko mendi-malloa bale hontan ere da.

Fagadoi ederrak, ariztoi hedatsuak, izadi zabalak, larrak, egundoko lerdioak, bale hontan badaude eta Iratiko oihan (baso) izugarriak ere Zaraitzuko bale zati bat bete eta nausitzen du.

Zaraitzukoak, izatez eta izenez, nafar-menditarrak dira, baino gauza negargarria da hemen gertatzen dena, Zaraitzuko uskara goxoa aintzineko mintzaera maitagarria, mendez mendeko elerranera berezia, kenka txarrean, estualdi gogorrean, hiltzorian dago. Zaraitzukoak, zuen uskara utziko duzue hiltzera?, botako duzue hil hurrengo alde batera?

Nafarroko Diputazioak, eta bere izenean *Príncipe de Viana* Ikasgoko Euskararen Aldeko Sailak datorren urtean Zaraitzuko Ibarreko uskara berarizko denari maitasunezko laguntza nahi dio eman. Zaraitzuko andra-gizonak, jator eta zintzoki bere uskararen aldeko lan hontan lagunduko gaituztela uste zuzenian gaude.

Oraindik Eaurtan, Otsagabin, Eskarotzen, Espartzan, Itzalzun eta Orontzen Zaraitzuko uskaldunak bizi dira, euskeraz mintzatzen, Nafarroko hizkuntzaz xardokitzen dakitenak. Herri batean berrogei urtetik gorakoak euskaldunak izanen dira, beste herri batean damurik hirurogei urtetik pasatziak euskeraz elerraiten gai edo gauza izanko dira.

Ia, bada, denen artean gure euskara gaixoa ez dugun hiltzera uzten, eta Muskildako Ama Birjinak lagun gaitzala gure euskera xaharraren aldeko lan hontan.

1966, 6, abuztua, 1. or.

GIZON HAUNDI BAT

Unamunok zion Akiles gizon haundiak izan dituela Euskal Herriak, hoiengoratzale Homero, idazleak, dituela eskas. Egia esan, bere izen ona aurrera ateratzeko Akiles zaharrak zer egingo luken ez dakit nik, gure artean. Nik dakitena gizon haundien ispiluak baditugula orai berean. Aita Felipe baten izena, izatez Murietakoa.

Ixilian egin ditu bere gauzak. Ixilian ikasi zuen euskera, hots haundiko askok egiten ez dutena. Ixilian idatzia zuen euskaldun berriendako gramatika eta argitaratzeko biderik eman ez duen ixiltasunean, izan ere. Ixilian bere Euskal Herri maitearen aldeko otoitza eta ixiltasunik haundienean bere eritasun latza eta heriotza.

Halare, bazituen ixiltzen ahal ez zituen gauzak: eliza betetzen zuen musika — Aralar gailurreko musikaria—, ez zen ixilkako gauza *Umeen Deia*, ez zen ixilduko euskera aipatzen zalarik edo euskaldun askoren joerak ematen zion mina agertzean, belarritan oihuka ari zaigu bere azken gaitz hortan erakutsi digun Jainko zaletasuna ere.

Bi gauza aipatuko ditut bakarrik: euskal eta Jainko zaletasuna.

Altxueta mendiko haize zorrotzak emana iduri zuen Euskal Herriaren zorigaitza ikusteko begia. Haren begi argiak! Eskola-mina zuen haundiena. Haurrik gabeko etxea —hila, hotza—, iduritzen zitzaion euskal literatura. Haurretan dago geroa, eta haurrak nahi zituen euskerarendako. Ez zituen diruz egin gauzak, bihotzaren deia dira bere orriak:

*Aterako da ahal dugularik,
Ahalko dugu nahi duzularik.*

Sei urtez 65 zenbaki, lau bat mila orri aldian. Ehuneka idazlari txiki eta milaka irakurle euskerari sortzea ez da lan makala. Gaur ezin ginezake esan haur gabeko etxe mutua dela euskal idazkaritza.

Bere eritasunean ikusi dugunok hitzik gabe gelditzen ginen askotan, hain gaitz negargarria ikusita, bera zen orduan gure bihotz txikien astintzale. Noizbait izan balin bazuen heriotza Jainkoari eskatzeko otoitzen bat, gaizki egin zuelako kezkan esango zuen belaxe: «Ez nik nahi dutena, zuk nahi duzuna baizik». Eta Euskal Herria zuen asmoan.

Sanferminetan joan zaigu, bere ezpainetako irritxo ajolagabea itzaltzen utzi nahi izan ez balu bezala. Bere ereintza aberatsaren uzta agertzen hasi dela esaten duen hilibetean.

Hitz gutxi eta egite ugari, hori da gizonaren neurria, gure arteko gizon haundi baten mendi gailurra.

1966, 6, abuztua, 2. or.

EUSKERA ESKOLETARA?

Erein gabe ez dago ezer biltzerik, hori edozein nekazarik badaki. Ez da, beste alde, lanik hoberena lur iraultze eta ereitea. Ihitariak begien aurrean du bere lanaren saria, gari aberatsa. Azaroan ereitera ateratzen den langileak, aldiz, izotza goizetik eta iluntzean eskuak hutsik, zuen hazi pixka lurrari emanik eta bilduko duenik ez jakin...

Haurrak ditut nik orai gogoan eta Euskal Herriko eskolatxoak heldu dazkit burura. Hizkuntzaren aldetik, behintzat, aspaldi erein gabeko esku txarretan dabilen baratze negargarria dugu gure eskolen hau. Haurrak dira edozein herriren lur haustekoa eta guk ereiteko biderik ez!

Egia da zer edo zer egiten hasiak gerala. Ikastolak sortzen ari zaizkigu, bai! Donostian eta bi Iruñen, Pozgarria!! Hiri haunditatik hasi zitzaigun euskera galtzen eta handik hasten zaigu berritzen. Asko esan nahi du gauz honek.

Halare, euskera herri hizkuntza da eta herritan bizi dena. Herri hoietan galduz bezala Euskal Herria hilez joango da. Gure egitekorik beharretakoa dugu aurrera ateratzea. Eta edozeinek ikusten ahal du eskol bakar batzuk han-hemenka sortuz ez dela gure zorigaitza erabat baztertzen, Euskal Herri osoan beren hizkuntza eman behar zaie haurreri eskoletan. Erdara ematen zaien bezalaxe.

Euskaltzaindiak, hots, Euskal Akademiak, eskari hau egin die Espainiako agintarieri. Haurrak bi hizkuntzak eskoletan ikasteko erabakiarekin batean, eskol eta ikastetxe nagusitan ere European den hizkuntzarik zaharrena sarturik ikus nahi lukela agertzera ematen die.

Gai hontan gure Diputazio agurgarriak asko eta asko egin lezakete. Danok batera egin behar ditugun gauzak dira, gure aurrekoen milaka urtez bildutako jakinduria eta izateko modua arriskuan baidabiltza.

Príncipe de Viana batzordearen laguntzarekin Iruñen izan berria den *Symposium* delakoak, gauza asko eragutsi dizkigu. Batez ere hau: nundik hasitako gizon jakintsuak euskeraren gauzetan leporaino sartuak dabiltzen. Ipar Ameriketako eta Rusiako izenak agotan, gure gauzetaz hitz egitean.

Bestalde, berriz, Iruñen Ikastetxe Nagusi (unibertsidade) aipatu bat izanki, Barzelonako Ikastetxearen bidez egin behar izan dira lan hauek. Euskal Herri osoaren amets handia bete zelakoan ginauden, gure unibertsidadea eskutara etortzean. Ikusi-geroak ez duen gure ustea usteletako jotzen; eta ametsa, ametsetan gelditzen...

Euskaltzaindiaren eskeak danon indarra eta bultzada behar ote luke? Galde-era bat da.

1966, 6, abuztua, 2. or.

ORRIAGAKO AMA BIRJINAREN ELE XAHARRA

«*Ibañetako elurren txuria, neguan, eta uda beroan pago beso zabalen itzala!*
Erran nahiaren ezin erranak —zure inguruan—, Orriaga'ko Ama Birjiña.»

Mendi gain ortan zeru zabala, muga gabeko Ama Baten bihotzak.
Zoin apal mendiak eta, gizon ain itsu, Auñamendiko Erregina!»

(Orriaga, sic)

Orriagako Ama Birjinaren istorioa polita da. Hona hemen laburki. Orreagatik hurbil, artzain batzuk beren artaldean zain egoten ziran. Larunbat batez, ilunabartu zuelarrik, basahuntz eder bat oihanetik atera zen, heken aitzinetik zauli pasa eta belardiaren bixkar batean, iturri baten ondoan, gelditu zen, belaunikaturik, zerura begira. Haren adarraje larria argi ederrez argitu zen eta bitartean kantu entzungarria zerutik aditu zen, *Salve Regina* kantu xamurra. Gertaera harrigarri hau zenbait larunbatez berritu zen.

Iruñeko Obispoari adiazten diote, baino ez du berehalakoan sinesten. Aingeru batek gauzez iratzartzen du eta Ama Birjinaren nahia aditzera ematen dio: Orriagara igan dadiela eta gertaera miragarria berak bere begiz ikusi dezala. Eta hala, Orriagara igaten da eta, harekin batean, Nafarroako erregina Andere Oneka ere, jaun haundikiz inguratua. Larunbata da. Belardian, ilunabarrean gelditzen dira. Eta hara, berzetan bezala, basahuntza laister bizian agertzen, belardi bixkarrean iturri ondoan gelditzen, adarrak argi miragarri distiatzen, aingeruen kantua aditzen.

Agerkunde hori ikusi ondoan, Obispo jaunak bixkar hura aitzurtzeko manatzen du eta barna aitzurtuz Ama Birjinaren iduri edo imajina eder-eder bat arkitzen dute, morak etorri ziranean, heken beldurren lurpean altxatua edo... Gertatua? Ele xaharra? Bietatik agian. Nolanahi dela, egia, Iruñeko Obispo Sancho de la Rosa argiak, XIII mendean, Orriagako Ama Birjinarendako jauregi ederra, bere apez zerbitzariendako konbentua, eta beilari edo peregrinoentzat ospitalea fundatu zituela; egia, handik hunat, mendez mende, Orriagako Ama Birjinaren aitzinean argiak eta urreak distiatzen dutela; egia, kanonigo jaunak eta erromesak (peregrinoak) *Salve* kantu xamurra egunero mendez mende Ama Birjinaren aitzinean kantatu dutela; egia, *Ama Birjinaren iturria* edota *Aingeruen iturria* deitzen den iturri xaharra badela...

Orriagako Ama Birjinaren imajina ederrenetakoa da. Ama jarrita ageri da, Haurra besotan, Ama Haurrari ezteki begira eta Haurra Amari irri antxan... Hamahirugarren mendean eгина omen. Jakintsu batek dionez, Orreagako Ama Birjina mende haietako imajina guzien artean munduan den ederrena da.



1966, 7, iraila, 2. or.

MENDIZ

Naparroa luze eta frango zabala da. Napparoko eskualdunak ez hain ugari, eta hauetatik anitzek kanpoan dute beren irabazbidea. Hori edozeinek badaki. Geuren etxetan ikusten dugu.

Jendeak ez dakiena, kanpoan diren langile hauekin herri askotan egiten den lana da. Kanpoan bizi den herriko semea atera ez dena bezain herritarra eta hau baino behartuagoa gerta laike. Ez litzake ama onaren egitekoa seme bat bestenganik berextea. Eta lanbide hortan Eskual Herria ez da ama idorra atera.

1956ko otsailean Frantzi mugako bi apezek argitaratu zituzten, beste anitzen hasiera izango ziren orritxoak. *Luzaide* zuten izena. 32 aldiz itsasoa pasaturik, herriko artzainen beharritan sort-lekuko berriak, bederatzi urtez erein zituzten. Egutegia bestalde.

Hilabete gutxi barne, Baztanko herri jator batek bere aldizkaria sortuko zuen eta geroztik hor datorkigu *Elkartasuna*, Arizkungo berrikerari polita. Azkenaldi hauetan eskuara gehiago sartuz, gainera.

Eta hauek baino lehen, Espaniako gerla aintzinean, Aita Damaso agurgarriak Eskual Herriko artzai guziekin lan hori bera egin nahi izan zuen. Aita Damasoren orriak bizi laburra izan zuten.

Azkenaldi hontan, eta Nafarrokoak aipatzen ditugu bakarrik, izen berriak heldu zaizkigu. Hor dugu Saldiasko jaun erretor jatorra. Ikus berria dut bere *Artzai Deia*. Zorionak.

Mendi lanetan dabilten mutilendako *Mendiz* izeneko orriak ditugu. Eta hau esan nahi nuen gaur: *Mendiz*, Napparoko mendi gizonen aldizkariak, gure *Príncipe de Viana*-rekin bat egingo du heldu den hilabetetik. Erdiko orri bat erantsiko diogu, alderdi batetik Europa aldean lan egiten dutenen gauzeekin eta bertso paperak besterako utziz.

Napar eskualdunen aldizkaria izan nahi ginukela esatean, ez ginuke etxeko se-merik kanpoan utzi nahi! Ez etxez etxe bakarrik, mendiz mendi ere.

1966, 7, iraila, 4. or.



ARTZAI EUSKUALDUNA

Aipamen haundia badu bazterretan artzai eskualduna eta ongi irabazia, naski. Ez dit neri poz haundiegirik ematen. Hor ikusten da aspaldiko duela gure herriak denen mutil izatea.

Belar motzeko ardia bezala, beti munduz ibilia da Eskual Herriko semea. Ezin ukatu. Gure lur gaixo hau ez da aberatsenetakoa eta ezin-biziak, bestalde, denetara behartu gaitu denbora guzitan.

Gure aita-amek Hego Amerika zuten gogoan. Argentina, Txile edo Uruguai, itsasoz beste aldeko baserriak bezala ziren haientzat. Bat geldituko zen hemen, belar motzeko semea, eta besteak Ameriketara!

Baztango jauregi eta indiano etxeak izerdi frangoren berri eman lezakete! Beste askoren izerdiak, berriz, beren hezurrekin han ustelduko ziren —betiko ixildurik—, edozein mendietan.

Gaurko joera Ipar Ameriketara da. Kalifornia izen polita! Idaho eta Nevada heldu zaizkio gazteari beharritara. Eta gero dolarra, zorioneko dolarra! Badira azken urte hauetan Europako bidea hartu dutenak ere. Baino han ere, zoritxarrez, mendi lanetan ez bada, besteak nahi ez dituzten lanetan ibili beharra dute gure mutilak.

Zenbatek senditu ote dute, etxetik atera ondoan, kantuak gogora ekartzen duena: «bañan bihotzak dio, zoaz Eskual Herrira!». Bat edo bestek egiten dute, gehienak ez. Ez baidira han ere txakurrak lukainkaz lotzen!

Ezagutu nuen, nire herrian, hango itzulia egina zuen gizona.

—Zenbat denbora egin zinuen Ameriketara?, esan nion.

—Bi egun eta zenbait ordu.

—...eta nolaz hori?

—Ez bainuen lehenago itzultzeko biderik izan. Nire ustez, ez zen han lanik egiten eta non ikusten ditudan bizkarka gizonak lanean! Erdi larrugorrian batzuk, itsas bazterreko zikinkeriak biltzen besteak... Etxera, etxera! Esan nuen nik orduan. Eta joan nintzan barku berean, Buenos Airestik etxera!

Gure artean gauzak aldatzen dijoaz, beste giro bat sortu da. Atseginez beterik ikusten ditugu fabrika eta lantegi berriak Nafarroko herritan. Gure atzetik heldu direnak izan dezatela orai arte izan ez ginuena: ogibidea.

Aspaldi esana da: *Nire etxe pobrea, erregearena baino hobea.*

Jinkoak argitu beza lehenbailehen egun hura!

1966, 7, iraila, 4. or.

LUKAS ZUFIAURRE

Bada Urdiainen gizon bat... Lukas.

Lukasek Testamentu Zaharreko jakintsua dirudi. Ez haundi eta ez txiki, burua txuri eta begiak argi. Gerritik gora ez du gaitzik.

Hori bai, jakinduriak adina behar du, eta Lukasek adina badu, bere laurogeita bost urteak belaunetara zaizkio jetxi eta ez du orai gazte denborako dantzarik. Hala-re, Jainkoari esker eta erreumatismoaren baimenarekin, geldi bada ere, egunero badabil.

Lukasek Zufiaurre du aitarengandik eta Mendia mundura ekarri zuen amaren aldetik. Amaren aldera atera dela esango nuke nik, Urdingo *mendien* berri ongi badaki. Bere bizimoduak dio erakutsi.

Txerzai lehenik, behizai eta herriko guarda gero, Urbasa mendiko pago eta beheko basoko *Jentilen haitzetatik* du Lukasek bere jakinduri harrigarria. Liburu haundi batek baino askoz gehiago daki. Nik esango nuke, Eskual Herriaren jakintza liburu batean sartzen ahal balitz, Lukas laikela liburu hori.

Lehengo denboretan ba omen ziren gizon hauetatik eta izango ziren, naski. Bestela honek dakin guzia nundik ikasi? Eskualdunen jakite guzia herrikoia da, liburuek lan gutxi eman diote gure herriari. Agoz ago dakigu aurrekoen berri. Gizon jator baten agotik nork daki zenbat jakinduri, zenbat uretako iturri!

Eta adin hortako gizon bat Lukasen adimen eta talentu osoan gure eskutaratzea, bihotzez Jainkoari eskerrak emateko gauza da. Asko da bere ezpainetatik jaso eta beste asko jaso nahi ginukena. Ehun ipuietik gora, esames (refrán) eta gertaerak. Bertsu zahar eta herriko koplak. Eta gehiena balio duena, gutxitan ikusten den bizitasun eta gatz neurrian emanak.

Beste noizbait aipatuko ditugu Lukasen *ixinpluak*. Gaur izena bakarrik nahi ginuen eman. Izena eta bere aurpegia. Bilboko margolari (pintore) haundia den Lertxundik egina dio aurrean duzuen erretratua. Gogoan hartu, Lukas Zufiaurre bezalako gizonak izan laizke, banaka-banaka, gure herritan. Hemendik urte batzutara beranduegi izango da, beharbada. Gure eskutan dago hauen eskual jakinduri guzia ez galtzen uztea. Lukas bezalako gizonak dira Eskual Herriko liburu jatorrak. Hauen agotan bizi da Eskual Herriaren jakintza!



1966, 7, iraila, 5. or.

GURE JOKABIDEA

Naparroan zer edo zer ari gera eskuararen alde. Lan batzuk ageri dira eta beste batzuk ez. Halare, gure jokabide hau aski al da?, galdegin ginezake.

Edozein diru jokabidetan, galtze eta irabazien arteko koxka da, bakarrik, balio duena. Hari begiratu behar zaio. Eta zoin ote da euskeraren aldeko gure lan guzien irabazia?

Askok ez dute jakin nahi. Begien aurrean dut norbaiten erantzuna. Herriz herri gure eskualdunek zer zioten ikusten eta aztertzen ibilia nintzan, *encuesta* gisa lantxo bat egiteko. Asteroko jator eta maitearengatik izan nuen erantzun hau: «Ondo dago lehenbizi gauzak zertan dauden jakitea, baino irakurleak eta eskualtzale gehienak aspertuta daude... artikulu batzuegatik. Horregatik, barkatu, baino nahiko pesimismo badago gure artean eta utzi dezagun gehiago kalterik egin gabe. Jarri erremedioak, hoiek behar ditugu eta».

Bapo mutila!! Ehiztaria ikusita leporaino burua estaltzen duen hegaztia heldu zait gogora...

Gure ustez, ari ginen lanean eta ari gera orai ere! Lehen esana, ez ditut lan mota guziak aipatu nahi. Bihotzez poztu gintaizke beste bazterretan gu baino hobeki ari direla jakitez... halare, kezka hor dago: Gure jokabide hau aski ote da, gaur, eskuara maitearen etorkizunarendako. Edo beste modu batera, irabazian ala galduan ote gabiltz Naparroan?

Eta ez naiz orai mojatxoeren joku txarrez mintzo. Budin kerako maisu eskualdunak ere alde batera uzten ditut. Elizgizonez ari naiz.

Gure herri eskualdunetara apez erdaldunak datozela ikusita, lehendik daudenak elizan erdaraz bakarrik egiten dutela jakitean, gure jokabidea ez dela aski esan behar! Eta ez hori bakarrik, alper-alperrik dela, gainera, egiten den guzia.

Ez dela apez eskualdunik aski! Eta ditugun hoietatik banaka-banaka baztertzen ari! Hamalau, hamasei apez eskualdun baditugu Iruñen. Bizpahiru bai seminarioan ere. Eta orai apez eskualdun gaztea Eskual Herritik atera eta seminariora. Eta kanpora joan zaizkigunak?

Bost duro aurreratu eta hamabost azpitik joaten bazaizkigu, pesimismorik gabe, *errealismo* hotzaren izenean esanen dut ez dela aski gure jokabidea. Euskera hilen da. Hau da gure koxka.

1966, 8, urria, 2. or.

ARTZAI EUSKALDUNAK

Ameriketan gauza haundiak! Esana den bezela. Hots haundiak, behintzat. Zeruan sudurrak sartu nahi luzketen etxe haundiak, bide luze eta mendi zabalak, neurri gabeko aberastasunak, auskalo nolakoazienda mordo eta artaldeak... artzai eskualdunendako!

Lanik aski emaiten zidan, garai batez, Amerika horrek... Han gauza txikirik ez ote? Laneko eta arropa zikinak zer egiten ote dituzte? Mahaiak ez dute izango hautsik, euliak xabona ibiliko dute atzetik, txakurrak ez dute jasoko hankarik... Eta bertsoak! Non ote gose zimurrak aterazten dituen bertso aberatsak? Nik beti esaten nuen Amerikak ez zirela neretako eginak. Haurren gauzak.

Ongi gostaia dut, gero, kezka hauek guziak beren lekura ekartzea. Ez uste izan, dolarren baratzean sartzea hain aisa dela. Bi atari badira, gure kanposantutan bezela, bat haundia eta bestea txikia.

Atari haunditik sartzeko hortzak zorrotz erakutsi behar dira edo ez dago sartzetik. Bestela, badakizu, ikusi eta kanpora, elizan txakurrak bezala. De Gaulle, mutil haundia baita —eta hortzak ere baduzke—, parez pare zabaldu zioten ataria eta beharbada haunditu ere bai! Gero, bere etxera itzuli eta lehenbiziko gauza, sudurreko haizearekin amerikano guziak haizatu zituen. Zer mutila!

Atari txikia hortzik gabeko adiskide zaharrendako dute, ez baidute hozkarik egiten! Haga haundi bat emana du eta nekez zabaltzen da, mesedez bezala. Ez uste izan, han ere nahi duen guzia sar daikenik! Hori bai, atari txikitik sartzten dena txakur bat bezala mendira botatzen dute eta, ez dezan belar gehiegi jan, gainera, han egoteko denbora neurtzen diote. Hortzak erakusten hasteko, beranduegi. Atari txikiko haga haundia han ez balitz!

Ama onaren semeak atarixka hortatik sartzten ikusiak ditugu. Hezurak mendian uzten ere bai!

Artzai batek irabazten dituen 225 pesoak, mahai gaineratik txakur goseari botatzen zaizkion ogi apurrak bezala dira, hango irabazbidean. Zazpi dolar hogeita lau ordurendako! Eta hangoak egin nahi ez duten lana... Gero, New Yorken abiona hartzeko gau batez lo egitea hamar dolar gostatzen zaie.

Eta beste lan bat hasiko balute, poliziak hartu eta, kriminalak bezala hitzik esan gabe, Espainiako bidean ezartzen dituzte.

Azken hontara badirudi zerbait arintzen hasi nahi luketela. Non da bestela Amerika haundi horren bihotz haundia? Beste edozein amaren semeak bezala, nahi badute porruak jorratu ditzatela bizitzeko eskualdun semeak.

1966, 8, urria, 4. or.

OLITE: ERRIBERRIKO GAZTELUA...



Aipatua izana da Erriberriko Gaztelua, Nafarroko Errege-etxe nagusia. Kanpotik ikustera etortzen zirenak, ez zuten aski goratzen ahal! Hona hemen hamabosgarren mendeko jaun aleman batek ziona: «Erregegaia (Príncipe de Viana) bizi zen Olite izeneko hiri goxora etorri nintzan. Hau zen, garai hartan, Nafarroko errege, aita ez bezala, obeditzen baizuten denek». Jende guziekin hasarraturik zebilen beti bere aita. «Serbitzari batek Errege edo Errege-gaiarengana sartu ninduen. Oso gaztea zen. Ongi hartua izan nintzan».

Orai heldu da Gaztelu famatuaz diona: «Serbitzariak barnea erakutsi zidan: segur naiz ez dela beste erregerik hain gaztelu eta jauregi eder, hainbeste urrezko gela eta ganbarekin duenik... Ikusia dut nik eta ezin laike esan, ez eta sumatu ere, zenbatetarainoko ederra eta aberatsa den».

Rusia aldean izaten omen ziren, orduan, errege-etxe aberatsenak eta, gorenaz, hau bezain ederrak izango zirela esaten zen. Gure Erregeak, Auñamendiko bizkarretik Europa aldera begira bizi ziren. Hango haize berrien bolaran, argisenti atsegin bat ikusten zuten. Nafarroak dituen jauregi, eliz eta santuen iduri asko, beren denborako aurreratuenetatik dira.

Errege-etxeke semeak kanpoko eskoletan zebiltzen. Príncipe de Viana aipatu baidugu, Italiako eskola hoberenetan ikasi zuen. Musikari eta idazle bere sendimendu finak han orrestatuak zituen. Latinez, bere hizkuntzan bezain trebe zen.

Delako aleman jaun horrek, zionez, josteta polita sortu zuten, gau hartan, Erriberriko Gazteluan: Erreginaren gelan sartuazi zuten. Han zegon etxekandrea bere neskatxekin. Alemanez ari izan ziren biak. Gero, atera gabe, berek ohitura zuten be-



zala, azken agurra egiteko agindu zion. Obeditzeko, belaunez lurra jo eta eskuan musu eman zion. Eta ez hori bakarrik neskatx guziak banaka hartu eta besarkatu zituen eta haiere ere eskutan musu eman. Hura omen zen gorritzea! Lotsaturik gelditu ziren denak. Gogo txarretik obeditu zuten erregina. Europa aldera begira zegon Naparroa, eta hango haizeak jotzen zuten aurpegian...

Gero, gerokoak. Beste Nafarroko jauregi on guziak bezala hankaz gora bota zuten, eta gostaia da jasotzea. Gure Diputazioak lan ona egin du Errege-etxe xoragarri hau berritzean. Zorionak.

1966, 9, azaroa, 1. or.

ELUR, MELUR

Elur, melur,
Gure etxian baduk
Zapet eta egur!

Elur, melur,
Otso guzien lagun!
Gure bortan bi txakur.

Elur, melur,
Hortzak zorrotzak dituk
Bazka delaik xuhur!

Non haiz, elur?
Hire hortz luziak, non?
Aurten goserik ez duk?

Goien elur,
Eta beherean ur,
Ardiak pozik dittuk.

Gero, mutur,
Joan beharko duk urrun
Iruzkiaren beldur.

Bat, bi, hiru,
Eta hainbeste aingeru
Nire ardien inguru!

Elur, melur,
Eta infernuko debru!
Ez nuk gaur zuen beldur!!

1966, 10, abendua, 1. or.

EGUBERRI

Amets luze bat bezala, hamabost egun aurretik hasten da Eguberri. Haurrerri galdegin edo ikastetxetan ikusi!

Gorostia eta elurra jeisten dira menditik eta odol-dio gaixoak ematen du etxetan lanik aski. Pobre bizi eta aberats hil...

Denda eta bazter guzitan, salgai, turrón eta edari gozo garestienetatik, beren buruak aski ezin erakutsi!

Diru meta haundien ametsak: burua bero eta esku hotzak. Gero, azkenean, hasieran bezala.

Gure etxetan, lege zaharra, hoberena. Supil haundiari etorri zaio bere eguna eta oilar gorri buru harroak kondatuak ditu azken orduak. Badu munduan borrokarik aski egina!

Atsalde erdirako hasiko da aita agotz-arbiak prestatzen. Hain atsalde gutxi dago! Iluntzean izango dute aziendak urribelar goxoenetik saretan eta sudur muturrean irina —arraultze goxoa jan eta garbitu ez den haurrak bezala—. Hauendako ere Gabonak direla, zion aitak.

Ganbarako mahai haundia gauzez betea da. Egurrezko mendi eta harrizko munokak. Paperrezko etxe eta zilar ura. Aitak pino haundi bat hitzeman die eta iluntzean piztuko ditu argiak. Aski luze da ordu arte egon beharra! Amak estalia du Jesus Haurra.

Amona su bazterrean, beti bezala. Mahaia haundiegi heldu zaio jarleku txikia-
rendako. Hortzik ez du eta jaten duenarendako behar haundirik ere ez. Salda beroak barnea pizten dio, gero sagar egosiekin edari goxoa. Gastu haundia dago gaur familintan, lehen ez zen hala. Orduan gutxiegi bezala, oraikoa gehiegi da. Aski lan izango du munduak... Bildur horrekin joan beharra da mundutik amona.

Haurrak loari ezetz esana zioten goizetik. Gauerdiraino gelditu nahi zuten gaixoak. Baino loak ez die obeditu nahi. Begiak erdi idekirik eta burua kokotz gainean..., haien aingeru zaindariak joan daizke, bildurrik gabe, zeruko Gabon-afarira. Egunaz ibiliaik baiziren ametsetan, etorri zaie orain lo egiteko garaia. Haurren gauzak.

Príncipe de Viana gure aldizkariak, atsegin haundia du Nafarroko sukaldeetan sartzean. Amona bezala txokoan bazterturik egongo bada ere, badaki bere etxean dagoa. Euskeraz aditzean poztuko da eta eskutan hartzen baduzue, bietan.

Pakearekin Eguberri
Osasunakin Urteberri
Jainkoak dizuela guzieri!



1966, 10, abendua, 1. or.

SANTI BATEK, ANDERE...

Gau Onetako kantu hau Luzaiden bildua. Baxena-
barren ere egiten dute. Etxez etxe puskaketa ibil-
tzen garai batez, eta orduan kantatzen zuketean.

*Santi batek, andere,
Aurten bezala gerore,
Santi batek igortzen gaitu xingarketa gu ere.*

*Ez gabiltza ederrez
Ez eta ere beharrez,
Kostuma zaharren uztez, erreprotxa beldurrez.*

*Tolos eta Baiona
Jainkoak dauz egun ona
Guri xingarren emaitera jaiki bazinte huna!*

*Ez dugu nahi urdia
ez etare erdia
Usaiagatik, kostumagatik, liberako zatia
Liberako zatia eta gerrenaren betia.*

*Etxian eder gerrena
Etxekandere lerdena
Zureriko eraztun ortaz eros niro Baiona.*

*Etxian eder kortzeiru
Dabiltzanean inguru
Etxe ontako etxekanderia zer emazte plaxenta!*

*Etxian eder ohako
Haurra sortzen deneko...
Etxe untako etxekanderia zaldiz elizarako,
Zaldiz elizarako ta zilar kaderan jarriko.*

*Landan eder ilarra
Haren pean belarra...
Etxe ontako etxekanderia Parabisuan aingeru.*

(Emaiten ez bazuten)

*Goazen, goazen emendik,
Emen ez duk xingarrik,
Etxe ontako gazitei txarrian sagiak umiak azten tik!*



1966, 10, abendua, 1. or.

LUKASEN OGIBIDEA

Lukasek gertaera asko kondatzen ditu. Laurogeita bost urtez hainbeste gauza ikusi eta ikasi daizke munduan!

Ez dira barregarriak istilu guziak. Bere gazten denborako lanbideak nola ziren adituta, irri-karkail gutxi egiten dute entzunleak. Eskual Herriaren zorigaitza aspaldikoa baita, zirritu beltzak ageri dira gure aurrekoen bizimoduan.

Hamazazpi urtetan *Puentenuevo*-ko harzulo eta minetara joan behar ukan zuen Lukasek.

—Hango bizimodua zer zen!! Ez esateko hobe da, goizeko seiretatik, atsaldeko zazpitara lan egiten ginuen. Eta zer lana! Hango kapatazak mandoendako eginak zituzken Jainkoak. Ez zuten hitz bat bestea baino politagorik, beti astokeriak. Gehienok gaixotu eta eri etortzen ginen Bizkaiaitik...

Hitz hauek adierazten dute zirriturik beltzena. Beren etxeok nola bizi ziren esateko, ama baten estutasuna aipatzea aski! Sorra zen eta bere semea minetan gu bezala.

Gau batez, xerriak kurrinka eta erausika nun hasten diren etxean. Zerbait bazela konturatzen eta ez jakin zer. «*Naun gure mutikoa dela*» etorri zitzaion burura. (Beti makurrena pentsatzen!)

—Miel-Anton!, hots egiten dio.

—Ze-e-e-e-r-r-r!!!, iduri aditzen zuela.

—Onez heldu haiz...?

—(...) ixil. Erantzunik ez.

Bihotza punpaka duela, erdi jantzian atarira. «Bainan, bai bildurra!» zion bere baitan, «zer egin behar diau orai, hi gaixotuta!!».

Jeitxi da, ataria ideki du... Ilargi ederra zeruan eta kanpoan izotza. Goizeko hiruak. Txerri hotsa...

—Jesus, Jesus! Zer den sorra izatea! Ustez semea zen eta txerriak erausika... Hala hobe!

Makurrena ez zen egunazko lana, zazpitan afaldu eta, zortzitako, kapataza ondoan:

—Joan behar duk lanera? Ez ginen tentei egoteko gauza eta ezetz esaten bage-nion, kopeta txarra... Gauerdiraindo berriz lanera.

1966, 10, abendua, 2. or.

SU BAZTERREAN

Su bazterrean, supil haundiaren ondoan amets segitera natorkizu. Gaztainak suan balin batiduzu eta hobe...

Eskual Herriko Gau Onak sua behar dute ederra. Ez al da egia? Zer bat ez, baino norbait da gure sukaldetan sua. Surik gabeko etxea hotza da, gorputz hila bezala. Suak bizi du aitatxi zaharra; eta sugarrak berotzen ditu, neguan, haur txikiaren xatarrak.



Suak badu bere hizkuntza. Iduri mintzo dela, zerbait esanahia bezala... Zenbat aldiz egoten ez gira, ixilik, pentsaketan, denborak eta denborak suari begira! Doinu gabeko hitzak.

Suaren begia garbia da eta garbizalea. Bota suari hondar ustel edo ikatz harri beltza. Bera zikindu gabe xurituko ditu denak. Aingeru argia egin zuen Jainkoak sua.

Burdin gogorrenari ere bihotza harrapatzen dio eta edozein iturritako ur negartia bezain guri gorritzen. Jainkoak berak suaren antza hartua zuen Moisesekin eta Mendekoste egunean...

Halare, Gau Onetako sua ez da beste suak bezala. Nire biziko oroigarri gozoe-na egur bat da. Urtero ikusten nuen nire etxean. Egur politenak biltzen genituen sukaldera eta bakoitzak bazuen bere izena. Gero, aitak sartuko zituen sura, norena zen esanaz. Familiako guzien egurrak...

Aitaren anai bat baginuen Ameriketan. Eguberri aurreko astean beti adierazten zigun: «Ez dailela nire egurrik faltatu...». Haren egurrik ez zen hogeitamar urtez gure etxean huts egin. Azken urtean argia zuen elizan...

Hainbeste gauza esan nahi ditu Gau Onetako suak! Amak bere semeak ditu go-goan eta kanpoan direnak gehienik erretzen bihotza. Kanpoan dagona, berriz, etxera begira..., eta bi aldetako garrak elgar jotzen dute egurraren beroan.

Su bazterrean, belarrira esan dizkizutan hitzak, famili haundi bateko haur txikiaren hitzak dira. Urte bat betetzera nijo. Lehenbiziko Eguberriak ditut eskualdun etxetan. Ez nuen uste hainbeste seme genituela falta! Piztu nezake oroitzapen haundi baten egurra.

1966, 10, abendua, 4. or.

OILARRAK KUKURRUKU...

Ez dakit nola, baino aziendak beren deia izan omen zuten Gabonetan. Beren moduan jakin zuten Jainkoa jaio zela. Gauerditan baizan, oilarrak non kantatzen duen:

—Kukurrukuuu! Jesus jaio daaa!

—Nuuun?, erantzun zion idiak.

—Beeleneeen!, ardiak.

Baino nolabeit petral batzuk ez diren sekula faltatzen, zaldiak ez omen zuen sinistatu eta.

—Iii-ji-jiii, barre egin!

Astoak, berriz, hanka luzatu eta:

—Tas-tas-tas..., hiru ostiko bota omen zituen.

Jainkoak denak ikusten baizituen kastiguren bat ematea buruan hartu izan behar zuen.

Baino bada gehiago ere. Errege gaiztoak haurra hil nahi zuela eta, handik ateratzean, mando baten gainean omen ziren Ama Birjina eta Haur Txikia.

San Josek prisa eta mandoari emanka! Mandoa, berriz, bere pausuan. Ezin gauz onik egin. Halako batez, aztapatu mando hori eta lurrera denak!

Orduan Jainkoak mandoa ere begitan hartu omen zuen, eta harrezkero, ez zaldiaren, ez astoaren eta ez mando haragirik ez omen du jan behar kristauak.

Hala balin bada, izan dailela.

Eta ez bada, probetxu dagiela!

1966, 10, abendua, 6. or.

LUZAIDE

Bide luze eta anitz bihurgune, dena mendi, zubi txiki eta botiga; egunaz kalme eta gauaz erne, badakizue orai zer den Luzaide.

Azoletako amuarrain finak gogora ekarriz, Ibañeta kaskotik arraintzan dabilen norbaiten hari nahasia dirudi bide berriak, eta peko zolan, amu xuri bezala, bazterretxeak.



Abilak dira Luzaiden. Nola bizi diren ez dakit. Jainkoak pilota eman eta berek ikasi jokatzten. Elur xuri izanik Ibañetan, kafe beltza badute Donibanen. Ogia balin bada eskas Espainian, Frantzian baditake irina. Hemen iruzki delarik, han itzal!...

Erdara ikasteko ez dute ahantzi eskuara eta anitzak berdin trebe dira frantsesez. Eta zer gauza goxo, extia, Luzaideko eskuara! Manezaundiren hizkuntza baliosa.

Etxean luzaidar, botigetan espainol eta dena *torero* garaztar, Donibaneko plaza-
ra orduko... Etxean jan eta Frantzian lan. Erreka haundiko xoriak bezala oihan zaba-
la dute maite eta ez dute trabarik nahi bidean. Europa aldera idekitako leiho haundia
du Luzaide Nafarroak.

Urzoak ere barne dira hango bizimoduan eta urzo-pasak Gabarbide du izen bat. Zenbat urzo hiltzen da Luzaiden? Ez da aisa jakitea. Hori bai, urzorik hiltzen ez duenak, gezurrez ditu zakuak betetzen eta biramuneko ere uzten. Ihiztari solas.

Urriari ez da lanik Luzaiden. Hankaz gora joaiten dira gauzak. Urzoak dira legez kanpo dabilen kontrabandistak eta luzaidar guziak armadun karabinero. Hango zalaparta!

Besteak beste, txoko polita da Luzaide. Eta garbia. Garbi ditu errekan urak, amuarrainaren begiak bezala. Etxe guziak xuri eta anitz lili, jendea ere untsa bezti.

Txirriskineko urak bezala Frantzira dutela joera? Hortako dira diren lekian... Eta zozoak behar lukete izan bertzela. Lekuan, lekuko gisa, ez da hori bekatu haundia.

Gure aldizkariak gogotik aipatzen du Eskual Herriko txokorik goxoenetako bat. Bertsulariak bezala erranen dugu: Gora Luzaide eta luzaidarrak! Atsegin zaizkizuela gure erranak!

1967, 11, urtarrila, 1. or.

URTE BAT

Oraintxe da gure urteburua. *Príncipe de Viana* aldizkariak urte bat betetzen du. Gaztetxo da, baino makurrena egina du. Horrek bakarrik pozten gaitu. Hasiera eman diogu.

Hasiera guzien neke samaldak izan ditu: nola, nundik eta nora abiatu. Hitzeman eta betetzen ez dutenak. Aditu eta sor egiten dabiltzanak... Hotzak eta beroak. Betiko gauzak.

Ezer ez izatetik hilabetero hiru mila sukaldetan sarrera ona izatera alde handia dagola uste baidugu, neke hoiak guziak ontzat eman ditaizke gogotik. Gainera, ongi etorri eta abegorri izan dugu bazterretan. Deneri esker ona.

Eta etxeokak? Orotarik badugu. Hiru mila izen hoietan ez dira izan behar luke ten guziak. Herri eskualdun maite eta jatorrak aipatu nezazke eskas direnen artean. Zer gertatzen da? Herriko apez eta agintarieri bialtzen zitzairen. Banatu ez dutenak badi dira. Ajola gutxiko gauzak edo... ez dakigu.

Hori ikusirik herritarren edo etxe izenak eskatu genizkien. Nunbait lan handia. Erantzunik ez. Hor ditugu Nafarroko herri eskualdun frango ezin eskuratuak. Eta ez da diru asko gostatzen zaielako.

Lehenbiziko urteburu hontan ikasgai asko atera ginezazke. Ixilik egotea hobe. Jokabide hontan gure asmoa hau da: Napartarren hizkuntza erabat ixildu baino lehen, mintzo dugun guzieren hitz erdi bat adieraztea. Agintariek diotena «hizkuntza xahar hau duela Nafarroak bere aberastasunik haundienetako bat», gure herritarreri esatea.

Orai hasten dugun bigarren urte hau elkartasun haundikoa izan dedilela napartar guzieren artean. *Príncipe de Viana*-k bere orriak idekitzen dizkizuen bezala, nahi baduzue zerbait bialdu, zuek ere beso zabalik hartu dezazutela.

Falta direnen zuzenbideak bi jaun hauetan batengana bialdu daizke: D. Pedro Díez de Ulzurrun. San Anton, 43. Pamplona. Edo bestela: D. Jose Latorre. Diputación Foral de Navarra. Pamplona.

Lan on bat egin dezakegu eta danon egitekoa da.

1967, 11, urtarrila, 1. or.

UR GOIENA...

Ur goiena, garbiena,
Urtezarrak daramana
Itzuliren ez zaiguna...

Itzuliko ez zaigu eta
Berekilan guk joana
Haren baitan ginaukana.

Ur barrena, sakonena,
Amets-zale guziena
Urteberri diotena.

Urteberri diote eta
Izena du berriena,
Negu beltzak gau iluna.

Ur goiena, ur barrena,
Urteberri egun ona,
Pakearekin osasuna.

Pakearekin osasun eta
Jainkoarekin zoriona,
Ondasunen ondasuna.

1967, 11, urtarrila, 3. or.

BELEAK KUA, KUA!

Herodesen bildurrez atera zutenean Jesus Haurra, erregearen mutilak atzetik omen zabilzan. Haiek harrapatzen bazuten galdua zen betiko.

Gari ereiten ari zen gizon bat ikusi eta hizketan hasi izan behar zuten:

- Egun on Jainkoak dizula.
- Gauza bera zueri ere...
- Gari ereiten?
- Hala...!
- Ihitai bat behar zinuke zuk orai.
- Garia erein orduko ihitaia? Jaio behar du lehenik...
- Gure ustez ihitai bila joan behar zinuke etxera...

Badijoa gizona ihitai hori ekartzera. Ez zaio buruan sartzan zer nahi duketen jende hoiek. Itzultzean konturatu da: garia jaio eta hori-horia, ihitaitzeko moduan harrapatu du.

Famili Sandua joan da bere bidean eta nekazariak ez du eskerrak emateko biderik izan.

Handik denboraren buruan zaldizko batzuk agertu zaizkio:

- Aizu! Ikusi al dituzu senar-emazte batzuk beren haurrarekin hemen pasatzen?
- Bai. Aurrera segitu dute.
- Noiz pasatu dira?
- Gari hau ereiten ari nintzan eta elkarrekin egonak gera hizketan.
- Ez da, orduan, gaurko kontua!

Arbol haundi batetik bele beltzak:

- Kua! kuaa! Hor-juak! Hor-juaak!
- Ikusten duk zer dion horrek?
- Etzakela hik horri kasorik egin...
- ...Kua! kuaa!! Hor-juak! Hor-juaak!! —berriz ere beleak—.
- Horrek garbi esaten dik hemen zer dagon.
- Hago ixilik Jainkoaren izenean! Gariak bost bat sei hilabete behar ditik ontzeko. Goazen hemendik etxera.

Erregearen mutilak joan ziren etxera eta Jesus Haurra ongi atera aldi hartan, baino ez bele zaharrari esker!

Orduan erabaki omen zuen Jainkoak:

*kristauarendako ez dela
bele zaharraren okela.*

1967, 11, urtarrila, 6. or.

LEHENBIZIKO URTEBURUA

Urte bat bete du gure aldizkariak.

Diputazioak haste-hastetik ezarritako lerroan xuxen jokatu du. Jakintzaren aldeko eginkizuna du begien aurrean, bihotzaren deia bazterrera utzi gabe...

Ez ginuke, mintzo den lekutan, eskuara galtzen utzi nahi, erdararekin batera aurrera atera baizik.

Bi hizkuntza jakiteak ondore onak ekarriko ditu: eskuara zahar eta aberatsa galdu gabe, gain-maileko ikasgaietan behar den erdara jakin daike. Elgarrekin eskuz esku joan ditezela! Hauxe da gure jokabidearen asmoa.

Gure esker ona idazle guzieri.

Eskerrak izenak eman dituzten sei mila Nafarroko familieri.

Eskerrik beroenak *Príncipe de Viana* elkargoari, buru egiten duen Jose Esteban Uranga jauna eta Diputazioko lehendakari ospetsu Felix Huarte barne direla.

Gure esker on hau Nafarroan eskuara mintzo dugun 70.000 arimen izenean emaiten dugu. Ez ginuke gure hizkuntza ederra galdu nahi eta bai azkartu eta zabaldu, Nafarro zabaleko beste aberastasun guziak bezala.

Nafarroak, bat izanik, ezberdintasunean baidu aberastasunik harrigarriena.

1967, 12, otsaila, 1. or.

INAUTEAK NAPARROAN

Ihaute egun hauetan zernahi ohitura bada gure herri eskualdunetan. Garai batez moxorro eta maska, piper opil eta dantza, mutiko eta neska, izaiten zen nahaskeri bazterretan.

Gaur, ez dira legez egiten ahal. Haurrak han-hemenka, baietz erranen dute, eder zaiela mutikoer gonak jaztea, eta neskatouer gizonen arropak. Gero, ihats eta makilak botako dituzte eta berriz jende, berriz eskolara joaiteko prest.


Baina, joanak joan, bada oraindik gure artean egun hoietako oroigarri franko. Miel Otxin eta Zanpanzar, *Viva el Bobo* eta Luzaideko Bolantak, erran lezakete zerbait.

Eta Luzaide aipatu baitugu, baziren ardi larruan eta andere xaharrez beztitzen zirenak, bazen axeri bat eta otsoa, artzain eta laborariak, beren zata eta xamarrekin.

Etkez etxe ateratzen ziren, soinu eta ddantzari, eta *ddantza ddauziak* egiteko artetik axeria ez zen lo egoiten oilategi eta zoko bazterretan ikusten zuena harrapatzeko. Auzo bakoitzeko mutikoak bazuten beren egun berezia. Ihaute asteartea zen karrikatarrana.

Ez dute izen polita *atxetatupinak*, izatez ere joko trakets eta bortitza da. Bi mutil gaizki jantziek egiten dute besta. Bat larruz estalia eta emakume arropan bestea. Biak sonbel haundi, ator zirzil eta elorri latzekin...

Tanborra beste soinurik ez. Jendea ere ixil. Plazari hiru itzuli eman ondoan hasten da kalapita, eta zer kalapita! *Zarpilak* —trapuzko pilota estua da “zarpila”—, badu non eman. Baten ator puska, bestearen xapela, ardi larru eta elorriak, han joaiten dira harrikan. Erdi buluzirik uzten dituzte biak.



Ihaut egunetako oroitzapenak. Bazterretxe guziak ibili ondoan, ilunabarrean, ardi larru eta gonakeri guziak mutilari kentzeko egiten zituzten *atxetatupinak*.

Hortako erran dugu aintzinean, hoiek guziak mintzatzen ahal balira! Zenbat gauza erran lezaketen!

1967, 12, otsaila, 5. or.

BAZTANGO BALLEA

Baztango Unibersidade eta odol garbiko Ballearen Aiundamendua Iruñeko *Partido Judicial* edo Auzibarrutian dago. Nafarroko ibarretatik jendeketaz eta hedaduraz haundiena da eta Aiundamentuetan hedaduraz bigarrena eta jendeketaz hirugarrena. Baztango Aiuntamenduak hamalau herri ditu: Almandotz, Ziga, Anitz, Berroeta, Oronotz, Arraiotz, Eluete, Gartzain, Irurite, Lekarotz, Arizkun, Erratzu, Azpilkueta eta Elizondo. Ibarreko uriburua Elizondoko herria da. Mugak Erroibar, Esteribar, Anue, Ultzama, Bertizarana, Etxalar, Donamari, Lanz eta mugaz beste aldeko Beko Nafarroko herrieekin dauzka. Baztanzubi ibaiak ballea aldetik aldera iragan eta zeharkatzen du, eta balle hontatik aterata Bidasoa izena hartzen du. Baztan Ibarrek giro ezti eta bare du, euritsu xamar izaten bada ere, goxo eta atseginkorra gehienetan.

Baztandarrak izatez eta mintzaeraz euskaldunak dira. Baztandar mintzaera alai da eta gogoz aitzen dena. Badu euskerazko hizkera honek (euskalki edo dialetoa erderaz esateko) nortasun bat, bereiztasun bat beste euskal herrialdekoek izaten ez dutena. Bonaparte Errege semeak edo Prinzipeak baztandar euskera Iparraldeko Goi Nafarroko euskalkiaren Sailean sartu zuen, mintzaera honek Lapurdi eta Beko Nafarrokoekin bere hartu-emanak baditu ere.

Agur maitekor bat hilabetekari hontatik Baztango agintari eta gizon-andre guzietan igortzen diotegu eskabiden honekin batean: haurrei euskeraz mintzatzen erakusteko, eta euskeraz etxeetan, karriketan, elizetan eta jostetan, ahal duten aldi guzietan hitz egiteko. Baztan haundi eta famatua izan da, oraino haundia dela badakigu eta haundiago eta famatuago izan ditekela eta izanen dela ziur gaude denok, baino euskerari beti, mingainetan erabiltzeko eta bihotzetan maitatzeko, baztandarrek eusten badiote, auniz eta auniz haundiago eta famatuago, aberatseago eta indartsuago izanen da gure Baztango Ibarra. Beti aintzina baztandarrak!

1967, 13, martxoa, 1. or.

LEIRE


Leire ez da izen haundi bat bakarrik. Izatez ere, napar erreinu zahar honen bihotz eta muina izana da. Esan beharrik ez, egun onak eta txarrak, denetatik ikusi dituela bere denboran. Gure herriak bezala.

Hasiera ilunak ditu Leireko frailetegiak, goizeko lainoak estaltzen duen txoria bezala galtzen dira urruanean bere egunak. Hori bai, aspaldikoa da, Naparroan dugun zaharrena. Elizazpian agertu diren harri landuak bederatzigarren mendekoak izan laizke eta zaharrago zimentuak baditu inguruan.

Naparroko erregeak beren begiko ninia bezala begiratzen zuten Leire. Zenbat eta zenbat ondasun haien eskutatik hartuak! Hamaikagarren mendean izan zuen komentu honek bere indar eta izen haundiaren gailurra.

Europa guzitik heldu ziren bideak Santio aldera begiratzen zuten orduan, eta Leirek bere eskutan zituen bai Orriaga, Erronkari eta Somport aldeko ostatuak. Santa Engrazia ere, beste aldean, berena zen.

Nunilo eta Alodia neskatx santuen gorputzak gordetzen zituzten elizan eta Birila, bizardun, txoriaren kantuarekin lokartu zenak, aipaldi frango izan du bazter guzitan.



Denbora haiek joan ziren eta lehengo mendean Leireko eliza polita ardi borda eta artzai txabola bezala hartu zuten jendeak, gure errege izandakoen hezurak hankazpian zabil-tzan eta komentuko paretak lur jo zuten.

Gaur gure Diputazio-ari esker eta *Príncipe de Viana*-koen bidez Leire goratu eta apaindua da. Lehen bezalaxe, otoitz etxe eta bazter paketsu.

Vázquez de Mella-k ziona: Naparroko Eskoriala dela! Ez hori bakarrik, komentu baino gehiago, errege-alki, eliz-artzaiaren jauregi, gudarien gaztelu hormatua. Herri-batzarre nagusien etxe eta eliz-erabakien hartzeko lekua. Eta jakindurizko argi dir-dirtzale haundia!

1967, 14, apirila, 1. or.

AITZIBER

Izen politik balin bada Aitziber da bat Eskual Herrian. Ez *Altzibar*, norbaitek aldatu Inahi izan duen bezela. *Sarabeko haitza* eta ur bazterretako *haltza*, ez dira gauza bera. Urdindarrak badakite oraindik eskuaraz eta Aitziber esaten dute beren aurrekoak bezala. Ongi esana.

Urdaingo beheko basoan du bere kabia Aitziberko Ama Birjinak. Herriko lurrik hoberena ez bada ere, baditu bi gauza *Sarabek* inun besterik ez direnak: *Jentilen haitza* eta Aitziberko Ama Birjina. Biak buruz buru, elgarri begira biak... ameslari, ixil-ixila.

Beste bi gauza ditu galtzen utzi: San Migelen basoeliza eta *Aitziberko plaza*. San Migel erre egin zen eta ez zuen inork ere jaso, *Aitziberko plaza*, berriz, han dago, baino oraiko gazte jendea ez dago han dantzan ibiltzeko.

Aitziberko Andra Mariren mutilik hoberena *Jentilen haitza* dela esango nuke. Negu eta uda, hantxe dago beti haizea kendu edo itzal egiteko. Badu *Jentilen sukaldea*, surik gabeko labe mutua, sinesterik ez zeneko barne hotza bezala eta gain gainean *Jentilen leiho*, harrizko begi-zulo itsua, ezin ikusi duen Ama Birjinari begira.

Ez da izenez bakarrik polita Aitziberko Ama, izan ere, ederretan ederra! Hamalagarren mendekoa izanik, ikustekoa da haren aurpegi gozo eta begiratze zorrotza. Eskuak nun zituen bazekien hura egin zuen gizonak. Jarrita dago bera, ezkerreko bealaunean duela semea.

Haurrak, berriz, *txomin-erne* aurreratu bat dirudi. Ez da onezkoa haren barre egiteko modua. Duen adinarendako gehiegi dakiela esango luke bere amak. (Barkatu, baino hala da).

Aipatua zen garai batez Aitziberko Andra Mari. Frantziatik hasita etortzen omen zaizkion jendeak. Eta ekarri ere bai eskeintza franko. Fededunen eskutatik hartutako behi eta ardi saldoaren zaintzeko, beste egitekorik gabe, emakume bat ibiltzen omen zuten. Eta oraindik ere, *Andre-etxea* esaten dakio elizak alde batetik duen sukaldeari.

Zaharren esana da aldien batez berritu egin zutela eta lehen zen baino motzago gelditu. Handik hasi zela jendea gutxitzen eta gero erabat ixildu. Hala bazen ez bazen, duela urte gutxi izan zuten Madrilen eta garbitu ondoan, zer edo zer luzatu dute.

Aitziberko Andra Mariren izena aipatzean, Eskual Herriak duen aberastasun haundi bat adierazten dugulakoan egiten dugu. Eta zenbat holako gauza jakingarri esaltzen ote dira gure herri txikitari!

1967, 15, maiatza, 1. or.

LUKASEN LAGUNA

Lukasek badaki ongi Aitziberko Ama Birjinaren berri. Altsei eta guarda izana bere lagazte denboran, hamaika aldiz egin du lo Aitziberko *Andre-etxean*. Berak hala dio behintzat.

Su bazterrean dago gu sartzean. Behar denean egurra erretzeak ez dio minik ematen Lukasi. Sanjuanetan ez omen du su beharrik. Betiko Lukas! Bere irri polit batekin jarriazi gaitu.

—Maiatza heldu da, Lukas!

—«*Bai nahi badu. Urteko egunik pobrenak orai dira. Kukua etorri, gosea etorri; kukua jun, gosea jun, esaten zuten lengo gizonak. Eta ori egia da...*».

—Aitziber ere orai ekarriko dugu herrira.

—«*Joan nahi nuke ikustera. Gustora egoten naiz. Lagun onak izaten ginen. Beti an ibiltzen nintzen ta, ondo konpontzen ginen biok*». (Barre ezti batekin esan ditu azken hitzak).

Orai dela urte gutxi berritua da Aitziberko Andra Mari. Gogoan dute herriko jendeak Lukasek egin zion abegorri eta ongietorria. Ezeren begiramendurik gabe aldare aurrera joan eta nola egondu zakion begira!

—«*Lengoa bera zen ikusi nahi nuen. Eta ura zen! Akordatzan zâ nerekin?, galdetu nion. Eta arek ezagutu!!! Barre egin zuan. Pozik etorri nintzan etxera*».

—Lehen zanetik diferentziarik bilatzen diozu?

—«*Bai. Bajutxu txiki bat izaten zen len. Orai altatu egin dute. Nik aditu izan dut, garai batean jende asko etortzen zala Aitziberrengana: frantzesak eta guzti! Gero egin omen zuten, moztu; eta akabo! fedia galdu*».

—Lehen bezala edo orai dago hobeki?

—«*Orai obeto. Gaztelu ta guzti egin dute. Neskatx bat bezala gelditu da! Kurioso, ondotoxo dago. Len musu gorri-gorri batzuk izaten zituen...*».

Lukasen erantzunak bizitasunez beteak izaten dira, bere bi begi txikiak bezala. Asko daki eta orai beste gauza batera goaz:

—Noizkoa ote da Aitziber?

—«*Uuuu! Zoaz noizkoa izango den! Aspaldikoa. Nik eztaikit nola konponduko zen jentilekin, baño jentilak egina izango da etxe ori...*».

—Altsasuarra Santa Isabel esaten diote. Hala ote da?

—«*Altsuko gauzak dira oiek! Uste dute Erkuden, Aitziber eta Santa Marina, aizpak direla iruak. Bazen Urdinen gizon bat, Fermin Zelaia, gezurtiya ta jenerua. Nerekin asko ibiltzen zan. Arek esan zidan, ikus zituela Erduken eta biak Aitziberko pla-*

zan elkarrekin dantzan. Eh! Eeh! Ori re badugu?, garraxi egin ziela. Eta biak bi alde joan omen ziren. (Alakoa zen ura)».

Beste gauza asko aterako zituen Lukasek, baino uste gabe ilundu egin zaigu. Su ondoan irakiten ari den urak beste zerbait eskatzen du eta semearen afaria prestatzen hasi beharko. Ez diogu denborarik galduazi nahi.

Etixerakoan pentsamendu bat nuen bakarrik buruan: hori da, hori, gizonaren fede-dea! Berriz ere barre egingo ez dio Aitziberko Ama Birjinak!!! Lukas balitz munduan nahasiena!!!

1967, 15, maiatza, 2. or.

ALTSASU

Naparroa azal berritzen, gaztetzen hasi dakigu. Idi maltso haundien patxada gozokak, trator mardulen prisa ekarri du; goldez lur zaharra muturkatzeak, tximini luze zorrotzen zeru jorratzea; gauak eguna..., heriotzak bizia.

Bai, gure herriek bizi nahi dute. Eta bizitzeko beste biderik ez, berritu behar. Berritu edo hil. Sortzearen erdiminak berekin ditu berritzeak. Eta askotan zorrotzagoak dira haunditu ondoan egin behar izaten diren sendakizunak.

Hori dela eta, gure herri nekazariak fabrikak nahi dituzte, lantegi berriak. Dirua eskeintzen ez duenak, lurra eman nahi ditu, eta besterik ezin duenak... hitz politak.

Altsasun ez da hala. Aurreko batez alkateak zionez, Altsasuk ez du lur eman beharrik, ez diru eskeintzerik fabrikak sortzeko. Berak, beren buruz etorriko omen dira komeni zaielako. Eta dena da, Naparroko beste herriak esnatzen hasi orduko Altsasu aspertua zela bide hoiek ibiltzez.

Nork ez du aldiren batez trenetik ikusi? Kedar beltza bezain ilun du aurpegia, gau eta egun baditu trenak pixtuka. Eta ez tren bidetako etorkizuna bakarrik, fabrika zombait ere badira Altsasun. Ez behar hainbat! Oraindik berrehun langile aterako dira egunoro kanpoan lanera. Zenbat eta haundiago herria, buruhauste gehiago...

Gero, leku onean dago. Probintzitik gertu eta bide onak inguruan. Trenez ala bide berriz, Altsasun koropilatzen dira Madriletik Frantzira eta Bilbaotik Barzelonara dijoazen bideak. Ibaia badu, beste alde, eta zelai politak ere bai.

Hoieri esker, Naparroan azken urte hauetan gehienik haunditu den herria da. Zazpi bat mila arima baditu eta gora dioa. Erakusketa kontuan bigarren mailako eskolak baditu. Aurrera Altsasu! Nekerik gabe ez dago herri bat jasotzerik, orai Naparroari heldu zaizkion erdiminak, aspaldi izanak ditu Burundako herri nagusiak.

Kezka bat bakarrik daukagu: bere nortasuna galduko ote duen eskualdun izana, ez ote dion Eskual Herriari bizkarra erabat emango.

Lantegi berri eta fabrikak errextasunik eman gabe etorriko badazkio ere, odol hoztuan bere nortasuna berritailerik ez zaio etorriko. Norberak du bere esku, herri bezala, hil edo berritza.

Aupa Altsasu!

1967, 16, ekaina 1. or.

URDIAINGO SAN PEDRO

Urdiaingo San Pedro ez da mundu guzian bezala garagarrilaren 29an, hori Altsasukoa da. Urdindarrak San Pedro ondoko lehenbiziko igandean egiten dute... berena.

Ez da gaurkoa. Bada Burundan, Urdiain eta Altsasuko muga-mugan basoeliza bat zaharra. Harrian markatua du, han egin zutela 717. urtean Naparroko lehenbiziko errege, gure Garzia Jimenez. Asko esatea da, baino atari haundiko harriak hala dio. Gregorio bigarren Erromako Aita Santuak onartu zuela, eta paper hoiek Burundako artxiboan zeudela itsasten dio. Harri marratu hori, 1647 eliza berritu zenekoa da.

Nori bururatzen dakio eliza bi herritako lurtean egitea! Aldarea eta San Pedro Urdiaingoan dira. Sahetseko ataria ere bai. Beste sarrera eta elizaren atzeko aldea Altsasukoan. Bien muga erdian.

Muga batek lurak berexiko ditu, baino eskubideak ez! Batean muga harriak aldatuak zirela, bestean aldarea dela gurea, eta buztana baino gehiago dela burua..., hasarre haundiak ziren bi herrien artean.

Burgosen erabaki zuten auzia. Garagarrilaren 29an altsasuarrendako San Pedro eta ondoko igandean urdindarrak jaun eta jabe... Konponketa polita!

Urdindarrak diotenez, anaiak ziren garai hartan bi herritako apezak, zaharrena Altsasun zen apez eta gaztea Urdiainen. Anai bien arteko bake bidea izan omen zen eta zaharrena berearekin atera. Geroztik, hala dira gauzak.

Urdiaingo herriak egina du bost kilometroko bide berria eta denendako idekia da. Baso zelai ederrak baidira, jende asko biltzen da uda denboran. Altsasuko festa egunean han dira Urdiaingo agintariak eta berdin ondoko igandean altsasuarrak.

Eskual dantza politak egiten dira San Pedroko plazan. Herriko alkateak ateratzen du lehenbiziko zortzikoa eta batasun egokian konpontzen dira bi herriak. Garai bateko burrukak paperetan dira bakarrik eta zaharren esanetan. Jainkoari eskerrak!

Inoiz ahaztuko ez dena, badirela bi San Pedro: Urdiaingo San Pedro eta mundu guzikoa.

1967, 16, ekaina, 2. or.

PEDRO DIEZ DE ULZURRUN, SENDAGILE JAUNA

Nork ez du ezagutzen gure mendi aldeko herri eskualdunetan D. Pedro, Iruñeko sendagile eskualtzalea? Eskual festarik festa ikusi dugu, Diputazioaren izenean haurren sariak banatzen. Eta beti berriz hasteko prest.

Ez dakigu nundik ateratzen duen denbora eta gogoia. Medikutzako lan guziaz aski ez duela, herri agintariekin mintzatu, bertsolariak deitu, festa prestatu, sariak banatu... eta askotan esker txarra bildu!

Eskuararenganako maitasun haundi batekin bakarrik egin daike Diez de Ulzurrun jaunak bere gain hartua duen lana. Hamar urtez bera izan da, ixil-ixila, Naparroko eskual esnatze honen arima. Loari kendutako orduak ez dira hutsak atera. Duela hamar urte baino giro hobea ikusten dugu Naparroko eskuararen soroan. Pozez beterik esaten diogu!

Horri hauetatik, napar eskualdun guzieren esker ona agertzean zorionak eman nahi dizkiogu!

Aurrera D. Pedro! Ekin eta jarrai.



1967, 16, ekaina, 2. or.

ZEZENAK

Azken urte hauetan, gero eta gehiago dira zezen-plazetan sudurrak sartzen dituzten baserritarrak. Ez dena, begi bat gostatzen baida han sartzea. Eta gure galde-
ra hauxe da: gustatzen zaizkie zezenak?

Bai eta ez. Askori galdetu diet:

- 1) Askok gustatzen zaie... zezena. Plaza beteko lepondoak ikusten omen dira eta satorrik ez omen da hain legunik.
- 2) Ez zaie sartzen hango odol ixurtzea. Nola uzten diete animali gaixoei hori egiten? Lanerako ibiltzen ditugun akuiluen txixtak kendu nahi dizkigute eta han...

Artzai zahar batek zion berei egingo liekela harek, bihotzik ez dutela halako gizonak.

Eta ez da eskualdunak besteak baino ahulago geralako, gure joku gehienak gogortxoak izaten dira. Hor dira ahate-festa eta ahari borrokalarienak. Buru eta keme-
nez jokatu behar izaten dira pilota eta aizkora apustuak. Indar saiotan, harri jasotze eta idi apustuak bat ditugu.

Zezen kontuan ere ez gera lo egonak. Naparra zen *Karrikiri* (karrika-idi) odol gorriko kasta eta sanferminetan aspaldikoak dira zezenak. 1692ko zezenak Salaman-
catik ekarri zituztela ikusia dut, orduko paper zaharretan.

Halare, baserritarrari ez die begirik betetzen. Zergaitik? Nik uste, azienda go-
rriak eguneroko lagunak dituelakotz. Aker saioa edo otsoa bizirik larrutzea izan ba-
litz, ez zen hala kupituko eta, beharbada, gustatu ere bai. Baina, idia Eskual Herrian errespeturik haundieneko gauza izan da beti. Idi bati ez zaio hori egiten.

Iruñean Zezenaren Feria asmatua dute. Eskualdunon asmoak sumatu dituztela esango nuke. Gizonak bere trebetasuna abereen kontra erakutsi nahi badu, erakus de-
zala, baino gezurrik gabe, adin eta kasta oneko idiekin, beren adar eta guzti.

Airezko untzien (abionen) etxe batek esaten duena: Hemen, batekin bakarrik dugu zurekin baino begiramendu gehiago, abionarekin. Eta han ibili behar duteneri hori gustatu egiten!

Iruñen ere zezenari begiratzen hasiak dira *toreroari* baino gehiago. Zezenetara joan eta ez ahuntzak ikusi izateko eta, gainera, *toreroak* beren lana ongi balia-
tzeko zer egin badakitelako.

1967, 17, *uztaila*, 1. or.

OSKOTZ

Herri txikia. Bildurra ematen du esateak. Herri txikiak hustutzen ari dira. Pixkaka-pixkaka ixiltzen dijoaz. Mendi aldeko haize goxo finak utzita usai gaiztoko lantegi beltzak nahi ditu jendeak.

Ez. Oskotz bizi da. Erratekotan nago ez hiltzeko bidean sartua dugula. Irurtzundik gora, Imotz Bailaran dago. Ez nintzan inoiz izana. Izan ere, bide nagusitik bazter egiten da.

Txoko polita. Hango berdearen samina!! Belar eta sasi, lizar eta iturri, kolore guztiak egosten dira hango berde zoragarrian. Zahartuta alde egin beharko dute txoriak, han ezin da inor hil. Ez da itsaso geldia lo hotza, hosto bakoitzak badu bere hitza, bere poza, haize finak ematen dion musuaren ikutua.

Baino ez da haizetik bizitzen jenderik. Oskozdarrak badakite hori eta beste zerbait sortu dute. Lurrarekin burrukan irabazten zuten ogia gogorra zen eta gazteak ez zuten herrian egon nahi. Emakume gizonaren uztarriko lagun, sorotan usteltzeko ezin da izan. Lehengo kontuak joanak dira eta ez zegon beste biderik: elkartuta bizi edo hil.

Berrehun arima bezik ez ditu herriak eta, bere txikian, gauza haundia egin digu: batasuna. Denen lurra josi dituzte, hari batek egiten ez duen joscara denen artean egiteko. Koperatiba delako elkargoa egin eta hirugarren urtean dijoa.

Hil dira, bai, hiltzeko hobeak ziren lur muxurkatze eta aitxur lanak. Zalapartaka ari ziren burnizko bular haien sasoi!! Katilu bat esne emateko gauza ez ziren behi idorrek kenduta, esne putzuak sortu dituzte herrian.

Joan daizke gazteak eskola ikastera eta lantegi berriak nunbaitik ekarri, asko da aita etxeko guzien ogia eskuratzeko. Eta ezkondu neskatz gazteak baserrira, zuek amets egiteko denboran sartuko dira leihotik laguntzak.


Oskotz bizi da eta erakutsi du bere bizinahia. Oskotz aunitz behar dira Eskual Herrian.

Zorionak bihotz bihotzetik!

1967, 18, abuztua, 1. or.

ELKARTZEAREN INDARRA

Oskotz, herri polita, Irurzundik Ultzama aldera dago. Berde ziren baztarrak eta atsaldea bero gu ailatzean. Herriko apez jauna deitu eta berak ereman gaitu behitegira, berri jakingarrien sokatik. Behi bat erditzen, beste batzuk ernari. Lan aunitzen ondorea, fruituak ugari.



D. Manuel Rekaldek hogeita hamar urte daramazki Oskotzen. Euri aunitz egin duela errango ginuke denbora hortan eta euri onak. Hemezortzi famili baziren herrian, besteren lurak erematen zituztenak eta gaur denak beren lurren jabe dira. Zorionak bakoitzari bere mailan.

Gaur Oskotz zerbait da Naparroko mobimendu berritan: kooperatiba delako elkargoa sortu dute eta danon jakingarri da beren jokabidea.

—Noiz sortua duzute, D. Manuel, elkargo hau?

—Orai dela hiru urte.

Herritan iritzi batera heltzea zenbat gostatzen den badakigu. Hauxe da, izan ere, herri txikitako problema handi bat. Agotik hortzera ez dira elkarrez fiatzen.

—Nola egin duzute batasun hau?

—Lenbiziko lana, ez ziren etxe guziak sartu. Hogeita sei familitatik, hemezortzi. Ez da gaizki. Gainera berengandik atera zen gauza.

—Eta zerk mugitu zituen hortara?

—Beharrak. Gazte jendeak ez du herrian egon nahi. Gainera nekazalgo txikiak ez du aski ematen. Eta bizi gogorra da. Badira etxealde onak, baino mutilendako da irabazia. Ez du konturik ekartzen mutilez lan egiteak. Ez zegoen beste biderik, soroak utzi edo elkartasunean lan egin.

—Sartu ez direnak zer zioten?

—Garai hartan ez zuten problema horrenik. Famili ona eta bazuten laneko jende. Etxaldeak ere ez ziren txarrenak. Beren buruz baliatzen ziren eta ez zuten elkarztearen beharrik.

Gure aldetik eragozpen txiki bat ikusten dugu puntu hontan eta berriz galdetzen diogu:

—Gaur familia egonagatik, ez al daude bihar edo etzi motz gelditzeko arriskuan?

—Hori bai, baino berek ikusiko dute. Ezin da inor behartu. Errateko baizik ez da, baino hasieran sartu ez zen famili baten lurrak errentan hartuak ditugu orai.

—Eta hoiek ezin dira sartu?

—Sartu, sartu... bai. Gertatzen dena beste gauza bat da: hasieran lurrak sartzen ziren bakarrik eta nahi zuenak aziendak ere sartu zezazken. Baino gaur ume asko egin dute orduko gauzak. Hasieran 30 behi eta 500 ardi baziren, laurogei azienda gorri baditugu orai eta 1.100 ardi. Milon batetik gora balio dute gure abereak. Hiru urtez, hiru barne ideki ditugu okulutako. Tratore eta oruga, diru aunitz sartu dugu makinetan. Lagun berriak, balio horren sari, sarrera ekarri beharko lukete.

—Etxeko behietatik dituzue ganadu hoiek guziak?

—Ez. Patera edo kuerno hoberenak saldu eta txarrenekin etorri ziren guregana. Saldu egin behar izan genituen. Nabarrak erosi eta haietatik ari gera aurrerako ateratzen. Baditugu hamazazpi, urtekoak, eta beste hainbeste bina urteko. Etxekoak dira hoberenak.

Balio zuen, bide medarrak badira ere, Oskotz ezagutzeak. Eskual Herriak badu, beren nahia eta ondasunak elkartu dituzten anai hoietatik zer ikasia. Oskotzek zuen problema Eskual Herri osoarena baita!

1967, 18, abuztua, 2. or.

ZER GERTATZEN DA ESKUALDUNON ARTEAN?

Orai artio, beti uste izan dut azpijatea satorren lana zela, ez gizonena. Beharbada ni izango naiz satorra, gauzak ez ikusteko. Baino oraikoan ikusi ditut. Lurpetik atera naiz, beraz, eta gauzak argi eta garbi esan nahi. Zer gertatzen da eskualdunon artean?

Uztailaren 9an aizkora apustu haundia egin da Iruñeko zezen plazan. T.V. delakoak zabaldu zuen Espainia guzira eta atseginez beterik ikusi ditugu gure gauzak. Eskual Herriko ohiturak bide zabalean sartzen hasiak direla. Hori bera esan ginuen Anoetako azken txapelketako pilota partida tresna hoietan ikusi ondoan.

Uste ginuen —ustearen ustela!—, eskualdunok finak ginela eta eskualdun festak eratzean Eskual Herriari begira ginauzkala begiak. Eta gero non agertzen diren satorren muturkako lanak...

Donosti aldeko haizeak bazter guzitatik kezka baizik ez zuten. Hamabi egur, askotxo ote zen, bero garaia, sari txikiak, sarrera garestia... eta hala. Anoetan aizkolaria belar gainean etzanik ikusi zituztenak nunbait hezurretaraino sartua zuten bildurra. Eskerrak emateko da beren aztapuan ez erortzeko aurrez abisatzea.

Baino bazen besterik istilu hontan. Txapelduna gaizkitu!!! Zer garaiko gaitza! Halare, hotza biriketan sartzea ez da bakoitzaren baimenarekin gertatzen den gauza eta ixilduko ginen beste zerbait entzun ez baginu. Donostiko irratia ekarri zigun berria: Gorritikoak bazuela Astibiarekin apustu haundi bat eta ez zitzaiola Iruñen agertzea komeni. Gainera, sanferminetako sariak ez zirela Anoetakoak bezain onak, eta beste halako zittelkeriak.

Gure gizotasuna hontan dela sinesteak lan du, baino izan daikena! Gauzak errotik jakiteko ofizialki bialdu zuten gizon bat aizkolariaren herrira. Eta egun gaiztoan joan ere. Ez zen biriak sendatzeko moduko denbora, baino Berekoetxea tratoreakin lanean harrapatu zuen...

Ez da gure egitekoa auzi hontan sartzea. Ez dakigu agintariek zer erabakiko duten ere. Eskual Herriari gure harra agertu nahi diogu bakarrik.

Diru kontua? Trapu zikinak esango nuke nik. Sator lana.

Komeni da Eskual Herria mundu zabalaren begitara ateratzea? Bertsolarien txapelketa ondoan esaten ginuen bezala, beharbada hobe ginuke gure miseri guziak sukalde zokoan ixilik gordetzea.

Azpijaten dabilten *jauntxo* hoiek eskualdunon izen onari egiten dioten kaltea begiratu behar lukete. Zer ajola du Iruñen edo Donostian egiteak, ongi egina balin bada? Eta Iruñekoa bai ondo egina zegola, ez eta Donostikoa...

Lehen gutxi gera eta gero gure arteko satorrak... A zer eskual baratzea!

1967, 18, abuztua, 5. or.

MANEZAUNDI

Manezaundi bizi izan balitz aurten beteko zituen ehun urte. Manezaundi erran dugu, baino nork daki, gure artean, Manezaundiren berri? Nunbaiteko *txomin-errero* guziak hobeki ezagutzen ditugu Eskual Herrian gure etxeko jaunak baino. Eta jauna ginuen Manezaundi...

Bere amarendako Enrike zen beti, margol artista bezala Zubiri. Bere ganbaran sartzen zelarik, Manezaundi. Gure *Juan Haundi* bezala da. Baxenabartarrerri erraiten diete *manexak*, Manezttipi eta Manezhaurra... hainbertze bada!

Izan ere, sortzez manexa zen Zubiri. Gerraren atzaparretatik iges joanak, Donibane Garazin ziren hura sortzean bere gurasoak. Luzaide hainbeste maite zuen gizona ez zen Luzaiden sortua.

Bi aldetatik bildua du gure gizonak bere izen haundia, margol (pintura) aldetik eta idazlanetatik. Margolari bezala, Iruñeko *Artes y Oficios* ikastetxeko maisu zen. Hortako, ikasketak Parisen gaindik eginak zituen. Hona nik ezagutzen ditudan zonbait lan:

Azpilicueta, el doctor navarro, hara zer dion berak iduri hontaz: «Nik egin nuen behin aren iduria —Azpilikuetaz mintzo da—, (hori da nere lanpidea, irakurleak) goxoa baizitzaitan, eta ene neurri xumearen heinean ohoratzeko horrekin gure gizon aundia. Ze karrarekin lotu nintzan lanari! Eta Diputazioniak erosirik, han dago yau-regiko gela batian nai duenaren agerian».

Karlos III de Navarra, hau ere Diputazionian.

Jaunaren Bataioa, Luzaideko elizan.

Luzaideko ikusgarria, bere herriko Aiundamenduan.

Luzaideko plaza, Etxepareinean.

Bei nabarra, Goienetxerako egina.

Bestalde, idazlari bezala bere lanak jakingarriak dira. Naparroko gizon haundien aipamenak, oihalean ezar nahi balitu ere, ez lituzke hain sakon eta xeheki erremarkatuko. Herri ohituretan gatza eta bixitasun goxoa dario bere lumak. Eskual Herriko gertakizun eta izakera erabiltzen duelarik jakintsunaren begi zorrotza ageri da.

Egunkaritan anitz idazten zuen. Ez dira bere lan guziak bildu ahal izan. Bilduma ederra A. Irigarai jaunak *Prosistas Navarros* izenarekin egina duena.

Idazkera herrikoia du, Luzaideko mintzaira polita xuriketarik gabe, bazterretxetan mintzo den bezal-bezala. Bada zer ikasia bere erran aberats eta molde berezitan. Lan gutxi, baino mamitsuak.

Ehun urtemuga dela eta elitaike gaizki Luzaideko eskol-etxe xaharrean harri maratuño baten ezartzea. Luzaidarrak hain untsa beren gauzak egiten dakitelarik ez ote dira ideia hontaz jabetuko!! Eskual festa polita egin laike eta luzaidar ospetsu baten izena haize guzitara zabaldu. Denon laguntzarekin konda lezakete.

1967, 19, iraila, 1. or.

ENRIKE ZUBIRI

Gizon haundien gauza txikiak jakingarri izaiten dira. Sartzera dijoan iruzkiaren itzal luzea bezala, haundituz-haundituz joaten dira eta, azkenekotz, gauaren besotan lokaturik, ez dakigu zen pago bat edo oihana. Egunaren erdian izan ez zuten itzala...

Enrike Zubiri «Manezaundi»k, Luzaiden du bere harrobia. Egunkari, idazlan eta paper puska bazen Goienetxeko ganerrian meta ederra. Maria Dolores Etxeberriak daki hauen berri.

—Errazu, Maria Dolores, zer egin ziren paper haiek?

—«*Su eman eta erre. Espaiñiako gerla hasi zelarik ez ginen fida. Eskuarazko gauzak gaizki ikusiak ziren garai hartan*».

—Non zen Zubiri 1936ko uztailearen 18an?

—«*Gure etxean. Berak ekarri zigun karrikatik lenbiziko berria. Izan ziren, beti bezala, bildurra hezurretaraino sartu zitotenak. Egun gaistoak pasatu zituen gizajoak*».

—Zer egin zuen ondoko egunetan?

—«*Baserri aldera jo zuen, aitzurrean egon zen. Hiru lau egunen buruan joan nintzen eta Imitación de Cristo leitzen harrapatu nuen. Enekin jeutsi herrira eta etzakoten hitzik erran. Orduan trankilistatu zen*».

—Familiaren berri jakin nahi ginuke orai. Zenbat anai-arreba ziren?

—«*Sei anai eta arreba bat. Hau serora sartu zen komentuan. Duela urte guti hila da. Enrike zen anai ttipiena eta Bizenta, serora, honen aintzinekoa*».

—Luzaiden sortuak ziren denak?



—«*Enrike salbu, denak. Txikiena sortzean Donibane Garazin bizi omen ziren gurasoak, gerlarengatik iges joanak. Luzaideko sekretario zen beren aita*».

—Zoin etxetan bizitzen ziren?

—«*Gure peko aldeko etxean. Hura izaten zen eskol-etxea. Orai zurgin lantegia dagon lekuan*».

Iruñeko *Artes y Oficios* izeneko ikastetxean maisu zen Zubiri. Ongi pintatzen zuen. Bizpalau kuadro badira Luzaiden eta gure galdera hauxe da:

—Badakizu margola hauen berri?



—«*Aiundamenduan dagona Xabier Zubiri, pentsalari haundiaren anai baten-dako egina zuen. Ezteietako presenta. Gero ezkontza hura desegitean herriari utzi zion*».

—Xabier Zubiri, filosofo handia aipatu duzu Manezaundiren familikoa baita?

—«*Bere anaia Migelen semea. Donostira ezkondu zen anai hau*».

Bederatzi urtez segidan, Manezaundik gehienik maite zuen ganbaran lo egina dut eta ohe berean. Urtero agintzen zien: Beti bezala, Ondarrolako mendi ederrak leihotik ikusten diren ganbaran ezarriko nauzue. Eta beharko ezarri. Hau beste puntu bat:

—Bere izatez nola zen Zubiri?

—«*Artista. Horrekin dena errana da. Eta artisten gauzak... Iruñen etzuen anitz denbora egiten etxe bakoitzean. Etxekoengandik diferentea zen. Erraiten zuen aita-txik etzakola bataioan bere izena bakarrik eman, izateko moduan ere bere urak zituela. Enrike Aguirre jaunak jaso zuen*».

—Konda zinezake istorio zonbait?

—«*Bai gehiago ere. Gau batez okupatiak ginen amatxi eta biok, eta Zubiri franco kexu. Afaldu eta joan orduko non hasten den oihuka: Faustina, Faustina! Fite, etorri fite!*».

—Jesus! Zer du gizon horrek? Erran zuen amatxik.

—«*Lasterka joaiten nitzako eta nun hasten zaidan: Ez. Hi ez! Faustina etortze-ko erran dinat, lipia (araña) badela ganbaran. Eta hantxe, lipia hiltzera joan behar-tu zitzakon amatxiri*».

Zer aberastasuna hainbeste paper erreak izan ez balira! Bere letretan agertuko ziren gauzak! Gelako imarmau bat hiltzeko kuraiarik ez zuen gizonak zer kalte egin ote zezaken munduan?

Baino gerra gerra da eta Manezaundi eskualtzalea. Gaur izan balitz ez genituen erreko —dio Maria Doloresek—, badaezpada, erre genituen eta orai denak joanak. Negargarria.

1967, 19, iraila, 2. or.

UBALDO HUALDE HIL DA

Gaur, nire lanbidetan ari nintzala, txartel txiki bat etorri da nire eskutara. Gurutzea gainean, beltzez marratua, norbait gure artetik joan dakigulakoaren marka. Ez dut berehalakoan ideki, lan asko nuen esku tartean, eta berri txarren jakiteko bada denbora.

Gero, denboraren buruan, idekitzen hasi eta non ikusten dutan Ubaldo Hualde hil izan dela Isaban.

Ohiturik gaude txartel marradun beltzak hartzen. Hala ere, gaur idazteko gogo eta amets zabalak igartu eta lurpean gelditu balira bezala, mendebalak jo du nire bihotza.

Duela bizpahiru urte ezagutua nuen Isaban. Berez Uztarrozekoa zen. Aurten egingo zituen 95 urte. Erronkariko jantzi zaharrez jazten eta bere antzinekoen uskara maitean mintzaten zen. Gazte denborako berri ematean, noizbaiteko mundu xaharra ideki zigun, eta ezin sinetsiz bezala, begiak etsita entzuten nion. Eskualdunak ziren Erronkarin jendeak...



Ez da gizon baten heriotza, herri bat da eskuararendako lurpean sartzen dena. Hau zen Isaban eskuara mintzo zuen hondar gizona. Eta ez hori bakarrik, Ubaldoren txartelako gurutzeak Erronkariko lurralde aberatsak bere itzalarekin hartu nahi balitu bezala, betiko ilunpean, hildakoen lo zorroan sartuak ditugu, gaurtik hasita.

Ubaldo bizi zen artean gure zerbait bizi zen han. Gertakari harrigarriak, haritz kopilatuak kimu berriak aterako zituela amets egitea nahiago nuen, ez eta herriaren heriotz latza begiz ikusi...

Gaur, betiko lanbidetan ari nintzala... txartel beltza.

Udazkeneko hego haizeak hosto arinak haizatzen dituen bezala, Eskual Herriko oihaiek hezurretan gelditzen ari dira. Non dira Erronkariko zugaitz mardulak? Nun gaztain eta intzaurreak? Gaur, ustez lanean ari nintzala, egur hautsiaren ezpal idorrek lehertu du nere bihotza. Ubaldo joan da kimu berririk utzi gabe munduan... eta harekin azken mahatsak.

Egunetik egunera Eskual Herria estutuz dijoa. Itsas bazterreko urak barnera sartzean uzten duen hare-lurreko idazkera eta marka, eskual kutsua izango dute etxeak, soroak eta mendiak, odola ere eskualdun. Baina bihotza hila eta mihia betiko mutu. Erronkari eskuararendako joana...

Nork daki zenbat hitz eta gauza harrigarri eremango zituen berekin Izabako azken eskualdun maiteak!

Gaur, lanen artetik, otoitz egin dut: Jainkoak barkatu dezala Eskual Herriaren bekatua. Bihotz minak ere zerbait balioko ahal du guziaz dezakenaren aurrean. Amen.

1967, 19, iraila, 5. or.

EZKILAK

*E*zkilak entzun eta ez jakin nun, esaera zaharra da. *Iyeb*ar-eko ezkilekin ezin da hori esan. Txiki edo haundi, *Iyeb*ar-eko ezkilak agotan dabilta, entzunak dira. Itsasoz haruzko aldean ere jakina dute ezkil jotzaleak norgehiagoka ari izan direla Napparoko herritxo batean. Gauza zaharren giro berria.

Badakit, bizi izan balitz, negar egingo zuen bat. Banuen nik osaba, Buenos Airesko organo haundian Arbazuko ezkilak jotzen ibiltzen zena. Eta bai joazi ere! Berak hala zion behintzat. Itsasorik izan ez balitz bezela, Aralar mendia ikusten omen zuen eta bere amarekin hitz egiten. Haur denborako ezkilen soinua!

Gogorra da ezkilekin gertatzen dena, egunero entzuten ditugu eta ez gera konturatzten. Baino ixiltzen diren egunean, zer hutsa herrian! Ostiral Santu eguna bezela, ezkilik gabeko herriak, herri ilunak dira. Osasunarekin gertatzen dena, behin galtzen duenak daki ongi osasunaren berri. Eta ezkila estimatzeko ez da lehertzea bezelakorik, hura zen hura ezkila! Herrian urtua eta, beste burniekin batera, gure aurrekoek emandako urrea zeukana!

Halare, sorterriko ezkilaren soinurik finenak herritik kanpo bizi den semeak entzuten dituenak. Hil arte berekin daramazki.

Bakoitzaren lagunik hoberena, herriko ezkila. Norbait hil balin bada, hil-ezki-lak, otoitza. Aita-amen hil-ezkilen samina!

Herriko festak direla eta, bezperatik lehenbiziko soinulari ezkila. Gero, ardoa eta tanborra, hotsak.

Argisentian geldi, bakarka, iruzki berriaren ateratze ixila ez hausteko bezela. Suarekin, tarrapatan, prisaka. Eta harri-erauntsitan, konjuroa. Eta herriko gizonak bartzarrera biltzeko ere, ezkilak.

Nik ezkilendako toki bat asmatu behar izan banu, eliz-torrea egingo nuen. Goien-goienean, merezi du eta.

Gaur, sokak hautsi eta erlejuzko ezkil jotzeak asmatu dituztenean, *Iyeb*ar-en norgehiagoka polita sortu digute. Zahar eta gazte, hamabi ezkil jotzale inguratu zaizkie. Eta politena, bi emakume.

Munduko jendea ba omen zen! Azkenean telebista ere bai!

Bi gauzek poztu naute, gazte batek lehenbiziko saria ateratzeak, denetan gazte-ena zen Tomas Ganboa, *Tomasiko*. Eta bigarrena, Arbazuko ezkil jotzaleen esku ona —aspaldiko eskola—bizi dela jakiteak. Pozez negar egingo zuen, bizi izan balitz, nik dakiten harek.

1967, 20, urria, 1. or.

LAKUNTZA

Izan zen denbora bat, gure aita-amen denbora, herriak elkarren artean burrukan ibiltzen zirena. Zenbat aldiz mutilak, festazale, kiterrak bizkarrean zituztela aldame-neko herrian sartuta, norbaiten buruan hautsita atera! Hori bai, hankak arin behar zituzten iges egiteko. Orai bezela, orduan ere herriak begirik ez eta harrika bialtzen zituzten beren etxetara.

Garai hartan Lakuntzeko Pertza aipatzea hasarre-bide ona bilatzea izaten zen. Ez da ezerengatik, baino lakuntzarrak ez zuten ongi hartzen. Zoaz zer iduritzen zitzaien!

Aralar mendian piztu zen sua. Asko ziren San Migela igotzen ziren herriak. Hartuak zituzten beren egunak eta, ez baita esana urtero denbora ona izango zutela, borda antzeko barne batzutan bazituzten beren sukaldeak. Han dago bat, *Lakuntzetxea*.

Baino lakuntzarrak bazuten ohitura berexia, herrian prestatu eta denendako tripotak erematen zituzten, salda bero batekin barneak berotzeko. Beste herri batzutan ixuna (multa) botatzen zieten joaten ez ziren guziera. Etxe bakoitzetik batek behintzat joan behar izaten zuen. Beldur izateko zen prozesiorik gabeko urtea! Beti herriaren bildurra...

Urte batez, lakuntzarrak ez zuten tripota jaterik izan. Asto edo mando, dena dela, minetako bide txar hartan aztapatu eta hankaz gora zamaria. Alde batetik pertza eta bestetik tripota, zein beren alde malkorra behera! Akabo festa!

Zer pentsatu behar zuen halakorik Huarteko errotariak. Zer demontre gerta zaikeen ikustera ateratzen da eta lehertu hadi hantxe tripota! Begia galdu eta aurrera gizona.

Hala bada ez bada, Lakuntzeko Pertzaz hitz egin behar garai bateko lakuntzarreri!! Gutxiagorengatik besotan norbait ikusia izango du hango urkamendiak!

Hala ziren lehengo kontuak. Gaur ez da herri arteko burrukarik, mutilen artean ere ez kiterrik. Herriak porlanez hartuak dira eta ez dago txakurra ere uxatzerik. Herri guzia San Migela igotzea, pentsatzerik ez! Lehengo ohiturak, txar eta on, galtzen joan gera, ardo guzia eman duen zagia bezela zimurtzeko arriskuan gaude. Errex da galtzea, eta gero zer?

Lakuntzan erakutsi digute bidea, gure aurrekoengandik hartutako gauz onak, aurrera atera eta berriekin aberastuz joan. Biltoki apaina ikusi dugu izen zaharrarekin bataiatua. Eta lehengo denboretan bezalaxe, San Migeleko bidean gazteak, baino zaharrak autobus ederrean hartuta...

Ez, ez dira gehiago lotsatuko lakuntzarrak Lakuntzako Pertzaz. Eta ez dira horrengatik jende atzeratuak, ikasiaren jokabidea da baztatuak diren urte zaharrak argira ateratzea. Gure ohitura jatorrekin batera euskera eta eskualdun nortasuna.

Gazte jendearen eskutan dago Eskual Herriaren etorkizuna. Zorionak!

1967, 20, urria, 1. or.

LAKUNTZEKO PERTZA

Uste gabeko joku politarekin atera dazkigu oraikoa lakuntzarrak. Beren ohitura zaharretan aspaldi lo zegoen Lakuntzeko Pertzaren gertaera berritu dute, aurtengo udan, San Migelgo bidean. Naparroaren esnatze gazte hontan asko esan nahi duelakoan gaude, eta gogotik ematen dugu berria.

Ilunabarra Lakuntzara orduko. Atari gehienetan bada jendea. Zine eta festa-leku, etxe eta plaza, nola berritu den urte hauetan Lakuntza!

Aste erdia izanik, ikusgaia badute zineman. Ostaturik ez da gaurko egunean, argi eta gorri, hain eder egiten dituzte!

Bi gauza arkitu ditugu, ezagutzen ez genituenak, gazte taldetxo bat bizinahia, ernea, eta beren biltoki atsegina. Hari pilotaren hasiera eskutan ginuela idurituta.

—Zenbat zerate elkarte hontan? galdetu diegu.

—Hogeita bi.

—Noizkoak zerate?

—«Duela hiru urte hasi ginen; baño pixkaka joan gera. Ez ginuen itto nahi. Bestela, aurtengo udan bedeinkatu dugu barne hau, eta esan daike, aurtan atera gerala jendearen aurrera».

—Zuen asmoak?

—«Egia esan, iñoren trabarik gabe gustora ibiltzeatik bildu gera. Deporte kontua, batez ere, asko gustatzen ta... jende asko dagon lekuan badakizu zer gertatzen



den. Hemen ez digu inork erretzen. Gañera, hartzen ditugunak ere merkeago ateratzen dizkigu gure alde ekarrira. Eta batez ere, geure etxean gaude nahi duguna egiteko...».

Konturatu naiz gizonendako bakarrik dela. Berek ibiltzen dituzte untziak eta berek garbitzen. Ez dakit zer esango duten etxekoandreak. Besteak ez dute istilu horrenik oraindik...

—Aurtengo udan egin duzuten festa hortaz jakin nahi nuke zerbait.

—«Bat-batean ateratzen diren gauzen kontua: pentsatu ta egin. Lakuntzeko Pertzaren bidea egin behar diau, —esan ginuben—, baño berandu zen eta autorik ez ginuen harrapatu jai hartan. Gero, bestean bai».

—Automobila esan duzu?

—«Bai, zaharrendako. Besteak, asto ta guzi, oiñez joan giñen gorafio. Ikustekoa zen Martinen astoa pertza alde batetik, eta ardoa bestean! Eztuela hainbeste jende bere atzetik sekula ikusi!!»

—Norbaitek esan du zaharrak erematea, denbora batez adituak zituzten guzien gusto txarra kentzeko bezela egin duzutela. Egia da?

—«Gu ez gera hainbestetaino aillatu. Gañera ez ginuen betarik ere. Bide berria badago ta zaharriero gusto hori emateatik... Eta hain denbora ona izan ginuan!»

—Berriz ere egiteko prest!

—«Bai, Jainkoak nahi badu! Aguztuan, Ama Birjina ondoreko jaietan».

Pozgarri da lakuntzarren jokabidea. Orain arte gure gauzetan nahiko lotsatu gera eskualdunok.

Futboleko mutilak pertzaren gainean erakusten dute beren balona. Hogeita bi lagunek sukalde on bat nahi eta non sortzen duten Lakuntzeko Pertza. Azkenean, apez berriari ere argitu baino lehen sokaz ereman zioten, pertzean, lehenbiziko baru haustekoa. Goizeko bostak eta herria kantari. Ez ote da urte askotako lo zorrotik esnatzea?

Lakuntzeko Pertza gerta laike gure nortasunaren konzientzian odol berritze bat. Edo bestela gezurra. Aupa mutilak!

1967, 20, urria, 2. or.

EGUTEGIA

Gau Onak...

Urtezaharraren hondar egunak.

Lodi zen hasieran
Emakume betea bezela
Egutegia
Asmo luze eta dena ametsa.
Urte baten hari luzea!
Iduri betiko zela...
Gero

Negu eta bero
Piskaka
Banaka
Zimurtuz joan dira egunak eta gauak
Eta udazkeneko
Orbela
Bezela
Haizatu ditu abenduak.

... azal hustua
Sukaldetan
Zintzilikan
Egutegi mardul zenaren larrua.

1967, 21-22, azaroa-abendua, 1. or.

AITAXO

Su baztarrean
Pentsaketan
Erdi lo,
Aitaxo.
Hainbeste gauza lituzke esateko!

Bere negua
Nahiko ez zuela
Gainean,
Hotza du hezurretan
Sartua,
Zahartu nahi eta
Zahartzeak bere ona galdua.

Belauna
Nagi
Geldi,
Su ondolik ezin mugi,
Izar gabeko gauaren iluna
Begitan loditu,
Gorritu...
Badu nahiko
Erdi lo
Egoteko
Aitaxok.



*1967, 21-22,
azaroa-abendua, 1. or.*

PAKEA

Gau Onak eta pakea, elkarrekin aipatzen dira. Jainkoak berak, lehenbiziko Gau Onetan zerbait haundi eta eder aipatu nahi izan zielarik artzaieri, hitz hauek esan zizkien: Aintza zeruan Jaungoikoari, eta pakea lurrean haren gogoko gizoneri!

Baino nork daki pakearen berri? Bakoitzaren bihotzean sortu eta herriz herri, etxerik etxe mundu guzira heltzen den pake horren berri?

Gogoan dut haur txiki baten ateraldia, gerrako gauzetan ari zen bere aita. *Frenterik* txarrenetako batean gertatu zen lehenbiziko *Eguerritan*.

—Aurre-aurrean, lekurik gaiztoenean ginen —zion berak—. Ikaragarritzko hontza egiten. Egun haietan guzitan ez ginuen surik ikusten. Nola? Nere etxeakoak nituen gogoan:

—Joan behar diat zerbaiten bila —esan nien lagunerri—. Gau Onak egin behar ditiau!

—Hago ixilik, ez diau hemendik ateratzerik eta..., bertan garbituko haute.

—Hala bada, esan etxeokeri gau honetan joan naizela.

Bide luzean arrastaka ibili ondoan, egin du berea. Denboraren buruan nun itzultzen den oilaskoz, turroiz eta edariz beterik. Lagunak harrituak dira. Ez da tiro bat entzun gau guzian. Ez zaketen sinets.

—Zertako ditiau surik gabe oilaskoak? Egin zagon sua!

—Hi ez hago burutik ondo! Azkeneko gaua izango diau...!

—Bai nahi badu; Gau Onak bapo egin eta zerura!

Su hori egin dute eta inun tiro bat ez. Elkarri begira jarri eta ez dakite zer pentsa...

Halako batez, beste alderdian nun pizten duten berek ere su bat ederra!!

—Nungo aingeruak esango zinuen zuk etorri zirela han pakea ereitera? —galdetu ziran gizonak—. Eta ni ixil.

Gero bost urteko haurrak:

—Aita! Oso kontu polita da. Baino zergatik joaten dira gizonak beste gizon batzuk hiltzera? Ez litzake hobe izango otso gaiztotara joatea?

Bost urteko haur txikiak gehiago daki Jainkoaren pakez han ginen guziak baino. Ez baida pakea ordu batzutako tiroak ixiltzea, gero berriz hasteko asmoan, ez azaleko ongietorria, barnez elkar ezin ikusiz bizitzeko...

Jainkoaren pakea, artzai umilen pakea, haur ttipiena, bihotz oneko gizonen pakea. Eta bestela Vietnam, Palestina edo Kongo. Ordu batzutako pakea harturik ere, pakerik ez munduan.

1967, 21-22, azaroa-abendua, 1. or.

ZIGOR OPERA ESKUALDUNA

Noiz ikusi da Iruñeko jendea zazpi minutoz esku-zartaka teatroan? —zion nire aldamenean *Zigor* entzun ondoan norbaitek—. Eta egia, zazpi minutoz nahiko lan izan zuen Heinz Walberg jaunak napartarren txalo beroak zuzentzen. Izerditan egin zituen lau-bost ateraldi eta, azkenean, Escudero jaun musikalaria haundia ekarri zuen berekin. Soinulari eta kantari, egile eta zuzendari pozik balegozke Iruñen ukan zuten agerraldi hortaz.

Etxeko gaia ginuen. Egi edo erdi egi, Campión haundiak bildu eta Lekuona jaun euskaltzainburuak eman digun gaia hauxe da: eskualdunak zortzigarren mendean beren errege Santxo Garzes izendatzea.

Denbora nahasi eta ilunak. Gure herria etsaiez inguratua. Buru bat behar eta errege bila dabilta. Aibarko Gartziazen seme zen Santxo Ttipia, berez errege beharra.

Baino sortu berrian nahasten hasiak ziren gauzak: Zunbeltz, hauraren osabak, izan nahi errege eta Santxo Ttipia hiltzea erabaki zuen. Eta hilko zuen, Urdaspal zintzoarengatik izan ez balitz, honek bere semea erregearen ordeztu eta bizirik atera zuen Santxo Ttipia.

Urteak joan eta urteak etorri —baserrian zen arte hortan mutikoa—, aillatu da errege izendatzeko garaia. Urdaspalek ez bada, inork ez daki gertaera honen berri. Ez Santxo berak ere.

Gauzak gehiago nahasketan sartzeko, haur hiltzalearen alaba Lore da, Santxo gaztearen andregai. Zunbeltzek bere burua galdurik ikustean ezpataz garbitu nahi du Urdaspal. Alaba sartzen da bien erdian eta, bero hartan, aitak hiltzen du bere alaba.

Naparroan askok jakin balute gai honen berri ez ote zen leporaino beteko Gaia-rrer guzia? Eta ez zen bete, gutxiagorik ere. Garesti zen, egia da. Baino bost milonekin atera dute aurrera Bilboko opera gauzen adiskide batzuk. Hoietatik zenbat esku-ratuko dituzte?

Hutsak aipatzeko garaian, egunkariak ez dutela behar bezala zabaldu esan beharra daukagu. Kaletan itsasi zituzten agiriak ere ez ziren ongi eginak Garaia etorri eta inork ezer ez zakien, orduarekin ere bazen bere iluntasuna. Joan ginenak, galdetu ginuelakotz... Eta hori gaizki, oso gaizki dago. Gure gauzak behin lagundu behar eta naspila.

Hori bai, nunahi emateko on da idazlari eta musikariak *Zigor*-ekin egin duten lana. Dakitenen iritzian, opera onen ondoan jarri omen daike eta Europa guzian entzunarazteko asmotan dira. Berri ona Naparroaren eta eskuararendako. Lehen mailako musika on bat dela eta, gure eskuara maitea ere entzuna izango da baztarretan. Eta urrilaren 16an Gaiarren ginenak ez dugu berehalakoan ahaztuko.

1967, 21-22, azaroa-abendua, 2. or.

NATIBITATE GABEA

Eskual Herri osoa, norgehiagoka ari izana da Jesus Haurrari kantatzen. Gaur txoko anitzetako kantiak ixilduak dira. Erronkari eta Saraitzu, Aiezkua eta Arakil erabat ixilduak ditugu eskualdun kantuetan.

Hemen ekartzen ditugunak Otxagabin (Otsagin) bilduak ditut. Entzun bezala emanen ditut:

*Verbum caro factum est
Maria beti Birjine,
Verbum caro factum est
Maria Birjinanganik.*

I

*Kristo sortzen duzu gaur
Alegra giten guziok,
Kristo sortzen duzu gaur
Dantza egiten guziok.*

II

*Natibitate gabea
Oillarrak kantatu zunean,
Amak seme maiteri zaukan
Bi beso sanduen artean.*

III

*Jose txatarrak berotzen
Maria tximua edatzen.
Ordu artan arimen ziren
Seme on baten troxatzen,
Seme on baten troxatzen eta
Jesukristoren beztitzen.*

IV

*Kristo xin da mundura
Gure reskatatzera,
Disponi giten kristionak
Jesusen adoretzera.*

V

*Beleneko portalea
Portale famatua,
Zeren Kristo baitago sortrik
Gure Salbatzalea,
Gure Salbatzalea eta
Munduko Redentorea.*

VI

*Irur Erregeak fan ziren
Beleneko portalera,
Ama Birjina ikusi zuten
Bere semea bularrean.*

VII

*Orienteko Erregeak
Izarrak giaturik,
Adoratu zuten Jesus
Jaungoiko eta gizon eginik.*

VIII

*Bigarren bisitara
Irur Erregeak egin zuten
Mirra, inzienso eta urrea,
Denak ofrezitu zuten.*

IX

*Konsideratu bear dugu
Biotz guziarekin,
Zer otza igaro zuten
Jesus bere Amarekin*

X

*Natibitate gabean
Zerua idiki zuten,
Etxe ontako etxekandrea
Kan (an) sar bedi*

Otxagabia (Otsagi), 1966 urtea

*1967, 21-22,
azaroa-abendua, 3. or.*

ZARAITZU. ESPARTZAKO EGUBERRI KANTUA

*E*guberri, Eguberri,
Gaur dela Eguberria,
Guzien Jauna sortu dela
Dugunaren berria.

*O*rientzetik orientziala
Izarraren argia,
Izarra da señailea
Erdi dela Maria.

*E*rdi dala Maria,
Mariak sortu du semea,
Aren semea txikin azi da
Mundu guziaren betea.

*M*aria tximien edatzen
eta Joxe txatarren berotzen,
Aur eder baten troxatzen eta
Jesukristoren beztitzzen.

*I*ru erregek eman zuten
Gure Jaunari presente,
Batek urre, bertziak mirra,
Irugarrenak intzienso.

*G*uazen guziok Belenera
Adoratzera Jesusen,
Erdenen dugu, erdenen,
Guzien, Jauna Belenen.

*B*eleneko idia,
Idi guzien zaldia,
Kau sorturik kemen dago
Guzien salbatzalea.

*B*aratze kontan laur ardi
Laurek zortzi begarri,
Egundaño ez dut izan
Orai bezaint egarri.

*Etxe kontan bai ardo
Guk etxakin zonbatna,
Edaukixu koxu bana
Xakiteko zonbatna.*

*Ematekoz eman zazu
¿Emen zertan gauzkazu?,
bortuan elurrarik diozu
zankuak ozten zaizkiguzu.*

*Baratze kontan belarr on,
Gabak eman laur oron,
Etxe kontako nagusi eta andrier
Jainkoak dezala Gaba On.*

*KUKUBITATE! NATIBITATE!
Gau aren gaban
Olarra kantari,
Artzaia belarri,
Neskatxa dantzari...
Argi, argi, mundu guziari!*

*1967, 21-22,
azaroa-abendua, 3. or.*

MANEZAUNDIREN OMENALDIA

Hauxe bai mundu errebesa! —zioten lehengoan gizajo baserritar batzuk—, lehen eskualduna hain gaizki ikusia eta orai festa-festaren gainean, zeruraino jaso nahian... Ez al gera ba gu, lehengoak? Nahiko burla egin ondoan... orai festa?

Bizi zela esan behar Manezaundiri festa egingo geniola Naparroan! Ez zuen sinetsiko sekula. Diputazioko gela hoberenean, berak egindako margol (pintura) eder baten aurrean egin zaikela, ametsa idurituko zakion. Eskual idazle bezala aipamen berezia izango zuela jakin ahal izan balu, negar egingo zuen, bere biziko negar beroena. Pozaren pozez bihotza lehertzearen negarra.

Bere denboran ez zen orai bezala, arrisku haundiko gauza zen eskualdun izatea. Beldur eman behar zuen amaren seme ginela esateak. Hortako egin zuen iges Aitzurre izeneko baserrira, hortako egon zen Frantzira joatekotan, hortako, oraiko festak ikusita, gure baserritarren harridura. Hauxe da mundu errebesa eta nahasia!

Gazteok ez dakigu halakorik. Edo ez dugu gehiegi jakin nahi. Geroari begiratzen diogu, atzoari baino lehen. Bizilegea da berritzea eta berrituz joan nahi ginuke eskual giroa.

Eta ez zen azaleko festa, itxura eta gezurra, begien betegarri bat. Han ginen eskualdunak —Euskaltzaindia barne—loriatu atera ginen Diputazioak egin zigun ongietorri bihozkorrez. Esaten den guzia ez da aski.

Duela bederatzi bat urte, Enrike Zubiri gure idazlearen lanak argitaratzea erabaki zuen gure Diputazioak. Liburu horri esker du Eskual Herriak ezagutzen. Orai, festa honekin, zor haundi bat ordaindu dugu Naparroan. Eta nola diren gauzak! Felix Huarte, gure Diputazioko lehendakaria, Manezaundirekin ikasle bezala eskolan ibilia! Berak jakin gabe, maisuaren goratzale gertatu da.

Mundua hain errebesa dela diotenen istilua dago orai. Gure herritako eskualdunak konturatuko ote dira agintariak, jakintsuak, eta bihotz oneko jendeak eskuararen alde daudela? Badira herritan, beti izan dira eta izango ere, gizajoak, beren gauzak hankazpian ezin sartuz dabilten gizajoak. Zer irabazten dute beren burueri harrika ematearekin?

Urmeneta jaunak lehengoan ziona esango nuke nik: Ama elbarriena ere ez du seme batek inola baztartzten. Eta euskera, ama-semen istilua bezala da. Horrek lotzen gaitu aurrekoekin...

Manezaundi bizitu balitz poztu egingo zen, bere festa ez ikusigatik, eskual giro hau ikusita. Zertako ez poztu gu? Gizon haundiak baino gehiago al gera, gizajuok!

1968, 23, urtarrila, 1. or.

URTEBERRI !!!

Paper txuria eskuan, ez dakit betetzen hasi edo utzi. Ez du ezer idatzirik gainean, edo hobeki esana, ez zuen ezer, orai bai. Garbi zegola esateko, garbia izatetik utzi du nire paperak.

Zer da denbora? Zer dira orduak eta egunak? Ixil-ixila betetzen ari dazkigun orri txuriak. Badira estu-estuan beteak eta badira hutsak, alperkeria dariotela. Eta bizian behin erretako paperak itzultzerik ez eskutara! Betiko joanak.

Zerbait egin nahi duenak baditu bere kezka paper txuriaren aurrean: amets haundia eta bildurra.

Zenbat bihotzen lokarri goxoa izan daiken paper gainean idatzia! Egilearen arnasa agoz ago sartzea bezela. Zenbat asmo ederren aita! Ago beteko ezti gozua daramatan lerroak badira, baino eztiak zurrun-burrin iluna sortzen ere badaki bere inguruan. Eta erle xixtada minak... Hain gutxi aski da norbait mindurik uzteko!

Idazleari orri txuriak ekartzen dizkion kezka berekin ditu Urteberriak. Nork daki haren berri? Nekazariaren ereitea bezela bizi nahiaren amets ez jantzia, uztan ditu ereileak begiak. Lehenago, negu gogorra eta hormak. Eta beharbada hazia galtzea... Arrikkuz betea da gure bizia.

Eta *Príncipe de Viana* gure aldizkariak hirugarrena du Urteberri hau. Beste batzutan bezela, galdera bera egin lezake: balio ote du ereiteak?

Badakit eskualdunok ez gerala oso leitzale, ez gera inoiz izan. Leituko ote nautete? Hasieran zen, gizon kaiku bat hizketan:

—«Nik etzakiet zertako dabilten beren euskerarekin. Bialtzen duten paper hori bezela! Nik ezin leitu diat, hartuta suari botatzen ziot...» (gerra egin zutenetakoa eta ago zabala).

Handik denboraren buruan non hasten den gertaera baten berri ematen. Konturatu ziren herritarrak non leitua zuen, eta esaten dio gazte batek:

—Zer!! Hasi al zera euskeraz leitzen?

—«... gauza politikak ekartzen tik eta begiratu bat egiten ziot».

Gure egitekoa ongi betea laike Naparroko eskualdunen artean eskuaraz leitzeko giroa sortuko baginu. Sari hoberena ginuke. Gure jendea ikasiago balitz, euskera hiltzeko arriskutik kanpo legoke. Alemanen eskutan erori balitz! Ez zen ez galduko!

Urteberri! Eskuararendako ere orri txuri. Aurrera egiteko...? Hiltzen joateko? Hain kaiku ez bagina...

1968, 23, urtarrila, 1. or.

SUEZIATIK ETORRIA

Nils M. Holmer, Sueziako jakintsu haundia, gure artean ibili da. Naparroko Ikastetxe Nagusiak (unibersidadeak) deiturik, eskuara eta bere kideko hizkuntza zaharrak duten antza adierazi digu. Sueziatik hasita etorria gure gauzetaz mintzatzera!

Aspaldi baginuen Holmer jaunaren berri. Bere eskualtzaletasuna ezagutua da baztarretan. Liburu bat badu eskuaraz eta erderaz idatzia, *El Idioma Vasco Hablado*. Herriz herri bildutako ipui eta ohiturak ekartzen ditu, baino belarriz hartzen zuen hitzen indarra adieraziz. Eta harrigarriena, liburu hau Sueziako erregearen diru laguntzarekin argitaratu zuen. Non gaude gu?

Eskuarak ez duela ezertako balio esaten duten askok entzun behar zituzten haren hitzak. Bigarren hitzaldian zion bezela: Nik ez dut esan nahi eskuara jakin gabe ezin dela hizkuntzalari (lingüista) ona izan, baino orai ikusiko duzue eskuarak zenbat balio duen gure lanerako! Eta auskalo nungo hizkuntzak aipatu ondoan, haiekin zerikusi haundia zuten euskeratik ateratzen zituen joskerak. Dakienak daki.

Egun haietako paperak esan zutenarekin askok uste izan dute ez zakiela eskuararik. Ez zuen mintzatzeko errextasunik, baino jakin!!! Hona zer idatzi zidan neri duela hiru bat urte. Australian sei hilabetez egona zela esan eta hango berri eman ondoan: Beldur naiz euskeraz ia-ia ahaztu egin dudalako, baino gogoratuko zait berriz. Gainera euskera ikasi nahi duen ikasle mordoska txiki bat daukat hemengo unibersidadean, azkeneko aldian —orain dira urte batzuk—baino gehiago. Sueziako Unibersidadean euskera ikasi nahi duten gazteak!

Nire etxean egon da eta luzaz eskuara gaiak ukitu ditugu. Ni ez naiz trebe haren sakontasunarekin eskuara gauzetan sartzeko, eskualdun jaió eta eskualdun hazia naitzelarik! Nork esan du ez zakiela eskuararik?

Udan etorriko omen da. Eguberritako hogeita lau orduko gaua ikusi nahi zuen Suezian. Argitzen ez duen eguna. Gero, sanjuanetako iluntzen ez duen eguna ikusi ondoan, hemen izango dugu berriz gure artean.

Iluntzen ez duen egun luze hori eskuararendako ekartzen ahal baligu adiskide on Holmer jaunak! Ez dakiena ikusten ez duena bezala da. Eta Eskual Herriak duen itzal haundiena ez jakitearen gaua! Ongi etorrik jaun jakintsuak gure begien idekitzera.

1968, 23, urtarrila, 2. or.

LEKUNBERRI

Ez dakit txorakeria izango den herriak jendeak bezala direla esatea. Gure herritan edozein erromeritako dantzarien artean bezala, denetatik bada: gazte eta zahar, gorri eta txuri, ilun eta argi. Zein hotzak diren, esate baterako, ezin hilez beren bizia daramaten herri gaixoak!

Lekunberri aipatzean, hemezortzi urteko neskatx polita etortzen dakit burura. Festazale eta alai, udan kanpotarrez betea eta barruti guziak igandetan bereganatzen dituen neskatx ponpoxa.

Dena argi eta dena kolore. Berdez, belardi eta barruti guzien gona zabala. Gorriz, gure aurrekoen zainetako odolaren lokarria. Txuriz, gure ohitura onen iturri garbia. Sokaz inguraturik belauetik beherakoa, lanetik bizi general jakin dezan munduak, eta ezpain gorriekin, zirtzileriak esku mutur eta lepo ondoan, udazale hoi azaleko betegarria. Zein polita, Larraunen, Lekunberriren aurpegia!

Ezin ukatua dena, Lekunberri izan ditu bere kezka, buruhauste haundiak. Bere semeak, ogia agora erematekotan, herritik kanpo joan behar izaten zuten garaia. Baserriak irabazbideak lur jo eta etxe ederrak hustutzen hasi zirenekoa, euskera maitea ematxar baten haurra bezala ezpainetatik kendu eta lurpean sartzen saiatu zirena. Heriotzean zegoen orduan Lekunberri...

Zorionez, ez zen hil. Dirurik gabe eta laguntza eskasarekin, baino bizinahi haundiarekin eman zituen lehenbiziko pausuak. Gaur esan dezakegu, Lekunberriko semeak ez dutela herritik atera beharrik izango. Lantegiak bertan badira. Udazaleak aspalditik ikasia zuten Lekunberriko bidea, ostate eder eta mendi zoragarritz jantzia izango dute. Euskera maitearen barne mina ere bihotza ikutzen hasia da. Lekunberri, neskatx gazte liraina bezala, bere edertasun guzian esnatu da.

Ez da azal berritze bat bakarrik. Barnean darama odol berritzea. Bere nortasuna galdu izan balu, lur emateko txuriz jaxten duten nexkatxaren gorputz hila bezala izango zen azal berritze guzia. Eta guk dantzari alai eta bizi nahi ginuke Euskal Herrian Lekunberri.

Bere begietako zeru urdina, urdinago dela esango nuke nik, izarrak ere badute Aralar mendi gainean lehen ez zuten dirdira berezia. Ametsa ote, edo egiazko zeruaren poza?

Lekunberri! Euskaldun beti!

1968, 24, otsaila, 1. or.

LEKUNBERRIN... ZER BERRI?

Udazkenean agotan ibiliak dira Lekunberriko gorabeherak. Gure zaharrak ziotena, *artzaiaik hasarratu eta gaztaiak agertu*. Uda aldean Lekunberri ikusten duenak herri aberatsa dela esango luke, urtearen hondar egunean galdetu behar agintarieri...

—Hor zegok, ba, koxka! Adiskide haundi dut hala mintzo dena.

—Nahi eta nahi ez, sarrera onak izan behar ditu Larraungo hiriburuak, galdetu diot.

—Bai eta ez. Ez da aberatsa eskutan dirua darabilena, berea duena baizik. Hamasei Larraun herritako sarbiderik hoberena Lekunberri du. Ehunendako berrogei berak sortzen dio ballerari. Baino ez du horrekin ezer egiten. Lekunberri burua jasotzeko bere dirua behar du...

—Zein da zuen asmorik premiatsuen!

—Herritarrendako lanbidea bertan sortzea. Orai arte kanpora joan behar izan dute eta hori negargarria da. Baditugu bizpahiru lantegitxo, baino ez aski. Txoko polita eta mendi ederrak izatea gauza ona da, baino ez da nahiko bizitzeko... lana.

—Zer laguntzarekin kondatzen duzue?

—Guk dugun guzia iturriko ura eta pilota plazaren urte saria. Lehenbizikoak berrogei mila pezta dakarzki, eta pilota jokuak beste hogeita bost mila uzten dizkigu. Nora joango gera horrekin?

Pernando amezketarra heldu dakit gogora, bere pobreak ura bazuen eltzean, eta festaz festa jaten zuenarekin bizi zen, nolabeit, gizajoa. Baino Pernando alperra zen eta Lekunberri langile fina. Langile ona, nola edo hala aurrera aterako da.

—Eta zer esan Lekunberriko euskal giroaz? Bere burua urkatu duela entzun nuen lehengo batez, hila dela hango euskera... Lotsatu egiten direla euskera mintzatzez.

—Urkatu ez, lepoa estutu bakarrik. Gerra ondore hartan badakizu zer gertatu zen. Gero herri batzuk izan zituzten beren gizonak, beste batzuk berriz akerrak... Hemen gertatu zena leku askotako kanta da: alde batetik, bildurra eta, bestetik, nor etorri da begien idekitzera? Eta itsua beste itsu batek balin badarama...

—Ez al da giro berririk sumatzen zuen artean?

—Bai naski, eta sakona. Bazter guzitan euskera kontua aipatzen hasia da. Alde edo kontra, baino euskeraren kezka. Norbaitek izan dezaken kalterik haundiena etsairik ez izatea da, eta hortako ere balio ez zuen gauza bezela jotzen zuten Lekunberri euskera... Badakizu zer den hilari lur ematea?

—... eta orai?

—Aita-ama onen semeak gerala konturatzen hasiak gera. Diputazioaren euskeraren aldeko jokatibideak ere asko esan nahi du guretako. Nik esango nuke, herri agin-

tarien eta guk baino gehiago dakitenen eskuan dagola gure begien idekitzea. Artzai onak behar ditu gure artaldeak.

Pozgarri da gure euskal konzintzia esnatzen hasten dela ikustea. Euskaldunak itzal handia du bazter guzitan eta euskera galtzearekin joan da euskaldunaren izatea.

Lekunberri Larraungo buru! Burutik hasten omen da usteltzen arraia. Ez usteldu Larraunen zu! Fabrika eta lantegi, neskatx polit eta hotel handi, aurrera beti Lekunberri. Baino ez gorputzez bakarrik, gorputz eta arima, bihotz handi batekin. Zure aurrekoak bezela, euskaldun beti.

Gora Larraun! Gora Lekunberri!

1968, 24, otsaila, 2. or.

PAZKUETAN ALEGERENA

Garai batez, Pazko Maiatzekuan (Mendekoste egunean) kantatzen ziren kantu hauek. Txuntxuna erretiratzean inguru haundi bat egin, eskutatik elkar hartu eta geldi joanez, hau esaten zuten Urdainen:

1.–*Pazkuetan dan alegerena
Pazkua Maiatzekua,
Pazkua Maiatzekua zan da
Jaiki nintzaren goizian,*

5.–*Jaiki nintzaren goizian eta
Pasiatzeko kalia,
Pasiatzeko kalia eta
Egunian edo gaubian,
Egunian da gaubian eta*

10.–*Izarra argi danian.
Izarra argi danian eta
Laztantxuaren aurrian.
Neure lazтана kalean dabil
Aide aundiak konplitzen,*

15.–*Aide aundiak konplitzen eta
Konbitearen emaiten.
Nerori ere konbiaturik nago
Eztai otara juaten,
Egun bat lagun ikus nituben*

20.–*Atal ondoan sartutzen,
Beste orrenbeste edo geiago
Eskaleretan iddotzen.
Nire lazтанan eztai oietan
Guk jan genduben usoa,*

25.–*Beste guziak kunplitu eta
Lazтанandako egoa.
Nire lazтана mai goienian
Ni barrenian egoiten,
Goguak baretz, baretz, baretz da*

30.–*Biotzak ez dua laguntzen;
Ark neri gainu, nik ari gainu,
Elkar genduben penatzen,
Elkar genduben penatzen eta
Arimea re lainatzen.*

35.–*Estudiante barbailasku bat
Asi zitzaigun igartzen,
Asi zitzaigun ubartzen eta
Asi zeztaigun kargu artzen.
In sekulorum gerta eztailela*

40.–*Meza berria ematen,
Meza berria ematen eta
Epistolaren kantatzen
Epistolia kantatzen eta
Urre kalizia goratzen.*

45.–*Estudiante barbailaskua
Noiz eman bear dok mezea?
Ire mezearen diruarekin
Egin bear diat lobea...*

(Urdiain, 1968)

Azkuek bi lekutan ekartzen ditu kantu honen bertsu batzuk. (Ikusi *Cancionero Popular*, 972 eta 1.027). *Euskalerraren Yakintzan* ere (IV: 193 eta 182an). Sabas Agirre eta Juana Maria Zufiaurre urdiaindarrei hartu diezkiegu besteak.

1968, 24, otsaila, 3. or.

NUNGOA ZEN KRISTOBAL KOLON?

Gauza batzutan hainbeste aurreratzen ari geran bezala, beste batzutan geldirik gaudede. Amerikano hoiek, esate baterako, munduaren jabe eginak dira eta lauetan ehun urteren buruan, Ameriketako bidea ideki zuen gizona nungoa zen ez dakigu. Beti, Italian sortua zelako ustean bizitu gera eta orai esaten digute ezetz.

Eta gure galdera hauxe da: nungoa zen Kristobal Kolon?

Azkeneko urte hauetan Kolonen arraztinak han edo hemen harrapatu dituztela entzutera jarriak gaude. Baina azkeneko berriak dira politenak. Mallorcako batek dienez, gure Príncipe de Vianaren seme baxtarta da Kristobal Kolon.

Mallorcan *Porto Colom* esaten dioten itsas ondoan bada, *Santueri* izeneko gaztelua. Han egon zen preso bere aitak ereman eta, Naparroko erregegia, 1459ko agustuaren 28tik hasi eta 1460 arte. Hortan ez dago dudarik. Baina Juan Cerdá jaunak dio badela gaztelu inguruan *Alquería roja* eskuaraz *Bordagorri* esango ginuken baserria. Berez kolondarrak omen ziren etxe hartan eta duela urte gutxi galdua izan behar dute Kolon deitura.

Erregegaia alargun zegon, berrogei urtetan zebilen eta emakume bat bazen artean. *Esperantzetan utzia duten nexkaz okupatu zu* idatzi zion handik ateratzean, Castelladoriz Gobernadore jaunari. Handik urte bat barneko hila zen erregegaia.

Eta hemen orai esamesak. Margarita Bordagorri uste dute zela nexkatxa. Erregegaiarengandik ukan zuen semea izango zen Kristobal Kolon. Kolonen bigarren deitura *Terrarubra* (Lurgorri) baserriaren izena bezala jotzen dute.

Zenbat gauza ilun Kolonen bizian! Hamahiru urtetan Aragoiko erregearen kontra itsas-gudari izana, haren seme Fernandok bere haurraren lagun hartzen du Kolonen semea.

Isabelek zuen Ameriketako gauzetan gehienik lagundu eta, batez ere, marinela-ren haurrak bere inguruan hazitzeko hartu. Isabel, erregegai zenaren andregaiak!

Duke de Albak bere iloba Kolonen semearekin ezkontzeko eragozpenik ez zuen sortu. Eta, batez ere, Ameriketako untxiak prestatzeko artean hiru urte bota zituen Kolonek Medinacelitarren etxean. Denbora hartako famili aberatsena. Nolaz hain adiskide? Ana, etxeoandrea ere, Príncipe de Viana eta Maria Armendariz-en alaba baztarta zen.

Beste gauza asko, oso jakingarriak atera ditu Juan Cerdá jaunak. Argiaren bidean sartu gera edo gau iluneko kanposantu argiak baizik ez dira? Eta orduan, nungoa zen Kristobal Kolon?

1968, 25, martxoa, 1. or.

NAPARROKO ERREGEGAIA

Naparroak izan du errege bat inoiz agindu ez zuena. Bide erditan gelditu zen erregea. Ama on batekin, aita maltzur bat sortu ez balio zeruak!! Gure Príncipe de Viana txakur txiki bat bezala izan zen bere aitaren esku zikinetan.

Gauza onak bazituen, argia zen eta bihotz onekoa. Ikasia. Latinetik ederki itzultzen zituen liburuak, eta idazle polita. Herria ere berekin zeukan, gainera. Aita maltzur batendako onegia bezala.

Akatsak ere ikusten dizkiogu eta ez txikiena bere kemen eskasa, atzera edo aurrera egiteko behar izaten den kemena. Ezaren eta baiaren erdikoa zen eta, arte hortan, nahi zuen guzia egiten zion besteak.

Hogeita bat urte pasa zeuzkan ama hiltzean. Ez zen haurra. Gure lege zaharren eran, ama baizen Naparroko erregeen alaba, bera zen erregina eta aita ez zen ezer narrentzat. Amaren burutik semearen bizkar gainera etor behar zuen legez erregetza (1442).

Baino beste asmo batzuk zituen Aragoiko erregeak, eta ez zion utzi semeari pakean. Beretako nahi zituan denak.

BIGARREN ALDIKO EZKONTZA

Bera nahiko ez zela, ez zan hobea bi urte baino lehen aitak etxera ekarri zuen emakumea. Erregegaiarendako ifernuko zata baina gaiztoago. Lehen gose eta orai gosearen gose. Aragoi aldean bizitu balira ere! Baino ez, Naparroa maite.

Haurra egiteko joan ziren hemendik eta ez irutira joan ere! Xabier pasatu eta Aragoiko lehenbiziko herrian sortu zitzaien haurra. Hau izango zen Fernando Katoliko, Naparroaz jabetu zen Príncipe de Vianaren anai erdia. Eta Sos hura sortu zen herrixka.

ISABEL

Gazterik ezkondu zen gure erregegaia (1439). Agnes, Frantziko Clevestarren alaba zuen emaztea. Ederra omen zen. Ez zion haurrik eman. Bederatzi urtegarreneko hil zen (1448).

Hogeita zortzi bat urte besterik izango ez zituen errege gaztea berriz ezkondu nahian hastera ez da harritzeko. Lehen Frantzira bezala, Gaztel aldera jo zuen oraikotan. Ixilka hasi zuen Isabelekin adiskidantza. Halare, aitaren belarritarra nolabeit aila-tuta, Leridara deitu zuen semea. Bere begien aurrean lotzea agindu eta preso Barzelonara ereman zuen. Beste batzuk ziren aitaren asmoak. Betiko kanta. Aztapuak (1460).

Oraikoa ez zakion hain ongi atera bere jokua. Katalandarrak semearen alde jaso ziren, berdin beste lurralde batzutan ere. Aita Sanduak berak erregegaiaren alde zerbait egiteko eskatu zien obispo katalaneri. Beharko eta, askatu zuten Karlos IVgarren Naparroko erregegaia (1461). Baina bost hilabete baino lehen, udazkenean, ez daki-gu nola, itzali zen betiko Barzelonan. Geroztik ez du inork ixildu aitak hilarazi zue-lako zurrun-burrin latza (1461).

Beste gainerakoa danok dakigu, Fernando gaztea bere anai zaharrenaren andre-gaiarekin ezkondu eta biak izan ziren Errege Katolikoak.

Txikia izateko ukan du etsai Naparroak! Badakizue bi txakur gose hezur luze bati hozkaka? Hala ikusi zuen berak, amarengandik hartua zuen Naparroa. Mehe eta zorrotz, gosea bera bezala, bi txakurrak. Frantzia alde batetik eta bestetik bere aita. Hezurra, berriz, Naparroa.

Bi hitzez esan zuen herriaren eta bere zorigaitza: *Utrimque roditur* (bi aldetatik hozkaka). Eta erdi bana jan, gero ere, bien artean Naparroa!

1968, 25, martxo, 1. or.

NAPARROKO BERRIAK

Pozgarriak oraikoan Naparroan ditugun berriak. Eskuararen aldeko ipar haize fina jaso dela esango ginuke. Eta zer indarrarekin astintzen hasia den baztarrak!

Lehendik heldu dira gauzak. Duela urte bat, otsailean egin du hain zuzen ere urtea, erabaki eder bat hartu zuen gure Diputazioak: eskual herritako eskoletan ordu erdi batez euskera erakusten hasteko erabakia. Uste dugu eskuarak ez duela gure artean inoiz ezagutu halako esku ukaldi ederrik. Bultzada bikaina eman diote gure agintari agurgarriak Naparroko hizkuntza zaharrari.

Baino, legea hor zelarik, ez ziran udareak bat-batean ikusten hasi, beste baratze belar eta landare guziak bezala denbora behar zuten gauza. Eta hasi ziren hasi profeta beltzen oihuak!:

—Zer ari zerate? Nun dira agintarien asmo on guziak? Noizko haurren eskolak? (Gehienetan gertatzen den bezela, berek ezer egiteko gauza ez direnak ateratzen zituzten garraxi haundienak).

GURE JOKABIDEA

Guk ere lehenbailehen frutuak ikustea nahiago izango ginuen. Halare, giro txarrek hazi ereitea baino etxean egotea hobe dela eta, lurra irauli eta prestatzeari jo genion. Herritik sortu behar du, aurrera joateko, bizinahia. Goserik ez duenari jatekoa ematea, mando hilari zaldaria botatzea bezala da. Alperrik dena.

Gaur, ereiten hasiak gera. Altsasu, Leitze eta Elizondo gure lehenbiziko alorrak. Hiru lur mota, hiru baratze. Lehenbiziko jokabiderako amets haundiko ereintza. Zer emango du bakoitzak?

Nik esango nuke lehenbiziko lorean direla, beren inguruan sortu duten kezka eta hasi nahia lore ederra baita! Herri askotatik heldu dazkigu eskola bila. Eta ederrena, beren buruz eskolak hasi dituztenak ere badira. Bera Bidasoako ikastetxe bat dut go-goan. Altxateko auzoan, astean hiru egunez, berrogei haurrek euskerazko eskolak badiutuzte. Zer udaberriko lehenbiziko lora sumatzen den Naparroan!

BESTE HERRIAK NUN DITUGUN?

Bai, Diputazioko erabakiak beste herri moltsoa zekarren. Baino Erroma ere ez omen da egun batean egina. Esaera hala da behintzat. Nork daki denbora asko gabe esnatuz joango ez ote diren eta denok nahi ginukena orduan izango dute.

Berri onak, beraz, Naparroan ditugunak, inoiz ez bezalako eskua!, giro ona sumatzen baita.

1968, 25, martxoa, 3. or.

ETA IRUÑEN ZER?

Iruñen asko, ikastola kontuan inun baino gehiago. Nik ez dakit zergatik Iruñeko gauzak ez diren gehiago haizatzen. Mesede haundia egin lezakete gure herritan. Duela zombait denbora Iruñeko saltzale bati entzuten genion: Haur txikiak dauzkat, baino badut gogo ikastolara bialtzeko! Zoragarri da Iruñen, erle-saskian bezala, haur haiek guziak ikastolako autoan hain goxoki eskuaraz entzutea!

Bi gauza badira esaera hontan, ongi ikusia dela Iruñeko Ikastola —eta hori berez asko da—, eta hitz hoiek herrian egin duten mesedea. Bi egun baino lehen etxez etxe bazekiten. Erle-saskiarena.

Zor haundia zuen Naparroko hiriburuak eskuarakin. Burutik galtzen omen da arraia, eta Iruñetik galdu da Naparroko eskuara. Baserritar gizajo batzun gauza bezala bazterturik egon da denbora luzean, barre egiten zieten karrikan. Orai ez, ehun eta berrogeita hamar haurtxo Iruñen eskuara ikasten ari direla jakiteak poz haundia eman die gure herritarreri eta ez dira lotsatzen eskualdunak direla esaten. Uste zuten eskuarak ez zuela ezertako balio eta orai Iruñen ikasten!

Naparroko aro berri hau pozgarri da. Erronkaritik Altsasura eskuararen aldeko kezka ernagarria senditzean ezin zen gure hiriburua baztarrean gelditu. Baino aitortu dezagun behingoan, ez da baztarrean gelditu eta bai deneri aurrea harrapatu! Zorionak eta eskerrik asko.

Eskual Herriaren aldeko napar adiskideak asko eta asko egin dute gure herriaren alde eta egingo ere. Iruñeko guraso eskualdun guziak inguratu balaizke beren etxetan eskuara galtzen ez uzteko!, lehenbiziko ikastola familia baida!

Horrekin bakarrik, besterik gabe, Naparro guziko herri eskualdunetan haundiena Iruña ginuke. Nola esnatu Iruñeko gurasoen konzintziak hori egiten hasteko?

Zailago da orai arte egin duzuen. Aurrera bakoitza bere aldetik lanean, gure aurrekoak merezi dute eta.

1968, 25, martxoa, 3. or.


ALTSASUKO ESKOLAK

—Beldur naiz eskuarazko eskolak hasi eta haurrak etorriko ez ote diren... esan zigun norbaitek.

—Beti uste hortan biziko gera, ez bagira noizbait hasten, erantzun genion. Gero ere, hala gertatzen bada, jakinaren gainean gaudela aitortuko dugu. Baino nork daki...?

Eta uste gabekoa gertatu da, berrogei haurrendako, berrehun bagenituen. Bihoztza behar dute gauzak eta bihotzez jantzi dute altsasuarrak haurren eskual kezka. Nork esan, duela urte pare bat bakarrik, Burundako hiriburuan hontara ailatuta zaikenik!!

Egia esateko, ez zen erreixa hango jokabidea. Bertako jendetan berrogei urtez beherako gutxi eskuara dakiena. Gero, herritar bakoitzarendako, sei edo zazpi badira kanpotik etorriak, gehienak lur berotatik. Eta negargarriena, handik eta hemendik inguratzen ziren guraso eskualdunak ez zieten beren haurrei eskuararik erakusten. Gure hizkuntza zaharrarendako, hondo gabeko putzu beltza zen Altsasu.



GAZTE JENDEAK NAHI BALIN BADU...

Eta nahi izan du. Jende jatorrak nunahi badira eta gaurko gaztedian gehiago. Neska eta mutil, hitzez eta idatziz, hotz eta bero —denetatik izan baidute bidean—, barne mina sortu dute herrian eta azken hontara indarrarekin, gainera.

Haur asko eta erakusle gutxi! Hori ginuen koropiloa. Hiru talde hartu ahal izan ditugu: 120 haur, denak batera. Hortako, Josefina Agirre andereñoak bi eskola ematen ditu. Eguerdia aurrean bat, hamabi eta erdietatik ordu bitera. Eta bazkal ondoan bestea, ordu bi eta erdietatik hirutara. Berrogei neskatto talde bakoitzean.

Mutikoak eskola bakarrekin gelditu dira. Tomas Diaz erakusle dutela, atsaldeko seiretan egiten dute bere saioa. Ez harritu Altsasun euskeraz entzuteaz. Haurrak, batez ere ehun eta hogeit hamar badira, hots asko ateratzen dute. Baina jakin beste hainbeste izango direla hartu ahal izan ez ditugunak.

HAUNDIEN ESKOLAK

Eta ez hori bakarrik, hilabete honen hasieratik haundien eskolak ere ari dira. Bi taldetan laurogei bat gizaki eta emakume, denak gazte, eskuara ikasteko gogo sutuan. Hauek ordu bana izaten dute egunean, atsaldeko zortzitatik bederatzitara. Eta bigarren taldeak, bederatzitatik hamarretara. Erakusle Dabid Martxueta eta aita J. Beizama.

Gurea joana dela eta ezer egitekorik ez dela dioten guzien bihotz altxagarri esaten dugu: izan fede gizonetan, gizonki jokatzuz bakoitzak. Siniste haundikoena da geroa.

1968, 25, martxoa, 3. or.

BIDEKO ARRANOAK

Ez da polit arranoz mintzatzea. Ez dira usoak. Baino hoiak ere Jainkoak eginak...
Lehengote batez lurrean ikusi ditugu, gertu, harrika jotzeko moduan.

Luzaiden ginuen festa, Enrike Zubiri, eskual idazle eta *artist* ospetsuaren omenaldia. Eskualtzaindiak eta Nafarroak Diputazioan eginga zakoten bezala, bere herriak ere ohore bereziak egin nahi zizkion. Harri marratu bat agertu genion bera bizi izan zen etxean. Otsailaren 17.

Elur kutsia bazen Ibañeta kaskoan. Portua jeistean, dela erbi edo axeri ikusi izaten da bidean. Sekula ez bezala, arranoak genituen oraikoan eta ez bat edo bi, hamasei edo hamazazpi. Gelditu eta harrika ari izanak gera *Auntxaina*-ren peko zolan. Janak ziren eta beren hegala luze haiekin lurra jotzen zutela, ezin ziren hegaldatu. Ahuntzak bezala han joan dira beren hankaz, mendia gora.

Gero karrikan festa ederra. Nexkatoak dantzari arropan eta zombait *bolant*. Gustatu zauzkigu nexkatoen jantzi berriak. Halare, ez dugu uste *ddantza ddauziak* mutilekin egin behar lituzketenik. Iruñen elgarrekin hasiak dira, baina nahasketa hori ez da untsa ikusia. Bego mutilendako Luzaideko josteta serioa.

Hori bai, emakumeak festa edertzen dute eta mutilen inguruan ez dira gaizki izanen. Beharrikako horiek Manezaundiren omenaldikoan. Joan-etorri guzitan lagundu gaituzte eta hondarrean *Agur jauna*-rekin despegitu. Milesker bihotzez.

Baino badugu beste zerbait han bildua: «Nork erran eni, garai batez, *Príncipe de Viana* hala konprenitu behar nuela!» erran zaukun dantzaritako nexkato propi batek. Eskuara leitzen zuelako marka! Eta Bernardita ere berriz eskuarari lotia! Iaz, eskuara ahantzia zuela erran zidalarik arrano beltzak ikusi nituen Luzaideko zero-zolan. Oraiko aldian harrika lekutu ditugu, ez baida hilen Manezaundiren herriko eskuara extia.

Anitz dakienak gehiago jakin nahi du, guk dakigun pixka ez dezagun galdu. Aintzinekoeri ohore egiten diegu.

1968, 26, apirila, 1. or.

ERRONKARIKO USKARA

Erronkariko eskuararen hil-ezkilak zenbat aldiz ez dira joak! Izan ere, latzaren la-tza da herri baten heriotza. Neguan hosto gabeko gaztain zaharra heldu dakit gogora, elurak hautsiko ditu eta etorriko lurrera haren molkots bakarrak. Eta mundu bat, herri baten nortasun osoa, joango da gizon bakoitzaren bihotzean. Hil-ezkilaren doinu iluna...

Ez dira hoiek gaur Nafarro aldeko haizeak. Hil-ezkil guzien ondotik Erronkariko eskuara ez da erabat hila. Eskualdun bat bizi den artean bizi da gure herria eta gizon horren barneko mundua gure eskutan da. Aintzinekoen lokarriak ez dira hautsiak. Nortasunaren su zaharra hauts azpian bada ere, hantxe dago bizirik. Zertako ez hai-zatu eta Pazko eguneko su berria sortu?

Bizian amets haundi bat behar luke gizon bakoitzak. Eta zer gauza zoragarria den amets luze baten aztaletan eskuak trabaturik senditzea, ametsaren itzalak argiaren alderdia agertzen duen eguna...

Hau guzia ekartzen dit gogora adiskide langile baten jokabideak. Bere ametsa, Erronkari eskuarari hiltzen ez uztea. Hango gaztain zahar bakoitzaren zuloan landare gaztea ikustea. *Anitx konten* izango litzake oraikoen ordainak ikustez.

Baino non ginuen erakusgaia? Hau izan da J. Estornes Lasa jaunak bete duen lehenbiziko zuloa. *Erronkari'ko Uskara* liburuaren izena. Haurrendako egina da. Ez zen lan errega, erditze estua izan du, baino sortu da. Hitzez hitz, letraz letra, Erronkariko eskualdunen agotik entzunak izan dira han diren erranak.

Ez hori bakarrik, hango doinu eta hitzen indarra ez da egunero ibiltzen duguna eta batzuk begi txarrez ikusiko duten teilatu-txori bat sartu du egileak, hitzen azentua delako koxka. Geroak estimatuko du.

Batez ere aberastasun haundia liburuak bigarren zatian dakarrena, ipui, erran zahar, itzulpen eta beste irakurgai jakingarriak. Han-hemenka zabiltzen gaiak bilduma bakarrean. Eskualtzaleak jakin beharko dute Erronkariko gaietan liburu honen izena.

Laguntzale onak izan ditu egileak eta denen izenak han dira nunbait ezarriak. Marzelino Garde dugu orai gogoan. *Príncipe de Viana* elkargoaren babes eta esku-kaldiarekin agitaratua izan da.

Nere poza Erronkariko ama zaharrari heriotzeko orduan haurra sortzea!! Gorri samina du aurpegia, erditze gogorraren minak bezala. Ameslari iduritu zaigu, bizi-nahia. Hil soinuak ezpainetan lotuta sortu berriaren pozetan hasi dira ezkilak. Bizi da Erronkariko uskara. Aleluia.

1968, 26, apirila, 1. or.

LUZAIDKO AMETSAK

Herri bakoitzak bere izaiteko modua du eta bere buruhauste bereziak. Luzaide ez da aberatsa. Oihanetik du herriak etorgi eta mozkin hoberena. Baino gastu haundikoak dira han egiten diren lanak. Duela lau-bost urte, bazter etxetako bideak egin zirelarik, jaunak zion bezela:

—Luzaidek ez luke herri bat izan behar, sobera buruhauste badu. Izatez, Baztan, Erro eta Ultzama bezala, ballera bat da. Ez dago ikusi baizik, Ibañeta kaskotik Arnegiko zubira hogeita hiru kilometro bide berri baditu, eta ez da hortan fini Luzaideko bide kontua. Beste hamazazpi kilometro baditugu baserritara eginak...

Lan hau egin zuelarik Napparroan buru bezala jotzen ginuen Luzaideko herria. Egiten ahal zen lanik baliosenetakoa hauxe da, baserriak baidira Eskual Herriaren bihotza eta arima. Geroztik beste herri batzuk jarrai dute exenplu bera.

Garai hartan eginak dira ur-ekartze, mediku-etxe, eskola berri eta beste anitz gauza. Orai eliza berritze, zine, haurren baratze eta beste. Ba ote dute asmo berri zonbait esku tartean?

—Haundiena oraiko ametsa da —erantzun digu alkateak—, Santiago plaza, pilota-joku berria, otoak uzteko lekia, teatro eta haurren jostalekua barne dira amets zabal hontan.

Herriko Etxean ikusiak ditugu asmo guzien agiriak. Paper eta karkulak berak zer gosta ote dira? Baino lan hoiek egingo diren egunean ikustekoa izango da Luzaideko herria. Norbaitek egitekotan, berek...

Frontera delako muga hori du Valcarlosek eta, nahiz burdinola zaharrak aspaldi utziak diren baztarrera, jende pasaiatik sortu lezake bizibide polit bat. Hasieran ostatu izanak dira Luzaideko lehenbiziko etxeak. Hara zer dion puntu hontaz alkate jaunak:

—Ez dugu aiantzia Aduana kontua. Duela egun gutxi mintzattia naiz agintariekin. Bere mailako aduanetan buru egiten du gureak. Hortako, urtearen buruan diru gehiena berak eman duela esan nahi dugu. Lenengo mailara goratzea galdegina da. Iduri du onartuko dutela, eta orduan Irun-Hendaiakoaren lerro berean izango gira.

—Ez da lekuri! Kamionak gaizki dabilta!

—Dena berri beharko du. Paperrak eskuan dauzkagu. Nik neretik emaiten diet, kitorik, behar den lur guzia —dio Bazo jaunak—, Iruñen dago fruitak begiztatzeko lekia, xuxen sar laizke hemendik Frantzira.

—Eta bide berria?

—Lan haundiak egin dira Ibañetan. Ez da lehengoa. Jendeak badaki eta pasaian ageri da. Baino ez da dena egina, Arnegitik Pau ondora moztu laike beste bide berri batekin eta kilometro anitzen abantaila izango lukete Parisko bidean joan behar duten xoferrak.

—Ametsak ote?

—Ez ginuke nahi ametsetan gelditu! Ez da hau fabrika lekua. Bazterturik bizi gera. Eta zerbait behar! Fronteran gira eta nik uste hortatik baliatzen ahal ginaizkela...

Ez da gaizki errana. Nolanahi dela, aintzinamendu haundiak badira Luzaiden, eta besteak xuxen gerta ditela, merexi dute eta.

1968, 26, apirila, 2. or.

EUSKALTZAINDIA

I. EREINTZA

Duela hilabete batzuk Iruñen ginuen, aspaldiko partez, Euskaltzaindia. Abenduaren hogeia zen eta Diputazioko Jauregian batzarrea. Hemen gure artean hartutako erabaki bat da orai esku artean daramana: bere berrogeita hamar urtean direla eta urre ezteiak ospatzea.



Negargarri da hainbeste urteren buruan, eta nunbaiteko Massiel bat hain egun gutxiz mundu zabaleko ezpain guzitan itsasi daiken garaian, euskaldunok hain gutxi ezagutzea gure gauzak!

Zer eta Euskaltzaindia, Euskal Akademia. Izen hori inoiz entzun ez dutenak izango dira, zertako den ez dakitenak asko, eta egiten dituen lanen berri nork daki gure herritan? Udazkeneko ereintza ixila ekartzen dit gogora berrogeita hamar urte hauetako bere lan ilunak.

Iraultze neketsua izan zuen gure lurrak. Ez zegoen bat-batean ereiten hasteko. Beste urre-etzei batzuk egingo zituzten, nahi izan balute, Euskaltzaindia sortu zuten gizonak. Berrogeita hamar urteko erdiminena, 1860an lehenbiziko aldiz asmo hau Iruñen sortu zenetik pasatutako denbora.

Asociación Euskara izeneko elkargoak indar handia zuen garai hartan Iruñen. Beren aldizkaria bazuten eta batzarre mamitsuak egiten. Iturralde y Suit eta Arturo Campión bezain gizon ospetsuak beren izena emango zioten. Batzarre hauetako batean zen Martin Iribarren jaunak euskera zaintzeko akademia eskatu zuena. Handik sei urtera, oihu bera entzun zuten Aristide Artinanoren agotik Durangoko euskal festetara joan zirenak. Giroa sortzen hasia zen.

Baino Oñatik eman zion gorputza aspaldiko amets zaharrari. Euskal Herriko lau Diputazioak uztarturik tiratzen zuten goldea, ereintzako saio hartan. Geroztik egina du haziak elurte eta izozketa guziekin bere lurpeko negu luzea.

Orai udaberria: jorra, xerto eta lepatze guzien artetik, lur iraultze eta hazi sartze guziak baino lan hobea, pozgarriagoa. Eta nork daki ez den guretako egongo biltzen hastea!

Euskaltziandi
Atera hadi
Ama-lurraren sabeletik.

Azal berri
Itzal haundi
Amets guzien oin eta belarri.

Denen argi
Ahal balitz
Batasunaren mutil bakarrik.

Eta beti
Euskaltzaindi!

1968, 27, maiatza, 1. or.

ETXARRI ARANAZ

Aldiren batez entzuna ginuen batzu-batzuk Etxarrin ez Azirela oso konten gure jokabidez, berak hain euskaldun eta beste guziak aurreratzen ari. Ez ote genituen azpikeriz baztartzen?

Jainkoak begira gaitzala! Zer irabaziko ginuen elkarri hozkaka ibilita! Ez izenez bakarrik, izatez ere Etxarri da inguruko herri euskaldun guzien buru. Beren euskera jatorra da eta jende larrien nortasuna haundia. Zerbaitengatik gure Diputazioak euskal gauzetarako haste-hastetik Etxarrin begiak jarriak zituen. Damutu behar ote zakion?

Baino ez zuen balio itsu-itsura jokatzeko hastea. Askotan esana dugu, tipul eta azak baratzean bezela gure gauzak ere giroa behar dutela herritan. Ezin ukatua! Zer irabaz ginezake laguntzarik gabe lanean hasi eta burua hautsi ondoan?

Feri guzietan badira astokilo ostikolariak eta Euskal Herrian euskal gauzen etsaiak. Zertako aipatu beren buruari harrika dabiltzan gizajoak? Herriko plazan kiskaltzen diren bonzo zaharrak beren buruak erretzen dituzte. Gureak ez dira hain gizon eta ixilian lapurretan bezela, etxeari su eman ondoan, aita eta ama nola erretzen diren kanpotik begira gelditzen dira. Kontuz ibili behar!

Etxarri oraitatik esnatu da, pozez beterik aitortzen dugu. Hazi ona hartzeko prest dagon soroan lan haundiena egingo da. Ez da bat edo biren lana izan, herri eta agintari, mutil eta neska sartuak dira Etxarriko euskal era berritze honen eginkizun pozgarrian.

Eta nola esnatu ere! Haundiki egiten dituzte Etxarrin gauzak. Aspaldi zen. Ni haurra nintzan. Inun ikusi ez nuena han ikusia dut: harrizko eliza zoragarri bat, ur baztarreko itsasuntzia balitz bezela sokaz lotua. Oinarri, zimendu berriak emana. Nere-tako ezin sinetsia zen orduan. Haurra nintzan eta hori gelditu zitzaidan gogoan.

Herri guzia euskeraz ari eta haurrak erdaldun, ez al da herri batean zimenduak galdu dituen eliza bezela? Orduan egin zutena egingo dute, nik hala uste, Etxarrin. Mutil onak!! Inguruko herri aberatsena da eta nola jantzia! Frontoi paregabea, Herriko Etxe jauregia. Zine, plaza eta eskola berriak. Mutil sendo baten bizkar zabalak...

Eta anima indarrarekin esnatzen hasia den bere nortasunaren kezka. Etxarrin euskera bizi da eta biziko ere da, giro berri hau galtzen ez bada. Astokilorik ba ote da ferian?



1968, 27, maiatza, 1. or.

BAKOITZARI BEREA

Zein gutxitan agertu den Etxarriren izena gure orri hauetan! Eta beti erdi- negararren doinuan. Lehengoan guraso batek ziona arantza bezala gelditua dut bihotzean:

—Guraso denen utzitasuna da, ume txikien txikienetatik hasita jabetu dira etxean eta. Gurasoak erderaz ikas beharra... umeak ez euskeraz ikasteko.

Gure buruari harrika... Zer egia!

Neri berriz, beste askori bezala, haurrak aipatzean monjatxoak heldu gogora! Hainbeste aldiz entzuna dugu berek galdu dutela Etxarrin euskera! Egia ote da, edo aitzeki bat? Badaezpada, beren iritzia jakitea komeni zen, ez da nahiko jendeak esatea.

Buru egiten duen serora katalandarra da eta badaki non dabilen:

—Egia esan, harrituak ginen hemengo jokabideaz, ez zuen euskera konturik inork aipatzen eta gu nola hasiko ginen?

—Askok zuen gain botatzen dute haurren arteko euskal giro txarra. Zuengatik ari omen da galtzen euskera.

—Oso erreixa da hutsak besteren gain botatzea...

—Hutsak esan duzu. Konturatzen al zinateen huts haundiren bat bazela jokabide hontan?

—Ez konturatu bakarrik; zuzentzen hasteko ere prestatuak ginen. Badugu lagun bat euskalduna haur txikiendako ekarria. Euskalduna eta bertako alaba.

Sor Idoia gaztea da eta bihotzez maite du euskera. Txikitatik bere etxean ikasia duela ageri dakio. Ongi mintzo du. Nik uste min haundia emango ziola haurretan gertatzen zenak. Ez al da hala?

—Asko poztu naiz giro berri hau ikusita. Ahal dutan guzia egiteko prest nago euskeraren alde.

—Entzun dugu euskerazko eskolak hasi dituztela.

—Bai, apirilaren lehenetik hasi genituen. Ez dugu inor behartzen, ikasi nahi dutenak gelditzen dira bakarrik.

—Nola hartu dute gurasoak?

—Denetatik bada, baina gehienak oso ongi. Lehenbiziko egunetik izena ematera etorri zirenak badira. Nik uste denborarekin konturatuko direla besteak ere.

—Zenbat haur dituzu euskerazko eskolan?

—Laurogeita hamar. Bi alditan ematen diet, ordu erdi bana. Era hortan berrogeita bost ditut txanda bakoitzean.

Nork esan Sor Idoia Jauregi ikusita euskeraren kanposatua direla gure herritako monjak! Argi berri baten urrezko printzak hautsi dituzte Etxarriko monjatxoan laino beltzak. Hobe ginuke bakoitzak geure aldetik berek bezala egiten hastea! Ixildu ditezela behingoan azpijan eta zurrumurru guziak. Bakoitzari berea.

1968, 27, maiatza, 2. or.

MAIATZ KANTUA

Urdiaingo herrian bildua. Badira Burundan garizumako kantuak eta pazko maiatzekoak. San Juanen eta San Pedorenak. Hain da aipatua Urdiaingo basoeliza!

Gaur argitaratzen dugun *Maiatz kantuak* Ama Birjinaren hilabeteko festak aipatzen ditu. Sabas Agirrerri hartuak ditugu:

*Urteak il bi ditu
Alegererik,
Maietz apiribila
Loraz beterik.*

*Maiatzaren lenengo
Santu Filipe,
Andik irugarrena
Santa Kurutze.*

*Zortzigarrena degu
San Migel ere,
Azentzioak ere
Eldu dirade.*

*Azentzio eguna
Señalaturik
Kristo zerura dijoa
Besoak zabalik.*

*Azentzioak eta
Gorputz Kristiak
Eldu dirade Pazku
Maiatzekuak.*

1968, 27, maiatza, 3. or.

EUSKALTZAINDIA

II. JAIOTZA

Urte hasieran zen. Euskal Akademiaren berrogeita hamargarren urtemugako lehenbiziko batzarra. Bilboko gure etxe zaharrak koka ahala baginen barnean. Danok zerbait esan nahian, danok asmo onez beteak. Haize berriak pareta zahar haien artean.

Lehenbiziko hitzaldia gure lehendakariarena. Hasiera ona. Esan ere, gutxik esan zezaketen berak bezela «han nintzan Euskaltzaindia sortu zaneko batzarre hartan». Mututu ziren, mututu, gure ezpainak! Ez da gauerdiko ahuntzaren eztula, duela hainbeste urte edozein aulki baztarretan entzunak, mahai burukoaren agotik jakitea! Atzo eta gaur uztartuak, bi gizaldi eta lokarri bat.

Gutxik, esan dugu, bai al da orduko beste norbait? Bi izen haundi, bi gizon ospetsu, Barandiaran Joxe Migel eta Nemesio Etxaniz jaunak. Gu gazteondako amets bide zabala...

Lekuonaren hitzaldia entzutean, begiak itxi eta 1918ra nolabeit itzultzeko hegan beharra sendi nuen zainetan. Ixilka inbidi pixka bat ere bai. Kondaira ziren gure lehendakariak esanak. Euskerak izan duen gertakizunik haundienaren kondaira.

Azkue haundia izan zen lehenbiziko buru. Lau euskal Diputazioak eraginda jaiotzen haurrari izena eman behar eta, azkenean, *Euskaltzaindi* gelditu zitzaion. Istilu asko sortu duen izena. Zer ajola du izenak? Beste buru-haustekorik izan ez baginu bezela Euskal Herrian...

Naparroko gizon bat bazen lehenbiziko eguneko euskaltzain haien artean: Arturo Campi3n. Donostiko Diputazioan urte askoz gure bilerak egin ditugun txokoan gizon honen burua ikusita, kezka ilun bat sortzen zitzaidan barnean. Noiz arte lur eman Naparroan? Campi3n zorra ez du ordaindua bere herriak...

Gauza asko eta bikainak entzun genituen gure lehendakariaren agotik. Ez amets goxotan lokartzeko. Euskaltzaindiaren mundura etortzea ez zan goizeko loretxo baten iruzkitara idekitzea izan. Arantza gogorak topatu zituen bidean. Eta lahar haiek gaur arte ez dute beren hozkako kemena galdu.

Halare, aurreramendu ederrik egin da. Egindakoa ikusi eta egitekoari esku botatzeko garai egokia. Berrogeita hamar urte hauek ez badira alperrik galdu gure aurrekoen jokabideari esker.

Eta guk zer?

1968, 28, ekaina, 1. or.

BATASUNA

Azkenaldi hontan euskeraren batasuna agotan da. Agotan eta buru-hauste gogorretan. Aspaldi beharra! herri atzeratuen kontua da, txoriari kaiola bezala, auzoari hesia egin eta aldekoen berri ez jakitea.

Kalte handia egin digu bakardadeak. Askotan entzun duguna «euskera zertako! Euskaldunen artean ibiltzeko ere ez du balio»... Negargarri, baino batzutan ezin ukatua.

Kanpoan ditugun senideak dute samin senditzen. Hona hemen Kaliforniatik neronek hartutako bertsu zati batzuk:

*Eskual Herriak ttipi eta urbil elgarri,
Halare batek bertzia ezin konprendi,
Gure izaite guzia batera baledi,
Formatzen ahal laike erresuma aundi.*

*Zer desiratzen dautan barnetik bihotzak?
Denek berdin egitia eskualdun solasak,
Bai eta iskiriatu gisa berian itzak.
Noiz atzemanen gaitu holako solasak!!*

*Aments hori erdietsiz gauza baliosa
Guziek konprenditzia familiako gisa,
Gidariek erakuts balezagute ontsa
Ez laiteke ikastia batere nekosa...*

ZER EGIN?

Lehenbizikorik elgarren arteko aztapuak kendu. Ezin da mahaiburu eta mahaipeko bezala elkarrizketa sortu. Euskera guziak badute beren alderdi ona eta maila berean behar dute sartu. Orduan etorriko da elkarrizketa. Bestela, betiko istiluak. Mezaren *Canon* esaten duguna, era hortan zuzendua izaten da, eta denetan berdina.

Oinarri batzuk behar lirake eta haiek betetzeko hitzartu. Oinarritako lehenbiziko legea jatortasuna. Ez hizkuntza baten edo bestearen jatortasuna, hitz bakoitz edo joskerena.

Bigarren hedadura, nundik nora zabaldua den. Esan nahi da, jatortasun berdineko pundutan, ezagunena aurrean dela jokatu. Gero besteak.

Azkenekotz, gerta laike gehienik zabaldua denak beste leku batzutan ez hori adieraztea. Esate baterako, *eztai* = boda. Hau da naski zabalduena. Halare, kontuan eduki behar, *eztai* = bizitegi Baxenabarren. Eta nolabeit ezkontzako festari *ezteiak*

esaten dieten Baxenabarren, ez lizake batere gostako ofizialki *eztei* onartzea, ezkontza kontuko.

Hitz gutxitan esateko, elgarrenganako begiramendurik haundienarekin hartu beharra daukagu batasunaren eginkizun hau. Ez ginuke ez garaile eta garaiturik gure artean behar.

1968, 28, ekaina, 2. or.

SAN JUANEN KANTAITA

Urteko egunik ederrena izaten omen zen Euskal Herrian San Juan eguna. Iruzkia sal-toka ateratzen zela diote. Nik ez dut ikusi. Ohitura asko dira egun hortan. Urdia-nen kantu polit hau kantatzen zuten neska-mutilak elkarri eskutik hartuta, bezperan:

- 1. Egun bai egun onek San Juan diruri
Ez da San Juan baia ala alunbra bedi.
Guazen San Juanera gaur arratsian
Etorriko gerala bihar goizian.*
- 2. Guazen San Juanera berduratara
Berduratara eta an egotera.
Juan nintzan Fraitziara etorri Maiatzian
Zalditxo urdinian astuaren gainian.*
- 3. San Juango iturriaren ondotik
Zazpi iturri urre kainuetatik,
Zortzigarrena metal zurietatik
Zortzigarrena metal zurietatik.*
- 4. San Juango iturrian dago ura berde
Amurraitxo freskuak antxen dirade.
Lemiziko eskua eta gero musua
San Juango iturriaren freskua!*
- 5. Jesukristoren lengusuba da
Aita San Juan Bautista
Aingeruak dantzan dabilta,
Dabilta, baia dabilta
San Juanen pozian dabilta!*
- 6. Andra mutur maketsa
Aingeruak dantzan dabilta,
Dabilta baia dabilta
San Juanen pozian dabilta.*
- 7. San Juan garagarrilian
Denbora galantian!
Maizik eta garik
Ez dagonian etxian.*

(Luzia Zufiaurreri hartua. Urdiain, 1966)

1968, 28, ekaina, 3. or.

SENDAGILEA

Langile ixila, gizon oso eta bihotz haundikoa.

Ez diogu inoiz esker onaren agiri bat eman eta gaizki ikusiko litzake bera omenaldi bat egin behar bagenio...

Bere egitekoa neke haundiekin balin bada ere, hots haundirik gabe bete izan du. Eta esku hutsean egin ere, inongo irabazien zurrumurruari begira egon gabe.

Duela hamar urte Diputazioak Euskeraren Aldeko Saila bere esku utzi eta lanari eman zion.

Haurren arteko sariketak bakartasun gorri eta diru gehiegirik gabe herriz herri zuzendu zituen. Diputazioaren izenean agiri bitxi batzuk eta diru-kutxako liburuxkak izaten ziren sariak. Euskera sukalde zokotik kanpora ateratzen hasia zen. **Argentina**.

Denborarekin *Príncipe de Viana* izeneko aldizkaria etorriko zen —bere haurra, esan ginezake—, eta herritako eskolak. Pixka-pixka gure hizkuntza zaharrak bere lekua hartzen du Naparroan. **Egun argia**.

Eta batez ere sortu da joko garbia: euskera napar guzien gauza, ez elgarren arteko ziri zorrotza...

Berak jakin gabe, sendagilea gure herriaren gertakizunetan leporaino sarturik, norbait da; kondairan sartua da bere izena. Euskera maitearen kondairatxo gogor eta barnekorrean, behintzat, bai Axular, Manezaundi, Campi3n eta bertsu doinuekin denbora guzitako gure mendiak jantzi zituzten bertsulariak bezela.

Makurrena da sendagileak ordaina eskatu duela. **Gaua?**

Ageriko izanen duen!! Beretako koropiloa, omenaldi bat egin beharko genioke eta...

Arte hontan, gure egiteko pozgarria eskerrak ematea da. *Príncipe de Viana* eta euskeraren izenean diogu:

Eskerrik asko, Diez de Ulzurrun jaun sendagilea!!

1968, 28, *ekaina*, 6. or.

EUSKALTZAINDIA

III. TXERTO BERRIAK

- ARTURO CAMPIÓN (Iruña, 1853 - 1936)
- R.P. PIERRE LHANDÉ (Baiona, 1877 - Tardets, 1957)
- JULIO DE URQUIJO (Deusto, 1871 - Donostia, 1950)
- DOMINGO DE AGIRRE (Ondarroa, 1864 - Zumaia, 1920)

Bizitza gauza handia izanik, ez aski mundura etortzea; sortu berriak berekin du lana eta hazi beharra. Denborakin egiten dira gauzak eta nahiko lanekin gizona. Zer esan Euskal Akademiaz?

Urte askoren buruan gauz bat egina ikustean ez da aisa nolako hasiera izana duen burura ekartzea. Gizona aipatu dut. Eta zer da, izan ere, munduan, haur sortu berri bat baino gutxiago denik? Halare, haur hori zerbait da, asko da. Haurra bera baino gutxiago, haurra egiteko asmoa... Eta zer zen 1918an Oñatin hartu erabakia, haurraren asmoari bide ematea baizik? Ordu arte amets zena, asmoen lerroan sartua. Zer asmo ziren hoiek?

JOKABIDEA

Hasieratik bi jokabide hartu zituen gain. Hizkuntzarena eta zabalkundea. Berexkuntza beharrezkoa. Hizkuntzaren argibidea, bere aberastasunak adieraztea bezela da. Baino zer egiten dugu gure sagarrak hobereenak direla esatearekin, sagardiak galitzen ari diranean? Euskaltzaindiaren beste egitekoa, beraz, euskeraren indartzea eta zabaltzea izango zen.

Bi jokabide hauek ez dira elgarrekin hasarre. Gerta laike jakintsu bat euskera kontuan inork baino gehiago dakiena, baino bere etxe zokoan sartua. Beste batzuk laneko izan laizke on. Horra hor bi maila, bi lanbide, biak zoin baino zoin hobeak euskeraren alde lan egiteko.

Asmoari sortu zaio arima. Badakigu zer nahi dugun. Elgezabal, Bizkaiko diputadu jauna izan zen burubide handi honen aita. Lehenbiziko lanak kemen guzia eskatzen du eta laguntza guziak ez dira gehiegi aurrera eremateko, esango zuen berak. Baino nola bazterrera utzi euskerari esku bat botatzea? Ez esku bat, biak eta hamar behar balira...

GIZONAK

Indarra behar zuen haurrak eta lau Oñatiko euskaltzainak —Azkué, Campión, Eleizalde eta Urquijo jaunak—, bost lagun berri izendatu zituzten urte bat baino le-

hen. 1919garren urte hartan bertan sortu ziren Euskaltzaindiko lehenbiziko laguntza-leak. Berrogeita lauetatik sei dira bizi: Manuel Lekuona (zuzendaria), Isaak López Mendizabal (ohorezkoa), Menéndez Pidal (ohorezkoa), Ibargutxi, Gabriel Manterola eta Odon Apraiz.

Denbora berean Azkue jauna lehendakari izendatua izan zen.

1920koa dugu gure Aita Damaso Intzako euskaltzain osoa. Txile aldean urte samalda ederra egin ondoan itzulia, uste baino hobeki etorri zaigu. Asko poztu gera gure artean ikustez eta urte asko opa dizkiogu bere Euskal Herri maitean.

Gizon haundi hauek egin zuten Euskaltzaindiaren gorputza, gizonen lanetik etorriko zakion gero indarra eta kemena, itzal haundiko zerbait izan arte. Hortan gaude. Haiak bezela, bakoitzak bere aldetik dezakena egiteko prest gu ere. Batzuk joan eta besteak etorri, Euskaltzaindia txerto berriak hartzen ari.

*1968, 29-30,
uztaila-abuztua, 1. or.*

HUARTE DE SAN JUAN

Iruñen, Taconera delako zugaizdian dauka bere harria. Lore eta beste gauza eder askoren ondoan omen-harri txiki bat, hosto azpian gordetako erbia bezela zuloan sartua. Gizon haundi baten oroigarri eskasa...

Neretako asko esan nahi du hosto-pilota harek. Zenbat aldiz ez ginen joaten ostegun eta festa atsaldetan ipar haize goxoa hartzera! Iruña sarrerako zubi berria hankazpian, Altsasuko trenak su botatzen zutela irrutian, haurtzai, soldado eta usoak. Hantxe, iruzkiari beldur den mutila bezela, hamaseigarren mendeko gizon baten oroigarria.

Harria aipatu dugu. Bizi aberats baten neurria ez da harriak ematen duena. Taconeran denak dira haundiagoak, ederragoak. Begira jarri eta, nor ote zen gizajoa galdetzeko modukoa da Huarte jaunarena.

Naparroko seme argi hau sendagile izana da. Donibane Garazin jaioa 1530garren urte inguruan, Espainiako aldean egin zituen bere eskola haundiak. Gutxi dakigu bere biziaz. Batzuk uste dute Huescan egin zela sendagile; beste batzuk diotenez Alcalá de Henaresen.

Nola edo hala, Granadan zegoen Baezako izurri (gaitz) bildurgarria sortu zelarik. Hau da sendagile bezela berak baliatuko zuen gertakizuna. Han lan egiteko eskaini zen eta bai egin ere. Gaitza menderatu zuen heriotz haundirik gabe eta han agertutako trebetasunak asko baliatu zion bere izen onari.

Halare, bere aipamen haundiena liburu bati zor dio Donibaneko seme haundiak. *Argien azterketa* esan ginezake euskeraz berak adierazi nahi izan zuena, *Examen de Ingenios* erderaz. Nork zertako errextasuna duen adieraztea ez dela xorginkeria gaur sinesten dugu. Baino orduan gai hontaz idazteko eta eman zituen argibideak emateko, ez zen makala.

Harrigarriena, hainbeste urteren buruan haren esanak zerbaitendako balia dezaiketela jakitea da. Eta jakitsuak diotenez, Huarte jauna gaur bertan mundu guzian aipatua da, Espainian ez bada. Berdin gertatu zen liburua argitaratu zuenean. Europa osora zabaldu zen eta gutxienez bost hizkuntzera itzuli. Gure artean berriz, aitzakia eta buelta, Inkisizioa delakoak giltzapean sartu zuen liburua. Betiko burugorrrak!

San Fermin egun batez izana naiz Huarte jaunaren iduria Taconerako harrian ikusten. Bide baztarreko belardi goxoan etzanik, mutil bat lo. Hiri-baratze zaindaria, berdez belarra bezela, txartela eskuan mutilarengana... Esnatze txarra. Festak. Ardoa.

Hantxe bertan Donibaneko sendagile argiaren harria bere axeri zuloan. Ongi dago dagon lekuan, hobe du burua ez jasotzea. Zer esango zuen San Fermin festak ikusita?

Hantxe bertan Donibaneko sendagile argiaren axeri zuloa...

Nahi gabe poza hartu nuen ez goregi ikusita. Hobe du burua ez jasotzea. Beste mundu bateko basapistiak izan balira bezela, bi gazte edo jenero, ez dakit zer modutan...

Han. Han *Examen de Ingenios* eta sikiatra guziak!

Zer nauzu? Sanferminak...

1968, 29-30, uztaila-abuztua, 1. or.

BEGI ZORROTZA

Jakintsu haundi batek esana da pentsaketa berriak egiten dituztenen hutsak begira-mendu haundia merezi dutela (Aristoteles); izan ere, hain zaila da gauza berri bat asmatzea! Gero bai, bidea ikasi ondoan aisa da aurrera joatea. Herriak esaten duen bezela, *ikusi ondoan urrixia*.

Huarte Donibanekoak hutsak baditu bere *Examen de Ingenios* liburuan. Garai hartan ezin ukatuak bezela ikusten ziren egi asko ez ziren hain egiak eta berak ontzat ematen ditu. Medikuen jakintza bera sasijakintzatik ateratzen ari zen oraindik. Liburu Santutako esaerak dira askotan bere jakintzaren arrazoi hoberenak, eta Liburu Santuak ez ziren gizonen jakinduria erakusteko eginak. Eta era hontan huts asko. Baina badu, beste alde, Donibaneko sendagileak alderdi onik bere liburuan, gaur harritzen gaituzten bide berriak ideki zituen bere begi zorrotzak.

Burua ez da bakarrik bizkar gainean eremateko. Huartek dionez, burua ikusita ezagutzen da gizona. Batzuk on dira jakintzarako eta beste batzuk hobe lukete aitzurra hartu. Badira amets haundikoak, argiak; eta ilunak, buruz behera jaiotako barnesatorrak bezela. Buruak esaten du bakoitzaren joera.

Eta berez gai sakonak izanik, hain hizkuntza herrikoa du! Harendako gizon batzuk ahuntzak bezela dira: arriskua maite, zirritu gaisto guzitan beti, argi berrien bila dabiltzanak. Beste batzuk, berriz, beren denboran ardi izateko jaiok. Ez dira inoiz beren bidetik aterako, eta aurrekoaren aztalak jaten hautsiko dituzte muturrak. Ez esan halakoeri badela beste biderik munduan. Baina artaldean ahuntzak bezela denetatik behar da munduan. Ahuntzak astintzen du artaldea eta bidean joanera arintzen, beti bazka beretan ez egoteko.

Harrituko gera orai haurraren joerak txikitatik ezagutu behar direla entzun eta? Hamaseigarren mendeko sendagile honen liburua gizon ezagubiderako egina izan zen eta, jaun haundiak diotenez, hainbeste denboraren buruan erakusgai gehienak gaur baliatu daizke (G. Marañón).

Hitz berri asko entzuten da gaur medikuen artean eta berek idazten dituzten guziak bezain aldrebesak: frenologia, kraneoskopia eta beste. Eta gero non jakiten dugun Napparoko jakintsua izan zela hauen guzien aita! Ez hitzena, burubide hoieta baikik. Ikaskintzako sikologia, berak sortutako bidea omen da.

Napar argi honen berri ematean, guk ez bezela ezagutzen dutela baztarretan esan behar! Eta pozten gera hortaz. Guk bezela egin balute besteak ez zuen inork jakingo nor zen Huarte de San Juan, hain begi zorrotzeko gizona.

1968, 29-30,
uztaila-abuztua, 3. or.

LAKUNTZEKO PERTZA

Zenbat lakuntzar ote zen herrian buruilaren 18an? Ez dakit norbaitek jakingo ote duen. Asmatzekotan, nahiago nuke nik gelditu zirenen kontu eman. Aralar mendira joan zirenena baino. Gazteak oinez mendia gora eta ezin zutenak jarrita. Bi autobus haundi, alde batetik, eta astoaren inguruan zirenak, bestetik. Eder da herri bat osoa elkartasun hortan bat eginik ikustea.



Bi gauza berri aurtengo festan, biak jatorrak. Pertzaren malkor gainetik botatzea eta eguerdiko bertsolaria. Norbait konturatu zen gauzak beren gatza behar dutela eta han sortu zen xalxa!

Bidean, pertzaren hotsa. Han izan balitz errotari gizajoa! Nahiko lan eman zuen astoak. Haren hanka mehe, zimelak, ez zuten lurrera joan nahi. Ezin kendu behar bezela pertza. Bezperako Martinen zaldare irinak *konpuesto* guziak baino indar gehiago zuen nunbait. Astoa belauniko ikusi nahi eta berak ezetz, San Migelen errezatuko zuela...

Mihi gaiztoak esaten dutenez, nola edo hala errenditu omen zuten asto txikia, eta han joan zen hankaz gora pertza.

Gehiago da Oreja bertsolariaren bildurra! Zuria baino zuriago da Guarden etxe-ko iruzkiaren argia. Itsutzeko zuria. Eta Orejak ilun ikusten zuen Lakuntzeko Pertzaren kontua. Bere gazte denboran esan behar lakuntzar bati pertzaren konturik! Beldur zen norbait mintzeko eta apez alferrekin sartu zen leporaino. Asto beltxarenak han bota zituen gure bertsolariak, lan gutxi eta salda ona hartzen duten elizgizonendako. Denetatik izango baita Jainkoaren baratzean. Hori bai, bertso legunekin gozatu zuen gero laino beltzen erauntsia. Berriz entzuteko gogotan utzi gintuen Orejak.

Goizeko haize hotza bertsuak bezela, arinduz, epelduz joan zen eta bero zen eguerdi garaian. Itzal txiki bat zegon askoren asmoan: meza. Euskaldun festa, ohitura euskalduna, euskaldun jendeak eta Aralar mendian lakuntzarrak erderaz meza. Portuges zapel haundi batzuk nituen ondoan eta haiengatik poztu nintzan. Ez litzake gutxi denentzako zerbait izatea. Ez dago esku txarretan. Aurrera!

Hori bai, tripota kia dariola eta mendiko gosea ongi uztartzen dira. Haren pareko oilaskorik!! Ardo gorriak gero azken hitza esan ondoan, danok Guarden etxe aldera. Beste urte bat arte. Lakuntzarrak ez dute galdu beren gatza.

1968, 31, iraila, 6. or.

ARALAR MENDIA

Aralar da Euskal Herrian aipatuenetako mendi bat. Ez naski gora delako, badira haundiagoak. Pagadi ederrak eta belar onak baditu, baino ez da horrengatik ere, gure Jainko-mendia delako baizik.

Zahar da, bere bizkar guziko harri pila eta inguruko leze sakonak bezela. Badi-tu suge-labe, sorgin-zulo eta gizon-jale ilunen esaera zaharrak. Noizbaiteko gizon haundiak Aralar mendian omen zuten beren hilarria. Baino denbora berean gazte da gure mendi nagusia TV eta tresna berri hoiek sartu dizkioten burdin ziri luzeak, edo hango udazale guzien kolore biziak bezela.

Ez dakit zergatik, baino haundi zait alderik alde Aralar mendia eta denbora be-rean txiki, oso txiki, euskaldunon ametsen garaian. Ilun, esaera zaharretan, garratz Goñiko zaldunaren gate-hotsak, motz hainbesteko aztapuak... Baino luze, hori bai, Jainkoa lagun euskal ametsen soka geroari begira.

Gure Mikel Goiaingeruaren iduria bakarra da munduan. Zerua galdu zuten ain-geruak eskuak burura eremango zituzten bezela eusten dio bi eskuz gurutzeari bere buru gainean. Gehienetan ezpata eskuan eta suge-mutur beltza hankazpian duela ikusten da. Gureak gorputz baino aisa hegal gehiago badu, ezpata eta hankarik ez, aurpegia ere gorderik zer baten barnean, Jainkoaren kosmonauta bezela.

Ez da gaurkoa Napparroan besoak jasota dagon Mikelen iduria. Hamabigarren mendeko elizatarian daukagu Berrioplanon, Iruña inguruan. Eta zaharragoko harrian, uste dugun bezela bedratzigarren mendekoa balin bada Ikustetxe Nagusian (*Museo de Navarra-n*) dagona.

Eta zer esan Aralar mendiko elizaz? Aldare aurreko izana den *retabloa* eta eliz-buruko erromanikoa genituen ikusteko guzia. Barneko harriak agertzen antzinako eli-za baten leiho mutuak atera dira orai. Hau ote Napparoko eliza zaharrena? Jakintsuak agotan duten galdera da.

Denbora berean ostatua jasotzeko lanak abiatuak dira. Uste baino lehen gerta lai-ke gure mendialdetako Zaindari Nagusiaren eliza euskaldunon sinestearen bihotza eta hango aterpea danon ametsen neurri betea. Denborak esango du. Gaur inoiz baino gehiago muga gabeko izen zabala dugu Aralar mendia.

1968, 32, urria, 1. or.

EZKIL JOTZALEAK

Euskaldunok izatez apustulari omen gera. Horrengatik ditugu hainbeste txapelketa. Eta orai bat gehiago. San Migel egunean eta Aralar mendi azpian, ezkil jotzaileen txapelketa. Hamabost bat, azkenean hamasei sokalari eta jende asko ezkileri begira. Denbora hotza eta luzexko aurtengo saioa. Munduko autoak bide baztarrean.

Gure txapelketa gaztena izango da, bigarren urtea. Halare, adin haundiko jokuen itzala eta gartza hartu duela esango nuke *Iyabar*-ko festak. Lehenbiziko hasiera hartako jendearen beldur eta patxada ixila baztarren utzirik, iritzi asko entzuten zen langararekin nahastuan. Ikusi ditut organolari trebe eta diskotan beren txintxurretako etorria emana diguten kantariak. Mundu zabalera hedatua da *Iyabar*-ko ezkilaren deia.

Jokabide berri honen ikasgaiak ageri dira. Alde haundia bada entzun ditugun doinutan. Herri bakoitzaren nortasuna adierazten dute ezkilak. Erriberako joera eta gure, esate baterako, ez dira berdinak. Iruzki lurretako gizona indarrez ari da bere egitekoan; kementsu. Baztar haundi eta traba gabeko zelaietan auskolo noraino helduarazteko moduan. Hori da, izan ere, ezkilaren egitekoa.

Mendi aldean ez da hala. Ezkil haundiak dira eta halare inguruko tontorrak ixilarazten dituzte, iresten eta jaten. Inguru meharretan ezkilaren deia herritarrendako gelditzen da eta indarraren orde, bihotza da naguse. Doinu arin eta musikari ritmoa, *artist* lana. Doneztebeko ezkil jotzalea kitarraren hariekin ez zen finago ariko. Eta bizkaitarrak euskal kantu ezagun baten airea ekartzen zigun gogora. Musikaria dela esango nuke...

Bien artekoa, Sakana. Izan ere, hala da Barranka, gure menditako erribera txikia. Barrankesak menditarrak izanik, badute Erriberakoen azal gogor bat berekin. Hala esaten digute, behintzat. Eta ezkil kontuan badu Sakanak bere eskola berexia. Harrigarri da zoin iduriak diren inguru hontako herri guzien ezkil jotzeak. Elgar hartuta ari direla iduri eta orai arte ez zuten elkarren berririk.

Tomas Ganboa Arbazuko txapeldunak beste herritar bat izan zuen etsai haundi: Pedro Arratibel, Iruñen bizi dena. Txapelduna hamabosgarren ari beharra zen eta hamalagarren beste herritarra. Azken orduan Estellerriko bat sartu zuten bien artean. Jendea joaten hasia zen, berek galduko zuten. Zoin baino zoin hobeki ari ziren biak. Ezin zen gehiago eskatu. Nire ustez, bizitasun gehixagorekin txapelduna eta horrek eman zion berriz ere saria. Doinu bakoitza ez zuen asko errepikatu eta inun diren alaketak sartu zituen bere saioan. Neurriak asko esan nahi du gauza guzietan, eta neurri-neurrian egon zen Tomas.

Bigarren saria Pedro Arratibelendako eta hirugarrena ere Sakanan gelditua da, Antonio Senar Lizarragoak jaso zuen. Zorionak eta beste urte bat arte.

1968, 32, urria, 4. or.

ARRUAZU

Arbazu, euskeraz esaten den bezela, ezkil onen herria eta ezkil jotzaliena. Bi urtez egin dira ezkil jotze saioak eta bietan txapeldun gure herritar Tomas Ganboa atera da.

Herritar asko *Iyeban*-en, batez ere gazte jendea. Haize hotza eta langarra zero ilunetik dariola. Txapelduna azken ari beharra zen eta bere aurretik etsai gogorrena, Arbazuko ezkil jotzalien maisu Pedro Arratibel orai Iruñen bizi dena. Eta hantxe egon ziren Arbazuko neska-mutilak zer gerta.

Batzuk eta beste beren iritziak ematen ari ziren eta ez ziren atertzen. Hori ona da, aurpegi luze eta ilun, ezinbestean egotea baino hobea. Bizkaitarra oso egoki aritu zen. Beste asko ere bai.

Ikusi nuen neskatx bat sokalariak hainbat lan egin zuena. Nunbaiteko ezkil ixilak jo izan balitu bezela mugitzen ziren haren esku eta ezpainak Pedro eta Tomas jotzen hasi zirenean. Nik uste ez litzakela atzean geldituko bera ere lan hortan. Eta harek agertzen zuen ezinegona zeramaten barnean bere lagunak ere.

Pedro Arratibel oso ongi iduritu zitzaigun. Ez zuen puntu bat huts egin. Esku haien ikutua garbi ematen zuten burniak. Bi saioak oso desberdinak izan ziren doinu eta ritmoan, baino berdin ongi joak. Hura entzun eta galdetu zaiken, eginen ote du beste horrenbeste txapeldunak?

Etorri zitzaion bere aldia hoberenari eta dakien guziaz eginarazi zien bi mutileri. Bildur zen gero jaistean, punturen bat ez ote zitzaion nahi bezela atera. Beste batzuen bildurra mahaiburukoen jokabidea zoin izango ote zen; merezita ere emango zioten bigarren aldian txapela? Eta bai eman, bai! Hango besarkada eta istiluak. Ez zen gutxiagorendako, asko ziren eta onak. Hiru punturen alde eskaxa izan zuten bi arbazuarak. Hona puntuak:

- 1.º Tomas Ganboa Ganboa, Arbazukoa. 64,5 (70 punturako). Burnizko txapeldun agiria eta 3.000 peza. Bigarren aldiz txapeldun.
- 2.º Pedro Arratibel Bergera (Arbazu). 61,7.
- 3.º Antonio Senar Senar, Lizarraga (Ergoiena). 61,5.

Zorionak deneri eta ez dailela galdu Arbazuko sokalarien eskola ona.

1968, 32, urria, 5. or.

BATASUNA

Euskal Herria, bizitzeko, batasunaren beharretan da. Zerbaitetan iritzi berekoak **E**balin bagera euskaldunok hortantxe izango da. Garbi ikusi da Arantzazuko Batzarrean. Ez dut esana urriaren 3, 4 eta 5ean bilera haundi bat egin dugula Arantzazuko frantziskotarren etxean. Lan garratza ginuen gure gain hartua, euskal batasunarena. Saio luze eta sakonak, alde batetik, eta bestetik iritzi desberdinak. Baina jendetasun haundiarekin joan dira gauzak eta azkenean argia atera da.

Nor ginen han? Euskaltzaindiaren deiari erantzun nahi izan dioten euskaltzaleak. Alegia, idazle eta irakurle, maisu eta ikasle mota guzitakoak. Denentzat ziren atariak zabal-zabala. Eta jakina, ez zen zahar edo gazteen kontua, han ziren alderdi guztiak.

Euskaltzaindiak bere urre ezteietan lan iraunkor bati lotu nahi izan du eta ez zaio iduritu batasunarena baino beharrezkoagorik bazenik gure artean. Berdin idatzi behintzat, nahiz eta ez berdin esan gauzak. Beste hizkuntzetan gertatzen dena. Oñati sortu zen Euskal Akademia eta, jakina, Oñati inguruan nahi genituen urre ezteiak ospatu. Hau zen mendi zoragarrira ereman gaituen haria. Ehunen bat pasa izango ginen eta, beste alde, iruzki ederra.

Nundik edo nola hasi? Hori zen istilua. Eta erraxenetik jo da. Ortografia delako izen marretatik. Joan etorri batzuk gorabehera, esan dezakegu egina dela gure ortografiaren batasuna. Beste aldi batean emango dugu horren berri, denek jakin dezaten. Oraitik adierazten dugu ez dela zaila izango.

Bigarren gaia morfologia esaten den hitzen jokabidea. Eta azkenik hiztegiaren aukeratzeari dagokiona. Hitz zerrenda haundia du euskerak eta, bestalde, aldaketa asko. Lan luzea izango da denen aztertzeke lana. Nolanahi dela, hasiera ona eman dakio eta uste dut fruitu ugariak emango dituela bere egunean urrileko Batzarrak.

Hasiera esan dugu, besterik ez baida egin dena. Batasuna ez du Euskaltzaindiak egin behar, ezin luke egin. Batasuna euskaldun guzioen egitekoa da. Euskal Akademia gidari dela. Orain ikusiko da zer-nolako haria dugun bakoitzak eta sakonagoko lanik etor laiken honen atzetik. Euskeraren eta Euskal Herriaren onerako batu gaitezen denok.

1968, 32, urria, 6. or.

GAUA DA...

1968. Eguberri. Beste urte bat bizkar gainean. Non geldituak diren hasierako asmo berri eta ametsak! Lehen baino hobeak ote gera gaur gizonak? Zer dio hiltzera dijoan Urtezaharrak? Nik esango nuke gaua dela orai bi mila urte bezala. Gizonen bihotzeko ostatuak etsiak ditu Jainkoak, dirua naguse. Betiko Herodes maltzurak gezurraikin Jainko bila. Karzelak, odola eta negarra. Gizonaren gaua.

Lotsa da izar bidetan dabilen mundu bati gosez hitz egitea, baino aurtengo goseak badu bere izena: Biafra. Ezin lur emanda, txakur gose guzien janari gizonen gorputzak. Haurrak beren ama gaixoen altzoan negarrez, erdi ustelduak... eta nunbaiteko ilargi hotz baten bila zerura begira, mundua. Ez al du goi hortan inungo astronautak izar bat topatu, Belengo izarra? Baginuke gizonen bideak argitzeko zerbaiten beharra. Gaua da.

Negu hotza herrien arteko hartu-emanetan. Vietnam edo gizon hiltzen ikasteko tresnen eskola, hango jendeak amarik ez balute bezala... Txekoslovakia, udaberriko txoria, bihotz gabeko ehiztariaren saretan sartua. Afrika, Mao eta zuriak...

Hotza da gerra eta elkar ezinikusia, bere nortasuna hankazpian zapalduarik ikusten duen herriaren pakea bezain hotza. Eta bururik ezin jaso duen gizon beltzak, besoak jasotzen ditu zerura, Jainkoari begira. Gizonen gaua, bihotzen hotza.

Gauazko lana gizon honen ametsak segatzen dituen heriotza, Luther King, Robert Kennedy bezala. Gau beltza.

Non dago Belengo izarra bi mila urteren buruan ez argitzeko mundua? Non Jainkoa? Noiz arte gaua eta odol iturriak!! Jainkoaren izenean karzelak idekitzen dituztenak, edo Jainko bila han sartu direnak ikusiko dute egun berria? Noiz arte gizonen gaua?

Atoz Jauna, ez berandu.

1968, 33-34, abendua, 1. or.

EGUBERRI...

EGUBERRI... bortua zuriz beztii!
Munduko ilundurak zoin diren ezti
Gauaren erdian argi bat jinik
Zerutik.

Bego, bego ardi xakurra etxian,
Eta egin kantu... sorlekuko kantuak,
Arditan dabilta gaur aingeruak
Mendian.

Aitak ekarri du sukibeleko
Trunku motz, adar biziko mokorra,
Baita haurrak galdegin, hain den gogorra
Hausteko.


Arno xahar hunek —aitatxik dio—,
Engoitik badu batek hainbat kemen...
Eta orduko lau sos bezik ez omen
Balio!!

Gaixo oilar gorri, beste orduz kantari!!
—Betiko murriz—, afaitera doatzi,
Gaztainik aski ezin erre, elakari
Amatxi.

Mahaitik ama baztertu da poliki
Haur ttipiaren begiak hanturik,
Eta hantxe du —besotan lo—, ixilik
Atxiki.

Eztiki egin dio kantu polita
Biak bezik ez zuketela aitzen,
Gaberritako suietez oroitzen
Hasita:

«Goizeko izarren jeikitze hata
Arros gorri baten ezpain garbian,
Iduritzen zait, haurra, zure aurpegian
Arnasa».



«Sugarretan gainezka dut odola
Izar izpi baten argi senditzen...
Zerutikako eguzki hura nola
Ote zen?».

EGUBERRI... bortuan elurra ari!
Otsoak joan dira betiko hemendik.
Bero da gauza, ez beldur izan gaurtik
Hotzari.

1968, 33-34, abendua, 4. or.

EUSKERA ESKOLETARA?

Bilboko *Euskaltzaleak* Madrilen agintariekin egon direla, eta berri onak sortu dira baztarretan. Azaroaren 10ean zerbait esan ziguten hortaz Nafarroko egunkariak. Berrogeita hamar mila bizkaitarren izenekin betetako liburuak ereman zituzten Madrila, eta agintarien erantzuna oso ona izan da. Baina ikus ditzagun nola diren gauzak.



Euskaltzaindia (Akademia) aspaldi zebilen gauza honen atzetik. Duela bi urte ministroarekin egon ondoan oso hitz onak hartu genituen. Batzorde teknikoaren eskutan zegoen lana. Baina beti gertatzen dena. Hitz honetan geldituko zen beldur ginen. Hori bai, beharrezkoa zela ikusten zuten. Eta aitortu ere bai. Lehenbiziko pausua.

Aurtengo udan aldaketak izan dira eta ministro berriaren asmorik ez ginakien. Bilbotarrak izan dira aurreratuak. Beren berrogeita hamar mila firmak besapean zituztela agertu ziren egun batez Ministerioan. Gutxiz gorabehera berri hauek ekarri dituzte:

- 1) Ikastolak onartzeko gertu daudela.
- 2) Erdera eta euskera berdin erakutsiko direla.

Bi gauza dira hortako beharrezkoak:

- a) Politika alde batera utzi ikastetxetan.
 - b) Erakusleak tituludunak izatea.
- 1) Euskeraren etsai amurratuak. Otsoak ez omen du bere haragia jaten. Guk nahiko hozka egiten diogu geuron buruari. Ez da holako otsorik munduan. Zertako hainbeste gorroto? Ez dute merezi Euskal Herrian bizitzerik. Euskal menditako haizetatik irruti. Tarazonatik behera dute hoiek beren lekua. Eta denok pozik.
 - 2) Epel-hotzak. Gorrotorik ez, baino ez hotz eta ez bero. Ez dute mesede haundirik ikusten euskerari. Beren haurrak ez dakite euskeraz eta ez dute kezka haundirik kontzintzian. Itsuak dira eta itsuen argitzeko jarriak. Beste nunahi bete lezakete hobeki beren egitekoa...
 - 3) Gizontasuna aurrean dutela, badira beste asko eta asko Elizaren erakutsiak eta Gizonen Eskubideak (Derechos Humanos) ikasi dituztenak, eta beren jorkabidea zuzentasunean sartu. Hauek dira Euskal Herriak behar dituen maisuak. Ez du ajolarik erdaldunak izanik.

1968, 33-34,
azaroa-abendua, 8. or.

ILARGIKO BIDEA

Aurtengo Eguberriak ilargira begira egin ditu munduak. Hemendik aurrera badu gizonak bide berri bat: ilargirako bidea. Borman, Lovell eta Anders izan dira izartegiko Kolon eta Magallanes berriak. Eskolako liburutako hiru izen. Denbora luzean agotan ibiliko dira aurtengo eguberriak.

Gure zaharrek esaten zuten eta soina han ote da? Baino, esaera horrek badu bere soka luzea. Otea bilduta soina bizkarrean omen zetorren gizon bat etxera. Ilundu eta biderik ikusten ez. Ilargia otoiztu omen zuen «atera adi bidera» esanaz. Bai atera ere ilargia. Ederki baliatu eta etxera sartu zanean, zanpez atea etxi omen zuen. «Orai joan hadi txakurraren ipurdira» izan omen ziren bere hitzak.

Ilargiak gaizki hartu eta idekirik zegon atal-leiho txikitik sartuz, gizona bere ota soinakin ilargira ereman omen zuen. Geroztik, aldian behin, ota soinaren itzala bi adarren erdian ikusten zela zioten.

Aurten ilargi hori menderatu du gizonak. Hamar inguruko lokarria eman dio bu-ruan. Beste aldian, arranoak mendian bezalaxe jeitxiko zaizkio gizonak. Hemendik aurrera ez dute inungo haurrak ilargi motzaren sorginkeritan sinetsiko.

Ilargiak bazituen bere itzalak. Gizonarendako haundiena, inoiz erakusten ez zi-gun beste aurpegia. Orai badakigu haren berri ere. Hamar aldiz begiratu diote hiru gi-zonek eta ez da lotsaz gorritu. Hala ikusiko bagenitu guk geuron itzalak!

Txapelketa bat bezala hartu dute batzuk beste izarrak eskuratze hau. Norgehia-goka dabilta Errusia eta Ipar Amerika. Ez dira konturatzen gastu erdiarekin egin lai-kela hori biak elgarretaratuz. Alderdi baten diru aldea nahiko litzake munduko gosea ixiltzeko. Bitartean, munduko hiru gizonetatik bi jatekorik gabe.

Jakintza ez da behar bezala banatua. Batzuk asko eta beste askok ezer ez. Ilargi hortan jendeak bizi izan balira zer esango zuten gure gauzak ikusita?

Makurrena da txakurra eta katua bezala gabiltzala elkarren artean. Gerra eta zi-kinkeri, beti burrukan otsoak bezala. Ez zen hobe izango besteren etxeko kontutan sartu baino lehen lurreko nahaspilak zuzentzea? Anai arteko giro jator bat sortzea?

Hiru gizon hoiek ereman dituzten tresnak ere ez dira oso egokiak. Nahasketa gehiegi badute Saturno eta Apolo haundi hoiek bere pizte, erditze eta sugarrekin. Ari-nago den zerbait asmatu beharko dute eta, soina utzita gorago igotzekotan. Arrisku gehiegiko jokuak dira.

Ongi atera eta ongi konda. Baino hauek dira, ilargiak bezelaxe, gizonaren gaur-ko jokabideak dituen itzalak. Batzun eta besten fantesi hutsa.

1969, 35, urtarrila, 1. or.

LUKASEN URTEBETETZEA

Ilbeltzaren hemeretzian laurogeita zortzi urte betetzen ditu Lukasek. 1881garren urteko lehenbiziko haurra izan zen Urdiainen. Hori dela eta, bere etxean ikusten izan nitzai. Ilunabarra. Hotz zen kanpoan. Su eder baten argitan, geldi-geldia garrari begira zegoen gure gizona.

—«Etzaitut senditu! Gure kontuak hola dira: batzutan norbaiten hotsa iduri; atara ta... oiloak. Beste batzutan, berriz, jendea ataria joka eta nik ezer aditzen ez. Zer nauzu! Urteak».

—Hainbeste urterendako, ondo zaude!

—«Orai baño gaizkiago ere ibili naiz. Ezin da fiatu, e! Egun bat ona ta bi txarrak, hola da gure kontua»...

San Sebastian egunean hartu zituen bataioko urak. Garai hartan, biramonean bataiatzen zituzten haurrak. Egun seinalatua dela esan diot, eta berak orduan:

—«Bai, urteko festarik haundiena izaten zan. Orai galdu da. Herriko haur guztiak, arroparik hoberekin ateratzen zituzten prozesioan. Peste edo halako zerbaiten kontrako indarra zuela esaten zuten. Sebastian izeneko lau gizonak erematen zuten santua. Berak trebe ez baziran semeren bat eremanazten zioten ebein partez».

—Beste ohitura zaharrik izaten zen egun hortan?

—«Arrosarioko denboran idiak askatzen zituzten etxetan. Herri guzian barna ibiltzen ziran, batean salto bestean adarkan, elgarrekin burrukan. Gero kendu zan hori, agindu zuten ez ganadurik ateratzeko eta askoz hobe. Hura etzen modua».

—*Veinte de enero, San Sebastián Guerrero*, esaten zan Urdiainen. Eta hori zere-rengatik? (malezi gabeko barre bat egin du, eta gero):

—«Ardua ematen zuten auzoan. Denbora haietan, badakizu, ardo bazen, ona eta merke. Baño dirurik ez. Jende guzia auzora inguratzen zan holakotan eta batzutan gexegi edan ere bai. Etxeratu baño len okasioa seguro. Gero... *San Sebastian Guerrero!*».

—Bataio paperak dionez, Pedro Jose Zufiaurre izan beharra zen zure aita ordeko. Kanpoan izanki bere seme Lukasek jaso zintuen. Bazinakien horren berri?

—«Pedro Esteban ez, baino Pedro Jose zaizkion eta nire aitaren anaia zan. Lukas, ni jaso ninduen, haren iloba. Emakumea izango zan berriakin joan zitzaiona: Pedro Jose, fede santuaren amenturako iloba bat gehio baduzu. Famelian bostgarrena. Eta berak erantzun: Horren espera ago? Horrek emango din jatera... Amerikanoa, diruduna, ta gu pobriak. Hortako ez ninduen jaso. Eta bera ere pobre hil zan azkenean... Lukas Txikik askotan esaten zidan: *Gure rebeldiak nahi ez ta ereman niken nik pontera...*».

—Zure ama ponteko berriz Maria Brigida Zubiria izan behar zuen eta bataio agiriak dionez gaixo zegoen. Bere orde z alaba batek jaso zintuen.

—«Bai, Maria Josefa Guridik. Gure ahaideak ziren. Jaiskiak egiten zituzte. Behin batez ongarri jaiski haundi bat agindu zieten Altsasun. Su ondoan jarri ta egin zuten saski hori, ederra egin ere! Handik ateratzen hasi gero ta, ezin atera. Ez hartzen atariak. Berriz askatu, ezkatzera ereman eta hantxe bigarren aldian egin behar izan zuten jaiskia. Guriditarrak, Vitoria ezkondu zan alaba eta harekin joan ziren, denak».

Lukasen burua putzu bat da. Liburu haundi batek baino gehiago badaki. Berarekin egonean beti zerbait ikasten da. Oraikoan bataio paper zaharrak leitzen ikasi dut. Han ez da hainbeste gauza esaten. Gizon bakoitza mundu bat da eta Lukasen mundu hori eskutan daukagu. Luzaz utzi dezaigula Jainkoak.

Zorionak laurogeita zortzi urte betetzean!

1969, 35, urtarrila, 2. or.

ARRUAZU

Break eta asto beltxarenak entzun ditu oraikoan Arbazuko herriak. Hori esan lezakete, bizi balira, garai bateko gure zaharrak. Nik ahal banu dena gezurra dela esan nezake. Baino ez dezagun galdu burua...

Duela zenbait urte izarretan jartzen zuten denek gure herria. Izarretan ez, baino zeruan esango nuke nik. Ez zen halakorik munduan. Nere iritzian arrisku haundiko gauza da hain gora jasotzea herriak. Gainbehera irristaka hasten badira... Zenbat eta goragotik erori, haundiago da muturrekoa. Sorgin haize nahasiak mugitu dira azkenaldi hontan gure inguruan. Zer egin? Zer esan?

Nik ez dut gaizki hartu. Bazirudin besteak ez bezelakoak izan behar ginuela gu. Itzal gabeko iruzkiak. Ez dakit nungo erreinu gabeko aingeru kasta. Nik, berriz, inungo jainko-txikitan sineste gutxi. Halako batez konturatzen hasi gera lurraren gainean ginabiltzala, hezur eta mami, beste guziak bezela. Ez ginen hobeak, onak ginela esaten zigutelakotz. Ez eta orai gaistoago, ago gaiztotan gabiltzatelako.

Itzala. Eta zer da itzala? Plazako arbolak udan bezala beharrezkoak dira herrian itzalak. Hobeki agertzen da argiaren ederra. *Arnabarreta*-ko harri eta malkorrak ikusita zerbait da gero are lurra. Hori bai, baso baztarrak ez du urak hartzeko bildurrik. Bakoitzari berea.

Neska gazte batzuk ez dutela euskeraz ikasi! Berek galduko dute. Merke aski jakingo zuten beste batzuk nekez ikasi nahi dutena eta ez dakite. Baino zertako ez esan badirela mintzo duten neska gazteak ere? Eta ez dira lotsatzen euskaldunak direla esaten...

Ni falta que me hace... (Hori bai, askotxo esatea da. Baino konturatuko dira).

Haurretan ere denetatik bada. Gurasoen falta. Halare, duela hamar urte ez zen hainbeste haur euskaldun Arbazuko herrian. Ez baida gaurko gaitza! Gerta laike hauekin ere lehengo batez batxillergo eskola batean gertatua. Ingles ikasten hasiak eta euskaldun bati bere lagunak barre egin. Maisuak orduan, erderaz: Nik ez dut barrik egin eta, egitekotz, zuen gain egin nezake... Eskileretan bigarren koska igotzen hasi zerate zuek, eta honek hirugarrena... (Maisua erdalduna zen eta barre egin zutenak euskaldunen seme-alabak).

Neretako errexago izango zen Arbazuko euskera kontuan, nola ohitura garbitan lehengo zela esatea. Baino iruzkia den lekuan, izango dira itzalak. Eta Arbazun bestetan bezala.

1969, 35, urtarrila, 6. or.

OIHANZALEAK

Eskual Herriak baditu bere itzalak eta, ez txikiena, lurraren estutasun eta etorki eskasa, ezin bizia. Gure mendi tontorrek ez ziren gari pilak. Hori dela eta, denbora guzietako eskualduna bere semeak norabeit bialtzera behartua izan da. Ez da ikusi besterik. Itsas beste aldeko lur berriak sortu baziren da sortu eskualdunez bete ziren hango baztarrak. Bost senidetatik bat geldituko zen etxean eta besteak Ameriketara zuten beren dotea.

Azaletik gauzak begiratzen dituztenak, herri baten indar ixurtze hori ikusita, eskualduna berez ezinegona, alderrai eta sosegu gutxiko gizona dela uste izan dute. Zer gerta eta amets zoroen atzetik ibiltzale. Ez gintuzten ongi ezagutzen.

Herrizalerik balin bada, eta sorlekua maite duen gizonik munduan, eskualduna dela esango nuke nik. Erditzera dijoazen aingerak bizi legez joaten dira itsas beste aldera, eta itzultzea berekin daramate asmoan. Eskualdunak, besterik ezin duenean, bere hezurak nahiko lituzke bialdu bere herrira. Ez zaizkie joandako guzieren gauzak nahi bezala gertatzen eta, hala ere, zenbat indiano eta jauregi eder ez du gure lurrak!

Mundu zabaleko bideak nahi duenarendako idekiak izatea ederra da. Gizonaren askatasun osoari dagokio komeni zaion bizimodua aukeratzea. Baina aukeratze horren soka muturra ezin bizia eta beharra balin bada, askatasuna lokarri gertatzen da, poesi gaiak baztarrean utzita, ezinbestea deituko ginuke.

Gaur gure mutilak, lehentxago artzai bezala, Frantziko mendi lanetara dijoaz. Ez zen urte bidea Kalifornian artzaingoan beren biziko urte hoberenak erretzea. Baina ez da hobe oihanetako lana. Ikusi izan ditut argisentiarekin motosierra erogarrien hasarrea piztu eta ilun ondoan ixiltzen. Eta arrisku handia beste alde. Trunku azpian gelditu eta hagetan ekartzen ere ikusia dut. Ez da sosegu txarrekoendako egiten den lanbidea.

Egia da pixka-pixka gutxitzen dijoaztela oihanzaleak. Nik dakiten Burundako herri batetik duela zazpi urte, 1962an, hamazazpi mutil joan ziren Frantzira. Gaur ez da aizkora hartuko lukenik herrian. Lantoki berriak sortu eta besteak ere hemen geldiarazten ahalegindu beharko ginuke. Itzal negargarria da etxeko semeak ezin bizi eta kanpora joatea.

Agintariak konturatu dira eta herri askotan sortu dituzte lantokiak. Ez da nahiko Iruña haunditzea. Euskal Herriak irautea nahi badugu, belar motxeko langileari ere beharko dakio eskua luzatu, herrieri lagundu.

Bitartean, mendira doatzi gure mutilak. Egin zaien agur beroa gogoan izango dute denbora luzean. Gurekin, berriz, betiko kezka. Euskal Herriko seme hauen zorigaitza. Nork esan lezake zein handia izango zen denbora guzietako indar banatuekin gure herria!

1969, 36, otsaila, 1. or.

URDIAIN

Azken urte hauetan Urdiain aldatzen ari omen da. Egia edo gezurra, jendeak hala dio. Lehengo gaztedia ez omen zen hala konpontzen, muxinguen besterik ez omen zuten pentsatzen. Beti aizkan eta elur pilotaka. Herriko zaharrak eta hain zahar ez direnak aitatzen dute.

Aurreramendu hau gauza askotan ageri da, esate baterako, lantegietan. Urte askoz kanpoan irabazi behar izan dute urdindarrak beren eguneroko ogia. Olaztin, Altsasun, Prointzian. Ibilera honek arrixku eta gastu haundiak zituen. Bideko arrisku eta jateko berexiak egun eta beste, urte guzian.

Gaur Urdiain besterik da. Gizonak, askok behintzat, herrian dute beren irabazbidea. Eta itxura onez berriz ere izango da enplegua. Bertako langilen hutsa bete da. Lana bada.

Emakumeak ezin zuten hori bera esan. Langile izatea gauza bat da, baino sororan zebiltzen bezela ibiltzea ez dago ondo. Galte haundiak ekartzen zizkien neskixeri ibileria honek, beti arrastaka eta esker txarra atzetik. Izan ere, lurak Urdiainen ibiltzen den leran ezin du irabazi haundirik eman. Eta makurrena dena, beren gastutako behar zutena ere gurasoek emana...

Gaur emakumearen lanak gizonarenak hainbat balio du eta bakoitzak bere bizia ateratzeko bide egoki bat amesten zuten Urdiaingo neskix gazteak. Ez dira alferrak eta, lurra utziz, bestelako lanen bat nahi zuten.

Aurtengo Erregeak hori ekartzen die, fabrika txiki bat. Hamar-hamabost bat emakumendako lana izango omen da hasieran. Eta laister egin nahi omen dute.

Azkenekotz, hor dabiltz kezka bizian gure jende jarriak. Ez dira bakarrik gazten problemak, berek ere badituzte beren egun ilunak. Eta zer jolas dute orai gure zaharrak?

LURRENA

Inork lanik egin nahi ez! Hor geldituko dira larre gure lur guziak...

Eta zertatik jan? Denak fabrikara! Denak ijili-ajala! Nekazantzarik ez bada nundik sortuko dira jatekuak?

Gure zaharrei esan behar zaie egoteko lasai. *Parzelaria* egin bazen, egin, trator bat gehiago da Urdiaingo dermidduen, lehengo hogeit hamar pare hoberenak baino. Eta hogeit hamar gizon haiek egiten zutena, batek egiten du... gustora jarrita. Esan bestela noiz ezagutu den herrian orai hainbat gari eta arto biltzen...

Ez hori bakarrik, esango nuke bide erdian gaudela oraindik. Urdiaingo lur guziak esku batera ibiliko diren eguna etorriko da. Eta Burunda guzia inguratuko balitz, askoz hobe. Orduan komeni dena bakarrik ereinen da sorotan eta gizon gutxik lan hobeak egingo dituzte. Idiekien gertatua gertatuko da oraiko tratore guziekin. Denendako hobe.

DANON EGITEKOA

Nork daki gizon elkartuak zenbat lezaken?

Orai bi urte txorakeria iduri zuen gazte batzun asmoak: *Urrizti*-n idoi bat! Zenbat porlan beharko zen hortako? Eta lana!!

Batzuk ziotenez, irrutiegi; ez zen inor joango. Beste batzundako ur hotza. Base-rreka bere amurraiekin, ez zen igarikako on. Baziren *piscina* zer ote zen galdetzen zutenak ere.

Gazteak ez zuten kontuak ateratzen denbora gehiegirik galdu, lanari jo zioten eta hor daude Urdaingo herriaren izena baztar guzietara zabaldu duten gauzak. Egia da azken hontara jendea aspertu dela. Bigarren urteko jokabidea ez da hain ona izan. Bel-larra txerriak uxarraturik, askotan erdi hutsak piszinak, mustakiak falta... Baino hor dago egindako lana, eta hor Urdaingo gaztedia. Ez dut uste hankaz gora bota nahiko dutenik herri askoren inbidiagarri zen edertasuna.

Hori bezela gauza asko egin laizke herritan elkar hartu ezkerro. Gogoan dut mutil bakoitzak milana pezeta eman behar izan zuen eguna. Hainbeste lan, hainbeste izerdi, kuotak eta gainera... zorra. Gazte hauek biharko egunean beren umeeri hori esaten dietenean ago zabalik utziko dituzte seme-alabak.

Halare, ez da hori gaztediaren batasunak ekartzen duen fruturik hoberena. Gizon izaten ikasten dute. Han ikusten da bakoitzak zer duen balio. Nor den bere hitzaren jabe, eta nor ajola gabe. Alferrak soka motxa du eta arrastaka ibili beharra izaten du. Eta mihigaiztoak ere izaten dira besteak egiten dutena hankazpian sartzeko. Zer eskola polita bizkar gainean halako zama bat daraman gaztediarena!

Azkenekoz, hirugarren mesede bat, biharko egunean herria nola zuzendu ikasten dela. Herriak beren agintariak badituzte eta gero ere beharko dituzte. Ez dira denak berdinak ateratzen. Eta askotan, gehiena balio dutenak ez dira sekula kargutan jartzen. Gazte jendea lanean ari balin bada eta beren kargutan pasatu, biharko egunean denek jakinen dute zoin diren komeni diren gizonak. Eta aukeratzen dituzten garaian ikasia izango dute agintzen. Ez da askok uste duten bezain errexa agintze hori. Ongi agintzen jakiteko, obeditzen ongi jakin behar izaten da aurretik.

Ez zaio ajola gehiegi eman behar behin edo beste sortzen diren hasarre eta istilueri. Urte bateko hutsak bestean zuzendu eta danok borondate onez jokatu.

Urdaian gauza askotan ispilu bezala izaten hasia da, herri asko dira hemengo berri jakin nahian dabiltzanak beste horrelako zerbait egiteko asmotan. Hartu dugun bi-dean aurrera egin dezagun. Badira neguko lanbide ilunak, gero udan agertzen direnak. Udan garia bildu nahi duenak, neguan erein beharko du. Munduko legea da.

1969, 36, otsaila, 5. or.

UDABERRIA

Izen polita du udaberriak, maitale guzien zeru urdina bezala. Izen gazte odol berri eta bizinahia. Hasiera...

Baino nola adierazi gauzak?

Amesgarri da ama gaztearen haur jaioberria, pozgarri ereilearen begitan uzta horia, zoragarri biligarroaren oihaneko bizia. Hori ote da udaberria?

Ez. Haurra baino lehenago zen asmoa. Uztak aspaldi zuen ereitea. Biligarro kafiko lasto bakoitzak baluke bere biziko poema ixila. Hasiera...

Biziaren garra sakona da, hotsik gabe barrutik heldu da, belar zahar arteko lehenbiziko pitxiak bezala. Ezer hartzekorik gabe ematea, arnas berria. Uzta bera baino ederrago, muga gabeko pozaren amets zabala.

Udaberria, berez, bada eta ez da, gehiago da atzean uzten duen neguaren beltza. Egun luze, nahiz eguzki motza, bizitzeko asmo gorria axeri zaharrak, garizima ondolan aleluia... Udaberria zaharberritze bat da. Asmoa. Ametsa. Hasiera.


Ezin ezkondu zahartu zen etxealde oneko semearen ezteiak baserriko udaberria esan nahi du. Herriak ere beren negu eta udaberriak badituzte. Gizonen hutsak bezala.

Euskera nuen gogoan. Betiko kezka, gure hizkuntzak haurren ikasketa zuen eskas, ezin sartu eskoletan euskera. Bat-batean, mila urte askoren negu ondoko udaberria bezala, argi-izpi bat. Villar Palasí ministro jaunak eta *Liburu Txuriak* diotenez, hemendik aurrera ez erdera bakarrik; gainera, bere hizkuntza eta beste hirugarren bat ikasi beharko dituzte haurrak eskolan. Gu baino herri aurreratuagoak egiten dutena.

Denbora berean Frantzi aldetik beste berri haundi bat: Azparneko eskoletan bi mintzairen saioa. Egunean ordu bat eskoletan euskeraz. Noiz izan du berri pozgarriagorik gure euskera zaharrak?

Haize bolara baten hego txuriak argisenti bat ideki du Euskal Herrian. Zahartu ondoko udaberria, euskeraren alorreko pitxi urdinak. Ametsak. Hasiera...

Izen polita du, bai, udaberriak. Eta politago ezin biziz zegon etxe zaharrean, haurren udaberri gaztea balin bada. Jainkoak lehenbailehen argi beza. Amen. Aleluia.



1969, 37, martxo, 1. or.

OTXOBI TANPORRERO

Diego Etxeberria arbazuarra izaten zen, hobeki esan, Orokietako seme Arbazun bizi zena. Nekazari exkaxa. San Pedro ondoko soroa latz ikusita, prozesiotan Otxobik beste letania bat sartzen omen zuen: «San Pedro ondoko goldarronak! Ora pro nobis».

Otxobi Ameriketara joan eta handik ere Diegoren kontuak. Egun batez, karta bat hala hasten izan behar zuen:

*Gaur Santa Kruz Maiatzeko
San Pedro ondoan zerbait izango da laiatzeko...*

Diego ere koplari sartu eta bertsu hauek bialdu zizkion:

*Diego Etxeberria ta
Grazia Barberia,
Bertsotan paratzeko
Ongi heldu dia...*

*Urtea bete zuen
Estu bezain larri,
Geroztikan onutza
Ez da berriz jarri.*

*Otxobi tanporrero
Berrizu hori,
Zertan aipatzen ote huk
Nire soru hori!*

*Otxobi tanporrero
Lotsagabekua,
Ereman duk atorra
Merkaenekua.*

*Goldarron bat edo bi
Edukiagatik,
An biltzen diat nik
Arto eta gari.*

*Diego emen bizi duk
Bere baztarran,
Numero beintiotxo
Kalle maiorrian.*

*Otxobi tanporrero
Berrizu hori,
Behin batean jarri zan
Emen ostalari.*

1969, 37, martxoa, 3. or.

ALELUIA...!

Pazko jaien aurreramendu bat bezala, berri haundia ekarri digu aurtengo garizima azkenak. Gure elizbarrutiko artzai maitea kardenal izendatu du Aita Santuak. Aleluia.

Entzuna ginuen gure Artzaiaren jakitate eta izaera neurritsuaren berri. Iruñarako izendatzean gauza haundiak esan ziren baztarretan. Toledorako beharra zela ere zabaldu zen, Espainiako gotzaien ohorezko gain-mailan jarriko zen orduan eta irrutiko zerbait izango zen guretako bere izena. Beste norbait poztuko zen bere inguruan, baino kardenalik gabe geldituko ginen Naparroan. Lehen bezala.

Izan ere, bere biziko garizima beltza zeraman bizkar gainean San Ferminen elizbarrutiak. Era guzitako sorgin haize nahasiak astintzen zuten aspaldi hontan. Agotan ginen danok, eta paper arinen esku zikinetan. Apezgai eta apezak, zahar eta gazte, artzai eta artalde, berritze sakon baten erdiminak bere haragian sendi zituen gure Naparroko artaldeak. Haize bolara honek nora eremango ote ginduen galdetzen zutenak baziren, aurreregi joateko beldur zirenak ere bai. Eta Artzaiak batzun eta besten sosegatzen nahiko lan bazuen. Izendatze hau neke askoren saria da eta jokabide argi, jatorra, delakoaren ezaugarri. Jainkoaren bideak.

Beraz, besterik dio, berea ez baino Naparroaren ohore eta goralmena zela, adierazi zuen belaxe. Eskerrik asko! Hala da, Naparroari ere bere zatia tokatzen dakio. Gertaera haundia da guretzat. Ez da beste kardenal bat baizik ezagutu, denbora berean Iruñeko Artzai izana. Eta seirehun urte inguru baditu jolasak, 1391an.

Gauzak nola diren! Orduan ere denbora gaiztoak zituen Elizak. Ez zuten kristau guziak Erromako Aita Sandua onartzen. Ez apez eta gotzai guziak ere. Naparroko Martin Zalba, orduko kardenala, Aragoiko Pedro Lunaren alderdikoa zen eta azkenean oso gaizki ibilia gainera.

Oraiko aldian, Aste Sanduko otoitzen agertzen den eran, «zorioneko nahasmendua!» —esan ginezake—, zuzentzailetako ohore haundienetako Artzai Nagusia ekarri baidigute. Bihotzez eskertzekoa da gaurko egoera zail-zail hontan. Bere goralmenak Iruñeko elizbarrutia goratzen du.

Gure artean daraman denboran apaltasun haundia erakutsi du. Berria jakin aurreko egunean Huarte Arakilen ginuen Sakanako apezan artean. Ekarri zuen laguntzailea etxera bialdu eta —auto stop—, atsaldean edozein apezekin itzultzeko asmotan, esku hutsean gelditu zitzaigun. Tudelan, Naparroaren behereko puntan, beste apez bilera batean, harrapatu zuen berri onak. Denbora gutxiz gure lurralde gehienak ibili ditu. Lan honek berea esaten du.

Aurtengo pazkoaldiak guretako zeukan poza haundiegia zen garizima ondoren arte lehertu gabe egoteko, eta Andre Dena Mari Neketako egunera aurreratu zigun. Aleluia.

1969, 38, apirila, 1. or.

EUSKERA ZERTAKO?

A sko dira gure artean «euskera zertako» esaten dutenak. Eta beste askok, berriz, «hobe ginuke ingles jakitea...». Bai naski, iritzi hortakoa naiz ni. Ez ingles bakarrik, erruso, japonese eta beste bost, sei, zazpi. Ikasteak ez du kalterik. Baina hori esaten duten batzuk amaren bular onez okatutako haurrak ez ote dute iduri! Txikitari hartu den esneak, ezer gosta gabeko amaren titiak, burua ez baino bihotza behar luke berotu. Haunditu ondoan, ikasiak ikasi, hura barneago behar ginuke odolean senditu.

Euskera zertako! Gutxi al da ama onaren seme generala agertzeko? Zonbaitzuk ez lukete merezi.

Duela hiru-lau bat urte. Espainia guziko haurren artean egindako idazketa, *Concurso Nacional de Redacción* delakoan, gauza polita gertatu zen. Erderazko lanetan katalan haur bat gelditu zen txapeldun eta euskalduna bigarren. Zer kalte egin zion beste hizkuntzak erderari? Madrileko egunkari (periodiku) batek hauxe zion biramonean: Espainiako haur guzietan gutxienez bi hizkuntza txikitatik erakusteko ordua noiz etorriko ote da?

Ez hontaz hitzik esan herri txikitako *jakintsu* haundieri. Berena dute bakarrik go-goan: soldado denbora, ezin moldatua eta lotsa. Baina ez dute esaten ez zirela eskolara joaten, kafi bilan ibiltzen zirela, ez erdera ikasten. Nundik dute orai inglesaren ametsa? Esne epel-epelian amak eman balie...

Gizon ez ikasia bezain ausartarik (atrebiturik) ez omen da munduan. Eta zerbait bada. Harroputza izaten da eta dena badakiela uste. Esaiozu milaka eta milaka urtez gizonak ikas duen jakinduria berekin duela gure hizkuntza zaharrak. Barre egingo dizu. Zenbatez hobe telebistako gezurrak! Begira dezagun orai mundu zabalera. Europan jarriak dira gaur gure begiak, lehenbailehen haiekin hartu-emanetan sartu nahia, haiek bezala lan egin, han bezain merke saldu... Eta Europako herri aurreratuak bi hizkuntzako herriak direla ez gera konturatzen? Dirudienez, han ez du inork bigarren hizkuntza baztatu.

Hemen ere gure atzetik heldu diren haurrak bi edo hiru hizkuntza ikasi beharra izango dute, gurasoak egin zutena egiten ez badute eskolan. Erdera, euskera eta beste bat. Madrilgo berriak.

Esan garbi Euskal Herriko sasimaisu guzietan «euskera zertako», besterik ez bada, mundu zabaleko aurrerabidean ez motz gelditzeko. Europa haundi bati bere hizkuntza zaharrenaren berri eman eta poztutzeko. Guk euskera galtzen dugun egunean ez du ezer irabaziko gizaldiak eta galtzekorik haundiena guretako izango da.

Gainera, gure aita-amen deia da.

1969, 39, maiatza, 1. or.

LUKAS HIL DA

Apirilaren hamalauan itzali da Urdiainen Lukas Zufiurre, euskaldun jator eta gizon argia. Laurogeita zortzi urte ilbeltzean beteak zituen. Euskal Herriak agoz ago gureganaino ekarritako jakintzaren iturri aberatsa iduri zuen. Orai baino lehen bere izena orri hauetan emana da.

Oihanean ozpingarriak jo duen haritz zaharra bezala harrapatu nuen atsalde batez sukaldean. Aurtengo martxoaren 27 zen. Xutik, su bazter lanetan zebilen, emakume gabeko etxean bakoitzak berak egin behar jatekoak. Aurpegi erdia gogortzen hasia. Hitza, Lukasen hitz leguna, nekez ateratzen, kasik ezin garbitu... moxkorra iduri. Buruko odol kolpez ikutua zen.

—Zer duzu, Lukas?

—«Eztakit», esan zidan.

Besterik ez nion ulertu. Mihian traba handia zuela esan nahi ote zuen!

—Buruko minik izan al duzu?

—Ez, ez... ez.

—Pisutasunik?

—Hori bai.

Egun hortan bere hankaz sartu zen ohean, baino orduan hasi zen Lukasen ilunabarra. Biramonean ez zen jaikitzeke gauza, bere eskubiko besoa egurra bezala zegon, gorputz erdiko perlesia zuen. Eta burua argi, bestalde; gauzak esan nahi eta ezin adierazi. Hori izan da Lukasen gurutze handia.

Zortzi-hamar egun aurretik eginak zituen pazkoak. Eta alaiki, bera zen bezala egin ere. Egun batzuk neketan egin ondoan, jorrailaren hamalauan itzali zen. Goian bego.

Udaberriko lehen hosto eta lorez edertzen hasiak ziren baztarrak. Jakinta bezala esana zidan negu hontan: «Negu ona daramat, baño hosto berriari ojo!!». Izan ere, esaera bada, hosto ateratzea eta erortzea izaten dela zaharrendako txarrena. Lukasendako hala izan da.

Eder da laurogeita zortzi urte eta hiru hilabetekin Lukasen buru argia. Alai bizi zen, inori faltatu gabe esaera politak zituen beti agoan. Udaberriko txori bat bezala izan da, neke guziekin, bere bizian eta udaberriak du ereman. Negu gabeko bizi luzea. Lukas.

Eta gizon hauetako bat hiltzean mundu bat dijoa berekin. Aldaketa handiak ari dira gertatzen gaur, batzutan onetan eta beste batzutan kaltetan. Lukasen esaera zuhur eta jakinduriz beteak ez ziren bereak. Askotan galdetzen nion nik: nundik duzu hori! Auskolo, noizko jakintza izaten da eta liburu askok bete ezin duten zuloa uzten dute herritan.



Jainkoari esker, sardinak olioan sartu eta gordetzen diran bezala hitza ere gordetzeko bidea badugu gaur eta Lukasen mintzoa urte askoz entzuten ahalko da. Lukas joan da, baino Lukasen barne argia, bere ixinplu jatorrak bizi dira. Behin baino gehiagotan itzuli beharko dugu zer esaten duten aditzera.


Beste mundutik ere barre gozo hura bialduko digu eta behin edo beste serio jartzeko bidea ere izango du euskaldun kazkarren joera ikusita. Ez ote du zerbait egingo! Bada ez bada, eskatu egingo diot. Lukas, gero arte.

1969, 39, maiatza, 5. or.

BESTEAK BEZALA

Ezteiak genituen lehengoan. Giputza eta naparra ezkongaiak. Han ziren guziak eskualdunak, ustez behintzat; danok anai, danok etxeakoak. Izan ere, eskuaraz elizkizun guziak.

Bazkari aurrean *sasijakintxu*, beti izaten dira, hoietako bat gertatu zitzaigun ondoan. Ez zen napparren aldekoa, giputz egiten zuen bere burua eta erderaz mintzatzten. Naparrak ez omen gera eskualdunak. Kondaira eta gure artean eskolako haurrak dazkiten gauzeri ostiko asko eta haundiak sartu ondoan, gure Lege Zaharrekin ere berotu egin da. Eskupeko eta limosnatxo bat besterik ez omen dira (*pribilejio*, esaten zuen berak). Berdintasun osoan danok bizitzeko, aspaldi utzi beharrak... Erderaz ziren ostiko guziak.



Egia esan, sarritan entzun izan ditugu era hortako zittelkeriak, baino bere burua... eskualdunetako (?) zeukan baten agotik entzutez harrituak ginen eta geuron onetik atera ere bai.

Ez zuen merezi. Gero konturatu gera. Naparroari aspaldian egiten dakion gau beltzaren bizar urdin bat besterik ez. Duela urte batzuk —bost bat, naski— telebistak esan zituenak entzun eta, nola harrituko gera? Ez hori bakarrik, etxeko egunkari batek ere Printzi eta Naparroaren arteko lezea infernuko zuloraino sakondu nahi izan du noizbait. Eta sagarrak ez du barneko harra hoberena.

Halare, gaurko auzia garratzago da. 1965an zan Madrileko eta bion hartu-emanak hasi zirena. Naparroak bereak ditu bere eskubideak, ez inork emanak. *Pribilejioz?* Mintzatzea limosnatxoz aritzea deritzaigu eta ez gera inoiz kaleko eskale izanak. Gaur Madrilen erabaki nahi dena ez da diru kontua, hutsa da gure diru gorabehera gobernuaren kutxa hondo gabetan. Gure nortasuna zebilen zalantzan.

Ez hori bakarrik, Naparroko auzia Espainiako jende guziak beren buruak aurrean jartzeko erabiliko zuten ispilua izango zan, baldin erabaki balitz. *Zentralismo* derizaion barnerantzeko indarra, eta *eskualdekako regionalismoa* sartuak dira jokuan. Zerekin aterako ziren orai Madrilen? Eta ez dute erabaki bat hartu nahi izan. Naparroa zegon bezala, ukitu gabe nahi lukete utzi. Ez atzera eta ez aurrera, hortan daude Madrilgo eta gure elkarrizketak.

Ixiltasunik haundienean eramanak dira gauzak. Ez gera ixiltasun horren aldekoak, lapurreta kontua zirudien. Baino nunbait hala komeni zan eta era hortan joan dira orai arte. Mutuaren fedea emana ziguten bi alderdiak. Orai ez. Mihiaren lokarriak hausten hasi dira, eta guretako begiramendu haundirik gabe hautsi ere. Diru aldetik dagola koxka, desberdintasun haundia dugula, eta *gu gerala*, *gu* (gure diputaduak esan nahi dugu) konponketarik nahi ez dugunak. Gezurra.

Nahi gabe, sagu urtean katakume kontua heldu zaigu gogora. Gela itxian hala erabiltzen dute katuek atzaparretan duten sagua, utzi eta bildu, berek nahi duten sokadantzan. Naparroko Diputazioak ez du ongi ikusten jokabide hau eta hala adierazi du agirian. Ixilik behar bazen, ixilik egon, eta ez inor zapaldu, sagu eta katuaren jokuan.

Hazi gaistoz ez gera gaizki. Eta ikusten dugunez, Eskual Herrian ere itsasia da hazi hori. Bazkალაurrean entzuten ginuena: *Zer Fuero, eta zer... Zuek besteak bezala. Baina nor bezala?*

Ezteietako axuriaren ondotik kantuz hasi zan jendea, eskualdun kantutan. Gure *sasijakintxua* ixildu zan. Beste norbaitek kantuen itzulpena esaten zion belarrira. Ez zekien eskuaraz. Nungoa ote zan nahi nuke nik orai jakin, hura bezala ez izateko behintzat.

1969, 40, ekaina, 1. or.

BI GIZON ILARGIAN

Lehenbiziko aldiz bi gizonak ilargia ukitu dute. Eta ez ukitu bakarrik, bi ordu eta lehenbiziko lurraren gainean ibili dira beren hankak, ilargiko harriak bildu dituzte eta beren hanketakotatik huts berri bat garbitu. Amstrong da burnizko mailak lehenbizikorik jeitxi dituen gizonaren izena, eta Aldrin bere laguna. Garai bateko gizonak ez lezakete sinets. Nork daki han zer gertatzen den, esaten zuten haiek. Guk geure begiz ikusi dugu. Moxkorrak bezala mugitzen ziren, globo arinak iduri zuten lurra ezin ikutuz. Lau egun eta zazpi orduz egin dute joanera, beste horrenbeste berandutuko dute etortzen. Bi gizonak beren eskuz ilargia harrapatu dute. Maitale xamurren ametsa bete da.

Hasiera. Ilargiaren ondotik Marte, eta gero... Jainkoak daki zer. Amets bide berri batean sartu da gizadia, izartegia zulatzen hasi da eta hortxe du, begien aurrean, muga gabeko zeru-sapaia. Hori bai itsaso haundia! Hango bakardadea!

Uztailaren 15ean goratu ziren. Andra Mari Karmengoa seinale. Hogeita lau urte aurretik, 1945eko uztailaren 16an hain zuzen, lehenbiziko aldiz atomikakugarrezko mendiak jaso zituen lurra. Ordu arteko aurreramenduak atzean uzten zituen honek. Aro berrian sartu zen mundua. Aurretik ezin asma ahaleko indarren jabe ginen gizonak. Gutxi iraundu dio atomikari bere itzal haundiak. Haundiago den gertakizun batetik gaina hartu dio, izar bidetako gizaldian gera orai. Hasiera emana da.

Gizatasunean hain aurrera bagina! Bildurra ematen du buruz hain ondo dijoan gizonaren jokabideak bihotzez hain gutxi aurreratzen duela ikusteak. Izar inguruko muga haundiak ez dituzte gure arteko hesiak arindu. Mundu txiki hontako istiluak laztzak dira. Zuzendari batek ezin du bere etxetik atera, besteari gaitzitu gabe. Nixonen Errumaniako itzuliak, Errusiako itsasuntziak Kuba aldera bota ditu. Ilargira bi gizon eraman dituen tresnari itzal egiteko hor zebilen errusoen beste tresna bat, zertako zen inork ez zekiela. Txinako egunkariak ez dute ilargira heltzearen berri eman. Zittelkeriak.

Israel eta Biafra, gerla eta gosea. Hego Ameriketako utzikeria eta baztatuak diren beltzen lotsa. Bada gizonen adiskidantzan aurreratzeko beste bide luze bat.

Egokiak ilargitik esan dizkiguten hitzak: Nornahi izanik eta nunnahi zaudetela barneaz auzmartu azken ordu hauetako gertakizunak, eta bakoitzak bere moduan eskerrak eman. Jainkoaren beso haundiak zuzentzen ditu gizonen urrats guziak.

«*Gaixo ilargiari otoitz egin behar dakio*», entzun nion nik eskualdun zahar bati. Bazuela gizon bat bere ota-soinak lurretik eremana... Gaur ilargia, gizona gainean belaunikatu eta Egileari eskerrak emateko aldare gertatu zaigu. Zorionekoak izarren gainetik denen iturria ikusten duten begiak.

1969, 41-42,
uztaila-abuztua, 1. or.

HERRITAKO FESTAK

Berriz ere uda eta herritako festak. Ni haurra nintzanetik ez dira aldatu zonbait gauza. Batean egiten dena egiten da bestetan: ardoa eta ator haundiak gerrian lotuta, azkeneko kanta —orai euro-doinuak— eta ikasi ez duten dantza berria. Nexkato bakoitzak, festetako egina duen soinekoa eta, hori bai, belaun gainak agerian. Gero, bizardun latzen bat edo beste... eta ezin lorik egina. Herritako festak.

Programa beste alde da. Sekretario jaunek egiten dute gehienetan. Aurreko urtekoa bezalatsu izaten da eta hura, bere aurrekoa bezala. Programan esaten diren gauzak, batzuk betetzen dira (diana, meza, plazako dantza...), eta beste batzuk ez. Pilotariak, binepein, gutxitan gertatzen dira han esandakoak. Alkate jaunaren hitzak han dira lehenbiziko orritan. Herri guziak badaki ez dela bere baratzeko aza, baino festetan dena barkatua da.

Hau da urtero ikusten ohiturik gaudena. Horrexegatik, aurtengo sanjuanetan euskal herri bateko programa-azala ikusita harritu egin nintzan. Neska beltzaran, mardul, gona motza, zekarren dantzan. Gitarra haundi bat eta bizardun zakarra bere ondoan. Nungo *euro-massiel* ote zuten hura galdetzen zuen jendeak. Programak beste azal bat izaten dute herritan, honek bazirudin egia esan nahi zuela... gure festen lotsa.

Eta ez zen halakorik oraikoan. Programak ez zuen adierazten hango giroa. Behin eta berriz, huts egin du festa programak. Zorionez, gaztediak agintzen zuen herrian. Azaleko neskaren gau-atorrak ez zuen euskal dantzarien jantzi egokiekin zerikusirik. Noiz ikasi duten hain ederki dantzan, galdetzen dut nik. Huarte Arakilez ari naiz hizketan. Herri konzintzia berri bat sumatzen zen gaztetan. Hauxe da poza!

Lan haundiekin egin dute lehenbiziko saioa, bilerak egiteko barne zoragarria, txistua eta neska-mutilen dantzari taldea. Dena goizetik gauera, bat-batean, udaberriko ihintza bezala.

Ez da bat edo biren lana, berrehun langile, Huarteko gaztedi guzia sartu da ekin-tza hontan. Hau da harrigarriena. Etxe baten egiteko harria inguratzea ez da hain zaila, paretak jasoko dituzten eskuak uztartzeak ematen du lan. Huarte Arakilek gazteak elkartu ditu. Beste askok nahi luketena egin du. Bide burnizko berrian lehenbiziko aldiz sartu den treina iduritu zaigu. Aurrera mutilak!

Festetako programa-azalak ez zuen halakorik adierazten. Usai oneko ur gozoa untzi txikitari ez galtzeko estaturik ematen den bezala, gorderik, ixilka eman nahi izan digu aurten Huarteko euskal giro berria. Zorioneko gezurra, herritako festetan.

1969, 41-42,
uztaila-abuztua, 1. or.

HUARTE ARAKIL

Bi egun aurretik hasi ziren San Juan festak aurten Huarten. *Aralar-Mendi* herriko gaztediak, elkar arteko etxea ideki du. Garagarrilaren 22an zuten beren festa haundia. Herri bateko festak izan dezaketen hasiera politena. *Berritu edo hil* esan zuten lehengo zaharrak eta Huarteko gaztedia berritu nahian dabil.

Gure lehenbiziko poza begitatik sartu da, dantzari talde eder bat eta txistulariak ikusi ditugu herrian sartzean. Eta bertako neska-mutilak ziren dantzariak, *Agiri* taldea.

—Ez ginakien dantzariak bazinuztenik?

—Ixilian ari izan gera lanean. Ixilian ez du gordeka esan nahi, hots haundirik gabe baizik. Gauaz bildu eta auskolo noiz artio aritzen ziren ikasten. Ixilkako lana. Ez dute hau lehenbiziko aldia dantzatzen dirana, herriko seme baten meza berrian atera genituen lehenik. Egundia izan zen eta oso ederki ari izan ziren dantzan. Orai badirudi aspaldikoak babilira bezala...

Pilota lekuan beren dantzaldiak ikusten ari ginen guziak gustora ginauden. Jantzi gorri-beltzez marratuak ikusita non esaten duen herriko artzaiak:

—Ez dira ongi josiak? Monjetan josi dituzte... Lan ona egin diete.

Bai naski. Ez luke inork esango. Erdaldunak dira Huarteko serorak eta dantzariak ez dakite euskeraz. Gurasoak berriz eskualdun garbiak. Tafallan euskerazko eskolak idekitzekoak dira heldu den urtean, hobeki esan, aurtengo udazkenean. Ez ote laike zerbait egin Huarteko herrian? Jantzi horren anima izango litzake. Gogoia behar...

Egin duten etxe barnean ere eskual kutsuko gauzak: harri bizizko pareta zaharrak, zurak agerian, ahariko adar bihurri eta ahuntz burua txamini baztarrean. Zoragarria. Izen haundiko ostatu eta jatetxeak nahi lukete beste horrenbeste berentzat.

—Dena geure eskuz egina —esan digu Joxe Marik—, gaur goiz aldera hortxe ari ginen oraindik bazterrak txukuntzen. Lan asko egin da, baino ez zaigu damutu hasia.

—Eta geroko asmo berririk?

—Hor dira denak. (Hitz hauek esatean su bazter aldera itzuli gera. Han zeuden asmo zabal guzien paper haundiak). Etxea herriarena da, esan digu gure adiskideak. Meharrak da, baino oso luze. Erdia eman digute. Beraz, hemen ikusten den beste horrenbeste toki badugu gainean. Urtearen buruan hitzaldiren batzuk emateko biltokia egin nahi ginuke han. Liburutegia eta *teleclub* egiteko gogoia ere baginuke. Berdin beste edozein ikasbide. Jakintza maila jotzen dugu gure herritan beharrezkoena...



Hontan ari ginela, gu konturatu gabe, barnea jendez bete da. Pilota partida ikus-
tetik etorriko ziran. Batzuk eta bestek ezin zuten aski esan hango edertasuna.

—Gezurra dirudi lehengoa dela... esan zuen norbaitek. Gaztediari utzi behar da-
kio!! Bai, —erantzun zion beste batek—, hauen eskutan zerbait izango litzake Huar-
teko herria.

Nahi gabe gauza asko etorri zitzaizkidan burura, garai batez, inguru herritako
jende guziak Huartera zuela joera, Huartetik joaten ginela San Migel tontorrera, jai
atsaldetan soinurik ez zela faltatzen plazan. Gainera San Migel berena zuten esateko
moduan, beren lurrean zegon behintzat. Bide berria, San Migelko bide berria, egin
gabe gelditu zen egin zaiken garaian. Mendiak ez dute balio lehen bezala. Giroa ere
ez da berdina, euskera maitea entzuten zen sukaldetan eta plazan...

Azkenaldi honetan, galduz zijoan bere itzala. Inguru herritako jendeak hartu ditu
larra-bide berriak eta Huarte hilik gelditzen da igandetan. Ez dute hainbeste hots ate-
ratzen oihanen miloiak. Guarden etxetik dijoaz denak San Migelera eta kartak ere Le-
kunberritik joaten zaizkie, jatekoak eta porlana bezala. Nere ustez, halako zerbait
izango zuen gogoan, gaztediaren eskutan Huarteko herria zerbait izango zela esan
zuenak.

Ni festaren ikustera joana nintzan eta hango giroa sumatzera. San Juan aurreko
igandea, festa bezpera usaia. Geldirik egondako ur epelak nahasi ditue iturri bizi bat,
gazteak. Gazten etxeko harri zaharren agertzea eta zura beltzak, hil ez diren gure gau-
zak. Eskual dantzak beste gauza askoren hasiera? Ilargia harrapatzea beste izar ba-
tzutarako bidearen hasiera bezala... Zerbaiten bila dabil Huarteko gaztedia. Aurrera
mutilak!

*1969, 41-42,
uztaila-abuztua, 5. or.*

ARTZAI TXAKURRA

Gizonaren adiskide zintzoena aberetan txakurra da. Txakurra eta zaldia. Baina zaldiaren berri dakitenak ez dira hainbeste gure artean. Txakurra jende artekoago da, sokatik darabilte emakume ongi jantziak eta sukaldetan ere sarrera badu. Ezin gehiago esan norbaiten etxeikoitasunean. Joera honek badu bere alderdi txarra: emakumeen eskutan erortzen diren aizkora eta laneko tresna gehienak bezala, galduan aterako dela txakurra. Esate baterako, nextatx lirainekin egiten dana, txakur politen txapelketak hasi dira gure artean. Gero hasiko zaizkie ezpainen gorritzen. Farolak ere kendu beharko bide baztarretan.



Baino, besteak beste, txakurra beti txakur. Badira otso antzekoak eta axeriarri iduriak, langile eta alferrak, etxezulo eta parranderoak. Aita-ama onen semetan bezala. Hori bai, txakurraren gauzik xamurrena bihotza da eta bihotzarekin bi begi argiren begiratua.

Gazte nintzan, baino gogoan dut gaur balitz bezala. Muxarrak harrapatzera joana izan behar zuen bere txakurrarekin mutila. Atsalde beranduan etxerantzean zetortzela langileak, bidera atera zitzairen txakurra. «Ez dik irruti izango nagusia», zioten beren baitan. Izan ere, bazekien ongi Aralar mendiko berri haren nagusiak. Baino ez zuen sosegurik txakurrak, zerbait adierazi nahia...

«Txakur honek ez dik gauza onik...» esan zuten alkarri. Txakurraren poza!! Beren bidetik baztatu eta sartu omen zituen txagadin. Txakurra beti aurretik, aldian behin atzera begiratuaz. Han zegoen lurtean nagusia, pagotik bota eta lepazurra hautsirik. Txakurrari esker, bizirik jeitxi zuten herrira, nahiz gizajoari ez zion asko baliatu. Bihotz oneko adiskide fina.

Halare, bere lanbidean du txakur bakoitzak ehizlari edo abere-txakur nortasun guzia. Nork esan, batzutan, ezagutzarik ez duela! Gizona bera baino gehiago da askotan. Galdetu artzai bati bi gizonen laguntza edo txakur on bat nahiago duen mendian, txakurrarekin geldituko da.

Aberekilako joku politik asmatu badu gizonak, artzai txakurren txapelketa da bat. Ez da indar kontu, leher edo zapart idi saiotan gertatzen dana, ez odol hustuzko zezen plazetako heriotz gorria, ezta ere arrisku haundiko basa-pottokoen heziketa. Artzai txakurren saiotan burua da naguse, hankak arin eta begiak erne, askotan hitzik gabe dute elkar aditzen.

Huarte Arakilen egin berria duten saioan *Rubio* zerizkion txakurrak harrigarriko gauza polita egin zigun. Azken saioa. Ardiak sarean sartuak zituen eta bera ere bar-

nera bialdu zuen nagusiak. Artaldea kanpora ekarri behar. Muturrarekin ahal zuen bezala zirritua hesian ideki eta sartu zen. Nahiko zuen ardiak atzetik bulkatzea. Baina lehenbizikoak hankak kanpoan ezarri bezain laster, atakan jarri eta bana-banaka bialdu zituen. Arditan zituen begiak kondatzen ari izan balitz bezala. Ez zuken lehenbiziko aldia.

Gizonaren adiskide zintzoena ezik, artzaiaren mutilik baliotsuena da txakurra.

1969, 43, iraila, 1. or.

EZIN BERTZEAN...

Mugaz bertze aldeko bertsulari haundia dugu Xalbador. Izenez Fernando eta izaitzez aire ilunekoa, irri urria balu bezala. Hori dio jendeak. Bainan ez da nahiko jenden errana, euriarekin Urepeleko zokoan sartu eta sukaldeko leihotik hango mendi ilneri begira luzaz egon beharko du, Xalbadorren berri ongi jakin nahi duenak. Mendi zulo sakon eta lainope haunditan auzmartu behar izaiten ditu Fernandok bere gogoeta mamitsuak.

Lehengoan izanak gera *Xalbadorrenia*-n. «Hogoi egun baditu hondar belarrak sarturik, eta geroztik iruzki izpi bat ezin ikus sorotan hasteko» zion bertsulariak. Ez da beti plazarik plaza ibiltzea gizon hauen bizia. Eta udan iruzkia nekez ikusten den funtsetan, neguan zer izango!

Xalbador ez da behar bezala ezagutua gure artean. Olerkarien gain-mailako arnasa badute bere bertsuak. Barnekorrak dira hain errex berak ibiltzen dituen pentsamendu sakonak. Xalbador, Eskual Herriak denbora guzietan izan duen bertsulari haundienetako bat dugu, naski.

Amarenganik jaiotako guziak bezala baditu bere hutsak eta Xalbador ez da bere buruaz fidatzen «gutitan betetzen nau ni, nihaurek egindako lanak», entzuten genion behin eta bietan lehengo aldian. Bildur dio bere izena liburutan ikusteari, bertso bildumaz zer bait erraiten bazako luzamena emaiten du, eza eta baiaren arteko epe luze bat asmatzen, pajerraren zama pisua!

Egun batez, epeak mugatu eta Xalbadorren liburua moldatzen hasi zen bertsulariaren aingeru begiralea den Auspoa liburutegia. Gaia bazen, saio ederrak ere bai nunbaiteko hari mutur luzetan sartuak. Entzun eta hartu, moztu eta zuzendu, goizeko ordu biak arte lan eginez prestatu ziren presaka Xalbadorren kantuak. Egilearen baimena zen bakarrik eskas.

Izpegi-n muga iragan eta Baigorri ostatu, bazkal ondo batez ginen *Xalbadorrenia*-n. Ez da sistima ona bazkal ondoko loa nehorri galaraztea, liburua eta lo galdua, baziren etxe hartan bi ilundura. Kafe goxo-goxo batek berdindu zituen aztapuak, eta sortu zen haurra: Xalbadorren lehenbiziko liburua.

Baina ez zen hortan fini solasa. Izena ginuen falta. Nork erran bertsulariaren barruko kezak? Ba ote da amarik hain bortxaz haurra erdi duenik? *Ezin bertzean*, erran zuen norbaitek. Eta irri zabal batek argitu zuen Xalbadorren aurpegia. Ez zen berehalakoan etorri erdiminak uxatu zituen alegrantzi hura. Denok poztu ginen, Eskual Herria poztuko den bezala, Baxenabarreko bertsulariaren liburu hontaz.

Omenaldi haundia prestatu dio Donostiak Fernandori. Beste herri batzuk egina zioten lehenago, baino Donostiak bere iturrian behar zituen ur zikinak zuritu. Egun hortan, presaren presaz egindako liburu batek *Ezin bertzean* ekarriko ditu guregana Xalbadorren bertsuak. Elkar hobeki ezagutzetik etorriko da eskuaren batasuna.

1969, 43, iraila, 1. or.

ARTZAI TXAKURREN SAIOA

Abuztuak 24. Artzai txakurren Naparroko bigarren saioa egin dute Huarte Arakilen. Azkenaldi hontan agotan da Huarteko herria. Sortu berria den *Aralar-Mendi* elkarteak mugitu ditu baztarrak. Izan ere, nork daki berrehun eta hogeita hamar mutilek zuzendari zintzo batzun eskutan zenbat eta zenbat lezaketen! Urteberritan jaio eta hilabete gutxiz hauek egin duten guzia egiteko urte asko behar izaten da gure herritan. Irurzundik Ziordira, *Aralar-Mendi* bezalako zerbeit behar ginuke herri baikoitzean.

Artzai txakurren saio hau Oñatira joango direnen aukeratzeko asmotan hedatua izan da. Denbora ona eta jende asko. Harrigarri da festa jator batek zenbat jende inguratzen duen. Gero, saiotako baztar haiek egokiak dira. Bere izenak dionez, *Geinbera* da, eta nundinahitik ikusten dira txakurraren joan-etorriak. Eta herritik gertu. Ez zen errex izango beste bat harrapatzea.

Bederatzi artzai ziren hasieratik izena emana zutenak. Gero zortzitan gelditu dira. Hiru eginkizun eta hiru txakur azken saiorako. Saharean sartuarazi behar zuten artaldea. Bi lehenbizikoak ez dute ahal izan eta *Rubio* Urdiaingo ardi txakurrak bulkatu du barrura ardi moltsoa.

ARTZAIA

Urdiaingo Lukas ezagutu zutenak ezin zuten burutik kendu: hamasei urte ditu eta txapel txiki bat buruan. Matelezurra zorrotz eta hankak arin, Urbasa mendiko bidetan ereinak ditu haragiak. Lukas argiaren iloba.

—Egun batzuk lehentxoago jakin izan banu!, esan zigun bidean. Martinek ez du prestatzeko denborarik izan. Hiru egun aurretik, gaueko hamarretan joan zaizkion bi lagun: Martin, txakur ona al daukak? Eta odolki salda bezala bero-beroan egin ziren gauzak.

Saio eguna etorri, izena emana eta artzai jantzirik ez. Alegia, blusa txikia falta. Ahuntz larruarekin joan behar zuen, mendian ibiltzen den leran, baino hori ere ez zuen nahi. Betiko lagun onak nunbaitik joan-etorria eginik, atsaldeko hiru eta erditan eskuratu zuen blusa beltza Martin Galarzak. Eta esana zuen ez zela agertuko ez bazioten jantzia ekartzen. Aita berriz, mendira... Bildur zen gaizki geldituko zen semea.

TXAKURRA

Huartera ailatu eta berehalaxe, Oñatiko apeza eta alkate jauna txakurrarengana hurbildu ziren. Eskua bota, hitz batzuk alkarren artean ibili eta, galderak:

—Zenbat urte ditu txakurrak?

—Bost, seirako bidean.

—Adinik hoberena, esan du D. Jose Mariak. Gustatu zaie nunbait. Begira gelditu dira biak. Gari kolore fina eta mantxoa. Ordua baino lehenago, denbora bazela eta otomobilean sartu dute. Lo gelditu da, txabolan egon balitz bezain gustora.

—Nagusia baino trankilago dago hori, esan du norbaitek. Aurreko egunetan gaitxo egona zen, baino ez zuen inork esango.

Talentu haundia erakutsi du *Rubio* Urdiaingo txakurrak. Hitzik gabe, eskuarekin artzaiak egiten zizkion geinutara ibili du artaldea. Eta garbi ibili ere. Behar zelarik arditara sartu eta bestela geldirik egon. Orai Oñatin ikusiko da zenbat lezaken.

Azkenean odol garbiko txakurren bigarren saria eman diote. Bi sari eta aurrera ateratzeko gogo haundiak ekarri dituzte Huartetik bai artzaiak nola txakurrak.

Baino sariak behar bezala ematea balitz, saio hau prestatu duten zuzendarieri eman nezaieke nik lehen saria eta txapela. Ongi, oso ongi Huarteko *Aralar-Mendi* gaztedia. Denbora gutxian gauza asko egiteak arrixku haundia du berekilan, baino zuek ongi egin dituzue gainera. Kemen haundiko gaztedia, askoren ikasgaia. Zorionak.

1969, 43, iraila, 5. or.

UDAZKENA

Udazkena. Ezin sinestuz bezela diot. Uda etorriko zelakoan joan zaizkigu urteko hilabeterik luzenak, eta bat-batean goiztegiak hoztu eta eguna laburtzean, udazkenean gerala konturatzen gera. Ez dakit mariltzen hasiak diren Urbasa eta Aralar aldeko pago hostoen eritasuna den, edo itzuliko ez den uda txar baten heriotza, baino zerbaiten eskasa sendi da aurtengo udazkenean. *Mini* gauzak agotan diren hontan, udak ere bere *mini* jokua egin digula esango nuke. Lainoak dituzte beren *maxi* gona luzeak kutxatik atera. Ez da munduan joskinik hori zuzendu lezakenik. Eta entzunak entzun, berriz ere nahi duena egingo du.

Ez du balio odol gaiztorik egitea. Bizkar zama eta edaria, nola hartzen diren izaten dira. Badira gizonetan berezko konformagaitzak eta ajola gabeko gibel haundiak. Euritzen badu euri gehiegi delako, eta bero balin bada ur eskasez, beti badute haiek tiluki bat. Besteak berriz, muxar gizenaren patxada, heldu dena hartu eta aurrera...

Ez dira gizonaren jokabiderik jatorrenak. Heldu denaz baliatzea da hoberena. Ur asko balin bada eihera (errota) hasi, eta idorte beroan edariak saldu. Hitz hutsak, udazkenean hegoak haizatutako hostoak bezela dira, heldu dena hartu eta besterik egiten ez duena, berriz, elizatarian jarrita dagon eskale besamotza bezala.

Eskual alorretan aberatsa izan da aurtengo uda motza. Zoragarri zen berrehun eta berrogeita hamar andereño Donostiko Seminarioan lanean ikustea. Nork esan du euskerarena joan dela! Lanbide honek bere aztapu eta trabak sortu ditu, baino dabile-nari sortzen zaizkio aztapuak. Ez zen hobe izango, aztapurik gabe, lo zorroan azken arnasa ematea. Berriz ere, aztapuka eta borrokan joan beharko du, bizi nahi badu, Eskual Herriak.

Baionan, beste alde, hogeita zortzi eskual idazlek batasunaren aldeko alkartea sortu dute. Badira, azpijaleak ere, baino gutxienak dira. Batzuk eta besteak, beren us-tez, euskeraren alde dabilta. Baino gaztedia, gaurko euskal gaztedi mito kentzalea batua da, etorkizuna bere eskutan dago. Zertako ostikoka elkar zauritu!

Udazkena. Haurtxoak beren bidez dijoaz. Ikastolak ugaritu dira eta eskualdunen kezka esnatu. Aurtengo gure udatxo ez da hitz hutsetan gelditu. Nork daki biharko egunean noraino heldu ginaizken? Tafallan ikastola berria eta Olaztin (Olazagutian) beste bat... etorkizunaren ereintza sakona.

Bitartean, urteoro bezela, pagadiko hostoak horitzen hasiak dira. Neguak hau-tsiko ditu eta lurrean usteldu. Ehiztariak usotan dituzte hankak eta begiak. Lertsunak (kurriloak) lerro-lerroan neguari bidea erakusten ari. Negu aurrea, ereintza ixilaren denbora. Udaberri pozzgarriaren bezpera Euskal Herrian. Jaiotza, haurrak, hasiera.

1969, 44, urria, 1. or.

EUSKERAREN MUGAK

Euskal Herria ez dugu behar bezela ezagutzen. Porlantegia dugu Olazti, paper zaku-
kutan Olazagutia esaten dena. Etxe eta inguru guziak irinez estaliak iduri dute. Tximini luzeak atertu gabe beti sutan, harriketan tresna pila hari luzetan zintzilika eta harrobi haundiak. Hori da azaleko Olazti. Nork daki bere barne minen berri? Nik ez nakien behintzat euskal kutsurik bazuenik.

—Non bizi da Milagros? galdegin dut edozein etxetan. Hau da emakume hartaz nakien guzia. Iruñetik etortzen elkar ezagutu ginuen eta euskera garbian agertu zizkidan bere kezak, eta Olaztin ere euskeraren alde zerbait egiten hasteko asmoak. Egia esan, amets zaila iduritu zitzaidan orduan. Zer den gauzak ez jakitea!

—Badakit noren bila zabiltzan, erantzun zidan pilota partida ikustera joateko prestaturik zegoen jaunak, eta euskeraz esan ere.

—Gure artean inoiz galdu behar ez zuen euskera erakusten hasi nahi duzue, eta poztu egiten naiz. Neronek eremango zaitut Milagrosen etxera.

(Inun izan dugun sarrerarik politena).

Orduko, etxez etxe ibilia zen ikasle bila, eta bai bilatu ere. Agintariekin egon lehenik eta —dena esan behar da—, oso ongi hartu zuten Aiundamenduan. Baina bere seme-alaba txikiari die euskeraz erakutsi. Ama familiko batendako ez da erreix eta, halare, kurtsiloak egin ditu Donostian. Mikela da bigarren andereñoaren izena, eta biak hartu dute beren gain Olaztiko euskeraren etorkizuna. Bihotz haundi bezain esku onetan da gauza.

Giroa sortu behar zutela lehenik. Esana genien. Hiru urteko haurrekin hasi nahi ginuen. Haundiekin ez da hain lan ona egiten eta eskolako ordutatik kanpo gutxiago. Due-la bi edo hiru urte hasitako ordu erdiko ikasketak aspergarri ziren egun guzia barnean egonak ziren haurrendako. Txikiekin komeni da lan egitea. Eta herrian diren hogeita zortzi haurretatik, hogeita seirek beren izena eman diete. Nun da halakorik ikusten!!

Beste alde, lau eta bost urteko haurtxoak eskola zaharretan biltzen zituen maistra batek. Han ordu bateko euskal ikasgaiak emateko baimena ere eskuratu dute. Baina eskolako ordutan. Haundiak ez lukete gutxiago izan nahi eta badira berendako eskola hoiek nahi lituzketenak... Hasiera da gehienik gostatzen, eta hasiera emana da.

Bi emakume hauen izenak nahi nituen aipatu, merezia dute eta. Berei bakarrik zor zaie Olaztiko mobimendu eder hau. Nundik nora, Olaztiko teilatutako hauts zurriaren azpian euskal garra gordeta! Gerta laike lau-bost urte baino lehen herriko kaltetan euskeraz haur txikiari entzutea. Zenbat kilometrotan ez ginuzke zabaltzen Napparoko euskeraren mugak! Beste aldetik Tafalla dela, han ere idekia dugu ikastola, eta aurrez aurre Gazteiz... zer amets ederra!!

Lehen, aspaldi batean zena.

1969, 44, urria, 5. or.

AINGERU TXURIAK

Berriz ere Gau Onak. Ez da gizonen bihotzean hain barne sarturik dagon beste festarik munduan. Ez naiz egun hoietan gaixo gertatu, ez dut gerran tiroka gau hortako pakerik hautsi, baino gazterik ikasia dut etxetik kanpo ibiltzearen berri.

Etsaia ez zegoen lo. Ikasten ginabiltzan haurrak, arima gabeko pareta hotzeri josituta bota behar izaten genituen Gau Onak garai hartan. Aingeru beltzez jantzitako elizgizonak hala hobe zela zioten. Ama guzien bihotzak belarri gorritan senditzen genituen punpaka. Gure asmo bakarra, zer esanik ez, nunbaiteko mendi zokoan galtzen zen soka muturra bezela etxean sartuta. Kanpoko lokarriak ez zuten indarrik barnean.

Aldatzerik balin bada munduan, ikasmoldetan dira aldatu gauzak. Haurraren askatasuna da gaur agotan. Haurrari bere bidea egiten behar zaio lagundu, bere asmoak bultzatu, nahi duen guzia egiten utzi. Eskual Herriak ikastolak behar zituen askatasun osoa erakusteko, eta baditugu orai ikastolak herritan. Zorionak.

Baino, berriz ere, etsaia ez dago lo. Askatasun horren aldare-harrian Jainkoa eta sinesmena behar ditugu erabat zapalduta kendu. «Haurreri ez zaie Jainkoz hitzik egin behar» diote, ago betean, aingeru txuri antzeko gure andereñoak. «Norberak sumatu dezala, Jainkorik balin bada...». Eta denbora berean, haurraren askatasun osoaren aldeko aingeru txuriak beste su batekin diete garbitzen burua.

Aspaldi da adiskide batek esan zidana, eskual giroa dela eta, *aproxategi* gehiegi zegoela gure artean. Joku zikin asko ikusten da. Eskuara eta Eskual Herria mihiarren puntan eta gizendu nahia edo beren asmo txikiak bihotzean. Ezagutzen ditut haurrari *Gurutze* eta *Aita gurea* erakutsi ez dieten kristauak, bainan, askatasunaren izenean, gerriko kolorez marratuak dituela, garraxiz kalejira politiko batean sei urteko haurra ateratzen. Guraso zintzoen askatasuna... Haurraren aukera bidea.

Baino, gaurko egoeran, gezurrezko jokabidea da gure aingeru txuri hoiena. Gurasoak bakarrik dira haurren hezieraren aukeratzale. Ikastoletara bialtzen badituzte berenak, ustez jokabide jator bat hartuko dutelakoan dituzte bialtzen. *Euskaldun, fededun*, izan da guraso hoiaren barne muina, eta era hortan nahi lituzkete beren haurrak altxatu.

Etorri da, beraz, aurpegia agertzeko garaia. Haurrak nora bialtzen dituzten jakiteko eskubidea badute gurasoak. Ez al dira konturatzen andereñoak, beren asmo berri txu guziak baino zaharrago dela mundua! Ez da gaurkoa gizonak daraman Jainkoaren aurkako borroka. Beti izango dituzte ikasleak. Adieraz bezate beren asmoa, aukerabidearen askatasuna izan dezaten gurasoak. Piperrak erostean bezela.

Bakoitzak ereiten duena bilduko du. Eta haizetan ereiten duenak trumoiak eta erauntsiak jasoko. Amodio askatuaren hitzak merke saltzen hasiak dira gure artean. Haragikeriaren eta lizunkeriaren ikusketa (feria) egin berri da Kopenhagen. Hauek dira gaurko munduaren haizeak. Jainkoa saltzea hasiera besterik ez da. Jainkoaren heriotza nahi luke gaur munduak eta, uste gabe, Euskal Herriko aingeru txuriak bide hortan sartuak dira. Askok behintzat.

Gaizki dago Gau Onetan gurasoeri beren haurrak kentzea. Gaizkiago, berek ez dakitela, buruak hustu eta azpijorra egitea. Gorputzaren lokarriak ezin dute lotu barne gogoa. Gaurko lokarriak barnea dute itotzen, haragiaren askatasuna izan dedin naguse munduan.

Belengo Hautxoak eman dezaiola gure herriari zuzentasunezko jokabide jatorra. Eta lurrean pake maite dituen gizoneri.

*1969, 45-46,
azaroa-abendua, 1. or.*

BATASUNAREN ALORREAN

Urteberri. Gaia aukeratzeko biderik izan banu hauxe aukeratuko nuen nik, Urteberri. Hain da luze eta zabal, garbi eta ernagarri inungo haizeak zikindu ez duen urtearekin amets egitea! Dena zuri, dena berri. Ez da ilunik ikusten, egun argiak bakarrik. Errege bezperako haurren gaua...!! Urte berri bat begira jarri eta ez ote gera danok, ixilian, haurrak bezala!

Baino ez dago nahi dena egiterik. Ametsak baztatu eta egunoroko soka muturrari ekin beharra garratza da gehienetan. Biziak gaitu, hegoak orbela bezala, nahi duen lekura erematen. Hasi berri dugun urteak ere sortu aurretik dizkio zezenari adarrak ikusi, urte zaharraren sabeletik. Nahiko lan izango du gurekin. Zoin den sokamuturrekoaren izena? **Batasuna**. Ez da pottoko txarra.

Besteren iritziak behartzen nau hortaz mintzatzera. Ez dut esan nahi iritzirik gabe nagonik gai hontan. Nereari ere etorriko dakio garbi agertzeko garaia. Nerea baino gehiagotzat dauzkat neregana zuzendu diranena. Gaur ez bada, bihar kontuan eukiko ditut denak.

Era askotakoak dira. Ezin denak batean zuzendu. Halare, gutxitan gertatzen dena, txapel bakarrarekin estal laiken helburu bat ikusten da denetan: galduan bada ere, batasunera joateko nahia. *Norekin edo harekin, bat egin* esan nahi balute bezala.

Ez da gutxi. Batasuna ez da eskulana. Eskuak uztartzeko on dira, eta muturjokako ere bai. Norberaren barneak ditu eskuak mugitzen. Batasuna sortzekotan, kezka batek du pizten eta konzientzi sakon batek zabaltzen. Bihotz haundia behar da hortako, zikoitzak ez du berea besterik ikusten. Borrokako beti prest. Halakoen batasunetik berekoitasunera hain da bide motza!

«Berrogeita hamar urteko gurutze-bide latza ibili ginuen batasunera iritxi baino lehen» esan ziguten katalandarrak Iruñeko bileran. Eta barneago sartu zitzaidana — hitz erdika esana—«Beren hitza ezpainetan josita ereman omen zuten orduko setatsuak beste mundura. Hura izan omen zen batasunaren ordua». Bide bera baderamagu ere, negargarri litzake gutaz beste horrenbeste esan beharra norbaitek. Nolanahi dela, gurekin edo gu gabe, batasunarena da etorkizuna.

Aurrelarien gidaritza zertan den galdetzen dit norbaitek. Teila eskaseko teilatua, dena itaxura. Hobe hortaz hitzik ez egitea. Liturgi berriko batasuna, edo dena dala, hor dago gure artean. Anaaien bihotzak mintzeko biderik egokiena ez da Meza Santua, baino mingarri da. Geroak aztertuko gaitu.

Urteberriko ametsak non dira galdu? Batasunaren alorra arantzaz josia harrapa-tu du, giroa gogor. Baino udazken on batek negu txar asko ditu berdintzen. Nork daki sartu berri dugun urteak ez dion zuhurtasuna eta pakea ekarriko Eskual Herriari! Alkar hartu, bideak zelaitu, euskera batu... zer amets ederra!

1970, 47, urtarrila, 1. or.

EUSKAL IZENAK

Guraso asko dira bataioko garaian euskal izenen berri ez dakitenak. Baditugu jatorrak. Asko dira eta denak batean ematea ez da aisa. Pixka-pixka jakinaraziko ditugu. Hona hemen Euskal Herriko Ama Birjinen izenak:

Agirre (Gorliz), *Aiala* [N.S. de], *Ainhoa* (Ainhoa), *Aintzina* [La Antigua], *Aitziber* (Urdiain), *Aizpea* (Aia), *Alxarte* (Abadiano), *Andikona* (Berriz), *Andion* (Mendi-gorria), *Arantzazu* (Oñate), *Areitio* (Mallabia), *Arizaga* (Iturmendi), *Arkiloain* (Sarrriés), *Arrako* (Isaba), *Arrate* (Eibar), *Arregine*, *Erregiña* [X.-XV. mendeak], *Arrigorria* (Arraiza), *Artiza* (Iza), *Askoa* [N.S. de], *Axpe* [N.S. de], *Azitain* (Eibar), *Barria* (Bilbao), *Basaba* (Unziti), *Beatasis* (Zuñiga), *Begoña* (Bilbao), *Berezi* (Busturia), *Doniansu* (Zizur), *Dorleta* [N.S. de], *Edurzeta* (Oka-Ibarruri), *Erdozia* (Izurza), *Erkuden* (Altsasu), *Ermin* (Esteribar), *Estibaliz* (Vitoria), *Eunate* (Muruzabal), *Ezozia* (Placencia de las A.), *Goikuria* (Iurreta), *Gorritiz* (Lumo), *Idoia* (Isaba), *Idoibalzaga* (Errigoiti), *Idurre* (Motrico), *Iratxe* (Aiegi), *Iruña* [N.S. de] (Trespunte-Alava), *Iruña* [N.S. de], *Isasi* (Gordejuela), *Itxaso*; *Izaskun* (Tolosa), *Iziar* (Deba), *Kodes* (Torralba), *Larraitz* (Abalzisketa), *Lasagain* (Anue), *Legarda* (Mendabia), *Legarra* (Olza), *Leire* (Navarra), *Leorin* (Deikaztelu), *Lierni*; *Loinaz* (Beasain), *Mendi* (Estella), *Muskilda* (Otsagi), *Nora* (Sangüesa), *Oitia*; *Olatz* (Azpeitia), *Oskia* (Iza), *Sokorri*; *Uba* (Alza), *Ugarte* (Amezketeta), *Uda*; *Ula*; *Uribarri* (Durango), *Urrategi* (Azkoitia), *Urretxa* (Zuia-Alava), *Urrexola*; *Usua*, *Usue* (Ujué), *Zabal* (Portilla-Alava), *Zalao* (Orozko), *Zuberoa* (Garde).

Ama Birjinen izenak diranez, *Mari* aurretik dutela joan ditaizke, edo berak soil-soila, ezer besterik gabe. Elizaren aldetik ez dago eragozpenik.

Hamar urte baino lehen Euskal Herriko haur gehienak euskal izenekin bataiatuko omen dira. Guk nahi badugu lehenago ere bai.

1970, 48, otsaila, 1. or.

GUREA DELAKO

Ideki berria zen herrian haur txikien ikastola eta sei-zazpi urteko mutil koskorak ere Inahi zuten euskeraz idazten ikasi. Beren burutik atera zen gauza eta beren buruz ziren joan andereñoa ikustera. Baziren hogeita hamarretik gora. Etxarrin gertatua.

Andereñoak baietz erantzun zien, berak erakutsiko ziela. Diru gorabehera atera zen gero eta ikasleak zioten, ingles ikasteko hilabetean horrenbeste ordaintzen bazuten, euskera ikasteko ere berdin ordaindu beharko zutela. Gehienen iritzia baino ez denena:

—Nik uste ez ginukela pagatu behar, esan zuen batek.

—Nolaz, ez!

—Euskera gure delako! Ez zuen besterik esan eta nahiko zen. Astakeri bat esan zuelakoan lotsaturik atera zen gizajoa.

Zer egia! Hainbeste gauza zaizkigu zor geureak direlako! Haurren begi zorrotza...

Haundiekin beste aldera gertatzen da edo gertatu izan da. Geurea izatea nahiko zen hankazpian sartzeko. Zenbat maisuk ez dute eskolan euskeraz mintzatzeagatik negar eginarazi. Zenbat guraso euskaldunek ez diete haurreri euskeraz erakutsi, gurea delako...

Zeru-lurrak gu zapaltzeko elkar hartuak zirela esango nuke nik. Euskal Herriko Ama Birjin ederren izenak santutegian sartzeko zer gurutze-bidea ez dugu ibili behar izaten! Garbiñe, Nekane eta beste hizkuntza guzitan erabiltzen diren esaera jatorrak ez dira oraindik gure artean onartuak. Erderazko itzulpena badutela esango dizue eta Purificación edo Dolores-ekin dabilta munduan Eskual Herriko alabak.

Haunditzerik izan ez duen haurretako jotzen gaituzte nunbait, hortik gure esku-bide guzien ukatzea. Mila urte berekin dituen Unai izena ez daiteke gaurko gizon bantentzat on. Eta Ignacio edo Iñaki munduari eman dizkion Eneko zaharra baztartua da, gurea delako. Bakarrik ibiltzen ikasi ez duten satoritsuak zaizkit gure izen gaixoak, beste izen bat itsasten dietela ikustean. Itsuak behar du, ez abarrikatzeko, laguntza. Adiskide onak ditugu munduan.

Baino, gure herria aurrera dioja. Inoiz baino gehiago, gaurko giroa gure alde dago eta gu nor balin bagera sator zulutik aterata argian egin behar dugu bizia. Ez dakit zerengatik, etsaieri baino beldur gehiago diotan nik gure mozkeriari.

Haur baten begi garbiak ikusi edo sumatu dutena esango nieke nik askori: gurea delako, behar ginuke euskera ikasi... eta mintzatu. Gureak direlako, ohitura onak ez galdu, eta gurea delako, euskal herri-jakintza goi-goieneko mailara goratu. Ez dut uste herri askok eman dezaketen, gure inguruan munduari, hain ikasgai zaharren soka muturra. Haurretatik ateratzeko adina badugu behintzat.

1970, 48, otsaila, 1. or.

LUZAIDE

Ohore guziekin egin be-
Orri dute Donostian lu-
zaidar baten aipamena. *Sala de Cultura Actualidades* de-
lakoan, Arrue jauna gure
Bordel bertsulariaz mintzatu
da. Jende asko bildu omen
zen eta jende ikasia gehiena.

Jakina da nola egon
zen gure bertsularia Donos-
tian soldado. Bertsu garra-
tzetan emanak ditu hango
gertakariak. Doi-doietarik
atera zen bizirik eta atsegin
zuen bertsu emaitan. *Bor-
del*-eko semea egon zen gazteluaz mintzatzean, haren kantia goratzeko begiramendua
ukan du Euskaltzaindiko jakintsuak.

Ez dakit gure gauzak behar bezala estimatzen ba ote dakigun. Luzaide muga da
eta izan ditu gertakari jakingarriak. Baita ere baditu bere gizon haundiak. Manezaun-
di ezagutua da Euskal Herri osoan, eta Bordel ezin da ahantzi bertsulari haundien ar-
tean. Hoierei ematen zaien ohorea, herriaren ohoretan da.

Donostiko hitzaldian eskatu zen Bordelen bertsu bilduma Gaztelako liburute-
gian sartzeko eta han egon zelako marka harri marratu batean ezartzea. Ez litaike
gaizki hori bera bere herrian egitea. Izango dira etxeak Luzaiden Bordelen bertsuak
sartu ez direnak, eta losa harri ederraren kokatzeko paretak ditu bertsulariak bere es-
kuz egindako bazterretxeak.

Denok poztu gera Donostiko berri honen jakitean eta *Príncipe de Viana* aldiz-
kariaren bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Arrue jaunari. Egunen batez zerbait egi-
tera abiatuko balitz gure herria, irabazia zinuke zuk ohorezko alki bat.

Agian, laister izango da.

(*Príncipe de Viana* numero hontako hirugarren orrian Bordel bertsulariaren *Do-
nostian Soldado* bertsu berri famatuak argitaratu ditugu).

1970, 48, otsaila, 5. or.



GAZTE GERA, GAZTE...

Izenburu traketsa, esango du edozonek *Uhin berri* izeneko poesi bilduma ikustean. Baina izenak asko esan nahi du gauzetan, eta honek den guzia adierazten du dagon lekuan. Ezpain zimurtze franko izango zen baztarretan, kezka lagun. Mendi zokotan bizi geranondako berria da itsasoko ur palastak adierazi nahi dituen hitz hau. *Uhin* ibiltzen dute beste batzuk. Molde berriko joerak, azken bolarak dakarren poesi gaztea esan nahi du.

Eta barnea zer? Ez da aisa ikusten. Nola esan! Lerrokada motzak, hitz erdika hortzen ikutua eta, askotan, mina, ezinegonaren gazi bizia. Beste era batean adierazteko, ez da mendi sakonaren zurrumurru baregarria, ez goizeko ihintzaren ukitu xuri amesgarria. Nik esango nuke baztarreko harri mordoilotan hausten den itsasoaren hasarrea dela.

Ez da idazle saio bat, bakoitzaren lanak zatika, bazkal aurreko gosegarri txikia bezala emanak dira. Giro bilduma da. 1930etik gaur arte sortutakoen joskera. Bost bat urte hauetako emaitza gordina. Halare, ez dira adinez bezain berdinak denen jokabideak. Liburu bezala ez da gaurkotasun egin baten azken hitza, lorategi bat ere ez. Lantzen hasiak diren molde berrien ikusketa baliosa dela esango nuke nik.

Liburua ez da eztarrian gelditzen diren mordoilo hoietakoa. Aisa irakurtzen da eta ulertzen. Lainoak la-peko soka muturrari lotzen da zero-sapaian utzi eta gizonaren tei-gehienetan. Bizikerak du izakerak baino lehenago kezkatzen. Aurrera begira dijoazenak, batasun zaleak, biharko gure gizonak begi onez ikusiko dute San Martin langilearen bilduma. Besteak, ez dute beldur izatekorik, amaren altzoan negar eta poxetan bizi izan den haurtxoa, bizarra atera eta borrokako indarrekin ikustea haunditzen ari delako marka da, hor bai, haunditze guziak berekin dituzte adinaren minak.

Norbaitek esan du, eta ongi esan ere, garbizaleen bolara izan zuela lehen euskerak, batasunaren aldi du gaurko *uhin berriak*. Dena da borroka eta ezinegona. Itsas zabal baretsua ekarriko omen dute gaurko ur nahasiak. Hala balin bada, bide haundia ideki dio georari San Martinen liburuak.

1970, 48, otsaila, 6. or.

GIPUZKERA EDO EUSKERA BATUA?

Herriko haur txikien eskolan nintzan lehengoan, guk ez dugu ikastolarik herrian. Haunditxoena, bost bat sei urteko neska mutilak, letra saila eskutan hartuta zebiltzen. *H* zeukan batek eskuan eta:


—Zer da hori?, galdetu nion.

—«Letra muttuba», erantzun zidan bertako euskeran.

Egia esan, barregura eman zidan haurraren ateraldiak. Haurrak erakusten zaiena ikasten dute. Nahiko gera gu, haur haundiok, letra muttu batengatik muturjoka ibiltzeko. Ongi begiratzuz, hutsa da *h* horren auzia, baina gauza gehiegi esan nahi ditu. Ikurrina bezela da:

H zaleak, eskualde guzitara ideki nahia ikusten dute letra muttuan. Euskeraren batasun zabalak. Anai arteko berdintasun.

H-ren etsaiak, ikasia dute lehengo, oraiko eta betiko euskera nagusia, eta ez dute inungo txertorik nahi. Batasuna bai, baino berena. Hau da letra muttuaren garraxi latza.



ARANTZAZU

Alderdi baten hitza bakarrik entzun omen zen Arantzazun. Ametsetan ez banabil, han zuen alderdi ixil horrek esan «beste batasun bat zertako!», euskeraren batasuna erdi egin zegoa eta beste erdia bide onez zijoala. Gipuzkeraz zela gehienik idazten eta gipuzkera, gaurkoan, gehienik mintzo. Utz ginezan bidea zabalik, gipuzkerak ekarriko zuela euskeraren batasuna. Eta orduan zen *imperialismo* hitza ofizialki euskal hiztegian sartu. Uste al duzue nolana aiaztekoa dela? Guk gogoan daukagu. Zertako gabiltz orai egun argiko gertakizunak ilunpean sartu nahian? Joku garbia nahi ginuke. Asko eskatzea al da?

MEZA SANTUA

Besterik da Donostia aldean geroztik egosi den lixiba. Eta zer esanik ez, negargarri da Meza Santua delakoaren batasun bedeinkatua. Liturgi berriko eliz-gaietan bi jokatibide ageri dira, oso desberdinak. Esames azterketa, hitzen aukerabidea eta joskera berdina oso jator egin da. Uste ez ginuen bidea zelaitu digute. Eginkizun nagusia bete da. Ez balu azken orduan alderdikerien sagu zikoitzak hain lotsagarri muturra sartu!

Meza dela eta, *det*, *dezu*-rekin gabiltz azken bolara hontan Naparroko eliza euskaldunetan. Bizkaieraz *dot*, gure betiko anai iparraldekoak *dut* esaten jarraitzen dute.

Gu berriz, gizajuok, betidanik ezagutu duguna galdu eta *imperialismo* lotsagabekoa-
ren mendean erori gera. Askotan burura etorri ere bai, anai izenekoen maltzurkeriz
minduta baino erdal jokabide garbiz Jainkoa govestea ez ote zen hobe izango.

Ikustekoak dira gure herritako gizonak, zahartu ondoan, esakera xebreak bela-
rritan sartzen. Orai arte *zordunai* eta *zordunari* zorretan zegoen batentzat esan zen, *zor-
dunei* eta *zorduneri*, asko baziren. Oraikoa kokka guziak berdindu dizkigute. «Da-
kienak daki —esaten dute gure zaharrak—, guri ez ziguten erakutsi...».

Beti uste izan ginuen aingeru asko zirela zeruan, edo bederatzi talde gutxienez
ere. Orai, zeru aldeko berriak hain zalantzan dabilten hontan hango biztanleak gu-
txitu egin zaizkigu, nunbait. *Horrengatik, aingeru eta goiaingeruakin* esatean, bat
besterik ez dela gurekin abesteko adierazten du Meza Liburuak. Hain gutxi ere! *Ain-
geruekin* izango litzake, asko izanez. Eta berdin talde kontuak *zeruko talde guztiakin*,
talde osoarekin esan nahi digu. *Guztiekin* izango zen, askoren kontua. Luze joango li-
tzake atzeraka emandako guzien salatzea.

GURE IRITZIA

Badakit ez diela ajola haundirik batzueri. Gainera, sekulako liburu pila argirata-
tu digute, burugogorrenak ere ikasiko dute azkena saldu orduko. Gazteizko nere adis-
kideak egin zuena, bana-banaka zuzenketak, egiterik ez dago gure artean. Beraz,
Arantzazun esandako prointziarren batasunari bultzada ederra eman zaio Napparroan
(ixilian egin ez da diktadura).

Eta ez naiz letra mutuaz mintzo. Buruhauste gutxi ematen dit neri letra horrek,
batasunaren auzia ez baidago *h* kontuan, edozein eskoletako haurrek egun gutxiz har-
tzen dute. Besterik da azpitik dabilen jokua. Hitz gutxitan esateko, *gipuzkera edo eus-
kera batua hartu*, dago zalantzan.

D. Manuel, euskaltzainburuak, *neutral* hitza digu azkenaldi hontan mihiaren
puntuari hartu. Hontaz ere nahi nuke noizbait mintzatu, baina bildurra ematen dit
gehiegi esan dezadan. Berea ez dena baztatu eta berea besterenean leporaino sartzea,
ez da *neutral* hitzari dagokion jokabidea. Oiartzundik Donosti aldera dijoan bidexka
denen paketzeko ona izango da zure ustean, barkatu *pakeatzeko* esan nahi ginuen. Ez
gatoz hortan zurekin batera.

Entzun, minaren minez diot. Ez. D. Manuel! *Sasijakintxuok* egin ginezaken *en-
plasterutzari* ez! Eman bezaigute ikasienei batasun jatorraren argibidea, eta izan de-
zagun besteok ikasleen mailan entzuteko apaltasuna. Bestela, gauden geure etxetan
orai baino lehen egon izan geran bezela. Han ere baginuke nun ikasia. Zureak ere ez
du asko aberastu Napparoko mintzaira.

1970, 49, martxo, 1. or.

NAPARROKO IZEN ZAHARRAK

Naparroak aberastasun handia du paper zaharretan. Batzuk bilduak dira eta beste asko herritako kutxa pipi-janetan sartuak. Ezagutzen ditugunen artean Leirekoak ez dira makalak.

Nola deitzen ziren gure aurrekoak? Oraiko Joxe Mari eta Pablito bezela? Ez, asko aldatu dira gauzak. Gure erregeak, esate baterako, Eneko, Garzia, Santxo, Jimeno eta Fortunio izaten ziren. Gure emakume izenak: Aiora, Auria, Santxa, Jimena, Leonor, Lopa, Oneka, Oria, Toda eta Urraka.

Hona hemen zombait izen. Leireko liburu zaharretetik hartuak dira. Goñi Gaztambide jakintsuak argitaratu ditu eta urteak ere berak ematen dizkiena dira.

EMAKUME IZENAK

Aiora (1068), Amuna (1097), Amunia (1077), Andregoto (1145), Apala (1066), Arrasabia (1096), Errasabia (1102), Auria (1092), Auriola (1111), Erisenda (1099), Ermisenda (1110), Exemena (1110), Eximina (1060), Goto (1110), Jimena (987), Leioar (1086), Leonor (1466), Lopa (1123), Mancia (1137), Menosa (1058), Menoza (1076), Monoza (1104), Oneka (1076), Oria (1108), Placencia (1072), Sancha (1090), Sansa (1121), Toda (1062), Urraca (1056).

GIZAKIENAK

Aita Eneco (1057), Auriol (1076), Aznar (1057), Azubeli (1046), Dodon (1128), Eneco (1046), Enecón (1188), Eriz (1046), Exemen (1108), Exemeno (1109), Eximino (1067), Fortún (1099), Fortunio (1129), Froila (1024), Galindo (944), Galindón (1116), García (987), Geraldo (1192), Gomesano (1076), Gómiz (1080), Gilesindo (842), Guillem (1359), Hanni (1103), Hugo (1070), Iben (1124), Isinario (1046?), Jimeno (1095), Lain (1095), Legundia (1086), Lop (1121), Lope (1192), Luar (1107), Luiar (1107), Lupo (1099), Mancio (1024), Munio (1072), Ochoa (1178), Ojer (1110), Orti (1099), Otón (1136), Sancho (1107), Sanz (1082), Velasco (1239), Veremundo, Virila (1068), Xemeno (1076).

Gehiena agertzen diren izenak hauek dira: Santxa, Toda eta Auria, emakumetan. Belasko, Eneko, Garzia, Lope, Santxo eta Fortunio gizakitan.

1970, 49, martxoa, 3. or.

LUZAIDKO HERRIA BORDEL BERTSOLARI ZANAREN OROIMENEZ

Luzaideko herria ipar eta hegoko Nafarran arteko mugan dago. Nafar guziok daki-
gun bezala, edo jakin beharko genduken bezala behintzat, bereizketa (dibisione)
politikaren aldetik begira bi Nafarra izaten badira ere, odolari, historiari, mintzairari
ikusirik bi Nafarrak Nafarra haundi eta nagusi bat osatzen dute, eta han Ibañetako
mendiaren iparraldeko magalean Luzaideko herria kokatua da alde bateko eta beste-
ko nafartarra elkarturik.

Luzaideko herriak fama haundia du, dela hango dantzarietz (bolantiak), dela han-
go usuez (ehiza-usutegiak), dela bere festaz, etxe eta auzoaz eta baita bere euskeraz
ere. Hango euskerak gure *Ultrapuertos* Merindade maitearen hizkeraren kutsu eta era
guziak dauzka.

Luzaideko herriak, hontaz gainera, gizon haundiak atera ditu mundura, eta haue-
tatik bi euskerari, modu batetik eta bestetik, bere laguntza, indartasuna, eta ontasuna
eman dizkiote.

Bat Enrike Zubiri Gortari «Manezaundi» izenordez, euskal literarioaren alorre-
an ezagutua, pintore ona Iruñeko Arteen eta Ofiziuaren Eskolako irakaslea izan zana.
Manezaundi zana hogeiki mendeko Nafarroko euskal izkribitzaile onenetakoa da.

Bestea Juan Etxamendi Larralde «Bordel» izengoitiko bertsolaria. Hemeretzi-
garren mendean bizi izan zan Luzaiden. Bere Bordel izenordez bere izen deituraz bai-
no ezagunagoa da Euskal Herrian. *Bordelia* Luzaideko etxe baten izena da, gure lu-
zaidar bertsolariak Bordel izengoitiz hartu zuen etxe hontan bizi izan zelakoz.

Luzaideko herriak Enrike Zubiri zanaren oroimenez bizi izan etxeke aurrekal-
dian oroigarri bat jarri zuen. Orain beste hainbeste egitekotan dago Bordel ohorez,
Bordelia prestatzen ari da *Bordelia*-n jartzeko.

Herri baten seme haundiei ohorea ematea herriari berberari ematea bezalaxe da,
baita herri baten jakite (kultura) seinalea ere.

Goresmenak Luzaideko alkate, agintari eta herritar guziei.

1970, 50, apirila, 4-5. or.

ATZERA BEGIRA

Bosgarren urtean sartu da ixil-ixila gure aldizkaria. Bost urte eta berrogeita hamar zenbaki. Hilabetetik hilabetera zuzen egin du bere bidea euskerazko kutsua sukalde guzietan esnatzen. Hasieran hotz eta gero epel, batzutan bero eta behin edo beste hasarre bizia, denetatik ikusi du hain denbora gutxian.

Bost urte, gutxi dira gure basoetako haritzondo zaharren gerriak loditzen ikusteko, gutxiago milaka urte dituen euskeraren ondoan agertzeko, hutsa gure mendi tontorretako harri gordinen ondorako. Bost urte betetzen haur txikiak bakarrik harrotzen dira, ez zala inork indarrak neurtzeko kontua bezela hartu gure esana. Zor bat baginuen, Naparroak bere hizkuntza zaharrarekin zuen aspaldiko zorra, haur txikiak bere amarenganako duen maitasun zorra eta bost urte baditu ordaintzen hasi girela. Ez gera euskerari ohorez eta haundizki lur ematera mugitu, iraupen luze baten arnasa txertatu nahi diogu.



EREINTZA

Aspaldiko lan ixila. Duela hamabost bat urte hasi zen gauza Iruñeko jaun batzuk Diputazioaren izenean euskaldun haureri sariak banatzen hasi zirenean herritan. Mendi txoko guzietan adierazi zuten bertsolariak zer gauza haundia zen euskera. Euskaldun festa jatorrak egin ziren baztarretan. Gaur hemen eta bihar han, udaberri baten argisientia izan zen Naparroan. Argiari begiak idekitzea: ereintza.

Hamar urteren buruan herri gehienak ibiliak ziren eta ikusi gabe geldituak eskatu egiten zuten. Hau da lehenbiziko urrats haien merezimendurik haundiena: gura, gosea piztea. Eta gero, beste edozein itzal euskal gauzeri kentzea.

BIGARREN MAILA

Nekazariak ez du bere hazia lurpean uzteko ereiten. Noiz jaioko begira egoten da eta behar den guzietan jorratzen. Gure haurrak laguntza behar zuten baratze belarrak bezala. **Sukaldea** eta **eskolak** dira haurren alorra. Hauxe izan zen bigarren maila hontako kezka.

1966ko otsailaren erdi aldera euskal herritako eskoletan ordu erdi batez egunero euskera erakustea erabaki zuen Diputazioak. Bere gain maisuen saria. Altsasu, Leiza, Elizondo, Bera eta Lesaka, Erronkari eta Etxarrin baliatu dute erabaki hau. Ez da beti erreisa izan, zenbat aztapu ez zaigu sortu! Baino eskoletan sartu gera.

Sukaldetako lana ez da hobe. Ez zakien euskeraz irakurtzen gurasoak, ez bazi-
zieten erakutsi, eta zer irakurririk ere ez zuten norbaitek ematen ez bazien. Orduan
sortu zen gure aldizkaria.

HASIERAK

1966. otsailean agertu zen lehenbiziko zenbakia. Gure asmoa **Roncesvalles**, na-
par izen zahar eta entzunarekin bataiatzea zen. **Orreaga** ere aipatu zuen norbaitek,
baino bestea entzunagoa omen da. Izenburu euskal kutsukoa egina ginuen, otsaileko-
aren aurretik zenbaki muttu bat (numero gabea) atera ere bai. Harri bitxia bezela gor-
derik daukat aldizkaria jaio aurreko gutun hau. **Roncesvalles** dio orri buruan.

Izen berriarekin aldizkari bat sortzeko baimena behar omen da. Guk lana egin
nahi ginuen, eta nola edo hala, lehenbailehen ateratzen hasi, *Príncipe de Viana* aldiz-
karia bazuen Naparroko Diputazioak eta haren anai txikia bezela ikusi zuen egunaren
argia. Hamar hilabetez ez ginuen baztatu bere izenera itzultzeko asmoa, eta denbora
hortako aleak hilabetearen izena bakarrik daramate, bat-banaka zenbatu gabe. Ha-
maikagarrean hasi ginen kondatzen.

Hilabeteke gertakizun nagusiak itzulpenarekin ematen genituen orduan. Lau
orrialdetan ez zen toki gehiegirik izaten eta hilabete bat aurretik gertatuak ikasiak zi-
ren. Gai berexi bati lotzen hasi ginen gero zenbaki bakoitzean eta Huarte de San Juan,
Príncipe de Viana, Manezaundi, Larreko eta beste gizon ospetsu batzuen izenak hai-
zatu ditugu. Herriren bat edo beste ere ikusi duzue lehenbiziko orrian, berdin lau aro-
ak eta zombait berri haundi.

Hirugarren orriak ere badu bere kondaira. Kanpoan ditugun basagizonak bazu-
ten beren aldizkaritxoak eta gurearekin elkartuz bialtzea eskatu ziguten. Gutxi iraundu
zuen asmo berriak eta geroztik *Mendiz* izenarekin sortutako erdi orriak bertsu eta
olerkiz bete izan dira.

ETORKIZUNA

Bide berriak sumatzen ditugu. Ikastolak idekitzeko nahiko traba izaten da orai
arte eta ikastola behar-beharrezkoa du gure herriak. Hau dugu legez ongi oinarritu be-
har. *Príncipe de Viana*-ren babesean ikastolak idekitzeko eguna haundia izango da
Naparroko euskeraren etorkizunerako. Asko eskatzea ote!

1970, 50, apirila, 8. or.

BESTE UDABERRIA

Maiatzaren lehen igandea. Negu beltzaren kutsu gabeko zero urdina, bizinahiaren begi garbiak bezela. Udaberri mendian, ez hala nire barnean: nagikeria, aldapa, ezina.

Adiskide bertsularia etorri zait atsaldean eta nola etorri ere gizajoa! Bi makuluekin, errenka, ezkerreko belaun hezurra hautsita, burnizko lokarriz hartuta. Harritu naiz ikustean.

Aspaldian utziak dituela esan dit bertsuak. Belauna du eta bere etorkizuna beti gogoan, emazte liraina, haurrak, ogia. Nunbaiteko laino beltzak eta beldur baten hozka bihotzean.

Bi haur eder, bi, gose gabeko mahaian haziak genituen gure ondoan, hirugarrena —txikienaren ezinegona—, herriko haur guzien lagun eginik, jostetan. Begitan ikusten zen aitaren aurtengo udaberria eta haurtxo haiena ez zela berdina.

Orduan konturatu naiz zer den udaberria. Bakoitzaren baitan egoten da askotan. Belaun hezurak hautsita bezela ikusten nuen, ezin mugituz, euskera. Abestu nahi ez duen txori kolpatua edo ezin duena, bertsulari mutua. Bitartean, abesti berrien doinuak entzuten genituen behean; gatzetxoek jai atsalde zoragarria. Neska-mutilak tira ahala dantzan eta euskera garbian mintzo. Ez zuten hotzik.

Zenbat gera? —errepikatzen zuen diskoak—.

Zer egin degu? Ezer ez.

Zer egiten degu? Elkar jo.

Zer egingo degu? Elkar hil...

Gatzetxoak. Gure herriaren udaberria. Ez kokiltzeko bultzada jatorra. Gure lotsa.

Gu, gaineko gelan kezkatu, geuren onetik atera eta mindurik. Udazkeneko hosto zimurren bolara. Beherean, gazteak, gure jokabide balekitez bezela, *hori ez!!*, *hori ez!!*, esaten dutela.

Ez dakit nik geroak zer iritzi izango duen gutaz. Beldur naiz haur kontu bezela hartuko dituen gure gauzak. Zer dira gure arteko iritzi ezberdinak, hainbeste zoritxar daramakien herri baten bizkar haundian? Kukuaren doinu motza itzal estuko oihan zoragarrian. Hutsa.

Argia, iruzkia, maiatza. Konturatu gabe, Urbasa mendian bizkar gaineraino joan zaigu hostoa. Apirilaren azkenerako hor izaten omen zen bestetan. Hori hala bada, hiru egun galdu ditu bidean. Apezak jokatu balu irabaziko zuen aurtan apustua. Dena dela, hosto berria hortxe dago haitz puntan. Gu eta gure eztabaida guziak baino zaharrago da munduan negu beltza, eta urtero antzaldatzen da udaberrian. Guk egin behar ginukena.

Ilunabarrean joan da nire adiskide bertsularia. Argiturik ote? Belaun hezurrari behintzat ez zion hainbeste begiratzen. Bertso batzuk ikusi nahi nizkion gai hontaz. Nik esan dezaketena hauxe da: mesede handia egin ditela neri elkarrizketak. Udaberria sumatu dugu biok: ikastolen giroa, gaztetxoek euskal diskoak, bi gizonen asmo berriak ez ote dira zinezko gure udaberria?

Elkartuz zerbait izango gera, banatuz ezer ez.

1970, 51, maiatza, 1. or.

EUSKERAZKO HITZAK

Hitzik gabe ezin laike mintza eta hizkuntza bakoitzak baditu bere hitzak. Baina Euskerak badu, gainera, beste zerbait, hitz hoiak zer esan nahi duten jakin-nahia. Gure herria bezain zaharra da, nik uste, euskaldunok dugun joera hau. Zein da gure hitz bakoitzaren iturria? Zer esan nahi du? Zenbat itzulpen eta esames mota ez du sortu herritan hitz zaharren jokuak! Eta egia eta fedia bezela sinesten dira askotan.

Erdaldunak ez dira berenekin hainbeste kezkatzen. Jakintsuen buruhauste bat da bakarrik. Bainan erdaldun hoiak berak euskaldun hitz bat entzun orduko zer esan nahi duen galdetzen digute. Aitor izenak zer esan nahi zuen galdetu zioten lehengoan guraso bati nere aurrean. Mututurik gelditu zen gizona, ez zekien zer erantzun. Bere izenak zer esan nahi zuen ba ote zekien? Eta Robertok eta Sinforosak? Ez, gurea jakin nahi zuen.

Nik ez dakit zer den, baino euskerak badu zerbait tentagarri etxeoak eta kanpokoak hitzen iturrira begira ezartzen dituen. Aitona zaharrari bere gazte denborako berri galdetzea bezela ote? Hain da iturri zaharra euskerarena!

ERDAL HITZAK

Baditugu hitz arrotzak ere, batez ere hitz berri hizkuntza guzietan sartuak. Erdaldun batek hartuko ditu eta laster jabetu. Bere hezur eta mami egiten du, berdin grekatik heldu bazaio nola errusotik. Ez esan urte batzuen buruan berea ez denik.

Euskaldunaren aurrean jakintsu eta hizkuntza aberats baten jabe agertzeko, hori bera euskeraz nola esaten den galdetuko du. Guk badugu beste askok ez dutena, geuron hitzez zernahi adierazteko errextasuna. Telefonoarendako *urrutizkina* esaten badiogu, edo kotxearendako *beribila*, erdalduna ixildu egiten da. Eskubide osoz, telefonoa edo automobila esaten badiogu berriz, joan da gurea; euskerak ez duela ezertako balio esango digu, hitz guziak erderatik —edo gazteleratik—hartzen dituela. Bere baitarik heldu zaizkiola uste du erdaldunak.

Zer dago bitasun horren barnean?

BESTE MUNDU BAT

Euskera hizkuntza zaharra dela edozein haurrek badaki. Ez da bera bezain zaharrik Europa aldean. Garai bateko gizonaren bizia eta oraikoa ez dira berdinak, orduko lanbide eta jakintza ere oso ezberdinak. Berdin hizkuntza.

Orduko gizonaren etorkizuna abereak eta lurra, beren hiztegia esku tarteko gauzena. Gauza bakoitzari bere izena ematean zer zen adierazten zuten, gutxiz gorabehera. Izen eta izan, berdintsuak ziren, elkarri itsasiak bezela. *Izena duten guziak badiorela* entzun diegu gure zaharrei. Sorginak ere bai, zertako dute bestela izena?

Antzinako gizonak ikusten eta ikutzen diren gauzetan zuen asmo osoa. Zer gabeko (abstrakto) hitzak eta asmakizun hutsak ez zitzaizkion buruan sartzen, ibaiko ura lorgatez lotzea bezela zen harentzat.

Esku tarteko mundu hortan izenak asko esan nahi du. Hortik dator orai euskera-ri egiten dakion galdera, zer esan nahi duen hitz bakoitzak. Eta munduko hizkuntza guzietan sartua den hitz berri bat hartzeko eskubiderik ez baginu bezela, euskeraz nola esaten den galdetzen digute. Beste mundu baten horma harriak dira euskerazko hitzak jakintsuen belarritan. Eta berek ez duten zerbaiten susmoa bezela zer esan nahi duten galdetzen diguten hoientzat.

1970, 52, ekaina, 1. or.

HERRIA ALKATE

Euskal asteroko ezagun baten lehenbiziko orrian, sei aldizkari eta bi irratitako lan-kideek hartutako *Erabaki nagusia* ikusi berria dugu. Eta beste ezer baino lehen, hona hemen erabaki bera:

«Euskeraren batasuna egiten aстера goaz danok alkarrekin. Zertan egin batasuna eta nolako abiaduran eta abar, erriak erakutsiko digu ta jarriko neurria. Erria aitatzean, au esan nai da: ikasten jardun gabe euskera dakin erria. Erri ori eskolatuz eta orren eskutik eta beraren pausoan abiatzen gera batasunera bidean. Bide ortan eman nai litzaken pauso guztia, ezagutuko du alde zurretik erriak eta jakingo du zergatik ematen dan eta zergatik ala; eta tartea ere emango zaio, bere iritziak agertzeko. Betor euskeraren batasuna eta bekar biotzen alkartasuna. Orra Erabagi nagusia».

Berez txalogarri da euskeraren batasuna egiten hasi nahia. Aspaldi horrexen atzetik dabiltzanak badira gure artean. Bide hobe baten bila zebilenak ere bere errespetoa merezi du, gurea berekin duela. Goazen orai harira.

HERRIA

Erabaki nagusia-ren kako guzia herrian dago. Ni ere herrizale naiz euskera ikas-kintzan eta herritik ditut joskera jatorrenak hartu. Herria dugu euskeraren maisu, baktek ahaztu diguna besteak gorde du. Jakintsuenak ere baluke herri hizkuntzan zer ikasi. Ugaritasun hori ote dugu nahi ginuken batasuna? Hiru kezka ditut nik *Erabaki nagusian*:

- 1) Herria hartzen du «batasunaren maisu» eta zuzendaritzat. Herriak erakutsiko omen digu «zertan egin batasuna» eta «nolako abiaduran».
- 2) Maila asko dira herri jakintzan eta «*ikasten jardun gabe euskera dakin erria*» aukeratu duzue. Irakurtzen ez duen herria, beraz? Egunorokotan moldiztegitik datorkion idatziak uzten duen kutsuaren berri danok badugu. Ikasketa hortaz ere garbi dena?
- 3) Edozein gaietan gertatzen dena, eskola gabeko herria edozein ontzi modetara biguintzen den ura bezela da, edo mugarik ez badu, berdin zelaian banatuta galtzen. Hortako dio *Erabakiak*: «*Erri ori eskolatuz... Bide ortan eman nai litzaken pauso guztia ezagutuko du alde zurretik eta jakingo du zergatik ematen dan eta zergatik ala*».

Ez da ezerengatik, bainan gaurko egunean nik dakidan herri batean gertatzen ari dena datorkit gogora. Bere izena idazten ez dakin gutxi da herrian eta, hain zuzen, banaka hoietako bat dute aspaldian alkate. Hobeki gauzak ulertzeko, sekretario jaunak ez daki euskeraz eta erdera oso jantzi eta apainduan adierazten dizkio mordoilokeriak. Azkenean, nagusiaren orde zurrimarra egiten ditu, eta alkateak esana.

ETA... ZOIN HERRI?

Edozein herritan baditugu neurri hortan batasunaren maisu izateko gai liraken euskaldunak. Hizkuntza aldetik ezberdintasun haundia bada herri batetik bestera, naiz ikasten jardun gabeak izan. Zoin izango ote da euskera batu horren maisu jatorra?

Irrati baten zurrun-burrunaren sonbel azpian, diren berriekin sortu laike iskanbila ederra. Prointzi osoko aldizkaria izan nahi lukenak baluke buruhauste polita. Mondragoi, Goierri edo Oiartzungo euskera hartuko luke eredutzat? Herri bakoitzak berea du hobereana.

Eta zer esan Euskal Herri osorako irakurgaia izan nahi zuen asterokoaz? Zoin herri hartu digu maisutzat? Naparroan harpidedun jarraitu zaion taldetxoak ere badu bere *erabakia* hartzeko eskubidea. Herri mugak piztu behar al ditugu gure artean?

GURE IRITZIA

Batasuna ez da amua bota eta zer arrai —edo arraio—aterako den begira dago-naren jokua. Ur nahasien bila dabiltzanak entzun bezate. Sasijakintzan ezin ginen beherago erori.

Herria izan behar badu gai hontan alkate, Euskal Herriko mendi guziak berdin on dira alkate makilak sortzeko eta, izan ere, ez nuke borroka berri horren barnean nire burua ikusi nahi.

Nork irabaziko luke diren baino gehiago gauzak nahasita?

Ez da hau ere bake bidea.

*1970, 53-54,
uztaila-abuztua, 1. or.*

BORDEL BERTSULARIA

*B*i aldiz hiltzen omen dira gizon ospetsuak —zion Arrue jaunak Luzaideko hitzaldian—, gorputzari lur ematean eta beren izena gizonen ahotan ixiltzean. Bertsulari zahar bati omenaldia egin diote luzaidarrak. Ehun urte inguruan dabil haren gorputzari lurra emanik, baina bere izen haundia ez da hil eta herritarrak ez diote hiltzen utzi nahi. Harri marrratu ederra ezarri diote bertsulariaren sortetxeari:



Bordel Bertsularia

(1792 —1879)

Hemendik hartutako izena Ohorez ereman zuen gizona

Luzaide Valcarlos dela nork ez daki gure artean! Ibainetako bortua luze eta nahasia delarik ez zitzaigun hain gaistoa iduritu. Garai bateko estatusun ito hura galdu du bideak eta ez da hain bildurgarri. Mogimendu haundia zen abuztuaren 23an eta uda guzian hala izan omen da. Mila bostehun karrosa noiznahi. Aduana zoragarri bat egingen ari dira. Europako bidea izan laike egun batean Luzaide.

Meza Nagusiko han ginen Iruñetik joanak. Eskuaraz dena, otoitz eta kantiak, berdin jaun erretoraren predikia, eder da Luzaideko meza. Bolantak ezker-eskuin, beren makilak eskutan, elizaren erdian. Bihotz kilika berexia badu bolanten mezak. Plaza giroa eta dantzariak elizan ikustea nortasun haundiko gauza da. Gizonaren bizibide osoa, lana eta besta, gorputz eta arima Jainko bidez dabilela erraitea bezala. Otoitz ixila. Denak gazteak ziren aurtengo bolantak. Bizardun zonbait ere bai. Gauza xaharren aurpegi berria. Iraupena.

BORDELIA

Bazterretxe zaharra da Luzaiden *Bordelia*. Zaharra eta azkarra. Berak eman zion izena Juan Etxamendi bertsulariari, han baizen sortu eta bizi. Gutitan gertatuko da aurtengoa, *bordeltarrak* ziren beren festako suieta nagusi. Juan Cruz Arrosagarai, gaztedanik Kalifornian bizi zena ginuen bertsulari. Bere aitaxoren odola zainetan dararamala zion jendeak. Bolantak gidatu eta mezan epistola irakurri ondoan, bere buruz zituen Aiundamendutik bertze orri batean ematen ditugun bertsuak kantatu. Merexi-

mendu du hainbertze urteren buruan ez baidu ez eskuara eta ez bere herriarenganako atxikimendua galdu.

Eta meza ondoan *Bordel*-eko haur ttipi batek bataioko urak hartu zituen, gizaldi berriak aitatxi zaharraren omenaldia ikusi.

Harria agertzeko garaian negarrari eman nahi zion denborak, ez zen konten. Norbaitek zionez, uda guzian zazpi bat egunez ikusi dute bakarrik bere argitasun osoan iruzkia. Hortako ziren *Etsexuri*-ko belarrak sartu gabe pentzean. Gero, bolantak dantzan hasi orduko euria ginuen burutik behera. Halare, eta hau da politena, ixiltasun ederrean segitu zituen herriak Juan Cruz Arrosagaraien bertsu xarmantak. Denbora txarrai aurpegi ona. Atsaldean Arnegiko festak. Han ziren, berriz ere, Luzaideko dantzariak eta mugarik ez balitz bezala bi herriak batean.

GEROA

Egun ona eta festa polita izan zen Luzaidekoa. Hots haundirik gabe, bainan ongi egin ziren gauzak. Kezka txikien batzuk sumatu genituen bakarrik, herria ttipituz omen dioa. Haur gutxi, eskolak hutsik gelditzen ari, gaztedia igeska eta igande atsaldean arimarik ez herriko plazan. Etorkizun iluna zonbaitzun ustez.

Eta denbora berean sekula baino argiago kausitu ditugu baztarrak. Txukun eta garbi herri inguruak, dena berde, oihan eta pentzeak, udaberri baten gaztetasuna bezala. Ez ote da gure aldetik begiak etsi eta laino beltzen lekutu nahia? Bide eder eta aduana berriak ez ote dio Luzaideri geroaren giltza emango.

Bigarren kezka eskuararena. Gaztetan eskuara galtzen dijoala iduritu zaigu. Eskual kutsurik gabeko Luzaide bat, arimarik gabeko gorputz hila izango litzake munduan. Zertako Manezaundi eta Bordel bertsularia? Zertako harri marra eta ohore guziak?

Bi gisetara hiltzeko arriskuan daude herriak, gure herriak behintzat: odol hustuz, jenderik gabe geldituta edo izpirituz, beren nortasuna eta izate berexia galdua.

Bizi bedi gorputz eta ariman Luzaideko herria.

1970, 55, iraila, 1. or.

LAKUNTZAKO PERTZA

San Migel eta Lakuntza ez dira biak alkarren ondoan, bainan soka mutur batekin Slotzen hasiak dira aspaldi hontan. Lehen, Aralar mendiko bidea Sakana zulotik gora zelako, eta orai gaztedia ibilkari egin zaigulako, San Migel gaineko festak Lakuntzako plazan du beti azken dantza. Korputs eta Solbezio dira bi egun haundienak.

Lakuntzarrak ere bazuten noizbait beren San Migela igotzeko eguna, *Amaletari* esaten ziotena. Malkor gainerik pertza erori eta tripota lehertu bazen ez bazen, gusto txarra utzi zien lakuntzarrei egun honek. Ez zuten halakorik entzun nahi izaten. Bainan denborak harri biziak ere leguntzen baiditu, orai lakuntzarrak pozik daude beren pertzaz eta urtetik urtera festa gora dijoa.

Hiru-lau urte izango ditu gauzak. Zaharrak nahiko odol gaizto egina zutela eta tripota (odolki) goxo batekin poztu behar zituztela gogoratu zitzaion norbaiti. Esan da egin. Ibiltzeko on dena lotsa da gaur herrian gelditzea. Eta zer alkartasun jatorrean egiten dituzten beren hartu-emanak!

Abuztuko Andra Mari ondoreko igandea seinale. Goizeko seiretan askatu zuten ganbelatik astoa eta bizkarrera bota pertza. Gutxi dira astoaren pausuan bide guzia egin nahi izaten dutenak. Ez dakite zer den filosofia: izerditu gabe mendira igotzea. Gero, atzetik etorriko dira hats haunditurik, berek dakite nola. Zaharrak berriz autobusean Lekunberritik barna.

Norbaitek esan du tripota gehienak leherturik atera zirela. Nork harrapa lezake zopa haunditan haren salda beltza! Eta denetan hoberena, eliza ere jendez lehertzen... Hala dira lakuntzarrak, ardo zahar kementsuak zagi berritan sartzen dakitenak, Lakuntzako pertzaren lotsatik festa jator hau egiten bezela. Ez da ozpinduko sekula, eta gero eta hobea. Aurrera mutilak!

1970, 55, iraila, 5. or.

STOP

Urtean behin da Eguberri, eta urtemuga ekartzen dio gogora gizonari. Ordu eta egunak, aste eta hilabeteak ez, baino urte luze baten orratz burnia du ixil-ixila aurreratzen denborak. Egutegi lodiak zernahi eskeintzen zuen igaz, eta ez du orai ezer eman nahi. Banan banaka joan zaizkio gure eskutan orri arinak. Bost aldiz gertatu zait hau. Ez dakit asko den edo gutxi. Bost urte, bost Eguberri.

Gizalegez, haur nintzan ni ere mundura etorri, eta haur amets goxoak nituen orduan ezpainetan nik: supila eta gaztain erreak, etxe txokoa eta amona zaharra. Haur jaiotze berri.

Bigarren aldiari idekitzen hasiak ziren nere begiak eta gizarteko giro txar-txar bat sumatzen nuen leihotilatik. Bakea nion, haur hizkuntza xumean, Jainkoari eskatu.

Hirugarren neguan gizonak ez zuen aski mundu zabaleko leiho zabala, izartegia zuen begien aurrean, ilargi aldean zebiltzen gure gizonak. Eta lepoko mina eginik gora begira egon ondoan begiak apaldu eta Biafrak lotsa gorrian, goseak hiltzen jarraitzen zuen. Gizonen bihotzetako gaia hotza.

Aingeru txuriekin, igaz, Euskal Herriko kezka sumatzen genituen. Hodei ilunen arriskua gure haurtxoen hezibidean. Asmo maltzurak, euskera maitearen aitzakia.

Eta aurten zer? Aurten neronek naizen bezela ikusi. Begi guzietan leihotilak hertsituta eta nere barne minak eta pozak nahi ditut bakarrik. Bost urteko bide hontan STOP egin.

GIRO BERRIA

Ezin ukatua, giro berri bat ikusten dut neure inguruan. Elizondo gainetik Tude-la zolara eta Lizarratik Tafallara berritzen dijoa Nafarroa. Euskalduna dela esaten ez da lotsatzen gaur *Aitorren semea*. Aldizkari eta egunkaritan ondo ikusia da euskera, gero eta ugariago dira Diputazioak bere babesean hartutako ikastoletara joan nahi duten haurrak. Nafarroa zaharraren aurpegi berria.

Eta hazi onarekin belar txarra. Gaitz guzietan buru, anai arteko borroka. Gutxi gera eta bakoitza bere alde gabiltz. Negargarria.

Nunbaiteko aztiak Belengo Haurtxoari ekarri zizkieten eskeintzak ereman nahi nizkioke nik ere, Euskal Herri osoaren opari:

Urrea. Gure artean gero eta gutxiago ikusten den jatortasunaren urte garbia. Ikastolen arteko azpijorarik gabeko lana, aldizkari hartu-eman anaitsua, euskalaren batasun egiazkoa, euskalkien elkarrenganako begiramendu eta jokabide neurritsua. Gaurko euskal giroak urte horia izateko utzi beharko luken berekoitasunaren garbiketa.

Izentsua. Lehen elizan ibili ohi zen. Orai munduko jauntxoen aurrean. Gure elizak beharko ditu bere erruak garbitu. Gotzaiari eskatuko nieke ez ditzaten hain arinki apez euskaldunak sakabanatu. Apezeri, ez dezaten nunbaiteko baxtartak balira bezala, herri baten nortasuna eta zapuztu. Serorak beste alde. Itsu-mutsu eta gorrotoa, erre kiskilaren usai garratza, ez da herri txiki baten odoletik gizon egin Jainkoari dagokion izentsua.

Mirra. Hileri ez usteltzeko ematen zieten Sortaldean. Euskal herritxo askok jende hilaren usai kiratsa daramate belauen gainean. *Euskera zertarako* dion euskaldunari, arnasa zertarako esan eta aho zulo eta sudurrak orratzez josi behar litzaiozke, ez dezaten gure menditako haize garbia zikindu. Jainkoaren doaia danontzat banatu da munduan eta gure begiramendu osoa merezi du.

Hau da, besteak beste, bosgarren Eguberri hontan Nafarroko aldizkariaren barne mina eta kezka nagusia. Poza bai, baino erdizka.

*1970, 57-58,
azaroa-abendua, 1. or.*

GAZTAIN HAUNDIA

Itzal bete-beteko
Gaztain haundia
Zen denbora bateko
Eskual Herria.

Eskuara zuten haurrek
Beti mihian
Eta kantu xaharrak
Berriz airian.

Juan da sortetxearen
Aments zabala
Negu aldian inaren
Siska bezala.

Eta Eskual Herriaren
Ezin ahala
Zait gaztain haundiaren
Azken itzala.

Koropiloz beterik
Bizi ondoan
Barneko harrak janik
Beharko joan...

Bada beti munduan
Lanaren zama
Dena nahi luke ereman
Sosarengana.

Lagun ditu tratuan
Lurra ta jana
Hortaz landa goguan
Nekez darama.

...Balu oihanak bihotzik
Samin zaiola
Odolustuz joanik
Gaztain arbola.

*1970, 57-58,
azaroa-abendua, 5. or.*

Euskal Izenak

MAITE

Gero eta gehiago dira gure izen euskaldunen berri galdetzen digutenak. Danok dakigunez, asko dira bide hontan ezartzen zaizkigun eragozpenak, bainan, denbora berean, bide berriak urratzen goaz. Onartuak diren hitzekin hasiko gera.

Ugari erabiltzen da gure artean Maite izen hau. Abesti zahar eta berritan haizatu izan da. Beste edozein hitz baino lehenago jasoko du haur txikiak bere amaren ahotik. Belarrientzat atsegin eta bihotzaren hunkigarri da Maite, emakume izen hau.

Halare, ahotan dabilten Maite guziak ez dira jaiotz-agiritan sartuak. Maria Teresa idazten ziguten, gero Mari Tere esango zuten erdaldunak, eta Maite besteok. Baztar bidetik sartu behar izan du, beste askok bezala. Egia da, herriak berdin ibiltzen zuela, eta badirela izen hortako etxe zaharrak. Ezagutzen dut *Maite* izeneko bazter etxea Luzaiden. Eta *Marimaite* esaten diote beste bati.

Eta juzgado hoietako gizonak zer diote izen hontaz?

Orai ikusiko duzue. Sagarrak eske joan eta udare jatorrekin itzuli zaizkigu Madrildik Idiazabalgo senar-emazte batzuk. Maitane ezarri nahi zioten alabatxo sortu berriari eta, jakina!, ezezkoa eman diete. Ordiziako legegizonak zionez, Maitane hori Maite izenaren ustelketa da «*es una corrupción de Maite*».

Eta bigarren pundua, jakingarria hau ere: Maite izenak *Maria del Amor* adierazi nahi omen du erderaz. Berri hauek Registrotako aldizkarian argitaratu dira. Horra hor hitzaren lege indarra. Geroztik, eragozpen haundirik gabe sartzen hasia da jaiotz-agiritan. Besteak beste, Iruñen ere onartua izan da, Maite Fernandez Romero haurtxoa-ekin.

Esandakoz baliatu nahi duenik balitz, hona hemen xehetasun batzuk:

Ikus *Boletín de Información, Ministerio de Justicia*, 837 zk., 43 or.

Iruñeko izena: *Diario de Navarra*, 8.X.1970 (*Gacetillas*).

Gogoan izan beraz, Maite elizan eta Maria Teresa Herriko Etxean duzuten guziok, zuzenketa noiznahi egin dezakezute. Asko ugarituko da orai arte jorratua izan den izen polit hau, gure euskal alorretako lili berexia.

1970, 57-58,
azaroa-abendua, 8. or.

ERREGEAK

Giro txarra zuten aurten Sortaldeko hiru Erregeak. Elur eta karroin, ez dakit nola ibiliak izango diren bide hoietan. Haurraren ametsetan elurak ez du ajola haundirik, badaki nundik edo handik etorriko direla. Beti etortzen dira.

Beste kezkarik bada gogoan. Nola ezagutzen dituzte haurrak bizi diren etxeak? Hanketakoa leihoan ikusita? Nola ibiltzen dituzte gau batez haur guzrien etxeak? Eta harrigarriena: nork jakinarazten die on eta gaiztoen bizia?

Guk artoa sartzen genien oinetakoan. Arto eta agotz lastoa, irrutitik heldu ziren mando goseak jan zezaten. Onak izaten ez baginen, aza-orri eta ikatz beltza utziko zigutela esaten zigun aitak. Eta bai utzi ere, batzutan. Nola zakiten gure berri?

GEZURRAREN MOZKERIA

Mesede baino kalte gehiago egin dute Erregeak gure artean. Eta ez esan haurren pozak zerbait balio duela. Inguruak utzi eta bide zuzenera jotzen du haurrak. Uste du bera bezain zinez ibiltzen direla danak. Sinesten dituenek oso-osoan eta bihotzez sinesten ditu. Erregetako amets politak aitaren aitzurra edo amaren jostorratza bezain garbi ikusten ditu, egiaren mailan. Gezurretan ibilarazi dituztela ikastea dira kontuak. Haunditxoak negarrez ikusi ditugu eta askorentzat beren biziko egun ilun bat gertatzen da.

Haurrak ikusten duena: jende haundiak gezurtiak direla. Bere aita-amek ere gezurretan zebiltzela. Bigarren kezka, errege kontuan bezela, ez ote die bestetan ere gezurra esaten? Jokabide hortatik sortzen dira aita-semeen arteko hoztasun asko.

Hemen ere, gezurrak urrats motza.

EGUBERRI

Eta bada besterik auzi hontan. Gauzak gaizki egiten hasi eta ezin laizke diren baino gaizkiago utzi. Eguberri egun zoragarriak direla eta hamar-hamabost eguneko besta izaten dute haurrek beren etxetan. Ama mugaz handikoa eta aita hemengoa zuen haur batek galdetzen zion bere gurasoeri: Zertako ez dira Espainiako Erregeak beren garaian heltzen? Bakantzak finitu eta eskolara joateko egunean ekartzen dituzte gauzak, hain zuzen. Ez al dakite gure berri?

Beste hitz batzuekin esateko, jostatzeko denbora badutelarik ez dute jostagarririk, eta Erregeak etorri orduko ikastolara itzultzeko garaia. Adierazi gero haur hoieri ongi egiten dituztela beren gauzak jende haundiak.

EGIA

Egiarekin bazter guzitara heltzen omen da, eta beren egun egokian etor laizke Erregeak. Gurasotan dago aldapa gora. Askorentzat haurren zoriona jokatzen da, haurren amets goxoak...

Zertako ez esan, duela bi mila urte Sortaldetik etorritako aztiak gizonak zirela gu bezela eta joan zirela mundu hontatik bestera? Haien mando-abere haundiak ere hil zirela, nagusiak bezela.

Jesus Haurra da behin betiko danontzat etorria eta hau bai dela gure egiazko poz-bide. Lehen kristau denboretan Errege egunarekin ospatzen zen Jesusen Jaiotza, gaur abenduaren 25ean egiten da. Zertako ez egun horren inguruan haurren amesgarri hoberenak haizatu?

Giro txarra zuten aurtan, gure artean, Sortaldeko hiru Erregeak. Lau hankakoa utzi eta hegan etor dailela nahi badu errege beltza, gure haurren errege hoberena, betor bai, bainan bere garaian.

Gu gera, ordea, betiko arbi berantak!!

1971, 59, urtarrila, 1. or.

Euskal Izenak

AMAIA

Gaurko euskal izenaren gaia Eguberri txartel maitagarri batek dakarkit. Haur eder baten argazkia zeharka begira. Begi zabal argien begiratzen sorgina! Eta atzean, «Eguberri eta Urteberri on! Amaia. Madrid-tik 22.12.1970». Euskeraz idatzia.

Amaiak zortzi hilabete ditu. Eguberritan ez zituen beteak. Askoz lehenago, Amaia izena eman aurretik, izan nituen nik bere berriak. Hara zer zion orduan, «Agur lagun zarra! (halaxe). Gaur betetzen dut ilabete bat eta zer istiluak ez ditut sortu! Hartu dut egunorokoaren orria (Diario de Navarra, 23.V.1970), eta oso ona dela esaten du aitak. Hemengo juezak ere badu. Donostiatik bialduta. Pareta gora igotzeko moduan omen dago eta zurekin sartu nahian...».

Zer gertatu zen galdetuko duzue, noski. Maiatzaren bian jaio zen Amaia, Ma-drilgo Chamartin aldean. Juan Brochon bere aita-amen izenak. Maiatzeko lili bati da-gokion Amaia izen polita ezarri nahi zioten eta juezak ezetz. Astakeritzat jotzen zuen legegizonak izen hori jende bati ematea, «*extravagante, irreverente*» eta ijito izena zela, gainera. Esatea ere!!! Bada ez bada, Arantzazu ezarri zion Amaiaren ordez... le-gegizonak.

Lotsagarri da gure gauzak nola hartzen diren ikustea eta guretzat mingarri, bi-garren mailako herritxoa bezela zapaldurik bizitzea. Aita hasarre zen eta gorago jo-tzea erabaki zuen. Bitartean, egun gutxiren epea izaten baida, Tolosako adiskide bati jakinarazi zion. Igande atsalde batez agertu ziren nere etxean tolosarrak. Egia esate-ko, ez nituen ezagutzen, baina ongi iduritu zitzaidan euskal izenen auzia Madrilen sortzea. Orduantxe nuen Amaia izeneko lantxoa idatzi eta Iruñeko egunerokora bial-du. Horrek ematen zion su juezari.

Aitaren alde erabaki zuten goiko mailan eta bai Chamartingoari Amaia izen ja-torra zela eta liburutan sartzeko agindu ere. Bigarren epailearen izena kenduta eman zioten erabakia aitari. Nolanahi dela, izen honekin eragozpenik balitz nunbait, bada-kizue lege onartua izan dela. *Amaia* edo *Amaya*. Bi aldetara berdin da.


Geroztik Amaia txikia zerbait bazen neretzat. Gurasoak ere elkar ezagutzeko gogoia erakutsia zidaten eta uda mineko bero haundienekin etorri zitzaizkidan etxera. Hiru hilabeteko haur baketsu eta ezta zen orduan. Eguberritako txartela oso pozgarri izan zait eta Euskal Herri osoari nahi diot adierazi, Madrildik izen euskaldunen auzia aurrera atera duen haurtxoa. Hor duzue orai bere irri gozoa.

Agur Amaia! Berriz Euskal Herrian ikus arte!

1971, 59, urtarrila, 6.or

SARAGUETAKO MARGOLAK

Duela bizpahiru hilabete, *Príncipe de Viana* urriko zenbakian, Saragueta ekarri ginuen lehenbiziko orrira. *Ugain-borda* adiskide ibilkaria izana zen Artzibar aldean eta begi zorrotzez jo zituen Saragueta elizan aldare nagusiko margolak (pinturak). Eta ez zen itsu-itsura mintzatu:



- 1) Koloreak oso ongi banatuak eta ezberdinak ikusi zituen. Eman zien egileak bai indarra eta bizitasuna, baita ere ederraren egokitasun atsegina.
- 2) Jende eta betegarriak mailaka ezarriak dira. Aurrez aurre garrantzi haundienekoak, atzerago bigarren mailakoak eta urruti batean besteak.
- 3) Aurpegi indarra, beste alde. Hizketan eta bizirik zeudela ematen omen zuten. Ibilkari eta, gainera, ikasia danez, Europa aldeko bilduma asko ezagutzen ditu eta Holbein haundiaren kutsua ikusten zien. Hau zen, laburpenez, orduan esana.

ARTZIBAR GALDUA

Aoitdik Auritzera bideko herriak nituen nik Artzibarren ezagutzen. Ezker-eskuin, mendi gailur eta muno latzak bizibide gogorraren aurpegia erakusten digute. Artean berriz, bidetik kanpo, mendira begira egin du bere bizia, ikusten ez den Artzibar galduak. Azaroan ginen Saraguetan, Uranga lagun, *Ugain-borda* eta biok. Egun ederra gertatugatik, ez zen berorik herrian. Nortasun haundiko etxeak eta denak hustutzen ari. Elizatzean, lapin (konejuen) hazkuntzako kutxatila sareduna, hutsik. Haurrik gabeko herria. Baztarrak ixil.

Noizbait etxekoandre gazte baten burua atal-leihotilatik. *Ugain-borda* konturatu da lehenik, eta aspaldiko laguna bezela, aitona zaharraren berri galdegin dio. Ez, ez da hila, lau famili hoiek han diren bitartean bizi da Saragueta herria. Noiz arte?

MARGOLAK

Han ziren elizako margolak, izan ere, hautsez estaliak. Argazki sail bat atera genien. Nere lagunaren zirikadak ez zuten erantzunik izan. Gure lana eginik, eguerdiko Iruñen ginen. Airean, badela ez delakoaren zalantza ernari betea. Madrilgo Prado margoltegiaren erabaki beharra zen auzia.

MADRILGO ERANTZUNA

Zonbait egunen buruan jakin dugu ikasien eritzia. Saraguetako margolak leku-koak dira. Nafarroan ba omen ditugu tankera hortako beste zonbait. Batzuk besteak baino hobeak, jakina, eta hauek ez dira txarrak. Beraz, bada nafar Ederti Eskola bat.

Ni ere harira nijoa, nork esan sagarmina pagadian bezela mendian galduta dagon herritxo batek halakorik bazeukanik? Nafarroa ikusgarri dela esaten duteneri sinesten hasi beharko... eta bitartean, herritxoak odol husten ari! Usategi edo arrano mendi?

1971, 60, otsaila, 1. or.

Euskal Izenak

MARI

Euskal Herriko Ama Birjin baten izena ezarri nahi duenak haurrari, Mari sartu behar izaten du aurretik. Kristau kutsua Mari hitzak ematen nunbait!!

Askok ez dute jakinen nundik datorren jokabide hau. Erromak erromatarren kutsuarekin zabaldu zuen sinestea. Kostantinori bere mendeko herri guzien batasuna komeni zitzaion eta gaizki ikusiak ziren baztarretan eliza herrikoiak. Duela urte gutxi arte, latinez ematen ziren eliz-ikasgaiak eta, gehiago dena, latinez izkututzen ziren elizkizunak.

Izen kontuan ere erromatarren mendean ginen. Beren izenak eta Liburu Sandutan sartutakoak beste izenik ezin zen onartu. Haiek ziren bakarrik santuak, gureak jentilenak. Txarrak.

Baina, Mari izenarekin polita gertatu da. Antzinako herri askok bazuten Jesukristo mundura etorri aurretik izen hau eta euskaldunak ere bai. Ekaitz eta eurien eragilea bera zen eta lurren ugaritasuna eskuan zeukan. Gero, kristau sinestearekin, indar haundia hartu zuen Jainkoaren Amak eta baztar guzietan sortuz joan ziren Andra Mariren eliza eta baselizak. Bera da emakume izen ugariena Euskal Herrian.

Gaurko joera laburpen aldera dijoa, errextasun bila. Aitziber edo Idoia esaten duenak badaki Ama Birjinaren izena dela eta hori aski du. Elizak ere ez du alderdi hortatik eragozpenik. Erromatarren legebidea ezin bota duten mordoiloekin izaten dira kontuak. Joan den lau-bost urtean polekitxo eskua zabaltzen hasiak ziren batzuk, alegia, Mari gabeko izendegia liburutan sartzen, bainan azken bolara hontan berriz trabak badirela entzuna dut.

Galdera bat nuke orai malezi printzarik gabe egitekoa: Jesukristoren Ama Mari izan zen bezela beste bat izan balitz, onartua izango al zen Mari hori gure artean? Izena esan nahi dut. Erromatarren mitologi izenen eskubide bera zuten gureak Jainkoaren aurrean; ez hala, gaur ere, legegizonen neurri estutan.

Kristau zintzotasuna ez dago izenetan, egunoroko bakoitzaren jokabidean baizik. Ez du Ama Birjinarenganako zaletasun gehiago esan nahi Maria Arantzazu izen osoak, Arantxak baino. Hitzak, hitz hutsak: gezurra. Zertako ez, orduan, bakoitzari bere eskubide osoa eman. Haur haundi batzuen kontuak besterik ez.

1971, 60, otsaila, 6. or.

EZ ADIORIK!

Ibeltzarekin batera joan zaizkigu biak, eta ixil joan ere. Zaratan ibili gabe, beren buruz utzi dute kargua. Otsail txikiak bi aulki hutsik ukan ditu Nafarroko Etxe Nagusian. Martxoak beteko omen dizkigu bi gizon haundiren zuloak.

Duela zazpi urte sartu ziren Diputazioan. Sarrera herrikoia izan zuten. Gosearen ametsa luzea da, eta bazen amets Nafarroan. Gure gosea, molde zaharretatik atera eta ekintza berri bati lotzea. Espainiako industri lanbidetan bazterrera utziak ginela konaturatzen hasiak ginen. Gure nekazalgoak nekeza berekin zuen eta etorkizun gutxi. Gaizki bizitzeko besterik ez zen. Aipamen haundiko gure bide berriak gero eta meharago gelditzen ari ziren; laster, gurdibide. Eta negargarriena, Nafarroko gaztedia herbestera begira bizi zen. Odol ixurtze larrian. Kezka hauek buruan eta laino beltzak begien aurrean, bazen amets gure artean Huarte eta Urmeneta Diputaziora heltzean.

Denen gogoa egingo duenik ez da munduan eta Nafarroak behar zituen guziak emateko sorgin makila ederra dantzatu beharko zuten eskuan. Konformagaitzak izango dira, bainan hauek alde batera utzita zazpi urtez egina esan dezagun.

- 1) Lantegi berriak sortu dira. Ez gera lehengo nekazari hutsak. Eta Nafarroko lurralde guzitara zabaldu ez badira ere, oso sakabanatuak agertzen dira fabrikak. Ez da, beraz, hiriburua bakarrik aurreramendu hontaz baliatu dena.
- 2) Bide berritan diru asko sartu da. Elizondotik Tudelara eta Ziorditik Iruñera-koak irabazi dute gehienik.
- 3) Bertako semeak ogibidea arkitu dutela ere esan beharko. Frantziako mendi lanetan ez dabil hainbeste euskaldun. Ipar Ameriketako artzai naparrak urritu dira. Gertakizun honek du, batez ere, pozten gure bihotza.

Halare, egina asko delarik, bidean direnak ez dira neke gutxiagorekin lortu. Bi dira etorkizun haundienekoak: bere eginkizun larrienetako diru laguntza jasotzeko eskubidea, alde batetik, eta autobide zabala Tudelatik Iruñara lehenbailehen egiteko erabakia. Bi puntu hauek Madrilen lortu dira. Orai arte, Gobernuak bakarrik hedatzen zituen diru-laguntza agiriak; orai, legez, gure Diputazioak ere egin dezake eta eskubide berdinarekin ikusiak dira diru-etxe guzien aldetik.

EUSKERA

Zazpi urte hauetako gertakizunik larriena, halare, ez dator diruaren eta bizibidearen aldetik. Gizona ez da ogiz bakarrik bizi eta Nafarroak badu, lurra eta diruz landa bere arima. Menderen mendez itotzen zijoan gure nortasun berexiaren arnasa piztu dela esango nuke nik eta ofizialki gure beste beratasunen mailan jarri **euskera**.

Duela bost urte *Príncipe de Viana* aldizkari hau sortu zelarik, euskera janzteia izan zen gure helburua, ahalik eta txukunena jantzi eta ezagutaraztea. Ongi edo gaizki, hortan saiatu gera. Bere ondore pozzarria, Nafarroko euskaltzaletasun zabal hau izan da.

Ikastolak, beste alde, beren arantza eta guzti, giro berri sortu digute. Jaiotza guzien erdiminak ixilian ereman ondoan, haundi-minak jo zuen euskal amaren bihotza eta lehertzeko zorian ibili du. On eta gaizto, txuri-gorrien arteko borroka erein zuen etsaiak anaien artean. Haurren heziketaren garrantzi haundiko etorkizuna ikusirik, Ikastolen Elkargoa sortu du gure Diputazioak. **Nire ustez, aspaldi eman den urratsik astingarriena hauxe da Nafarroan.** Ez da harri zaharrak aztertzea bezala, gure nortasunaren arnas bizia zaindu eta indartzea. Hor dago bizirik herri arima.

Ez balitz gauzak apalean egilea izen bat aipatu beharko nuke nik orai. Haste-hastetik lehen orri buruan zetorren M. J. Urmenetaren izena. Oraikoa ez du aipamen hau kentzeko biderik izango, joan zaigu. Langile jatorraren lana egin du, ixil-ixila eragin eta gauzak aurrera ereman. Eta gero eskertu, zordun balitz bezala!! Asmo haundi guziz jabetzen den bihotza zordun agertzen da beti lortutakoan...

Ez dira hitz hauek despedida bat. Urmeneta gurekin izango da berriz ere *Príncipe de Viana* Euskeraren Sailan. Lehen orri buruan edo beste lerrokada batean agertzeak ajola gutxi du. Lanak uztartzen gaitu.

Ez adiorik Migel Jabier! Ikusi arte.

1971, 61, martxoa, 1. or.

Euskal Izenak

AITOR

Oso zabaldurik dago Euskal Herri guzian Aitor izena. Jatortasun haundiko hitza bezala jotzen du jendeak. *Amaya* liburuak indar eta zabaltasun asko eman zizkion. Geroztik, Aitor euskaldun guzian aitaxo zaharra dugu, Euskal Herriko Abraham handia.

Aitor izen berria dela gutxi dakite. Hemeretzigarren mendean, duela ehunen bat urte, Xaho jaunari gogoratu zitzaion. Hori bai, hanka onez sartu zen indarra hartzen. *Aitorren hizkuntza* esaten dakio hainbeste mila urte dituen euskerari eta *Aitorren seme* dira euskaldun jatorrenak. Denbora gutxian mito sakon bat sortu da hitz honen inguruan.

LEGEAREN AURREAN

Euskal izenak legez aurrera ateratzeko koropilo gaitzak izaten ditugu, hor gabiltz bizi guzian borrokan eta ez dugu nahi guzia lortzen. Aitor atsegin gertatu zitzairen legegizoneri eta atal haunditik sartua dugu paper ofizialetan. Tolosan atzera bota ondoan Madrilen onartua izan zen. Greka eta latinezko mitologi hitzen eskubide bera bazuela zioten *Dirección General de Registro* delakoan. Geroztik ongi ikusia da eta ez dio inork eragozpenik jartzen.

Gaizki esan dut. Iruñeko parroki berri batean trabak izan berri ditu. Artzai Nagusiarengana jo zuen aitak eta obispadoan paper bat emanik bataiatu zuten Aitor txikia.

ZER ESAN NAHI DU?

Denek galdera bera, zer esan nahi duen. Los Arcos-tik idatzi zidaten lehengo batez, Aitor izenaren berri nahian. Polita zitzaion, iloba ere bazuen izen hori zuena eta nundik zetorren jakin nahi zuen. Lagunak galdetzen zioten eta berak ez zekien zer esan.

Euskaldun izatea, nunbait, jakintsuen mailan sarturik egotea da. Hipolito edo Kiteria deitzen den erdaldun bati ez zaio behin ere hitz hoiek zer esan nahi duten galdetzen. Gizon ikasien gauza da. Eta euskalduneri bai. Filosofia ikasten hasi beharko dugu denok, arto-jorran bezala izen-jorran ere jakiteko. Nik, behintzat, ez dakit Aitor hitzak zer esan nahi duen, euskaldunen aitaxo zaharra dela dio Vianako N. Villosladak. Xahori galdetu beharko.

1971, 61, martxoa, 6. or.

ANDRES NARBARTE «XALTO» ZENA

Goizueta, bost bokalak berekin dituela, Gezinbesteko bide bihurri batzuen azken muturra da. Nafarroko biderik txarrena jotzen zuen gure gidariak. Hernani aldetik zerbait zabaldu nahian dabilta. Baluke beharra. Denborak, bestalde, ez zigun lagundu. Etxetik ateratzean langarra, xirxil eta hotza, Goizuetara orduko euri larria. Bidean, amurrai-zaleak Urumea gora belaunetarainoko urean. Martxo ahul baten hamalaua.

Xalto zenaren herrian Sebeinoren berri galdetu gabe jakiten da. Oraikoa ere ez ginuen galdetu beharrik izan, hantxe zen plaza-aren erdian, euriari bizkarra ematen. Berarekin zen Andres, lanean ibili zeneko lantegi zuzendaria.

Ez zen gehiago lanean ari —esan zigun honek—, laguntza txiki bat jasotzen zuen segurotik eta horrekin bizi zen. Asturiasko minetara eramateko eskatzen zidan. Nola eramango nuen!

Eguraldiak ez zuen barkatzen. Sebeino Berroetaren etxea, aspaldiko modan, gauzez betea da. Botika eta denda, espartin eta bakalu-zola, beldur naiz Goizuetan izan diren baserritako asto guziak begiak itxita bilatuko zuten hango bidea. Txikitatik nuen entzutea.

—Aitak zuen Xalto izena —Sebeinok dionez—, ibiltzeko moduagatik izango zen. Aitak minetan egiten zuen lana. Harri batek buruan jo eta Ezkurrera ereman zuten eta handik Donostiara. Ni joan nintzan gero bila. Andresek hamar urte ez zituen izango eta hamabost bat kilometroan atera zitzaigun bidera.

Enziklopedia haundi batena baino ugariago da Sebeinoren etorria. Miamin duen alaba serorari euskeraz idazten dio eta gerra ondoan Paris aldera egin zuen itzuliak liburu bat merezi luke. Arditatik ahuntzetara gabiltz, gustora:

—Diru aldetik oso gaizki zebilen Narbarte, ez zekien diruari kasu egiten. Txapelketa batetik etortzean bezala, bidean gelditu eta ikusten zuen guziari zerbait eskainka... Azkenaldi hontan ama ere beldur zen etxean lo egiten. Aldeko baserrian gelditzen zen. Egun pare bat gaizki zemazkian amak eta eltzea bialtzen zion egunero.

D. Vicente Hernandorena, herriko apeza, gurekin da eta hau dio:

—Noiznahi, goizean goiz etxetik atera eta gaua arte bere buruakin oihukan zebilen mendian. Herrian uste dute medikutan hasi ezkerro galdu zela Andres. Bat edo batek berari esan ere bai.



Jatetxe apain txukuna dugu ostatu. Harri zahar guziak agerian, zaharberri jatorra. Aurtengo soldadogaiak sartu dira gure atzetik. Auspo soinu asko eta dantza gutxi. *Kinto* eguna.

—*Moxo* baserrian jaio zen Andres, dio apezak. 1926koa da. Berrogeita bost urte beteko zituen urriaren 27an. Hori bai, *Txemeneko borda*-n bizi zen txiki-txikitatik.

—Nola izan da? Galdetu diogu.

—Bere gisa zebilen aspaldi, basahuntza bezala mendiz mendi. Urtarrilaren (ilbeltzaren) bedratzian sasi-larre erretzen ari zen *Aduntziko erreka*-n, *Etsolla* mendian. Baserritik ordu erdi bateko bidea. Suak indarra hartu zion nunbait eta ote erretzen ari ziren beste lau gizon joan zitzaizkion laguntzera.

Pinudi asko da inguruan. Goizuetan lehenbizikorik aldatutako pinuen berri ongi daki Sebeinok. Ikustekoa da orai, borroka askoren ondoan, otea eta ainarra besterik ez zen tokitan dagon aberastasuna! Metro baten puja egiten omen dute askotan. Las-ter Nafarroko herririk aberatsenetakoa...

—Bertsulariak ezagutu zituen laguntzaileak —dio D. Vicentek—. Baina estuturik zegon, *ebaindua* esaten dugu hemen. «Ni joana neok», esan izan behar zien. Azkenekotan izanki, *Aita gurea* heldu omen zitzaion ezpainetara. *Jesukristo nere Jauna* osorik ez zekiela ere aitortu zien laguneri. Gero, atake batekin gelditu zitzairen bide erdian.

Goizuetako apezak xeheki eta ongi hartuak ditu gauzak. Era guzitako errestasunak izan ditugu. Atsaldea badijoa eta itzuli behar... Laino erori guzien zama sartua dugu guk ere barnean. *Morris*-aren garbigailuak ez du argitzen parabrisa, bi aldiz bete diogu ur ontzia. Lasarte eta Lazkau Txikik bina bertso kantatu dizkate ihautetan. Gurutze baten premia balaike hilarrian. Doinu gogorreko bertsutan abestu du Xaltok bere bizia.

1971, 62, apirila, 1. or.

UMEEN DEIA

Nafarroan ikusten dugun euskaltzaletasunaren piztea ez da berezko laharraren etorrera. In-darketa latzarekin egina da aurretik negu sarrerako ereintza sakona, ixilkako lan asko da lurpean sartua. Udaberriko izpiak ikustean behartuak gera lan ixilaren aipatzera.

Gogoan dugu, esate baterako, Aita Felipe Murietakoa. Gaurkoa da eta noizbaiteko gizaundiaren mito kutsua hartzen ari zaigu. *Umeen deia* izeneko orritxoekin egin zuen bere ereintza. Behin eta berriz beren izentxoak paperretan ikusteak zenbat haurtxoren poza ez zuen haizatu? Idazle txiki haiek guziak izan zuten euskeraren deia bere egunean kezka bat piztu zuen gure artean. Idatzi zaikeen euskeraz.


Bestalde, gizon burutsueri irriño bat eginarazten zien hizkuntza bixiarekin, zenbat eta zenbat burubide haundi eta esames polit ez zuen erein!! Lau mila orriko 65 zenbaki, gari bikor asko dira sasi-larre zen euskeraren alorrean...

Orduko haurrak, gaurko gaztedia. Neguko hotzaren ondotik, udaberriaren epela. Haurren kezkatik, ikastolak. Urte gutxi barne, gau ilunean argi zuria. Kiro berri honen harian Aita Feliperen izena ezin baztartua da. Begi xorrotx haien begiratua barnean senditu ginuen guziok, zor bat badugu, haren barne-mina Euskal Herrian zabalzera behartzen gaituen zorra.

Hari esker, gazte askoren izenak liburu mardul ederrean sartuak dira. Beren eta euren atzekoen pozgarri izan daiken bilduma aberatsa, bizi guziko oroigarri jatorra. Eta denbora berean, euskaltzale sutua izan zen Aita Felipe haundiari egiten diogun omenaldia. Iritzi batez garestitxo idurituagatik, eskutan hartu orduko gure esker onaren opari merkena dela konturatuko gera.

Euskaldun berri batek hori egin bazuen... zer ari gera besteok? Noizbait pozez egin badut liburu baten aipamena, oraikoa, Ismael Torres* Aita Felipe zenaren anaiak egin du bilduma txalogarri honen lana eta azken orritako herri-lerro eta izendegia.

1971, 62, apirila, 3. or.



* Ismael Torres, c.m.f. *Umeen deia* (Aita Felipe Murietakoak haurrekin egin lanaren bilduma osoa) Claret Liburutegiak argitaratua. 466 orrialde. 250 pta.

SUA ETA BIAK

Lagun zaharrak ziren sua eta biak, ongi ezagutzen zuten elkar. Mendi erretzen Xaltoren parerik ez omen oihanzainak. Lan ona egiten ziola, dio berak. Bihotzean zeraman. Lau puntu eman eta bertsu bat eskatu zioten bere herritarrek. Baserritarren samina darion kopia itzuli zien:

*Goseak dabiltz Goizuetan
aurten ere ardiak,
neri behintzat hil zaizkit
ia-ia erdiak,
itxita baidauzkagu
ziaro mendiak,
nik erreko nituzke
horko pinudiak.*

Lagun txarra zuen Andresek bere sua. Katuak bezala, gutxiena uste delarik atzaparka. Bi aldiz, behintzat, oso gaizki ibilia zen gizajoa. Ongi atera eta ongi konda. Hortan ixildu zen gauza.

Iruñeko gaixotegian egon zen garaian, Diez de Ulzurrun sendagilearekin izan nitzaien ikusten. Hasarre antzean zebilen denekin. Baserria erre ziotela sartu zitzaion buruan, etxera itzuli nahia zuen gogoan. Denboraren buruan, ama ere sutan erre ziotela adierazi zien Gartzarongo saiora berekin joanak ziren lagunei. Surik ez bazuen eskutan, suarekin zituen ametsak...

Ez nundik eta ez handik, berri latza; halako batean, suak ereman zuela Andres Narbarte, Goizuetako bertsularia. Lainopean bezala heldu zitzaigun gauza, ez jakin zer pentsa...

Ez, ez du suak ukitu. Lokarriak hautsita mendira jo duen zaldi basa bezala joan dakio eskutik berak piztutako sua. Galdurik ikusi du bere burua eta barnean zeraman su ikara gorria jauzirik, estutu eta ito da. Laguna etorri zaio bila eta, erre gabe, lepotek ereman du jostatzerara.

Ixilduko dira, orai, esames guziak:

Amaren bildurra,
Goizuetako nexkatxen iges egin beharrak,
Asturiasko minak,
medikuen jantzi txuriak
eta lotsa.

Jubilazio-sari eskaxak ez dio lorik kenduko,
mendi bakardadeko bertsuak
eta sua
itzali dira betiko.

1971, 62, apirila, 6. or.

Euskal Izenak

IÑIGO

Duela bi urte bakarrik, Iruñeko nere adiskide bat oso gaizki ibili zen Iñigo, gure izen zaharra, seme bati ezartzeko. Iñaki eskeintzen zioten legegizonak eta Iñigo nahi zuen berak. Nolabeit adierazi zien Iñaki baino jatorrago zela Iñigo eta liburutan sartu ere bai. Halare, biharamonean ez zen egunkaritan Iñigorik agertu, ixilkako gauza bezala gorde zuten legegizonak.

Geroztik asko aldatu dira gauzak eta bi azken hilabete hauetan ugari eta ugari dira Iruñen Iñigo izeneko haurrak. Eta bildurrik gabe jakinarazten digute gainera.

ITURRIAK

Legearen aurrean ezin da esan —Ignacio hor delakoz—, Iñigo baztatu behar denik. Iñigo da joan den mila urteko izen zaharra eta Ignacio erdal itzulpena, berria. Nortasun haundiko gizonik izan den galdetzen badigute, izen horrekin ezagutzen ditugu Nafarroko zombait errege, Iñigo Arista, batez ere.

Askota da, erdal Ignacio eta Iñaki baztatu gabe Iñigo izena onarturik ikustea, asko da Iruñeko Registroan eragozpenik ez duela aitortzea eta askoz gehiago, bat-batean, hainbeste gurasoren gogokoa gertatzea. Gure herria esnatu delako marka pozgarria. Galdera bat egingo nuke nik orai: Iñigo al da izenaren iturburua?

ENEKO

Latinez idatzirik daude gure errege gehienek berri ematen duten paper zaharrak eta *Eneco* esaten dute. Hamabigarren eta hamahirugarren mendean Eneko asko da gure herritan. Izen bereko aita-semeak elkarrengandik berexteko Enekoren Eneko (*Ennecus Enneci*), esan ohi da. Gauza garbia da. Izango dugu, beraz, Eneko izena sartzeko eragozpenik? Denborak esango du.

Nere ustez, jokabide zabal eta ideki batean badira zombait izen iturri berekoak, eta guraso batek berdín erabiltzeko eskubidea duena: Eneko, Iñigo, Iñaki eta Ignacio. Euskal Herriko izenik ugariena izana da garai batez eta aldaketa hoiek guziak sortu zaizkio. Ez ote da aberasgarriena den erabiltzea? Goazen, beraz, Iñigo dugularik Eneko-ren bila. Zombait tokitan sartzen hasia da.

1971, 62, apirila, 6. or.

Liburu Berriak

ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO

Hartu berri dut Auñamendi argitaldaria ari duen lan Hzoragarri baten bosgarren zenbakia. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* bildumaz mintzo naiz. Bat bestearen atzetik, berantzerik gabe, aho zabalik uzten gaituzten harri bitxiak heldu zazkigu eskutara, zinezko perla-harriak. Halako gauza bat gure artean egin zaikenik ezin sinetsiz bezala nabil oraindik, ez gure jakintzak gai eskasirik duelakoz, erostun gutxi ginelakoz baizik. Baina, ezin uka begiek ikusten dutena: bosgarren mugarrian da alor haundi baten lantze aberatsa.

Elerti, Literatura sailako bigarrena da oraikoa. Idazle bakoitzaren heriotzak mugatzen duela, 1897tik 1936 bitartekoak dakarzki. Ez gizonen berri bakarrik, denbora hortako joera berri, lehiaketa eta talde berexien lana ere arkitu daike. Beharretan ginen euskal idazkien agerkaria.

Zenbaki honek, Jon Bilbaok egindako lana dakarkit gogora. Hain zuzen, euskal gaietaz idatzi izan den guziaren erakusketa zabal eta agorgarria ez da literatura sailako berri eman nahiaren azken muga baizik. Bide ezberdinetatik batera datoz biak eta bilduma berdingabea osotzen dute, ez argitaldari berak ematen dizkigulako, hari berdineko piruak direlako baizik. Biak dute elkar laguntzen.

Azken zenbakiak badu beste zerbait ere, Undianoko Juan abadearen liburu errezkadan XVI. mendeko euskal kantuen liburu bat agertzen dela jakinarazten digu. Egile ote? Euskal bertsutan ari zela dio beste nunbait, eta bertsuen egile bera izatea gerta laike. Iparragirre haundiaren *Jaungoikoa ta Arbola* izeneko bertsuak ere esku-ratu dizkigute, hasieran ematen dira. *Astabizkarreko* kantuen xehetasunak ezaguna-goak ditugu. *Altabizkar* izena ez zaigu hain egokia iduritzen.

Urte hauetan lan haundia egiten da bertsu, paper zahar eta euskal esaerak biltzen. Herritan ere agertu dira ezagutzen ez genituenak. Han-hemenka argitaratu diren hoberenak bildu eta ondotik etorriko diren zenbakitan sartu laizke. Egungotasun haundia ematen diote. Idazle bakoitzari jakingarrienen berri eskatzea nahiko izango litzake. Garrantzi hontako bildumak ongi merezi luke.

Beste alde, J. M. Hiribarrenen *Eskaldunak* uste gabeko eskeintza dugu, azken orritan. Alferrik mintzatzea izango litzake lan balios honen laudoriotan urtzea. Bere buruz da laudatzen Estornes Lasatarren eginkizun nagusia. Nire ustez, gure liburutegitan sartu den ametsik ederrena. Ezin sinetsia bezala.



1971, 63, maiatza, 3. or.

URDIAIN. GAZTETXOEN TXOKOA

Amarrendegi-ko gaztetxoak ez dira lo egon aurten (1970an). Moztasuna izaten da gure neska mutilen gaineko axala, bildurtasunaren molkots latza. Txikitatik kendu beharra izaten da, gero ez dago kentzerik.

Amarrendegi-ko dantza eta soinuak ikusi baizik ez da gustora dabiltzala konturatzeko. Norbaitek esango du horko erausi eta garraxiak ez direla onezkoak. Hego haizea datorrenean eta elur bezperan, belarriak itxi eta kitto. Mundu guzian gertatuko da, guri behintzat hala esaten ziguten txikitan.

Bada garraxia eta dantzaz kanpo beste zerbait. Elkar hartze hortan ari dira jende egiten. Bere alde ibili nahi duenak badu bere buruakin nahiko lan. Bakardadea bezain gauza motzik ez da munduan.

- 1) Aurtengo udan hitzaldi jakingarriak izan dituzte. Eskoletan ematen ez zaizkien gai sakonak. Gauza jakingarriak ikasi dituzte eta adiskide berriak egin. Aberastasun handia.
- 2) Euskal dantzak ikasi dituzte. Urdinen orai arte ezagutu ez zena, hamasei-hemezortzi neska mutil, bildurra botarik, beren jantzi ederrekin dantzan ikusi ditugu: Nati Ochoa, M. Lourdes Galarza, M. Coro Goicoechea, Aitziber Ostiza, Benita Goicoechea, M. Paz Garmendia, M. Sol Echeverria, Juana M. Galarza, Fco. Juan Aldaz, Jose Gonzalez, Mariano Galarza, Jose Gasanz, Jose A. Garabieta, Miguel Ign. Galarza, Jose Luis Zufiaurre, Antonino Goicoechea, Pedro M. Lizarraga.
- 3) Beste berri bat, laister txistulariak ere izango ditugu. Zazpi gaztetxo, borondate haundiarekin, solfa ikasten dabiliz. Astean lau egunez dituzte ikasketak. Nor diren? Josefina Sanroman, Micaela Aldaz, Marisa Acha, Inmaculada Goicoechea, Miguel Angel Zubiria, Carlos Aldaz, Angel Mari Galarza.

Lotsa bota eta jende aurrean agertzen hastea da gaztedi euskaldun baten lehenbiziko urratsa eta pausua. Hori egin duenak makurrena egin du.

Eta gure gaztetxoak, hego haizerik ez datorrenean, nortasun haundiko jendeak dira. Harriturik utzi zituzten Iruñetik hitzaldiak ematera etorriak. Ez badira makurtzen, beste giro bat sortuko dute Urdiainen. Zorionak.

1971, 63, maiatza, 5. or.

Euskal Izenak

EDURNE

Txoro bakoitzak bere pikuak, eta nik goizetan egunorokoa hartzean, jaioberrien errenkadari begiratu bat beti ematen diot. Badaezpada ere, lehen esaten zen bezala. Beste batzuk hildakoen izenak iresten dituzte. Bakoitzak bere gauzak. Egia esan, ez da gauza haundirik arkitzen gure artean, ezezkoa ugariago da egunkaritan, delakoa baino. Halare, behin edo beste, huts askoren ordain, arkitzen dut zerbait.

Martxoaren hondar egun testigu, Edurne zekarren. Bi eta hiru aldiz irakurri nuen, ez ninduten begiak tronpatzen. Herritan asko erabiltzen da Edurne izena, baina ez da berdin idatzirik ikustea. Hanketakoak estutzen duten lekuan hartzen du bakoitzak mina eta gure Iruña bedeinkatu hori dugu euskal izenen zapeta estua. Horrexe-gatik hartu ginuen gogoan: Edurne Paularena Gorraiz (*Diario de Navarra*, 31.3.71).

LEGEA

Denok dakigun bezala, erderazko Maria Nieves, edo Nieves hutsa, izango litza-ke gure Edurne jatorra. Beste alde, legegizonen ahoz entzuten aspertuak geranez, itzulpena duten izen euskaldunak erderaz idatzi behar omen dira. Besteren makilari dagon asto beltxaren zorigaitza. Eta Edurne bezala, Nekane (Dolores), Aintzane (Gloria), Garbiñe (Inmaculada) eta beste.

Nolanahi dela, gure begiz ikusi duguna gezurra dela esaten trebe dira. Behin baino gehiagotan gertatu zaigu periodikora berek bialdutakoa Registroan gezurtzat ematea. Zuzentasunaren izenean egiten direnak!

GAURKO GIROA

Halare, zerbait aldatzen dijoa gure artean eta egunetik egunera aldatu ere, korrikan. Indarkeri hutsez bildutako urak lehertzen ari ote diren! Han-hemenka euskal izenak. Nafarroan baztartua Bizkaian nagusituko da eta hiriburuan ezeztatuak herritan sartuko du sudurra. Eta behin hortara ezkerro, lehenago edo geroago, etorriko da. Idatzia idatzirik gelditzen da.

Eta hau da gurea, aurrez ukatzen zaigun eskubidea ahal den bidez lortzea. Edurne herrikoia zen, denen belarritan zegoen, eta hortatik bestera bide motza da. Izan ere, paperretan sartzen hasia zaigu.

Ardatza ekatzu eta egingo dut piru.

1971, 63, maiatza, 6. or.

ARALARCO BASELIZA

Udaberri mukizu! Ez nauk gaizki izurratu! Artzai zaharren esaerak laino beltza darama barnean eta ez diogu hitzik erantzun. Kanpoan euria ari du. Maiatza aurrera eta elur berria menditan, negua ematen du. Urtearen sasoi guziak nahastuak direla dio berak, negua ez da negu eta ez udaberria loretsu. Bitartean ardiak gose eta ganbaran lastorik ez. Zinezko mukizu!!!



Aralarren ginen gu ere, eguerdiko joanak. Ikusgarri da Aralar mendia, *pasaje* dabilen alferrarentzat. Denbora txarra izanik ere, aterpetik ikusten ditu gauzak. Pagadi lerden adar gabeak utzi genituen bidean, hemezortzi urteko poxpolinen gerri lirainak iduri zuten, beren azal berri bustian. Baztar guziak berde, betearen betez erdiminen pare, lodi eta gizen.

Eta udaberriko pagadiak bezala gazteturik, Mikel Goiaingeruaren baseliza zaharra. Nork esan lehengoa danik? Aitona politari bizarra kendu eta aurpegia garbitu ondoan, jai eguneko nortasun kementsua itzuli diotela esango nuke.

HASIERA

Bazuen beharra. Duela hiru-lau urte hasi ziren lanean. Harria agertu lehenik, oinarriak mugatu, egituraren tankera ikusi eta erreberritu. Orduan sortu zen lehenbiziko kezka, baziren han leiho mutu batzuk agertu beharrak. Zer izango eta mozarabe kutsukoak.

Azterketa sakonagoa egin ondoan, erromaniko leiho bat zaharragoko harrien gainean sartua zela ikusi zen (iparraldeko leihoa), eta Iñiguez lanen zuzendari eta etxagile ospetsuak, mozarabe bezala berritzea erabaki zuen.

Lanak geldi-geldi joan dira Mikelen baselizan. Noiz hasiko jakiten ez den udaberriko uzten dute negu sarreran harginek lana. San Juan ingurua izaten da hasi orduko. Lana bera urria da, egunetik egunera agertuz joan diren gauzak kontuan eduki behar, eta askotan asmo guziak aldatuarazten dituzte. Baina egindakoa asko da. Elizbarnea zoragarri gelditu da. Hegoaldeko leiho bat kisu berriz estalia, aurtengo udan harriz inguratu eta besteak bezala geldituko da. Nik uste, sakristiako ataria ere ito beharra izango dela eta atzerago agertu dena idekirik utzi. Zoragarria!

GEROA

Artxueta hegaleko basilizan barne txukun bat badugula jakitea asko da. Eta kanpotik zer?

—Eliza inguruko lanetan sartzeko irrikatzen nago —entzun nion behin batez Uranga jaunari—. Guregatik gaur balitz eta hobe, esaten zidan.

—Zer asmo dituzue?, nire bigarren galdera.

—Hiru hitzetan sartzzen da San Migelgo elizak behar duen guziaz: zinborrio, teilatua eta elizataria.

Zinborrio. Eliz-dorre txiki baten antzeko zerbait jasotzekotan dabiltz. Garai batean ba omen zuen, baina ez jakin nola zen. Iritzi batera egingo dute, elizaren tankerari dagokiona. Hasi- siera emana da eta ladrilu zaharrez ari dira.


Teilatua. Zink edo zikinker horrekin da oraikoa. Egia esan, berea egin du hainbeste urtez itaxurak kendu baiditu. Halare, ez da hori hain jaun haundiari dagokion sonbela. Harrizko teilatu jatorra botako diote, noski.

Elizataria. Egur-pila arteko ezkaratz luzea datorkit gogora. Egurtegi, ardangela, jarralki eta oholezko eskilera zutak, San Migelgo sarreraren luzera! Mehar eta luze bezain gauzez betea. Ezin da elizatari berriaz hitz egin, oraiko bizitegia den oilategiaz mintzatu gabe. Pareta zahar haiek hizketan balekitez! Laster lurtean izango dira sukalde eta logela antzeko aterpe lotsagarriak. Atsegin hartuko du norbaitez. Hantxe izango da San Migelgo elizaren sarrera eta atari nagusia. Eliza zaharraren aurpegi berria, harrizko elizataria.

Noiz ikusiko ote ditugun hauek guziak? Ez zuzendariak nahi bezain laster, eta berdin, askok uste baino lehen.

AZKENA

Bitartean, Aingeru gonadunaren kaiola errejazkoa hutsik dago. Leze ahoa meharrago, belarriak lehertzeko estutasunekin. Garai bateko lapurren bildurra galdua balitz bezala, ezkerreko aldare txikian du Mikel Goiaingeruaren irudi urreztatua bere egoitza. Baimen bereziakin baizik ikusten ez zen erretablo mirezgarria ere, joan eta ikusi besterik ez dela utzi dute aldare nagusian. Zerbait aldatzen ari da Aralar mendian. Gure haur denborako herensuge, leze zulo, gate eta bildurrak irruti xamar gelditzen dijoaz. Bide berriak errestasuna sortu du eta ostatuak giro berria ekarriko dio.



Gure San Migelgo gauzak, Jainkoak hala nahi edo guk hala merezita, utzikeri haundian egon izan dira. Azkenaldi hontan dira aldatzen hasi. Euskal Herri guziko elizarik zaharrena bezala jotzen dute jakintsuak. Negu luzea atzean utzi eta udaberri pozgarrian sartu dela esango nuke nik. Orai baseliza, laster ostatu berri apaina, gero... nork daki? Hasiera da zailena.

Mendian euria ari du, hotz da neguan bezala. Artzaia ixilik dago eta ardiak marraz. Luzea da Euskal Herriko negu beltza, udak berdinduko ditu zuloak, San Juan ondoreko egunetan.

1971, 64, ekaina, 1. or.

Euskal Izenak

AINTZINA

Esan dezagun, hasieratik, izen berria dugula gure izendegian. Onartua izan da, bai elizaz eta bai gobernuaren legegizonen aldetik. Era hontan gertatu dira gauzak: Getxoko Ormaetxe baserrian neskaitila bat sortu zen 1969ko San Juan aurrean. Bere aitak Aintzina izenarekin bataiatu zuen, baina Herriko Etxean atzera bota zioten.

Legegizonaren arrazoiak hauek ziren: 1) Erderazko ‘delantero’ eta ‘tradicional’ esan nahi duela *aintzina* hitzak eta hori ez dela jende izen egokia. 2) Ez dela orai arte izendegian ezagutua eta ez dagola Euskal Herrian izen hortako Andra Maririk. 3) Ez dela ikusten emakume izena edo gizonena izan laiken eta nahasketa sortu lezakela. Beraz, ezezkoarekin batean, erderazko Maria Teresa eman eta utzi zuten Enbeitaren haurra.

OZTOPOAK

Kontuz ibili beharra izaten da euskal izenen kontuan. Ustez alde gabiltzen, kaltegarri gerta gaizke. Hori ekarri zigun Euskaltzaindiaren agiriak. Erdal itzulpen jatorri ez duela esatea bat da, eta Aintzina Baxenabarreko Aintzile herriarekin nahastea oso beste bat. Nundik zuzendu nahasketak?

Bilbaoko Auzitegira eremana izan zen eztabaida. Getxoko legegizonak beste arrazoi askoren artean, hau zion: Berez, ezin laike nolnahi izen berririk onartu. Euskeraz ditugun jende izenak oso gutxi dira eta oraiko asmakizun guziak berriketa bezala jo laizke.

Aitaren erantzun jatorra: Izen euskaldunik ez dugula? Berriz ere Pedro, Juan eta Fernandorekin gelditu beharko dugu geureak erabiltzen uzten ez bazaigu.

IRUÑEN

Bilbaoko Auzitegian ez zuten ezer erabaki nahi izan eta Iruñera bialdu zuten. Iruñeko epaileak ez zekien Aintzina edo Aintzile hitza zen zalantzan zebilena eta kardenalaren eritzia eskatu zuen. Elizaren aldetik eragozpenik ez zegola esan ondorean, erderazko *N^a S^a de la Antigua* zekarrela gogora adierazi zion (*Antzina*-koa), eta arrazoi horrekin baliatuta, Aintzina euskal izena onartua izan da *Registro Civil* delako Herriko Etxean.

1971, 64, ekaina, 6. or.

NEURRIKO ATORRA

Haur guziek jantzi berriak maite izaten dituzte. Jazteko poza bada, soinean begiraka ibiltzekoa ere bai, baina lagunei erakuste hura, haundiena. Jestu samurra, polita, haur kontua.

Gogoan dut oraiko euskal giroaren hastapena: ikastolak, aldizkari berriak eta bu-rua jaso nahia. Denok poztu ginen, haurra hanketako berriekin bezala. Urte gutxiz gure haurra asko hazi da, jende haundi baten nortasuna hartu du. Jantziak motz gel-ditu zaizkio eta *mini-short* guzien aitzekian ere ez diote balio. Gauza bat da, gure ar-tean, jantzi laburra eta besterik atorra bere tokira ezin heldua.

ALDIZKARIAK

Euskal aldizkarietaz nahi nuke mintzatu. Zenbat dira? Ez dakit. Ugaritasunaren neurriko nortasuna bagenu! Nik ikusten ditudanak:

- a) Herritan, teila azpiko eliz-txoriak.
- b) Ibar eta bailara osorako biligarruak.
- c) Euskalki bateko oilagorak.

Egileen aldetik, berriz:

- d) Elkargo ofizial batengandik datozenak.
- e) Ekintza edo talde berexi bati lotuak.
- f) Jauntxokerien lokarritan galduak.

Bakoitzak berea egin duela ezin da ukatu. Besterik ez ginuen garaian aberasga-ri izanak dira. Gure herria euskeraz irakurtzen hasia dela ikusi baizik ez da. Baina, haurra bat-batean haunditu zaigu eta jantzi guziak labur eta barregarri gelditzen ari zazkio. Gure gaurko giroaren mailako aldizkari zabal baten beharretan gera, Euskal Herri osoari dagokion aldizkaria.

OINARRIAK

Nere ustez, idazleekin kondatu beharko da lehenik. Oilorik gabeko oilategia hu-tsa da. Eta idazlea ezin da zuzendari baten jostagailu edo morroi izan, gaur bai eta bihar ez, ostiko guzien atze-mami. Idazleak sakabanatuta ez du herriak ezer irabaz-ten. Hizkuntzak ere ez du mesederik hortan.

Idazlearen ekintzan, beste alde, bada neurri bat, etika esaten diogun jatorrasun bidea. Nor bere gaiari lotu beti eta norkeriak baztatu. Hori gabe ez da elkarriketa-rik, ez bakerik. Hortarako araudi bat behar da.

Zuzendari kementsu baten gidaritza da zailena ikusten. Ongi ordaindua izan be-harko luke eta hortatik biziko litzake. Albistari agiriakin (karnetakin) batera, bere ekintzan neurritsu izana, eskatuko ginuke.

Sortu laizken istilu larrienak erabakiko dituen batzorde batek asko arindu lezake zuzendariaren eginkizun latza.

Badakit nik ez dela bat-batean egiteko gauza. Diru aldetik ez da, noski, eragozpen gehiegirik sortuko, bakoitzak bere aldetik xahutzen dugun hamarretatik birekin eginga ginuke. Eta etorkizun berrien iturriak ere lortu laizke. Elkarrizketa sakon batzuk sortu ginezazke eta geroak esango du bestea.

Giroa ona da, gaurko esnatze hau jatorra. Ez dezatela gure atzekoak haur polita egin dugula esan, baina atorra bere tokira heltzen ez zaiona. Itxura gaiztoko gauza da.

*1971, 65-66,
uztaila-abuztua, 1. or.*

Euskal Izenak

UNAI

Lanik asko eman du Unai izenak joan deneko urte bat hontan Nafarroan. Iruñeko lege-gizonak begitan hartu eta ez zuten ezarri nahi. Izan dira Madrilera jo duten gurasoak, hiru edo lau behintzat bai. Erabaki nagusia etorri bitartean beste edozein izen eman ohi zieten gehienetan. Guraso askorentzat ezin iretsia zen izenordeko batekin beren haurrak ikustea eta ez zituzten Herriko Etxean sartzen. Bataiokoa zuten beren agiri bakarra.

Urte bat eta zombait hilabete iraundu digu Unai izenaren auziak eta Madrilgo erabakiak onartzen du gurasoen eskabidea.

JOKABIDE ESKASA

Eta zinez eskasa gainera Iruñeko jokabidea! 1969an, nekez bazen, nekez sartu zen Nafarroko hiriburuan izen hau. Egunkaritara bialtzen dituzten haur jaio berrien izenetan ez zen agertu. Bai haurraren aitak idazki labur baten bidez jakinarazi ere! Baina, gure legegizonei ez zaie halakorik atsegin izaten. Hasarre omen ziren.

Unai asko baztatu zuten, jendea aspertzen hasi arte. 1970eko maiatzaren hamarrean jaio zen auzia aurrera aterako ziotena. Lehenbiziko ezetzaren ondotik etorri zen, Iruñen bertan, goi-mailako epailearen bigarren ezetza. Fernando Vara Anbustegi haurraren aitak gorako jo zuen. San Fermin egunetan lege jasotako eskabidea ez zen azaroa baino lehen Madrilera helduko. Bide luzea, nunbait, Iruñetik Madrilera dijoana!

Aurten, udarekin batera etorri zaigu euskal izen honen aldeko Madrilgo erabakia.

IZEN ZAHARRA

Hamabigarren mendeko larru-zaharretan bada Nafarroan izen hau. Gero, mendez mende jarraitzen du eta gure baserri askok berekin daramate orai ere. Hala aitortu dute erabakian. Hogeita hamaseiko nahaskerien aurretik ezarritakoak kendu egin zituzten izendegitatik eta, azken bolara hontan, berriz sartzen hasia zen.

Iruñeko oztopoak ez diote Gipuzkoa eta Bizkaiari traba haundirik sortu. Naparrotik kanpora goraka joan zaigu Unai izena. Hemen bertan ere, herritan sortutakoak, edo Iruñen sortu eta beren herrira ekarritakoak eragozpen gutxi izan dute.

Iruñeko legegizonek itzulpena eman nahian *pastor* erdal hitzarekin berdintzen zuten. Gerra aurreko aldatuak diren agiri askotan era berean itzuli zuten. Ez da, beraz, itzulpen ona. Baina, dudarik balitz, Madrilgo erabakiak beste argitasun bat dakarkigu: erdal itzulpenik baduen esatean, ez dela hizkuntzalariek eman lezaketen

itzulpenaz mintzaten legea, herri itzulpenez baizik. Eta Unai hitzak ez duela gaurko egunean herri mailako itzulpenik. Argitasun mamitsua eta beste askotan begien aurrean eduki beharko dena.

Iruñeko istilua ongi atera zaigu, Iruñeko istiluak gure izendegia aberasten digu. Unai atari haunditik sartu da eta etorkizun ona izango duelako ustean gaude. Zerbaitengatik da belarrientzat atsegin.

*1971, 65-66,
uztaila-abuztua, 6. or.*

REQUIEM ANTZUA?

Ez da lehenbiziko aldia Naparroko ezkin hilez bizi diren herrixka hoien deia orri hauetan entzuten dena. Beldur naiz hitz huts eta nunbaiteko ezkil burrunba bezala hartzen ote ditugun. Folklorekeria gure arteko *jakintxu* askorentzat eta gauerdiko ahuntzaren eztula sozial gaien jabe agertzen zaizkigun beste batzuen uste haunditan. Bitartean, Naparroak iparraldean galtzen dituen herriak haragi bizian larrutzen dituzte Euskal Herriaren mugak.

Lurralde jator eta zabala da gure begien aurrean gorputz eta arimaz betiko ixiltzera dijoana: Aoitiz aldea. Urrauldik Abaurregainera eta Artzibarretik Orriagara euskal nortasunik bezezieneko herrialdeak.

EGOERA

Naparroko berpizteak ez ditu ukitu. Nekazaritzatik bizi izan dira eta lur-gintzan hiltzera dijoaz, bizibide berrien arnas astingarrria zer den jakin gabe. Zonbaitzun iritziz, aita-amen ume bastartak izan dira, Iruñen ez omen da haien ajola haundirik izan. Bai eta ez, egiaren erdia dela esango nuke nik. Laguntza asko izan zuten garai batez. Argia eta ura ez ziren beti herritarren lokarri gertatu, karrikako lokatza kentzeak hiritako ametsa ekarri zien askori gogora eta bide berriak beren etxetako puskak errexago aldatzeko bakarrik baliatu zuten. Negargarri, baina hala da. Hortik dator azkenaldi hontako utzikeri antzeko agintarien jokabidea.

Nire ustez gaitza barneago datza. Euskera galduz bezala beren herri giroa ere joan da. Euskaldunak bere gauzak maite ditu; nire etxe pobrea erregearena baino hobea, esan ohi du. Min ematen dio bere gurasoen kabia hutsik ikusteak. Erderaz hasi diren euskal herritako umeak, berriz, hirira begira jartzen dira, beren herria, herri txar bat baizik ez da eta lotsatu egiten dira nungoak diren esaten, beren etxea oso zaharra da eta laguneri nola erakutsi! Askoz hobe hiriko bizitegi bat... Negar malkorik asko begitara ekarri duen txorakeria.



ETORKIZUNA

Zer egin laike? Ez ote da beranduegi izango? Orai arteko jokabidean jarraituz, noski, erremediorik gabeko gauza da. Gure euskaltzaletasuna herri hustu hoietako argizaiola eta armariak jasotzera (ostu eta erematera) igandetan joateko besterik ez bada, gurea joan da. Euskal Herriko mugak zimurtzen joango dira eta euskaldunok pozik harrapakinen bila asteen behin ateratzen joateko. Nahi eta ez, errudun gera denok. Nunbaiteko hil-ezkila bezala hartu izan dugu Euskal Herri gaixo honen heriotz ixila. Zer egin ginezake?

1.–**Bizibide bat sortu.** Ez dut itxaropen haundirik. Euskal Herriko dirua, diru da, nagusiak dira euskaldun. Dirua eskutan ibili ohi dute eta mihiaren puntan euskaltzaletasuna. Biak uztartuko dituen errementaririk ez da gure artean. Halare, eta diruaren izenean, neke haundirik gabe eskuratu laizken lurralde zabalak badira Naparroan. Behitegi emankor eta artalde aberatsak sortu laizke. Harakindegi industrial batentzat bizia izango litzake. Euskaldun langilei ogibide egokia eskaini eta gure muga estueri esolak sartzea, Euskal Herriko dirudunei gehiegi eskatzea ez ote?

2.–**Opor etxeak.** Haize idor eta iruzki bila dabilten euskaldunentzat da bigarren deia. Sorian eta Errioxan duzuen ametsa ez ote litzake Aezkoa, Artzibar edo Urraul aldean beteko? Ikus lehenik zer dugun eta jakin zer gero galdu dezakegun.

3.–**Ikastolak.** Azkenekotz, haurren udatea. Harrizko etxe ederrak pixkana-pixkana erortzen joateko zorian utziak dira. Udaberriko txorien pare gerta laike Añamendiko mendientzat haurren iskanbila pozgarria.

Gure eskuan dago heriotz ixilari txerto bat sartzea. Beste guziak *requiem* antzuak besterik ez dira.

1971, 67, iraila, 1. or.

Euskal Izenak

AMAGOIA

Izar beltzarekin dabil munduan Amagoia euskal izena. Ez da izendegitan sartzen, Euskaltzaindiak ere ez du aipatzen. Andre zahar eroska bat behar zuen N. Villosladak bere gaiari gatz emateko eta Amagoia gaixoa den basapiztia sortu zigun. Lorea eta Usuaren ahizpa, Amaiaren izeba eta Aitorren ondasun izkutuen giltza zeukan emakume iluna. Ez, Amagoia ez da orai arte gure herriaren gogoa izan.

Nunbaiteko argi-izpia baletorkio bezala izan da neretzat, Bortziriko ama baten deia: Hain gurea eta hain Euskal Herrikoa den izen hontaz zerbait ikustea nahi nuke *Príncipe de Viana*-n, esaten digu. Eta ez hori bakarrik, bi hilabeteko alabatxoari Amagoia ezarri dio. Gure erran guziak hutsa dira ama honen jokabidearen aldean. Izar beltzaren itzala kentzeko, haurtxo baten irriñoa gehiago da liburu haundiak baino.

ITZULPENA

Ez omen zuen inolako eragozpenik izan. Liburutan sartu eta handik hogeit egunera etorri ziren legegizonaren kezka: Amagoiak Maria Asun erran nahi omen du eta aldatzera dijoakio...

Astakeri asko entzuten da munduan eta hau ere entzun behar ginuen! Non eta Euskal Herriaren bihotzean gainera! Nundik datorkio bat-bateko argidura zerukoia legegizon jakintsuari? Guk ezagutzen genituen berriak hauek ziren:

- 1) Amagoia, antzinako Ama bezala hartu izan da beti. Ez mendi gaineko edo Zeruko Ama bezala.
- 2) Vianako gure idazleak Aitorren emazte eta Euskal Herriaren guraso izan zirela biak, erraten digu.
- 3) Zenbeit euskalkitan *amona* edo *amatxi* bezala erabiltzen dela dio Navarro Villosladak. Ez dakigu nungoa izan laiken.

Eta legegizon horren asmakizuna egia izan balitz ere, ez zuen haur sortu berriaren izena aldatzeko eskubiderik. Itzulpen herrikoia duten izenak bakarrik dira legez eragotziak, ez hizkuntzalarien itzulpena dutenak. (*Boletín del M. de Justicia*, n.º. 883, pág. 5). Noraino helduko dira zonbeit legegizonen trabak?

NORTASUNA

Amagoiak, beste alde, nortasun berexia badu. Euskal mitologian bere zainak sartuak ditu eta legez Aitorren maila berekoa da. Mitologi hitza izatea ez dela atzera botatzeko arrazoia erran zuten Madrilen 1966ko martxoaren 15ean, helendar eta Erromako mitologi hitzak onartzen baditugu, eskubide berdina dutela geureak. (*Boletín del M. de Justicia*, n.º. 692, pág. 45).

Ez da oso egokia legegizon bati bere eginkizuna adierazi beharra, baina negargarri da gure gauzetan gertatzen zaiena. Mesedez, noiz arte?

Bitartean, Bortziriko ama batek euskal kutsuz jantzitako izen handia eman dio bere alabatxoari. Gure herria bere nortasun mailaren gailurrera goratzen dijoa. Pozgarria. Ez du ilargiaren adarrik eskatzen, geure eskubidea bakarrik, nehoren kalterik gabe, beste herriak bezala...

Aunitz urtez!

1971, 67, iraila, 6. or.

GURE BESTE HARRA

Euskal Herriaren zoritxarra aipatzean euskeraren mugak ditugu gehienik gogoan. Hori da lehenik agertzen, inguruko etsaiak izaten dituzte askorentzat hoben guziak. Zenbat negar-putz eta errepika merke! Otso maltzuraren atzapar odolduritako bildots txuria ote geran!

Euskeraren mugak estutu eta zimurtuz joan dira, noski, azkenaldian. Hogeigarren mende hontan, hirurogeita hamar urtez bakarrik, Naparroko ehun eta laurogei auzo-herritan ixildu eta mututu omen da Aitorren hizkuntza goxoa. Esaten errezago da. Baina nere galdera: Kanpoko etsaiak izan ote ditugu kaltegarrienak? Ekaitz gogorenei mendez mende buru eman dion gaztain haundia ez ote ginuen barneko harrak jotzen hasia?

BASAPISTIEN LEGEA

Noizbaiteko herri zaharra dugularik Euskal Herria, garai hartako basapistien ipuia datorkit gogora. Berekoitasunaren eredu, gutxi gera eta bakoitza bere alde dabil gure artean. Azpizana merke eta gezurra par-par. Inoren izen onak ez du ezer asko baliu eta egia esaten duena gaiztoa da, edo arina. Ez dakit atzetik datozenak zer esango duten gutaz, ezer onik ez, behintzat. Elkar larrutzen ginuela, beharbada. Basapistien legea, ongi begiratuta, haurtzarotik atera ez den herri baten jokabidea.

Biharko egunean ama onaren edozein seme gorritzeko modukoak dira guk sortu ditugun istilu motzak. Huskeriak. Zenbat indar alferrik galduak! Baina hortzak erakutsi nahi dituen txakurrari bere sudurreko haizea ere okel gertatzen dakio. Gure harra.

Hobe izango zen, noski, zimurtzen dijoan euskal lurraldeari esolak ezartzen aha-legendu bagina...

BESTE HARRA

Halare, badu beste har bat gure herri gaixoak. Euskera aitzakia, eta Euskal Herriaren ajola gutxi agertzen duten batzuen. Ez naiz iritzi ezberdinen beldur, uste dut aberasgarri gerta laizkela. Ustelkeriak nau kezkatzen. Jendetasun gutxi ikusten da batzuren jokuan.

Nik badakit herrialde bakoitzaren etorkizunak garrantzi gutxi duela, beren buroak aurreratutzat dauzkaten gazte batzuen asmotan. Orokartasuna (*unibersalismoa*, diote berek) izango omen da gizadiaren aberri zabala. Eta gu besteak bezala.

Jainkoa zuten lehenik beren traba eta oztopo haundiena. Gaur edozein *perejiltxok* jantzia bezalaxe aldatzen du bere sinestea. Lehen ere bototara atera omen zuten Madrilen Jainkorik bazen erabakitzea...

Euskal Herriko marxistak teori berria atera digute orai, euskerak ez omen dio gizonari nortasun berexirik ematen. Eta ez hori bakarrik, euskera bigarren mailako arazoa dutela aitortu berri dute. Zertako dabiltz orduan euskaltzale sutsuen papera egiten? Non da jatortasuna? Marxismoa bere jokabidetzat nahi duenak, hartu beza; eskubide du bakoitzak. Hortik azeriak artaldea zaintzera!!!

Ez dakit esan behar nuken. Entzun berri dut baserritarraren ipuia: bere egunean hiltzeko, lehenik ondo gizentzen omen du zerrama. Hori al da gure arteko txoro askoren helburua?

Hauxe da gure beste harra. Euskera bai, ahoan, erdal mordoilokeriz oratua besterik ez bada ere, baina esan ez laiken beste jokabide baten aitzakia bezala. Hortarako maltzurkeria eta gezurra.

1971, 68, urria, 1. or.

URDIAIN

Aitziberko Amaren basilizan ezkondu ziren irailaren hamaikan Patxi Irigoien eta Zuriñe Ostiza urdindarrak. Herriak ez zuen inoiz halakorik ikusi eta era guzita-ko esamesak baziren elizkizunaren aurreko egunetan. Senargaia, *Sarabe* baserriko semea, Aitziberko basilizaren ondo-ondoan jaio eta bizi izan da, eta ajola gutxi zion jendeen esanari.

Ezkongaien jantzia, eztei batzutan ezin da jantzia ixildu, *Sarabeko haitzak* eta *Urriztiko basoa* bezala herrikoia zen. Kaiku urdin-gorri eta ator zuria mutilak, pantalon urdin, galtzartile eta zata larruzkoekin. Garai bateko Bizkaira joaten ziren Urdiaingo emakumeak bezala, gona beltza, alderdi batetik gerrian lotua zuen andra-gaiak, azpiko gorri ponpoxa erakusten zuela. Soingaineko txuria eta baxka beltza. Buruko zajauba oilobegiduna, bizkar gainean zeraman ezkondu aurretik, emakume ezkonduak bakarrik estaltzen zuten burua Euskal Herrian.

Udazkeneko iruzki eder, laino gabeak, pizten zituen inguruko mendi eta zelai guzitako berdeak. Txistu doinua bar-bar ilundura gabeko haize garbitan. Herrian eza-gutu ez den bezelako gertakizun betegarria.

Mezako oparigaien eskeintza egin zuen mutilak eta bere lore sorta utzi zion, denbora berean, andregaiak Aitziberko Amari aldare gainean, egunoroko lanaren eta amets berri guzieren ezaugarri (seinale).

«Geurea hemen izanki, nun ibili gera orai arte!», entzuten nion gizaki bati, kupiturik zegon jendea, eta ez zen gutxiagorendako. Aitziber, gure Amaren izena, asko zabaldu da azkenaldi hontan. Berri honen ondorean hau zion Bilbaoko guraso batek: Ez dakit hortaratuko geran, baina aurki hori bera egingo luken gure Aitzibertxok!

Zorionak Patxi eta Zuriñe! Urte askoz!

1971, 68, urria, 5. or.

JUAN PEDRO IROZ

Azken udan errekontru haundi baten berri ukan du munduak. Luzaideko Juan Pedro Iroz zuraz kargaturik zetorrela Frantziatik, kamionaren arrastak hautsi zaizkion Sauveterre Biarnekoan. Gainbehera zuta baida karrikan eta jendez beteak bazterrak goizeko hamarretan, barnean gelditu nahi izan zuen jendea lekutuarazteko. Ehun eta hogeit hamar kilometroko abiadura hartuko omen zuen, hango egunkariak diotenez. Auto, jende eta aurrean zituen guziak libratu ondoan, bi haur atera omen zaizkion azkenean, eta haiek ez lehertzeagatik hondar saheskada eginik, berrogeita hamar bat metro behera zen sakan zulora joan zen bere tresnarekin. Arbol zahar bat xehekatu omen zuen, oraino, lurra jo baino lehen. Zer erranik ez, bizia han galdu zuen Juan Pedrok, baina zenbaten ez diote zor berena Sauveterreko karrikan?

Ongi bazekien hango berri eta ikusten zuen zer heldu zitzaion eta, halare, barnean gelditu! Goraki mintzatu dira Frantziako egunkariak Pantxoren kuraiaz. Hemengoak ere eman zuten berria. Nik uste, Naparrokoak gutienik...

Bere herria ohoratu du jokabide honekin, nahiz beteko ez den huts ikaragarri horrekin gelditu bere etxeoak. Jainkoak saritu dezala haundizki beste batzungatik bere bizia utzi duen gizona.

Entzunak.

1971, 68, urria, 5. or.

Euskal Izenak

AINHOA

Ainhoa, bere *h* eta guzti, dugu euskal izendegiko izenik gazteena. Gogoan dut noiz eta non sortu zen. Baina, urte gutxi baditu ere, bide asko du ibilia. Nork konda lezake gaur Euskal Herriko Ainhoa guziak? Zangotza aldeko guraso batzuk etorri zitzaizkidan lehengoan kezkatu, herri izen hutsa ote zen edo Ama Birjinarena ere bai jakin nahi zuten. Banekien zurrun-burrin zombait sortzen hasia zela baztarretan eta orai jakinen duzun erantzuna eman nien.

HERRI IZENA

Garbi aitor dezagun, herri izena da Ainhoa. Dantxaria aldetik ibili direnak mugaz beste aldeko lehenbiziko herria dela ongi dakite. Begien atsegingarri, hango etxe txuri eta ezker pareta gabeko pilota jokua etorriko zaie gogora. Frantsesek *Ainhoa*, idazten dute. Eta galdeera bat orai: Andra Mariaren irudi gabeko herririk ba ote da Euskal Herrian? Horixe da behin baino gehiagotan nik eman izan dutan erantzuna.

Ainhoak ere badu berea. Eta Arantzazuko Andra Mari, bere joale eta guzti. Zombaitzuk ez dira konten, Ainhoa herriaren izena baida, eta han dagon Ama Birjina Arantzazukoa, Ainhoa-Arantxa behar omen lukete uztartuta joan. Gehiegi ez ote?

ETORKIZUNA

Atari haunditik sartua da gure izendegian eta etorkizun oneko izena bezala ikusten dut. Herriak baditu eskubide batzuk eta Ainhoaz da jabetu. Nork itzuliko sakana-ko urak beren iturrira? Beste alde, gure izendegia aberasten du eta asko da.

Nola idatzi beharko litzake? Ainhoa edo Ainoa? Ahoz aho zabaltzen hasi zen garaian Euskaltzaindiak ez zituen oraindik bere erabakiak hartuak. Gero, Arantzazuko batzarretan bokal arteko *h* utzi eta *th*, *ph*, *nh* eta bestelakoak kentzea onartu zen. Ainoa izan beharko luke, beraz, ez Ainhoa. Baina traba haundia al da hori izen jator bati ongi etorria emateko garaian? Dagon bezala utziko nuke nik, herriak erabili nahi duen eran, alegia. Bere *h* eta guzti, eskubiko begitik sartua baida!

1971, 68, urria, 6. or.

ARNAS BERRI

Izenburu honekin gaur hasten dugun orria aspaldi egosten zijoan asmo gazte baten ondorea da. Hotz zen Iruñeko karrketan. Atsaldeko bostetako autobusetan hitzartuak ginen. Gau Onetako giro lainakorraren antza hartzen nion egualdiari. Ez zeru eta ez mendi ez zen ageri, laino mehe bat bakarrik. Barnean, horma beltzez inguratutik gure amets bidea.

Euskeraz irakurtzen ez zekien herri batentzat sortu zen gure *Príncipe de Viana*. Euskaltzaletasuna aztaletara joana zuen, garai hartan eta etorkizuna orai ginen gela bezain iluna ikusten zen. Hau gogoan izan beharko lukete folklorekeri kutsua eman diogula esaten dutenak. Gai herrikoien bidez sartu ginen herrian, eta ez zaigu damutu. Urte hauetako lanak berea eman du. Gaur Naparroan euskeraz irakurtzen dela esan dezakegu, handik eta hemendik ikastolak ideki nahian datorkizu jendea eta euskera atari haunditik sartzen hasia da. Negu sarrerako ereintza baliosaren ondorea.

Berritzen dijoan herri batekin berritu edo hil, ez zen orai beste jokabiderik. Aurtengo Gau Onak, giro berriari dagokion erantzun berria dakarkiote gure aldizkariari. Gazte taldetxo batekin izan da gure Iruñeko elkarrizketa. Txerto astingarria, ernea, eskeintzen digutena. Behar-beharrezko odol berritzea.

ALDAKUNTZA

Bai, zerbait aldatu da Naparroan. Hogeit bat izango ginen, gehiago ez bada, gure aldizkaria aurrera ateratzeko hitzartuak. Talde ederra mahai baten ingururako. Erdiak ez dute behin ere idatzi eta beste batzuk oso gutxi. Azkenaldi hontan lau edo bosten gain gelditua zen hileroko zama. Indarkako hasiera izan da, beraz, gurea; hazia lur barnean sartzeko egiten den lana bezala. Gaur ez da hala, idazle gazteak baditugu eta beren barne minak eraginik datozkigu bultzaka. Egunsentia. Arnas berria.

Gure lehenbiziko eginkizuna bete dela esango nuke. Muga berri bat jartzen diogu Naparroko euskal ekintzari, ereintza gordinetik berdetza gozora dijoan muga. Vianatik Tudelara eta Aezkoatik Sakanara euskal gauzen gogoia pizturik ikusteko poza.

Eta ez da hortan geldituko, Jainkoa lagun, gaurko egoerari emango diogun erantzuna. Laister beste urrats batzuk ematekoak gera. Hasiera besterik ez luke izan nahi oraiko odol berritzeak.

Bitartean hotz da baztarretan. Negua. Udako artalde txuri guzien hutsa elurrak bete du mendian. Gu barne beltzean gera, hasieran bezala, sartu eta atera herritako jendea. Arnas berri, hau da gure Gau Onetako poza. Hiriko gaztediaren erantzuna.

1971, 69-70,
azaroa-abendua, 1. or.

Euskal Izenak

USOA

Eibartik datorkit oraikoaren euskal izen baten eragozpena dela eta, gai egokia. «Hemen, Eibarren —esaten dit adiskide batek—Usoa, Uxoa edo Usua jartzen ukatu dute... Ujué *j*-kin behar omen du». Eibarko juzgadoak euskal izenen istiluan Naparrora jo izan du orai arte. Geuk ere behin baino gehiagotan erantzun diogu. Izen hontaz ez digu ezer galdetu, «Erregistruko emakumea nafarra omen da eta, berak dioenez, horko historia bestek baino hobeto ezagutzen du».

Historia ezagutuko, beharbada, baina euskal hizkuntza gauzetan oso gutxi dakiela adierazten du. Esan bezaio *j* oraiko abots gogorrakin berria dela Euskal Herrian. Naparroako liburu eta larru-idazki zaharretan arkitu lezakela aldaketa osoaren soka. Badaezbada, hona hemen non ikusi dezaken:

Uxoa, Ciérvide, «El Romance navarro antiguo», *Fontes Linguae Vasconum*, n.º 6, pág. 291.

Ussoa, L. Michelena. «Notas lingüísticas a Colección Diplomática de Irache», *Fontes Linguae Vasconum*, n.º 1, pág. 4. Y García Larragueta, t. II, pág. 115.

Uxua, Archivo Histórico Nacional, Tudela, año 1140.

Paper zahar asko aipatuko ginuzke. Hauek nahiko izango ditu. Edo bestela datorrela berak hain ongi ezagutzen duen Nafarrora eta erakutsiko dizkiogu.

Nola idatzi?

Batzuk Uxue idazten dute, batzuk Usue. Usoa ere oso sarturik dago. Eta oso sarturik dagola esatean, oraiko izendegiaz mintzo naiz. Aurtengo urrian bataiatu zen Iruñen Maria Usua Saenz Lazcano. (Ikus urriaren 14eko *Diario de Navarra*). Aspaldiko Uxue bat ere ezagutzen dugu Iruñen bertan.

Nire ustez bai Usua eta Usue jatorrak dira eta berdin Usoa ere. Lehenbizikoa aukeratzan dutena, oraiko Ujué horren kutsua hobeki agertzeatik egin ohi dute. Usoa, berriz, gaurkotasun gehiagorekin ikusten dute beste batzuk eta berdin zaharra dela ikasi dugu gorago. Hartu beza, beraz, bakoitzak gogo duen bezala eta esan ere bai. Baina, mesedez, utz dezagun Ujué euskal kutsua galdu dutenentzat.

1971, 69-70,
azaroa-abendua, 8. or.

BERTSOLARIEN DEIA

Euskal Herriko gertakizun eta kezka guzietara idekitako leiho bat izan nahi zuen Nafarroako aldizkaritxo honek eta hortan saiatu gera haste-hastetik. Gaur bertsolaritaz mintzatzean, atzera begiratuta, euskal alorretako pitxi berexiena den ekintza hontan ere ez gera gaizki gelditu. Hirugarren orrialdea, oso-osorik askotan, bertsoz jantzia izaten zen. Txapelketa eta herri saio gehienen berri eman izan dugu eta euren berri nagusientzat leku berezi bat izan da beti orri hauetan. Andres NARBARTE Goizuetako bertsolaria zenari, esate baterako, bizpahiru orrialde eskaini genizkion ale batean.

Aitortza kutsuko agerpen hau ez da, inola ere, geure burua xuritze bat, salaketa baizik. Berri soilen aldetik ongi baldin bagabiltz ere, gure bertsolariak talde bezala ez dute aldizkari bat, ez elkarte eta ez diru kutxa. Urtean behin edo bi aldiz, herriko festetan oroitzen gera bakarrik plaza gizon hauetaz, hobekienik dabilten garaian. Gure beharrik ez dutenean. Gero, negualdean, muxarrak bezala zulora.

Herri bakoitzak, bizidun guziek bezala, badu bere azala eta bere arima. Euskararen arima ez zaigu paper eta liburuen jakintzan gorde, herriaren ahoz ahoko gordailuan baizik. Esaera erreixak eta entzute oneko gizonak egin zuten herri jakintzaren bilduma aberatsa. Alde hortatik begiratu behar da bertsolariaren nortasuna. Ez dira berak euren buruz mintzo direnak, herri baten ahozko joeran sartzen da jatorriz datorkien erreiztasuna, entzunleen harrera ona bezala. Bertsolaria entzunlerik gabe, ume gabeko titi mutua bezala agortuko litzake. Eta idazkiekin, garai bateko hartze ona galtzen dijoa gizona. Aitzur zuri dirdiratsuen ere erdoitu eta akestu egiten da ez ibilian.

ALDAKUNTZA

Gure bertsolari zaharrak ez zekiten, askotan, idazten. Aurrekoen iturri garbitik zuten beren etorria xurga-xurga edaten. Orai berean bertsolari asko paper eta lumaren aurrean kokildu eta galdu egiten dira. Oso berria da bertsolari ikasien aldia. Jakintza honek beste maila batera ereman du bertsolaritza, muga estuak hautsi eta zabaltasunean irabazi egin da. Txapelketa eta sariketak, beste alde, estatutik plazara eta plazatik antzoki nagusira ereman dute bertsolaria. Irratiak ere hor dira zirritu guzietatik etxe zokotan sartuak.

Denborak ekarri duten aldaketa hau ez da azalekoa bakarrik. Sagardotegitako bertsua mikatza izango zen, eta oraikoa leguna, ez hain jantzia hura, borobila oraikoa, baina egunoroko bizitzatik zetorkion bertsolari zaharrari argia eta ziria. Hau da gaur ikusten ez dena.

Punduak ematea bera beharrezko gauza izango da, baina gezurrezko antzerkilari bihurtzen du gizona. Gai gehienak ibiliak direla eta, aspirinaz, astronautaz edo ber-



tsolariak inoiz entzun ez duen Fabiola batez hitz eginarazten diegu. Eta gero, mikroa delako makilaren puntan ezartzen zaien basatipulak jaten die gelditzen zaien lasaitasun pixka.

Nik esango nuke, hirutatik bi, entzuletan zituela bertsolari zaharrak begi-belarriak. Berez zetorkion gero bertsua eta zirikada. Orai berriz, entzuten duena irruti batean dago eta inor ez da. Gaia nunbaitik datorkio, irrutiko izar baten argi-izpia bezala, eta bere jakintzatik atera behar du bertsoa. Berotasuna falta du, biziaren beroa, harrobiko mamutza harrizkoak sortzen ari gera.

DIRU KONTUA

Gaurko txapelketa eta sariketak diruari begira jarri gaituzte. Beharrezkoa da hori ere, haizetik ez da gizonik bizitzen. Baina profesionalizatu egin da bertsolaria. Txapelketak zerbaitendako balio badu, txapel azpian egosten diren irabazbide eta bestelako ametsen betetzeko besterik ez da. Era hortan ez da txapela buruarentzat, burua txapelari itsasteko baizik, eta hortik datozen istiluak!!!

Bost mila duro, gutxienez, ez jasotzekotan alperrik deituko zutela txapelketa batera, esan omen du norbaitek. Bestalde, sari, txapel eta edontzi guziak. Nunbaiteko Real Madrid eta Pele txikiak!!

BERTSOLARI GAZTEAK

Eta nere ustez, ez da hori txarrena, bertsolari gazteen bidea gero eta itxiago ikusten da. Saiorik gabe, ekinaldi gutxi. Aritzen ez badira, aurreraterik ez. Azkena.

Txapelketa kontua berritu beharra da, baina bertsolari profesional batzuen burubideak ere bai. Hortarako, elkartu, hitz egin eta hartu-emanetan sartzea komeni dela eta, urrats batzuk eman dituzte gazteak.

Aldizkari bat nahi zuten berena. Ikusten denez, gaia balitaike. Guk ezer jakin gabe, *Príncipe de Viana* Nafarroako aldizkarian sartu nahi dutela jakinarazi digute, eta ohoretzat hartu dugu beren eskabidea. Badakigu oztoporen batzuk zuzendu beharko ditugula, baina gogotik ahaleginduko gera. Euskal Herriko bertsolarien elkargoari gure aldizkarian lekua ematean, eginkizun pozgarri batekin gauza mesedegarri bat egiten dugulakoan gaude. Askok eta askok ziren harpidedun izan nahi zutenak eta orai gehiago etorriko zaizkigu. Euskal Herri osorako zabaltzeko garaia etorri dela uste dugu.

Bertsolarien elkargoari ongi etorria ematean eginkizun pozgarri bat betetzen dugu eta Euskal Herri guziarendako mesedegarri izango dela uste dugu. Eragozpen txiki batzuk berdindu bezain laster, Nafarrorako sortu zen aldizkaria denentzat on izan laike. Geroak esango du.

1972, 71, urtarrila, 1. or.

Euskal Izenak

NEREA

Hona hemen guraso euskaldunei atsegin izango zaien emakume izena. Eragozpenik gabe sartua da. Bost edo sei aldiz ikusi dugu Iruñeko sortu berrien errezkadan. Ez du oztoporik izan.

Duela urte asko, Eladio Esparza lesakarrak honen antzeko izena eman zion bere liburu bati: *Nire*. Geroztik, Bizkaia aldean izendegitako jaunek onartua zuten Nerea. Orai gure artean dugu. Izen ederrak maite dituzten gurasoengatik pozten gera.

HASIERA

Alaba izaten bazuen Nerea ezartzea erabakia zuen adiskide batek. Bizkaitarra zen eta alabatxoa gertatu. Ez zioten izen hori onartzen eta hitz joku txiki bat prestatu zuen: Maiatzaren hamabian *Nereo* eta bere lagunen festa ospatzen baidu Elizak, kristau izendegiko izena bezala agertu zien. Eta aitzakirik gabe ezarri.

Ez da gaurko kontua. Nik erdi ahaztua nuen eta ez nintzan oroituko ere, aurten telefono ukaldi bat izan ez banu. Iruñetik zen. Aizu! —zion hariaren beste aldetik norbaitek—, nexka izan da!

—Eta zer izen eman diozu?

—Nerea.

—Eta Juzgado kontua?

—Ez dut trabarik izan. Beren liburuxka batean begiratu eta kristau izena dela erantzun didate, *Nereo*, alegia, badela Elizaren izendegian. Eskerrak eman dizkiot eta kito.

Gure arteko gauzak hala dira, batzutan zuzen ateratzen dira eta beste gehienetan makurtzen. Nereo santuak baditu lagunak eta, badaezpada, beren izenak emango ditugu. Hauek dira: Nereo, Akileo, Domitila eta Pankrazio. Egun berean eta elkarrekin ospatzen dira denak. Nork daki hoiien antzeko beste izen euskaldunen batendako ez diren ongi etorriko!

Izen berri bakoitzak badu bere erretolika txikia eta hau izan da gaurkoaren gertakizuna. Neronek ikusia ez balitz, ez sinesteko modukoa. Zenbat aldetara behar izaten den gero eskubide baten lortzeko!

1972, 71, urtarrila, 8. or.

ETA EUSKAL IZENAK ZER?

Eskealde guzitako jende izenak legez onartzeko aldaketa eskatu du Madrilgo Kortetan ordezkari oso ezagun batek. Eduardo Tarragona katalandarra da eta ezin du ulertu, ilobari Marc esaten dion aitonak, legez Marcos ezarri beharra. Denbora berean, atzerritar batek nahi duen izena eman dezaioke bereari, eta Espainiako lege estuak onartzen dio. *Kanpoan lili eta etxean elorri*, esaten zuten gure zaharrak.

Euskal izenen borroka aspaldikoa da gure artean. Guk ere, beste alde, izan ditugu *prokuradore* eta ordezkari txintxoak eta, halare, nik dakidala behintzat, ez du inoiz euskaldun legegizon batek eskabide honen antzekorik kolkotik atera. Eta zer indarra luken denak elkar hartuz!!

ORAIKO EGOERA

Gaurko araudia gaztelera eredutzat hartuta egina da. Erderazko itzulpena duen izenik ezin da Registroan sartu, erderaz beharko. Ikusten da bigarren mailako zer bat erderaz kanpo geran guzientzat, legezko jokabide hortan. Haienganako zabaltasuna, gure urka bide gertatzen da.

Eta ez hori bakarrik, itzulpen gabeko izen asko da gure artean, berez sartu beharko lukena. Hoiendako ere sortu du legeak bere zintzur estua. Elizaren gogortasuneko denboran santuen izenak bakarrik baiziren elizaz onartuak, legegizonak ere eliztiar agertzen ziren eta apezten esanera zeuden. Ez omen zen *bikoterik* komeni, izen bi jende bati ematea, alegia. Elizaren jokabidea aldatu egin da eta gurasoen eskubideak gogoan izanez, zabaltasun haundia du gaur izen kontuan. Lege aldetik ez da orai aintzat hartzen bataioa eta bikoteak ere ez du nunbait ajola haundirik, bien arteko borrokan, bakoitza bere alde dijoaz.

Auzi hau dela eta, bataiatu ondoan Herriko Etxean sartu gabe diren haurrak eza gutzen ditugu. Haunditu ondoan berek esango omen dute elizaz emandako izena atsegin zaien edo ez. Lege zahar menperatzale hoiengandik aldatu beharra ikusten da, gogorke-riak ondore txarrak izaten ditu.

Gure artean gauzak nola aldatu diren ikusi baizik ez da. Izentxo batzuen gorabehera baino askoz gehiago da. *Gerana*, eta *geran bezala* agertu nahia dabil zalan-tzan. Eskubide osoa du herri batek hortan. Nekane, Garbiñe eta Sorkunde aleman edo ingeles hitzak izan balira, ez zuten inoiz eragozpenik izango gure artean, geuriak ber-ritz eskubiderik ez. Izan ere, latinetik datoz geurien truke sartzan dizkiguten gehie-nak. Madrilen ez baino Erromako Kapitolio haundian egina izan beharko zuen gure araudi bedeinkatua.

GURE JOKABIDEA

Nahitaez, hau da gaurko egoera eta hori gogoan izanez jokatu beharra dugu. Asko da azkenaldi hontan aurreratu dena. Geure etxean ezezkoa hartu duen izen ba-

tekin aurrera joaten ere ikasi dugu. Baina, puntu hontara heltzean ohartxo batzuk egin nahi nituzke. Ez dugu beti ongi jokutzen.

Guraso askok izen euskaldun bat nahi lukete beren haurrentzat, baina... iskanbila eta oztoporik gabe. Hemen ezezkoa izanagatik, gero Madrilén baiezkoa lortuko luken izen bat ematen diezu eta bildurrez atzera egiten dute. Ezer ez.

Beste batzuk mundua iretsi nahi dute eta behar den segurtamenik gabe aurrera dijoaz. Beren euskaltzaletasuna nahikoa dela uste eta zapaldurik datoz auzitik. Kaltegarri. Ezezko bat zuzentzea askoz ere zailago da gero baiezko hutsa aurrera ateratzea izango zen baino. Nik uste buruz jokatu beharra dugula, intzaurrak eta harriak geure gain ekarri nahi ez baditugu. Hortan dabilenarekin hartu-emanetan egon eta auzira joan aurretik arrazoiak eskuan ikusi. Gero epe gutxi izaten da eta ez da gauzak ongi egiteko biderik.

Eta izendegiak zer? Izendegi asko sortu zaigu azkenaldi hontan. Batzuk hobexagoak, eta oso txarrak besteak. Izen errezkadak, izenaren xehetasunik gabe. Ez nundik datozen, eta ez nork asmatu dituen esaten ez duten arinkeriak ere ikusi ditugu. Lehen Euskaltzaindiaren babesean egindako batek indar pixkaren bat balin bazuen, orai hori ere kendu diote eskuz esku dabilten beste arinkerizko batzuk. Ez da gehiago gure izendegiz fiatuko den legegizonik harrapatzen. Gure hobena.

Ez dakit Tarragona jaunaren eskabideak ondore onik ekarriko duen, badaezbada erbia jaso du behintzat. Aurretik ezer egin ez zutenak, balukete orai zer egina. Garrantzi handia du izenak.

1972, 72, otsaila, 1. or.

Euskal Izenak

OIER

Ez da gaurkoa Oier izena Euskal Herrian. Hamabi eta hamahirugarren mendeko liburutan ere arkitu dugu. Juzgado askotatik galdetu izan digute izen honen berri. Gehiegi sartu ez delako marka da, alde batetik, eta jendeak eskatzen duelakoa, bestetik. Emango ditugu zombait berri.

Era askotara idatzi izan da izen hau: *Ogier, Oger, Auger; Ojer, Oxe, Oser, Oyer* eta beste. Iduri du *Ohier* izan beharko zuela hauen denen ondorean. Baina *Oier* sartu zaigu eta dagon bezala utzi dezakegu.

Leireko paper zaharretan bada *Oier* bat, 1110garren urtean. Hamahirugarren mendean, *Archivo Histórico Nacional* delakoan agertzen da, Naparroko paperretan (Doc. 430, leg. 656, n^o. 2). Mauleko *Ojer* bat izan zen Irulegiko Gazteluaren zaindari, 1356ean.

Nortasun berexiko gizonen artean, *Oyer Amezketakoa* dakar Lope García de Salazarrek (s. XV, lib. XXI, fol. 29). *Ojer de Ugarte* esaten da Oiartzungo atalburu batean. *Ogier el Danes* izan zen Karlomanori Santiagora lagundu ziotenetako jaun haundi bat. Lakarraren liburuak badakar. Bere gorputzaz Berlinen izaten omen da.

Ogier de Dacia, martiri bezala jotzen dute. Bordale aldean egoten omen zen bere gorputz santua. Azkenekotz, *Oierko* ere arkitu dugu, Oier txikia, alegia.

Xehetasun hauekin guziekin ez da zaila izen hau aurrera ateratzea. Eta legegizonen bat gogor tematuko balitz, bildurrik gabe auzira jo laike, indarra badu Madril-en irabazteko. Guraso guziei esan behar zaiena, aurrez puntu guziak ongi jasotzeko. Madrileko auziak ez dira beti indar faltan galtzen, arinki emateagatik baizik. Gauza bat da arrazoia izatea eta besterik baliatzea.

Polita edo itsusia den galdetzen dutenei, jatorra dela esango nieke. Belarria izen horri egina ez badute ere, laster egingo zaie. Azken urte hauetan badira gure artean Oier izeneko haurrak eta geroz gehiagora joango da.

1972, 72, otsaila, 8. or.

ARNAS-BERRI DELA ETA

Laugarren aldiz bere eginkizuna bete du gure orriak. Gazteen esku utzitako tresna, *gaztetxo* da oraindio bera ere, baina zer esanik baluke atzera begiratzen hasita. Azterketa batzuk eginez joan nahi dugu bidean, hori baida baztarrak argitzeko krisailua, geuron buruak gehiago behartzen ditugula.

Axalenetik hasiko gera, orriaren izenburutik, alegia. Gure *Arnas-berri* hitzak kezka beltzak sortu ditu baztarretan. Gaizki esana omen da, *Arnasa berri* izan behar ote luken. Belarriz entzundakoei, hitzez erantzun diegu, baina azkenaldi hontan idazkiz aurpegira bota diguna ere izan da. Hain zuzen, *Arnasa berri* izeneko gazte taldetxo bat sortu da Gipuzkoan eta, izenez gustaturik, «ikas bezate *Príncipe de Viana*-koak» esan du norbaitek.

Edozeinendako on den konseilua da ikasten joateko hori. Nor da munduan dena dakienik? Baina, zer eta non ikasi?

A ORGANIKA

Ez, ez da soinu tresna. A hizkiarekin mozten diren hitzak berezkoa dute, batzutan, azken *a* hori ezin berexia. Organika esaten zaio. Beste batzutan berriz, aldakorra izaten da: etxeko *ogia*, *ogi* ona. Noiz den bat eta noiz bestea ez da hain erreiz ezagutzen. Ni ez naiz hizkuntzalari eta gutxiago inoren maisu. Beti ikasten ari naiz, eta gero baino gero beldur gehiago diot nire ezjakinari. Halare, *arnasa* hitza bere sei hizkiekin, azkeneko *a* barne dela, hitz osotarako daukat, organika da.

Besterik da *Arnas-berri* esan laiken edo ez erabakitzea. Ongi edo gaizki den epaitzeko, guk zer adierazi nahi ginuen jakin behar da lehenik eta nola esana den gero.

Arnas-berri bezala, txerto berri esan ginezaken. Odol berritze, gaztetze, udaberriko nahi ginuen. Barkatu, baina *arnasa-berri* esatea oso motz gelditzea zen. Susmo zabaleko zirta mugagabea, hauspo medarreko bularretan itotzea.

Hori eta gehiago erabiltzeko errextasuna badu euskerak. Teori mordoilo eta eskema latzetan du galtzen gure hizkuntzak bere aberastasun zoragarria. Ikusi nola jaten dituen herriak *a* organikak hitz batueta. *Ezkil-torrea*, esate baterako, ez da ezki-la bera, ez edozein torre. *Eliz-torrea* esan nahi duenak, elizarekin zerikusia izanagatik, nortasun berexia duen beste zerbait jakinarazten du. Nork erakutsiko gure herriari organika guzien izenean *ezkila-torre* edo beste halako zerbaiten musika latza jotzen? Herri hizkuntza batek herrian aztertu behar diren bere legeak izaten ditu. *Beso* eta *motz*, hitz bi izanagatik alkartuz *besamotz*, hitz berria sortzen dute. *Gaizto*-tik *gaiztagina* dator eta *asto*-tik, *astakeria*.

Arnasa hitzarekin gertatzen dena: *arnasa* estua izatea gauza bat da, eta *arnas-estu* norabeit heltzea beste bat. Norbaiti *arnasa* berritzea, atorra aldatzen den bezala birrikak trukitzea izan laike edo oxigenoaren bidez estuasuna kentzea. *Arnas* berritzea, norbaiti itxaropenaren poza edo bizi-nahi argia sortzea da. Esan dena, izen jo-

siak, bakarka ez duten adierazbide berri bat sortzen digute eta gure *Armas*-berri haize guzien hauspoarekin zerikusirik ez daukan gauza da.

Beldur diet hizkuntzalariei. Herriaren aberastasun zabaleko maisurik ez dut arkitu bidean. Horrek ez du esan nahi, *Príncipe de Viana*-koei eman zaigun ikasteko konseilua txarra denik. Ikasle izan nahi nuke bizi guzian, baina ikasten joateko on diren iturritan beti: herriaren eskutik.

1972, 73, martxoa, 1. or.

HERRI IZENAK

Duela urte gutxi arte nekazaritzatik bizi izana da Nafarroa. Orai hainbat auto ez zen ikusten baztarretan eta herrira sartzen zen gehienetan bide berria. Amona zaharren hasarrerako, zenbat oilo luma ez zuten jaso orduko autoak!

Herri sarreran egoten zen baldosazko herri izena. Lehenbiziko etxean eta azkenean, beti kanpora begira. Bide berria sartzen ez zitzaien herritan benta edo bide baztarreko beste etxeren batean. Gauza askotako balio zuen: Iruñara lehenbiziko aldiz zijoazenak zer herri zen jakiteko, herriko mutikoak eskola ondoan harrika emateko eta, esatera behartzen banauzue, eskola aspaldi utzia zutenak ere gauaz beren besoan indar eta ardoak ematen zien kemenaren berri han uzteko.

Gauza bat zuten oso ona orduko baldosak: izen haundia eta izen txikia, biak ekartzen zituen. Herri elkartutan, ibarraren izena ere bazekarren. Ibilkari haundiak eskolan hankarik sartu gabe Nafarroko geografia ongi ikasi zezaketen. Gaur pikutara joanak dira Valenzia aldean egindako baldosa zaharrak, eta gelditzen diren piskak puskek falta dituzte edo herri barnean geldituak dira. Altsasutik Iruñerako bidean bada bat falta dituen letrak ezartzeko gogoia ematen duena, adiskide batek esan zidan bezala.

Orai denak aldatzen dijoaz. Herri izenak burnizkoak dira, eta ez dute bigarren izena sartzeko lekurik izaten, bigarrena ez, baino beren lehenbiziko deitura zaharra da baztatu duguna. Bi hanka kankailuen gainean egongo zen bai hura ere bestearekin batean! Herri izenen kontuan, beste gauza askotan bezala, atzeraka joan gera Nafarroan. Lehen baino zirimarra gehiago bada bide berritan, baina gure izen zaharrak ez dira gehiago ikusten baztarretan.

Ni ikasle nintzala, bederatzi hilabetez egoten ginen etxera etorri gabe. Zer atseginarekin hartzen ginuen sanjuanetan etxerako bidea! Xinta-minta guziei ohartzen ziren gure begiak. Bazen orduan bi izeneko herrixka bat Iruña ondoan, *Aristegui* esaten zuen alde batetik, bide sarreran, eta *Aristregui* zion beste aldean. Zuzendua dute azken urte hauetan. Ez zen hura ere guk nahi ginukenaren eredu.

Euskal herri guzien izen zahar eta berriak biltzeko erabakia hartua du aurten Euskaltzaindiak. Lan jakingarria izango da. Eta zer lan ederra egin laiken lurralde bakoitzetik laguntzale bat bakarra baginu! Baina beste galderarik banuke nik: aski al da izenak biltzea? Ez ote ginuke lehengora itzuli behar? Zer irabaziko du Nafarroak gure izen zahar jatorrak betiko galduta?

Galdu, ez dira galduko. Ostikolari franko badator, astelehenetako futbol kontuan besterik ez bada ere, eure herrien izen zaharra haizatuko duena, harritzekoa Orreagatik Erriberako peko zolara euskal izenak hartu duten indarra. Duela hogeit urte baino giro askoz hobea ezagun da eta, bitartean, izen zaharra begien aurretik kentzean gure gauzen ofizialtasun bat galdu da. Nahiko apaltasun da norberarentzat futboleko taldearen bidez bere izenari eutsi beharra. Herri bakoitzeko agintarien lana izan behar luke eskabide bat zuzentzea.

Euskal Herriko zenbait lekutan hasiak dira. Mondragon, eta azpian Arrasate, esate baterako. Ikusi berria dut. Gure Iruña, Erriberri eta Lizarra —ez Izarra, fulbolarriak bezala—, izen jatorrak dira. Auritz, Orreaga —Orriaga— eta Luzaide, Ibañeta aldeko txori guzien doinua bezain izen goxoak. Uztarroitze eta Erronkari, Azkoien eta Larrate, Nafarrogaina eta Erribera, gaztainak eta piperrak, gure aurrekoengandik dugun ondasun zabala.

Gure bide berriak ez dira gehiago herritan sartuko, karioletako oiloak ez ditu auto zaharren txirrikak lehertuko, orduko amonaxoak bizi izan balira ez zuten hainbeste sentimentu izango. Herri guzien izen jatorrak ez ote ditugu bidera aterako. Mendiak ez badatoz guregana, esaera den bezala, gu joan beharko mendian bila.

1972, 73, martxoa, 1. or.

Euskal Izenak

ZURIA

Etxe sarreran badut nik haritz-ondo lodi bat, ezkaratzaren erdian. Zenbat urte ote du!, esan ohi du jendeak. Aurreraxeago, berriz, bada beste zerbait urte gehiago duena, egurrezkoa hura ere eta pipiak jaten hasia: Ama Birjina *Xuria*. Baina haritz-ondoa ikusgarriago da nunbait datozenentzat, bere azalaren barnean.

Oso zabaldua egon zen garai batez Andra Mari *Zuria*-ren izena Euskal Herrian eta toki izenetan ere agertzen zaigu. Artaxonan, besteak beste, *circa Sanctam Mariam Zuriam* esaten zen latinez 1111garren urtean ‘Santa Maria *Zuria*-ren inguruan’, esan nahi du. Iturriren bat ere izango zuen, eta 1157ko paperetan *iusta fontem de Sancta-zuria* agertzen da: Santa *Zuria*-ren iturri ondoan. Eta gaur bertan ba omen da herrian *Sandazuria* esaten zaion dermio bat.

Zuri bakarrik esaten da beste batzutan eta jende izena bezala: Hernanin (1332), Arrasate eta Elgetan (1448), *Oñacinos y Gamboinos* izeneko J. C. Gerraren liburuan agertzen da. Berdin dator Arabako Ulibarri-Ganboa den eliz-liburu batean (1760). Baina luzegi izango litzake euskal izen hau sartua den paper zahar guzien berri ematea.

EMAKUME IZENA

Oztopo txiki bat badu, gizon izenetako ere erabili izan da. Mutilbako Zadar (oraiko Sadar) lekuan mahasti bat saldu zen 1318an eta saltzaleari *Zuria de Saiguos* zerazkion. *Iaun çuria de Iriuerri* dio 1224ko beste agiri batek. Andra-gizonek berdin erabiltzekotan, gaur ezin laike izen hau legez onartu. Beraz, Andra Mari izena bezala oso zabaldua baizegon gure artean, emakume izena beharko luke izan.

Izan ere, hogeita hamaseieko gorabeheren aurretik sartzen hasi zen izen hau, eta gaur ere baditugu *Zuri* izeneko emakumeak Iruñen. *Zuri* ala *Zuria*? *Txuri* dio Euskal Ikaskintzako Lehen Batzarrera Oñatin agertutako paper batek.

Batasunaren izenean bat edo beste aukeratu beharrean gertatzen gera eta nik uste oso osorik *Zuria* hartzea komeni litzakela.

ITZULPENA

Legearen aurrean, denok dakigunez, erdal itzulpena ere badu *Zuria* izenak. Eragozpen txoroa baizik ez bada ere, eragozpena da gaurkoz. Halare, aspaldiko izen zaharra da eta horrek badu bere indarra. Gainera oso zabaldua zen eta hori paper zaharretan ikusten da. Beraz, legez eragozpenik balitz aurrera ereman laike eta auzia irabazi. Zuriñe hitzarekin gertatzen dena ez da berdina. Erderazko *Blanca* adierazteko sortua da *Zuriñe*. *Zuria*, berriz, hamabigarren mendean ere oso ezaguna zen. Eta

nire galdera hau da: Euskal Herrian *La Blanca* (Virgen Blanca) antxinako Zuria-ren itzulpena ez ote da?

Nolanahi dela, lege txarrena ere aldatzen ez den bitartean lege da, eta bere lokarritan koropilatuak gera. Gaurko egoeran izen oinarrituei lotu behar izaten dugu, eta Zuria menderik mende bere zain haundiak botariak dituen izen jatorra da. Zenbat kimu berri botako ditu ondoko urtetan? Bakoitzaren eskuan dago erantzuna.

1972, 73, martxoa, 8. or.

KALE IZENAK

Egunorokotan etorri izaten da, baina gutxitan begiratzen diot nik hango edo hemengo Aiundamenduaren erabaki mordoari. Eta egia esan, damuturik egoten naiz batzutan. Gero jakiten dira gauzak. Iruñekoak, irruitiago joan gabe, beste gai askoren artean karrika batzuen izenak zuzentzea erabaki du aurtengo otsailaren azken egunean, aldian behin bakarrik gertatzen den otsailaren hogeita bederatzia seinale.

Iruña bezala haunditzen ari den hiri batean kale berrientzat izen berriak asmatu beharra, ez da harritzekoa. Baina ez zen hori gure kontua, gaizki erabiltzen zirenen izen ona itzultzen ahalegindu dira Nafarroko hiri nagusian: *Erletokieta*, *Irunlarrea* eta *Arrosadia*, beste batzuen artean. Urte gutxi du euskal izen hoiek ezarririk. *Iruñalarrea* ikusten zen ospitaleko horma haunditan eta *Irunlarrea* diote paper zaharrak. Harrigarriena dena, bigarren hau ezartzeko agindua zuen Aiundamenduak, eta *Iruñalarrea* asmatu zuten Zaragozan izen-burniak egin zituzten gizonak. *Arrosadia*-ren ordeaz, negargarrizko *Rosalía* bitxi bat esaten zen. Nola nahasten diren hitzak! Duela denbora gutxi arte, larrainak izandako bizkarrari *La Reina* esaten hasiak genituen jendeak eta *Miluz* esaten omen diote orai *Miluze* izen jatorreko zubiari. Luze ez baino, motza ere bada hori.

Oso goian uzten du bere nortasuna, beste buruhaustekorik aski baduela bere kalean izen onez arduratzen den Aiundamenduak. Balukete Nafarroako herri askok non ikasia.

HERRITAN

Ez da beti hala jokatu gure herritan. Azken berrogeita hamar urte hauetan kolore askotako burdin berrituak sartu dira baztarretan. Herritarrek nahasteko besterik balio ez zuten *plakak* askotan. Zeruko santu guzien izenak ekarri ditugu gure kaletara eta ebein bataio aurreko izenekin deitzen dituzte jendeak, izen zaharrekin, alegia.

Ez nago ni joera horren kontra. Ongi iduritzen zait *San Cosme y Damian* edozein kaletan ikustea, ez dakitana gure jendeei horrek zer esango ote dion. Izan ere, kristauzaletasuna kale izenetan ez, baino bertan bizi direnen jokabidean agertu beharko litzake gehiago.

Egiak eta fedea zerikusit haundirik ez duen mundu koxkor hontan gauza xelebre asko ikusten da. Neure buruakin parrez egona naiz lehengo batez. Anima xaharrraren antzeko jende gazteak badira bizian, eta halako neska gazte pixpilita bat zekarren bilisgorrian egunoroak. Barneko egina zen. «Barne barruko edergarri gazteak» zion oraindik lotsa gabeko ume honek. Eta gero, azpian, ikus *Obispo Irurita*, *San Juan* edo *San Saturnino*-ko gure etxeak. Berdin izan zaiken *San Fermin* edo *San Miguel* kalea. Santutasun komertziala.

Herritan beste kezka batzuk ditugu. Moda xaharrean, erderaz daude kale izen gehienak. Gogoan dut duela urte gutxi ikusi nuena: *Calle de la Fuente*, inungo itu-

rrien zentzajerik ez zen lekuan eta *Calle de Sta. María*, bizi guzian *Iturtxulo* esan izan zitzaion iturri zaharreko bidean. Neure begiz ikusia! Eta zenbat gauza fantexiosu, izenbe batzuk kale izen jatorrak sartzen hasiak dira euren herritan. Eta euskeraz ezarri ere. Jendea aurpegitik ezagutzen den bezala, kaleko girotik agertzen dute herriek beren nortasuna. Gogoan dut nik Erronkarin lehenengo aldiz izan nintzana. Gazte izanik, eskual izenak laster ikusi nituen etxe kantonetan: *Burgiberria*, *Barrikata*, *Mendigatxa*, *Izarjentea*..., inguruko mendixka guzien izenak Isaban. Ez zen hori nunahi ikusten, urte askoz aurreraturik zebiltzen. Hori egin zuten gizonak bizi izan balira ez zen herri hoietan eskuararik galduko. Nortasun haundiko herriak izanak direla ikusten da. Aurpegiak esaten du.

Legez, hamar urtetik aldatzen ahal dira kale izenak. Beti urtearen laugarren zenbakiari dagokiola. 1970an zen garaia eta 1980an izango da hurrena. Beti hutsa (zero) kontuan eduki behar.

Aldatzea bada, baina nola harrik ez den herri txikitari! *Calle de la Constitución*, *Plaza Consistorial*, *Estafeta* —Iruña zelakoan!— herrian tutik erderaz egiten ez zen garaian.

JOERA JATORRA

Beste joera bat sumatzen da orai gure artean. Banaka moldatu? Askoren kezka. Euri asko den lekuan urak bere bidea egina du. Nafarroan herri batzuk egin dute eta Iruñen izen zahar guziak maite dituzte. Prointzian edozein herritan badira kale izen euskaldunak. Halare, ez da baztar guzitan joera bera ikusten. 1) Gipuzkoan bi burdin ezarri ohi dituzte, bat erderaz eta euskeraz bestea. 2) Kale hitza beti sartzen dute: *Goi-koko kale (calle Arriba)*. 3) Izen ezberdinak ere ikusi izan ditugu: *Calle del Cuartel* eta *Soldado kale*, elkarren ondoan. 4) Azkenekotz, erdal kutsuko izen zaharrak diren lekuan ez dago itzultzen ibili beharrik: *Calle Camino*, bego dagon eran; eta *Dormitallería* balin bada, dagola pakean. Hontan beste gauza askotan bezala iritzi berdina behar ginuzke batasunaren izenean.

Bi burnitan euskal erderak ezartzea, plazako ahari apustuko indar neurketa bezala zait. Bi gastu, bi lan eta leku asko behar dute gainera. Batzutan hitz hutsa jartzearekin nahiko izango litzake: *Fueros*. Ez *kale* eta ez *calle*, hitza bera eta kitto: *Andia*, *Txapitela*, *Mañueta*. Batez ere, kale hitza sartua balin bada izenean ez du besterik behar: *Lindachiquia (Lindatxikia)*, *Kaluxa*. *Valle de Valdizarbe* edo *Nueva Berria* esatea bezala da hori.

Batzutan herriak berak badituzte beren ezaugarri bereziak. Kale izenen zuzenketa egin berri da Urdiainen. Etxe gehienak banakakoak dira eta zaila izango litzake kale bezala elkarrekin lotzea. Orain baino lehenago bazekiten hori urdindarrak eta ez ziren nahasten. Kaleari kale esaten diote: *Portuko kale*, *Kale Nagusi* eta *Kaluxa*. Beste kalerik ez da herrian. *San Martinkalde*, *Otalde*, *Atximistalde*, *Goienkalde* eta *Barrenkalde* honenbeste etxe nahas-mahas direnean esaten da, eta denek badakite zoin diren.

Herri agintari batzuk Euskaltzaindira bialdu izan dituzte beren kezkek argibide bat lortu nahian. Hori ere beste bide bat da. Gogotik erantzuten zaie.

Iruñeko herri-zuzendarien jokabideak argi ditzala gure herritako bideak eta datozela laster zuzenketak. Ez da aski hau edo hura gerala esatea, geran bezala agertzea komeni da. Hortarako da izena. Eta oso jatorrak badira gure artean.

1972, 74, apirila, 1. or.

Euskal Izenak

ENERIZ

Eneriz emakume izena bezala onartua izan da Madrilen. Erabakia azken azaroaren biekoa da. Berez herri izena da, Iruñetik gertu Gares aldera. Bazen Andra Mari bat hamahiru-hamalaugarren mendekoa, eliza behartuen laguntzeko utzi zutena. Bere baltioa ikusirik, Iruñeko gotzaiak ez zuen Nafarroatik ateratzeko baimenik eman eta Iruñeko eliz-gauzen ikustegian egoten da.

Gernikan sortu zen auzia. Ama batek Eneriz izena nahi zuen bere alabarentzat eta legegizonak ezezkoa eman ondorean, gora-gorago zuen berak eta baimena lortu Gernikan bertan. Orai dator harri-garriena. Fiskalak baimena eman zuen epailariaren aurka jaso eta Madrilerera ereman zuen auzia. Eta han ere irabazi egin da. Eneriz, beraz, gure izendegiko hitz zalantza gabekoa dugu.



IKASGAIA

Euskal izenen kontrako etsai amorratuenak geure artean ditugu. Lotsagarri ikusten diren gauzak nozitzea. Entzun Gernikako Fiskal jaunak diona:

- 1) Nafarroako Ilzarbe deritzaien herrialdea ez dakiela berak nun dagon. Hain irrutiko Andra Mari batek ez duela Gernika-Lumo aldean ez aipamenik eta ez oinarri. (Eskual Herri txiki hontako geografia ere ezagutzen ez duela aitortu eta eskolarako bidea bakarrik gelditzen da).
- 2) Gizaki hala emakume izena den ezagutzeko Mari aurretik beharko lukela. Eta azkena, ez dela jende izenetako egokia —*extravagante* dio berak—.

Gizonak bere eritzia izan dezake eta bidezko da, zuzen edo makur, uste hori agertzea. Baina non ikusi da fiskal jaunak bere gauza balitz bezela auzia berak sortzea? Ez ezarri eta ez jartzen utzi? Zer irabazten dute horrekin?

ENERIZ ALA ENERITZ?

Nafarroan Eneriz esan ohi dugu. Gernikako haurtxoari Eneritz deitzen diote. Nik ez dakit zoin den esaera jatorrena, hizkuntzalarien gauza da. Nik dakidana Estibaliz nahiago dutela jakintsuak Estibalitz baino. Nolanahi dela, ez da erabakirik dagon gauza eta, garbi ikusi arte, esaera zaharrarekin geldituko nintzake: Eneriz azken hizki soilarekin. Aldatzekotan bada gero ere denbora.

1972, 74, apirila, 8. or.

ETXE IZENAK

Gure begiak jarriak dira etxe berriak izen euskaldunekin ikusten. Berdin jatetxeak eta ostatuak. Barnean euskeraz tutik egingo ez bada ere, kanpotik izen euskalduna. Nunbait dirua ematen hasi zaigu euskera gaixo hau. Besteak beste, nork daki ez ote zaion burua jasotzea alderdi hortatik etorriko!

Era guzitako animak etorri izan zaizkit izen euskaldun bila. Eta zergatik euskalduna? —esan izan diet nik—. Euskal Herrian gaudelako, erantzuten dute batzuk. Atsegin zaidalako, diote beste batzuk. Ongi ikusia delako, aitortzen dutenak ere badira. Bai, ez da dena urre garbia gaurko jokabidean. Beste alde, badira berezko jatorrak eta bihotzean daramatelako nahi dute geure izena.

Ez nuke gaur arinkeriaren aldetik ukitu nahi etxe izenen gaia. Berriketa berriek haizutzen du eta iraupenik ez du. Kalterik ez dio egingo, beharbada, “modak” euskerari, baina mesede haundirik ere ez. Hori eta gauerdiko ahuntzaren eztula, berdintsu baidira.

EUSKAL ETXEA

Euskaldun batendako bere etxea ez da beste edozein tresna bezala. Arrotz batek sumatu ez lezaken hizkuntza badute horma haiek beretzat. Aita-amen arnasa, aurreko guzien itzala eta bere iraupena sartuak dira, nolabeit, teilatu azpi hartan. Zerbait ez, baino bakoitzaren nortasuna ikutzen duen izate bat dakarkigu bihotzera gure etxe zaharrak. Semeen etxe berri eta berotan bizi ezin ziren gurasoak ezagutu ditut. Eurena bezalakorik ez mundun: *Nere etxe pobria, erregearena baino hobia.*

Etxeak elkaturik daude batzutan, mendi zokotan sartu eta sakabanaturik bestetan, baina barne-gogoak ez du mugarik. Etxetik kanpo bizi delarik da gehienik senditzen bere garra. Zer ametsaren ederra! Gurasoak seme bat egiten dute etxeko, ezin da etxaldea puskatu. Odoleko guzien izen ona eta poza hautsiko balitz bezala da.

Idazki zaharretan badira euskaldunen etxea erdibanatze honen barne mina adierazten duten lerroak. Nafarroako errege kastako Gebara batek Oinati bere lur guziekin seme bati uzten zion paperretan, hitz hauek agertzen dira: «Ondasun hauek hiretzat bakarrik utzi dizkiagun bezalaxe, hik ere, seme-alaba guzitan batendako utziko dituk. Osorik eta inola puskatu gabe semerik jatorrenari uzteko, gure animengatik agintzen eta eskatzen diagu».

Ez hori bakarrik, hitza betetzen ez zuten ondorekoendako madarikazio latzak botatzen zituzten orduan. Hara zer dion hamabigarren mendeko oinatarren paper horrek: «Gure seme edo ondorekoen batek agindu hau zapalduko balu, Jainkoaren eta gizonen madarikazioa izan dezala eta gero gurea, Datan eta Abiron bezala lurak iretsi dezala, eta infernuko lezean Judas maltzurarekin parte izan dezala».

IZENA

Izenak garrantzi handia du jokabide hontan. Hamabi eta hamahirugarren mendeko paperretan ikusten diren etxe izenak baditugu gaur herritan. Etxalde hoietan izan diren nagusi eta etxeoandre guziak etxearen izena hartu dute, euren jatorrizko izenak joan dira eta etxearena hor dago.

Baina seme eta alaba jatorrak egingo ez zutena, inguruko herrialdeak sartu digute. Arabako mugan, esate baterako, etxealdeak puskatu egiten dira eta seme alaba bakoitzari zati bana eman. Diru kontua du jendeak begien aurrean, jaiotetxeak ez dio ajolarik. Euskera galtzen hasi diren familiak, lotsatu egiten dira beren herri eta sortetxez, denbora gutxi baino lehen, Iruña edo Donostira jotzen dute haurrak, eta anima puskaka utzita bada ere, gurasoak eurekin joan behar. Herri osoak hustu zaizkigu azken urte hauetan eta ez dut uste ezin bizia zutenik denak. Goseak baino kalte gehiago egin digu bizimodu onak eta diru maltzurak. Anima zaie hoztu eta ez da han biziko den gizonik..., herriko lur guziak eskuratu ondorean.

Eta hustu ez diren baztarretan ohiturak dira galdu, euskera galtzearekin batean euskal kutsua berdin hustu da. Etxe izenak kendu eta, norberaren izenez bakarrik eza-gutuak dira. Teila azpi hura ez da bizi eta hildako guzien izpirituak betetzen duen egoitza iraunkorra. Bakarkako bizi maila da aurrerapenak dakarkigun zorigaitza. Gerroago ez da etxerik ere izango. Oilategiko oilo eta usategiko bikoteak bezala, izen gabeko gela txikitan sartuko dira denak. Ezker-eskuin dituenen berri ez du jakingo gizonak, ezagutu ere ez, askotan.

Izena, nortasunaren ezaugarria da, garra darion su baten dirdira. Eta euskal etxe zaharren izenak, inungo bizimodu berriak adierazi ez lezaken su kutuna dakarkio etxekoei, antzinakoak, oraikoak eta gerokoak izpirituan uztartzen dituen lokarri gozoa. Herri askotan galduz dijoan aberastasuna. Etxe berrien izen euskaldunak ongi iduritzen zaizkit, baina zertako galdu gure aspaldiko izen jatorrak?

1972, 75, maiatza, 1. or.

Euskal Izenak

XABIER

Ohore haundiko izena dugu euskaldunok Xabier, misiolari gartsuarena. Aspaldi banuen hontaz zerbait esateko gogoia, baina bildurra ematen zidan. Euskaldun odol garbia zainetan daraman edozeinentzat ezin iretsia baida, gure gizon bizkorrenaren izen ona berak erabili zuen eran, ezin esana. Egun hauetan bertan, Iruñeko gure hiri santuan, atzera bota berri dute legegizonek aita napar batek bere semeari eman nahi zion Xabier izena. Javier omen da jatorrena...

Ez, Nafarroako erregeen denboran ez zen Javier izenik ahotan. *Esaberri* da gure *Xabier*-en iturria. Aldaketa batzuk gorabehera, euskaldun garbia. Izan ere, Aragoi aldeko mugan *Esandi*, *Esarte* eta *Eseberri* erabiltzen zen *Etxandi*, *Etxarte* eta *Etxeberri*-ren ordez. Eta erdian duen *a* hori berriz, hitz lotuetan maiz gertatzen zaigu: *Etxabarri*, *Etxaleku*, *Etxarri*, *Etxabakoitz* eta abar.

Besterik da hasieran galdu duen hizkia eta azkenean gertatu den aldaketa. Euskera galtzen dijoan herritan ez da harritzeko gauza. *Berri*-tik dator *bier*. Latinez zaigu hitz hau osoenik gorde, *Xaverius*. Mugaz beste aldetik ere, ez euskeraz eta ez frantsesez, ez dute Javier esaten. Belarrientzat gogorregi zaie, erdal kutsuko gauza dela esatean gaztelera dugu gogoan.

Euskal Herriko jauregi baten izena zen hasieran. Jatsutarren seme gazteenak eman zion muga gabeko aipamen zabala. Jatorra zen eta ez zen bere aita-amez lotsatu, ez zuen bere izena baztatu, euskaldun bezala agertu zen beti munduaren aurrean eta euskeraz egin zion Jainkoari bere hondar otoitza. Xabier da Euskal Herri osoari dagokion zaindari euskalduna, gure Ama-Lurrak hazi duen gizasemerik bizkorrena. Burnizko saretan sartuta bezala idazten zuen bere sortetxearen izen kuttuna, galtzeko beldur izan balitz bezala.

Izenak garrantzi handia du gauzetan, tipulak saltzeko ere izen egokiak behar izaten dira gainean. Herri nortasunaren agerbide eta ezaugarri esnagarriena jende izenak direla esango nuke nik; eta beti ahotan dira.

Erdalikeri hutsa estaltzeko besterik ez bada ere izen euskalduna, batzutan, zerbait sumatzen hasiko zen ezarri duena. Eta ura nahi duenari, eman dezaigun ur garbia, egarriaren berri norberak daki eta.

1972, 75, maiatza, 8. or.

LEKU IZENAK

Euskeraren hiztegi aberatsena leku izenena da, erderaz **toponimia** esaten zaiona. Lurrarekin hartu-eman estuan bizitu da orai arte gure herria, eta idazkitan adierazi ez duen bere bizimoduaren berri utzi digu inguruko gauzen izenetan. Hitz argiak batzutan, esaera oso eta jantzian, gauza ilun traketsak, askotan, mila burubide sortzeko on direnak. Hitzak jatea herriarentzat, hizkiak galtzen joatea da.

Nekazaritzatik bizi den gizonarendako garrantzi handia du denbora onak eta txarrak, berdin artzaiarendako. Badaki haize idor eta ernarien berri eta hoiien ezaugarriak inguruan ditu: *Putterri*-ko haizeak denbora ona dakar eta *Gaztalak* euria. Mendi tontorretako lainoska guziak badute beren esaera, batek hegoa du eta besteak euria. Ordularitako ere on dira haitz tontor asko: *Hamarretako harria* esaten diote Huarte Arakilen bati, iruzkiak ordu hortan jotzen duela eta. Ez dakigu neguko ala udako ordua. Sanjuanetan badu iruzkiak bide bat eta Eguberritan motzagoa, mendi biren txori-bidean adierazten dena. Herri jakintza.

Basapistiak ere badute leku izenen liburu aberatsean zerikusi handia: *Ahuntsare*, *Axerizulota*, *Artzaren baratza*, *Erlategi* eta *Artegiak*. Landaretatik dute, beste batzutan, lurraldeak beren izena: *Elordi*, *Altzania*, *Urkimakurra* eta *Belardi*. Menditan badira **lepoak** eta **bizkarrak**, **harrate** haundi eta txikiak, **ateka** eta **sakanak**, **muno** eta **tontorrak**, **mendi** eta **basoak**. Gaur askok ez dakiten euskal geografia. Berdin **lur meheak** eta **hare-lurrak**, **zuriak** eta **beltzak**, **sietsak** eta **legarteak**.

Sinesteak eta sineskeriak, zer esanik ez, utzi du leku izen mordoa: *Kalbario leku* eta *Laugarren kurutzea*, *San Adrian* eta *Santa Marina*, *Lamin-zulo* eta *Akelarre*, *Jentil-harri* eta *Jentilen sukalde*. Herri zahar baten bizibidearen urratsak.

ALOR BATZEA

Aurreramendu handia izan da gure herritan *Concentración parcelaria* deritzaion lur batzea. Alor txikitan ez da gatzarenik ateratzen gaurko egunean, batetik bestera joan-etorrika galtzen zen eguna. Erreka eta bide, muga eta sasi, ezin zen tresna berriz lanik egin. Gaur, besterik da.

Baina gauza hoberenak ere beren eragozpen txikiak badituzte bizian. Leku izenen aldetik asko galdu dute gure herriak, hemendik aurrera zortzigarren alorrak berderatzigarrena du alde batetik eta zazpigarrena bestetik, berrehungarrena izango du ezkerrean eta auskolo zoin eskubian. Leku izenen liburua baztartzten hasia da eta oso laster etxe inguruko lurak ez diote ezer esango gure nekazariei. Espetxean direnak bezala, zenbaki batekin izendatuko dira beren izen maitagarria zuten lurak. Izen nagusiren bat edo beste (toponimia handia) gordeko da, gainerakoak betiko ixilduko.

Ez da bihozkada hutsa, ez eta ere aurreramenduaren kontra joan nahia, galtzera dijoazen hegazti mota eta basapistiei laguntzen zaien bezala ez ote zaiken herri jakintza hau bildu eta baliatu? Hizkuntza aldetik aztergarri, hiztegi aldetik mugagabe-

ko harrobi aberatsa, begiramendurik haundiena merezi zuen lana. Bi edo hiru herritakoak bildu ditut nik eta bakoitzean zazpirehun hitzetik gora jaso dut. Zer izango zen Naparroako mila herritan lana hori egin balitz?

Gure kezka honen deia entzunik, Iruñeko adiskide batzuen laguntza aipagarria ukaiten hasia naiz. Hamar-hamabi herritako lana laster eskutan izango dugu. Zerbait da, baina Naparro guziraiko ezer gutxi.

Hortik hasi beharko ginuke, gure izen aipatuena zuzentzera heltzeko. Ezin da esan zer astakeri latzak entzuten eta idazten diren: *Altobizkar* ez baino *Astabizkar* da Auñamendiko tontorraren izen jatorra. *Altxueta* ez, baino *Artxueta* da Aralarkoa.

Erroldan harria erakusten ziguten, txikitan, Aralar mendirakoan. Eta noizbaiteko gizon ospetsu batek Beriain menditik bere beso indartsuz bota zuela esan ere bai. Han omen dauka esku haundi baten ezaugarria. Eta nork daki zenbat burubideren bilduma dakarkigun esaera horrek? Nungo liburu mardulak eman dezaiguke hori bezalako esamesak duten ikasgai lehen iturrikoa? Etnologia edo delako herri jakintzari etorkizun ona sumatzen dakio. Konturatzen al gera zer bide jatorrak ixten dizkiogun leku izenak eta beren esamesak galtzean, herri baten arnasa aztertu lezaken jakintzari?

Galdera bat egin nahi nuke bakarrik: ezjakinean gorde zaigun aberastasuna galtzen utziko al dugu ikasiok? Europa aldeko harrobi jakingarrietakoa izango litzake gure herriaren bizia darion hizkuntza xehe hau bilduko lukena. Leku izenak beren argibide guziekin jaso behar lirake herriaren ahotik. Eta egitekotan, lehenbailehen, berandu delarik negarrik izan ez dedin.

1972, 76, ekaina, 1. or.

Euskal Izenak

NORA

Euskal izenen bila dabiltzenak hemen dute izen bat atsegina eta oso gutxi zabaldua. Zangotzako ibai ondoan, eskuin aldetik dago bere baseliza. Burnizko zubitik gertu. XIII edo XIVgarren mendeko Andra Mari baten izena da.

Garai batean jarraile gehiago ba omen zuen. Ibaiako arriskuen zaindaritzat zeukaten. Urez Iratiko egurra jeisten zuten gizonak, haren esku jartzen omen ziren. Izan ere, txarra izan behar zuen euren lanerako alderdi hura. Baita ere igarikan zebiltzen haurrak ez itotzeko otoitz egiten zioten. Uretako Ama da, beraz, *Nora*-ko Ama Birjina.

Mina hartzekoa izan balitz askotan egingo zuen negar gaixoak. Jarrita dago eta altzoan zuken haurra. Zuken esaten dut, kendu baizioten eta ezkerreko besoan ezarri. Haurraren lekua beste egur puskaren batekin berdindua du eta orai duen haurra ez da bere hura. Ezin sinetsia. Hori aski ez dela, jantzi egiten omen zuten eta, hain zuzen, jantziak ongi etortzeko eginak izango dira ebakuntza lotsagarri hoiek.

1694koa da baseliza. Oso gaizki zaindua egoten zela azken urtetan entzun dut nunbait. Ez dakit berritua duten.

Legegizonen aldetik eragozpenik ez du izen honek. Iruñen ez diote oztoporik ezartzen eta nunbait trabarik sortuko balitz, Andra Marirena baida, neke haundirik gabe aurrera atera laike.

Beste izen batzuk sartu ezin ditugun bitartean baliatu ditzagun sarrera dutenak. *Nora* inoiz entzun ez zutenak izango dira irakurletan eta hau bezala beste asko eta asko. Ditugunak zabaltzea da egiteko bat eta entzundakoak erabiltzea bestea. Nolanahi dela, esnatzen badijoa jendea. Laster euskal izen giroa nagusituko da gure karriketan. Euskal izena daramanak euskeraz hitz egitea askotxo eskatzea ez bada! Gaurkotz, behintzat, bai.

Saraitzuko ibailarien otoitza euskeraz entzun zuen. *Nora*-ko Amak harrera ona izan dezala oraiko euskaldunetan.

1972, 76, ekaina, 8. or.

Euskal Izenak

AITZIBER

Aitziber Urdiaingo Andra Mari dela edozeinek badaki. *Sarabe* izeneko leku zoragarrian eta borda antzeko baseliza txar batean egoten dela ere bai. Hamalagarren mendearen hasierakoa dirudi. Oso ederra da.

Gertaera polita badut horrekin. *Guardia Civil* gazte bat etorri zitzaidan etxera Aitziberko Ama Birjinaren argazki baten bila. Sevillan haurra izan zuen bere emazteak, eta Aitziber izena ezarri zioten. Trabarik izan zuen galdegin nion eta ezetz erantzun zidan. Frantzia aldeko izenen bat ote zen galdegin ziotela, bakarrik.

Argazkiak hartu eta non esaten duen:

—Eta ongi idatzi dut izena!

—Nola asmatu duzu?

—Urdiaingo piszinetan ikusi nuen eta nire baitan esan ere bai: «Hau ongi egongo duk». Hala ikasi nuen.

Aurtengo otsailean gertatua. Denboraren buruan, udaberri aldera, Tolosatik deia:

—Aizu! Haur bat izandu dugu eta Tolosako juzgadoan Aitziber ezartzeko trabak sortu dizkigute.

—Ez naiz harritzen, Sevillan izan balitz!

—Mesedez, ez txantxetako hartu. Elizako agiri bat behar dugu.

—Egon lasai, bihar bertan bialduko dizuet.

Handik egun batzuen buruan, berriz mintzo bera:

—Tolosatik?

—Bai, hartu genduen zure agiria, eskerrik asko. Baina ez omen da nahikoa. Obispaduko agiria ekarri behar diogula esan digu.

—Ez da egia izango! Ez zaigu halakorik egundaino gertatu.

—Tolosan hori eta gehiagokoak ikusiko dituzu. Zer uste duzu, ba!

—Eta gotzaia artxibo zaintzaletzat hartu al duzue?

—Ez, Tolosako legegizonen sakristau...



Gure Euskal Herri gaixoa esku makaletan dago. Eragozpenak sortzeagatik berdin zaie edozein aitzakia. Lehen ere mintzatu gera Tolosako juzgaduz eta berriz ere baginuke esatekorik aski.

Kondaira idazten den egunerako jakinarazi nahi nuen nik hau. Sevillan bataiatu beza, bitartean, Tolosan alabari Aitziber ezarri nahi dion gurasoak. Motzago da hango joan-etorria hemengo paperen itzuliak baino.

1972, 77-78, uztaila-abuztua, 8. or.

Euskal Izenak

ASIER

Zortzigarren mendeko giroan idatzi zuen N. Villosladak bere *Amaya* hots haundikoa. Sineste zaharren eta kristautasunaren arteko borroka adierazten du. Amaia izena azkena bezala hartzen du, ordu arteko sineskerien bukaera, alegia. Asier, berriz, denbora berrien hasiera. Amaia, izen bezala, bazen Erdi Aroan, Asier berria izan laike. Liburu hortan agertzen den Aitor ere hemeretzigarren mendean asmatua da.

Ajola gutxiko istilua da, oraikoan, izen hauen iturburua. Izen bezala onartuak izan dira eta herrian oso sartuak daude. Horrexegatik Asier euskal izendegi berrian egon behar zuen, Aitor eta Amaia bezala. Eta ez dago, ez ezerengatik, sorginkeriz baidarik. Gure ustez, sartua ginuen eta liburua atera delarik haren fitxa falta. Zorionez izen ezaguna da eta ez luke horrengatik oztoporik izan behar. Beste aldi batez sartuko dugu.

Hitz honen indarra *Amaya* liburutik eta herrian izan duen harreratik dator. Belarrirentzat atsegina eta, esames polita adierazten du. Irauteko behar den guzia eta gehiago.

Erderaz jende izen bezala ibil laiken itzulpenik ez du. Ez da, beraz, legez debekatuetatik. Elizaren aldetik ere ongi ikusia da. Beti gertatzen dena, bada Euskal Herrian legegizonen bat edo beste oztopoak ezartzen dizkiona. Ezer egiterik ez du.

Lehengo aldi batez Iruñen gertatua. Eneko izena eman nahi zion guraso batek bere semeari. Ezetz erantzun zioten, ohi den bezala. Eta orai dator harrigarriena, Enekoen ordeztu Asier zergatik ez zion ezartzen esan izan behar zion juzgaduko buruak. Eta bai pozik hitzetik hartu aita euskaltzaleak!

Eneko santu izena, eta Nafarroako errege birena, gure paper zaharretan sartuena onartzeko eragozpenak ziren lekuan, Asier izenak baimen guziak eta legegizonaren bultzada estimagarria zeuzkan. Euskal izenen kondaira egiten denerako jasoa nuen. Aurten gertatua. Eta zenbat halako! Nundik datorkio izen bati bere indarra? Nork daki? Huskeriatik askotan.

1972, 81-82,
azaroa-abendua, 8. or.

NAPARROAREN ORDUA

Gure biziko poza dakarkigu euskal alorrean hasi berria dugun urteak. Napparroako *Boletín Oficial* delakoan lehen orrialdearen beteko erabakia, euskeraren irakaskintza eta zabalkunde gure Diputazioak bere gain hartuaz. Urtarrilaren hamarreko zenbakia seinale.

Egia esan, ez da gaurko istilua. Zerbait haundi egosten ari zitzaigulako zurrumurrua, joan den hiru-lau hilabeteen bazezilen baztarretan. Idazki honek izan dituen jaiot-aurreko gorabehera, oztopo eta trabak zertako orai haizatzen hasi! Etor da. Amaren sabela utzi eta egunaren argia ikusten zaila izan bada ere, hor dago orai haurra. Pozaren pozez dijoakio gure ongietorri beroa.

Gertaera guziak badute ikasgaien bat. Sagarrak eta tipulak ere ez dira beren buruz lainoetatik mundura etortzen, egur adarrei eta lurrari itsasirik egon ohi dira, eguraldi on eta haize gogorren berri badakite, eta udazkenak ditu azkenik ontzen. Napparroan emandako urratsak ere zeresanik baluke. Gure agintariak herriaren kezka bizian jabetu zaizkigula, lehenik. Hitzez ez ezik erabaki nagusi baten bidez, jakintza mailako gure aberastasun berexienari eutsi nahi diotela agertu dute. Goresmenak.

Eta ez hori bakarrik, apalki egin daizke gauzak ala ohore eta hots haundiakin. Atal haunditik sartu nahi izan dute euskera Napparroako bizian, ofizialtasun osoarekin. Nappar gehienek hizkuntza nagusia zelarik izan ez zuen nortasuna badu orai euskerak. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

ONDOREAK

Egoera berri hau dela eta, galdera asko egiten du jendeak. Biziko ahal da, beraz, gure mintzaira zaharra? Sendagarri ote ala heriotz minak ez titzeko gantzuketa epela?

Erantzun garbi bat ematea nahiago nuke, baina ezin. Erabakia mesedegarri da, eta laguntza haundia. Baina euskaldunok dugu euskera mintzo, ez erabakiak. Guk diogu, beraz, hizkuntzari eutsiko. Kezka asko eta erderaz mintzo, ametsez jantzitako hilarria. Zertarako, bestela, ikastolak? Haurretatik zaigu berpiztuko, haurretan galdutako euskal giroa.

Ez dut horrekin gure agintarien asmo jatorra gutxiesten. Sarbide bat da. Legezko bidea, hoberena, baina inungo bideari ezin zaio ibiltzerik eskatu. Bide zelaienak ez gaitu inora eremango, hura han dago. Bidelariak dute atzera ala aurrera egiten. Hara hor Diputazioaren erabakiak aurrera eremateko izendatuak diren gizonen garrantzia. Matxura gutxi eta abiada ona beharko luke euskeraren gurdi motzak.

ERAGOZPENAK

Jaio berriaren poza bizian arkituko dituen eragozpenekin lainatzea ez da oso atsegina. Baina ikusten ditugun oztopoei begiak istea ere ez da jatorra. Arantzaz be-

tetako oihanean gabiltz. Erabaki hau ateratzeko egunetan —haurgintzan— gertatua. Ikastola bat herrian, eta sei-zortzi eskola bestelakoak. Ispetore jauna agertu da eta:

—Ikastolaz zer?, galdetzen diote bere maisuek.

—Begiak itxi eta ez ikusi egin, dio berak. Ez balitz bezala. Bestela, haizatzera behartuak izango gera... Ez da legezkoa (aurreko urtean, hamabost egunen epean atariak isteko agindua zien horrek berak. Urte baten buruan ez ikustea hobe dela uste du).

—Eta haur haien ikaskintza-agiri eta garbitasunekin zer egin?

—Esan dutana, ikastolarik ez balitz bezala, erantzuten die. Menditik datozenak bezala dira guretzat. Beste edozein haurrei egiten zaizkien galde moduak egin eta kito. Ezin dugu ontzat eman haien ikastaroa.

Latzena eta negargarriena, jaun hau naparra eta euskal gurasoen bastarta dugula jakitea da.

Lehenago, duela lau-bost urte bakarrik, eskolan euskeraz hitz egin zuen haurrari konpasaren orratz muturrekin mihia hartu eta ahoa odoldu zion maisua ere ezagutu dugu, zoritxarrez, gure artean. Euskaldunen semea hau ere...

ERATSUN

Egun hauetan, berriz, gure agintarien jokabide jatorrari ostikoa sartzeko, Eratsungo maisu jaun baten berria. Etkez etxe idazkiren bat zabaltzeko asmo maltzurra izan omen du, gurasoak euren haurrei euskeraz ez mintzatzeko esaten. Eta euskera baizik ez dakien baserritarra ixildu dailela, TV haundiren bat erosten ahal dio maisu jaunak atertu gabe hari begira, ixilik egon dadien.

Eskoletako azpijana aski ez dela, etxe barnean sudurrak sartu nahi! Txikitxo uzten ditu honek orai artekoak! Gogoan neukana neretzat gorde eta Sánchez Carrión, Kordobako unibersitario argiak esana entzun beza: «Jende ikasi guziak euskeraren alde agertzen dira gaur Naparroan». Ikasiak, alegia. Noizko, gure maisu unibersitarioak? Bitartean, parregarri jarraitu nahi ez badu, euskera ikasi behar luke Eratsungo maisuak edo erdaldun herri batera alde egin.

Eta ikusia ikusi, Diputazioak beharko du lehenbailehen eskua sartu. Erabakiak zertarako, bestela?

1973, 84, otsaila, 1. or.

Euskal Izenak

GARIKOITZ

Euskal Herriak bere izen zaharrekin batera, santu berriak ere baditu. *Michel Garikoitz*, Pio hamabigarrenak 1947ko ekainaren seian aldareratua dugu hoietako bat. Baxenabartarra izatez, Ibarra jaio zen 1797an. Nekazaria izan zen lehenik eta gero apeztu. Jesusen Bihotzaren izenarekin ezagutua izango zen Betarrandarren fraile elkargoa sortu zuen. 1863garren urtean, Txina aldean ixuri zuen bere odola, bizia Jainkoaren izenean emanez.

Garikoitz, lehenago Xabier bezala, izendegian sartu beharra zen. Betiko oztopok legegizonen aldetik: *Michel* zeramala aurretik, eta hori zela izena, baina, erdal itzulpena baduenez, *Miguel* idatziko zutela. *Miguel* Garikoitz franko bagenuen beraz gure artean.

IRUÑEN

Iruña dugu Euskal Herriko hiriburutan gogorrena agertzen zaiguna. Iruñeko legegizonak nunbaiteko lo zorrotik ateratzea askotxo gostatzen da. Muxarrak bezala ttuttul motelduak genituen, euskal gauzetan lo. Bizkai aldean eta Gipuzkoan Garikoitz sartzten hasia zen, Naparroan ez. Bai zera!!

Uztailaren lauan, duela bi urte, San Fermin aurrean mundura etorritako haurtxo batek lortuko zuen beretzat, Iruñen, lehenbiziko aldiz izen hori. Gurutze-bide luze-txoaren istilua da. Hona urrats berexienak:

- 1) Ezezkoa hartu zuten lehenik.
- 2) Javier Garikoitz bezala sartu zuten legegizonek.
- 3) Lehen mailako Juzgadora ereman zuten gurasoek auzia.
- 4) Onartua izan da, aurrerago joan beharrik gabe. Aita-amen famili liburuxkan kendua da Javier izen aurrea eta azpian hauxe dio: *El nombre del inscrito es Garikoitz, anulándose el de Javier.*

Lehenbiziko aldia da gure artean, Iruñen alegia, hau gertatzen dena. Juzgadoak gehien parte Registroko lagunaren alde jotzen du eta askotan hor moztu laiken auzia Madrilera jaso behar izaten da. Zorionak, beraz, epaile jatorrari. Beste askoren hasiera izan dedila. Bitartean Garikoitz Garralda Gastesi haurtxoak badu gaurdanik bere kondairatxoa.

1973, 84, otsaila, 8. or.

Euskal Izenak

MAIDER

Maider izena hegoaldeko Euskal Herrian ez da oso entzuna. Iparraldean bai. Orain Lehunen bat urte izango zuen Maider bat bazen Arnegin. Gipuzkoan azkenaldi hontan sartzen dijoa, Bizkaian sei-zortzi agiri emanak ditu Euskaltzaindiak. Napparroan batere ez. Madrilerara jasoa da Iruñeko auzia.

Paper zaharretan badugu eta, hain zuzen ere, Nafarroako izena da. Artajonako idazkitan (1087-1103) *Donna Maier* esaten da. Nafarroako artxibo nagusian, berriz, *Mayer de Quoquerel* sei-zortzi aldiz gutxienez bai.

Elerti edo literatura aldetik *Kattalinen Gogoetak* izeneko liburuan dugu eta berdin *Joanak joan* delako eleberrian ere. Lehenbizikoa Narbaitz jaunarena da eta Jon Etxaiderena, bestea.

ITZULPENA

Eibargo Juan San Martinek duen *Sainduen Bizitzea* (1890), Joannategiren liburuak, *Madame Marider Carriquiri* dio azal barnean. Eskuz idatzirik dago eta jabearen izena izango zen, noski. Dirudienez, hortik dator *Mari Eder* esan nahi du.

Itzulpen honek ez du zerikusirik legegizonak eskatzen duten itzulpenarekin. Izen zaharra da, bai liburutan ala herriaren ahoan agertzen da eta bere nortasun badu.

AUZIA

Esan dugun bezala, auzia Madrilen dago. Iruñeko legegizonak ezezkoa eman ondorean jo da gora. Ustez inork aurretik ereman ez zuelakoan egin dira gauzak eta Madrilen debekatua izan dela jakin dugu gero. Alegia, beasaindarren batek bere buruz ibilia zuela bide bera eta ezezkoarekin itzuli.

Harrigarria da gure artean gertatzen ari dena. Edozeinek, dirudienez, jotzen du Auzitegi Nagusira. Eta Euskaltzaindiak ezer ez zekien, hortan sarturik gabiltzenok ere ez. Zer indarreko arrazoiekin jo dute, beraz? Aurrez ongi aztertu behar dira gauzak Madrilerara eramatekotan, eta ezezko arriskuan ez sartu. Behin ezezkoa izandakoa, oso zaila baida legegizonak atzera itzularaztea! Urko, Iker, Maitane, Eneko eta beste askoren auzia behar bezala eremana izan balitz ez genuen inoiz ezezkorik izango. Eta orain Maider ezeztatua! Arinkeriak kalte ikaragarriak egiten dizkigu. Ez da hobea guzia auzokoena. Negargarria guraso hauen jokabidea. Berek ezer ez lortu, eta atzetik datozeinei bidea moztu.

1973, 85, *epaila*, 8. or.

BARANDIARANDAR ON JOXE MIGEL.

OMENALDIA

Datorren ekainaren 12tik 21 arte, euskal jaialdiak eratuko dira On Joxe Migel Barandiaranen omenez Ataungo herrian. Jaialdi hoietan ume txoen eguna, bertsolariak, hitzaldiak, abeslariak eta dantzari-taldeak izango dira. Haurtxoen Egunean meza berezia eta Jai Nagusian, Gorputz Egunean, herri meza.

Gure On Joxemielek daki Naparroako aspaldikoez, beti bezala orain ere, berarekin gaudela.

NOR DUGU JOXEMIEL BARANDIARAN?

Joxemiel Ataun-San Gregorioko *Perunezarrre* etxean sortu zen, duela 83 urte. Apaiz, etnologo eta arkeologo dugu. Irakasle izana, oraindik 1963 urtez gero Etnologiako irakasle da Naparroako Unibertsitatean.

Euskal Herrian eta atzerrian jakintza-talde askotan kide izendatu dute.

Bere idazlanak 200dik gora dira, adibidez: *Euskal lehen gizona*, *Breve historia del hombre primitivo*, *El hombre prehistórico en el País Vasco*, *Mitología Vasca*, *Estelas funerarias*, *Diccionario de Mitología Vasca*, *El mundo en la mente popular vasca*.

Bere jaioterrian daukagu lan eta lan. Bere jakinduria ez da oztopo izan bere herrikoitasunarentzat. Berak dio: «Ni Euskalduna naiz eta nere Erriak bear nau».

1973, 87, maiatza, 6. or.

BARANDIARANDAR ON JOXE MIGEL OMENALDIA



ERANSKINAK

JOSE MARI SATRUSTEGIREN HIZKERAREN ZENBAIT EZAUGARRI

1. FONETIKA-FONOLOGIA KONTUAK

1.1. Bokalen bilakaera

e → **i** / **-a**: *airean* → *airian*, *batean* → *batian*, *Bordelea* → *Bordelia*, *esnearekin* → *esniarekin*, *fedea* → *fedia*, *geurea* → *geuria*, *gosea* → *gosia*, *hobea* → *hobia*, *ixilean* → *ixilian*, *kea* → *kia*, *pobrea* → *pobria*, *udazkenean* → *udazkenian*, *umeentzako* → *umientzako*, *Xalbadorrenea* → *Xalbadorrenia*, *zirenean* → *zirenian*, *zuzenean* → *zuzenian*...

o → **u** / **-a**: *ardoa* → *ardua*, *bertsoa* → *bertsua*, *gaixoa* → *gaixua*, *jokoa* → *jokua*, *kuestioa* → *kuestiua*, *maiatzekoa* → *maiatzekua*, *nongoa* → *nungua*, *ofizioa* → *ofiziua*, *telefonoa* → *telefonua*...

o → **u** / **-u**: *non* → *nun*, *nonbait* → *nunbait*, *inongo* → *inungo*...

u → **i** / **-a** (Luzaideko hizkeraren eraginez): *kutsua* → *kutsia*, *lekua* → *lekia*, *okupatuak* → *okupatiak*...

1.2. Kontsonanteak

Herskariak:

Hitz hasieran. Normalean ahostuna erabiltzen du: *galte*, *gate*, *geinu*, *gorputz*, *gosta*..., baina batzuetan ahoskabearen alde egiten du: *kiterra*, *kurutzea*, *pake*, *peko*, *tanborra*, *tanporrero*, *torre*...

Ozen ondoan. Zenbaitetan Luzaideko euskararen eraginez, ahostuna hobesten du: *frango*, *kondatu*, *pundu*, *senditu*..., behin edo beste nafarreraren eragina dago tartean: *sandu*. Inoiz ahostuna nahiz ahoskabea aurkitzen dugu: *elgar* / *elkar* – *alkar*.

2. MORFOLOGIA

2.1. Deklinabidea

Arlo honetan ondoko hauek dira nabarmentzekoak:

- Absolutiboan, *-a* organikoa kentzeko joera nabaria da: «Hori eta *gauz* asko ekartzen dizkigu gogora» (Gitarra dela eta..., 17. or.); «Zapeta berriak jantzita, eguneroko arropan *galtzik* gabe» (Herritako txabolak, 19. or.); «*Neskatx* guziak banaka hartu eta besarkatu zituen» (Olite: Erriberriko gaztelua, 33. or.); «Edozeinek ikusten ahal du *eskol* bakar batzuk han-hemenka sortuz»... (Euskera eskoletara, 26. or.); «Gure aurrekoengandik hartutako *gauz* onak, aurrera atera» (Lakuntza, 65. or.); «Herriaren *heriotz* latza» (Ubaldo Hualde hil da, 63. or.) «*Gaztel* aldera jo zuen orainkoan» (Naparroako erregegaia, 85. or.); «Enrique Zubiri, eskual idazle eta *artist* ospetsuaren omenaldia» (Bideo arranoak, 91. or.); «Hil *ezkil* guzien ondotik Erronkariko eskuara ez da erabat hila» (Erronkariko uskara, 92. or.); «Euskal Herriko Ama *Birjin* baten izena» (Mari, 177. or.).
- Azkeneko urteak arte ez zen hasi ergatibo pluralaren *-ek* forma erabiltzen eta hasi ondotik ere gutxitan aurkitzen dugu. Hortaz, gisa honetakoak dira esaldi arruntak: «Auzo bakoitzeko *mutikoak* bazuten beren egun berezia» (Inauteak Naparroan, 46. or.); «*Altsasuarrak* Santa Isabel esaten diote» (Lukasen laguna, 50. or.); «Ixilkako gauza bezala gorde zuten *legegizonak*» (Iñigo, 185. or.); «*Denborak* ekarri duten aldaketa hau» ... «Urrats batzuk eman dituzte *gazteak*» (Bertsolarien deia, 208. or.).
- Pluraleko datiboan batuan hobetsi ez den *-r-* bat tartekatzen du: «Joaten ez ziren *guzieri*» (Lakuntza, 65. or.); «*Aintzinakoeri* ohore egiten diegu» (Bideo arranoak, 91. or.); «Jende asko *ezkileri* begira» (Ezkil jotzaleak, 113. or.); «Euskeraz haur *txikiari* entzutea» (Euskeraren mugak, 145. or.). Horretaz gain, zenbaitetan *-er* Luzaideko ezaugarria erabiltzen du *-ei* hondarkiaren orde: «Gaur, ez dira legez egiten ahal. Haurrak han-hemenka, baietz erranen dute, eder zaiela *mutikoer* gonak jaztea, eta *neskatoer* gizonen arropak» (Inauteak Naparroan, 46. or.).
- Burundako euskararen ezaugarri den adlatiboaren *-raindo* aldaera ere ageri da bizpahiru aldiz: «*Gauerdiraindo* berriz lanera» (Lukasen ogibidea, 38. or.); «*Oraindo* ez duela denbora asko, horren ganean jan nuen nik naskia» (Milakotxu, 22. or.).
- Ablatiboko *-(e)tik* atzizkia behin edo beste *-an-*ekin ageri da: «Saio luze eta sakonak, alde batetik eta bestetik iritzi desberdinak» (Batasuna, 115. or.); «Geroztikan honutza ez da berriz jarri» (Otxobi tanporrero, 128. or.). Bizidunetan *-gandik* baldin bada ere gehienetan erabiltzen duen atzizkia, batzuetan *-ganik* formaren alde egiten du: «Ez litzake ama onaren egitekoa seme bat *bestenganik* berextea» (Mendiz, 28. or.); «*Amarenganik* jaiotako guziak bezala baditu bere hutsak eta Xalbador ez da bere buruaz fidatzen» (Ezin bertzean, 141. or.).
- Pluraleko genitiboan eta beste kasu batzuetan ere ia beti *e + e = e* egiten du: «*Jenden* errana» (Ezin bertzean, 141. or.); «Urteko hilabeterik *luzenak*» (Udazkena, 144. or.); «Baina *luzegi* izango litzake» (Zuria, 218. or.).
- Destinatioa: *-(re)t(z)ako*, *-(r)endako* dira gehien erabiltzen dituen formak: *beretako*, *denendako*, artzai *euskaldunendako*, *ezkilendako* lekua, *guretako*,

harendako, Lukasendako, neretako, umientzako eskola... Zenbaitetan *-rako* ere ageri da, erraterako: «Hemendik aurrera badu gizonak bide berri bat: *ilargirako* bidea» (Ilargiko bidea, 120. or.).

- Bestalde, *zertako* forma laburra hobesten du beti *zertarako* osoaren orde. Adibidez, «*Zertako* ostikoka elkar zauritu!» (Udazkena, 144. or.); «Beste batasun bat *zertako!*» (Gipuzkera edo euskera batua?, 153. or.).
- Sozietiboan zenbait aldiz *-akin* erabiltzen du: «Erromatarren *sinesteakin*» (Maiatza, 20. or.); «Bere alde ibili nahi duenak badu bere *buruakin* nahiko lan» (Urdiain. Gaztetxoeren txokoa, 187. or.); «Neure *buruakin* parrez egona naiz lehengo batez» (Kale izenak, 220. or.). Behin edo beste, ordea, *-aikin* nahiago du: «Betiko Herodes maltzurak *gezurraikin* Jainko bila» (Gaua da, 116. or.).
- Mugagabearen eta pluralaren formak nahasten ditu anitzetan: «*Edozein mendietan*» ... «*Nafarroako herritan*» (Artzai euskualduna, 29. or.); «*Naparroko mobimendu berritan*» (Elkartzearen indarra, 57. or.); «*Joaten ez ziren guztieri*» (Lakuntza, 65. or.).
- Erakusleak deklinatzean ahozko forma murriztuak erabiltzen ditu gehienetan (lehendabiziko urteetako artikuluetan batik bat): *harek, hoiek; haieri; hontan, hortan, hartan, hoietan; hontako, hortako, hortakoak; hontara, hortara; harenganik, hortatik, hoietatik; hoiien; hontaz, hortaz; zertako; hortako.*

2.2. Aditza

Ikusten ahal den bezala, egileak artikulua hauek idatzi zituen garaian aditz forma herrikoiak erabiltzen zituen, bere sorterrian eta bizi izan zen herrietan entzun bezala jasoak. Beraz, aditz formei dagokienez, ez da inolako bilakaerarik nabaritzen. Erabiltzen dituen formak ondoko paradigma hauetan sartzen saiatu gara.

a) Aditz laguntzaileak

Nor

- Oraina: *gera, gira* (gara), *zerate* (zarete).
- Iragana: *nintzan* (nintzen), *zinan* (zinen), *zan* (zen), *zinatean* (zineten), *ziran* (ziren).

Nor-Nori

- Oraina: *dakit* (zait), *dazkit* (zaizkit), *dakio* (zaio), *dazkio* (zaizkio), *dakigu* (zaigu), *dazkigu, zazkigu* (zaizkigu), *zaiote* (zaie).
- Iragana: *zakion* (zitzaion), *zaizkion* (zitzaizkion), *nitzaio, nitzako* (natzaio).

Nor-Nork

- Oraina: *duzute* (duzue), *ditue* (dituzte).
- Iragana: *zinuen* (zenuen), *ginuen, genduen* (genuen), *bazinuzten* (bazenituzten).

Nor-Nori-Nork

- Oraina: *dako* (dio), *diotegu* (diegu).
- Iragana: *zakon* (zion), *zakoten* (zioten), *zaukun* (zigun), *zaben* (zien).

Ahala

Nor

- Oraina: *daike* (daiteke), *gaizke* (gaitezke), *daiizke*, *ditaiizke* (daitezke).
- Alegiazkoa: *laike* (liteke), *balitaike* (baliteke), *laiizke* (litezke).
- Iragana: *zaiken* (zitekeen).

Nor-Nork

- Oraina: *dezakezute* (dezakezue).
- Alegiazkoa: *ginezake* (genezake), *ginezazke* (genitzake), *nezazke* (nitzake).
- Iragana: *zezazken* (zitzakeen), *etzaketan* (ez zezaketan).

Nor-Nori-Nork

- Oraina: *dezaioke* (diezaioke), *dezaiguke* (diezaguke).

Baldintza

Nor

- Alegiazkoa: *litzake* (litzateke), *elitaike* (ez litzateke), *gintaiizke* (ginateke), *lirake* (lirateke).

Nor-Nori

- Alegiazkoa: *litzaiozke* (litzaizkioke).

Nor-Nork

- Alegiazkoa: *zinuke* (zenuke), *genduke*, *ginuke* (genuke), *ginezake* (genuke), *ginezazke* (genituzke), *ginuzke* (genituzke).
- Iragana: *ginuken* (genukeen), *luzkete* (lituzkete).

Nor-Nori-Nork

- Alegiazkoa: *nezaieke* (nieke).

Subjuntiboa

Nor

- Oraina: *dedin* (dadin), *dadiela*, *dailela*, *dedillela* (dadila), *dadien* (daitezen), *ditezela* (daitezela).

Nor-Nork

- Oraina: *ez zala* (ez dezala), *dezazutela* (dezazuela).

Nor-Nori-Nork

- Oraina: *dezaiola* (diezaiola).

b) Aditz trinkoak

Egon

- Iragana: *ginauden* (geunden).

Etorri

- Iragana: *zetortzen*, *zetozten* (zetozen).

Ibili

- Oraina: *gabiltz*, *gabiltzate* (gabiltza), *dabiltz* (dabiltza).
- Iragana: *ginabiltzan* (genbiltzan), *zabiltzan*, *zebiltzen*, *zabiltzen* (zebiltzan).

Joan

- Oraina: *doatzi* (doaz).
- Iragana: *dijoa* (doa), *dijoaz* (doaz).

Eduki

- Iragana: *ginaukan* (geneukan), *ginauzkan* (geneuzkan).

Ekarri

- Oraina: *dakarzki* (dakartza).

Eraman

- Oraina: *deramagu* (daramagu), *daramazki* (daramatza).

Jakin

- Oraina: *dazkigu* (dakizkigu), *dazkite* (dakizkite).
- Iragana: *nakien* (nekien), *zakien* (zekien), *ginakien* (genekien), *zakiten* (zekiten).

2.3. Ertorriak

–*kan* atzizkia –*ka*-ren ordez: «Sukaldean *zintzilikan* egutegi mardul zenaren larua» (Egutegia, 68. or.); «Gerra eta zikinkerri, beti *burrukan* otsoak bezala» (Ilargiko bidea, 120. or.); «Beti *aizkan* eta elur pilotaka» (Urdiain, 125. or.); «*Igarikan* zebiltzan haurrak ez itotzeko otoitz egiten zioten» (Nora, 229. or.).

–*keria* atzizkia eta –*keri* aldaki laburtua erabiltzen ditu (ikus deklinabidean –*a* organikoari dagokion atala). Azken hau gehienetan: «Zer diru eta zer *zikinkerri!*» (Zo-

rigaiztoko *h* bat, 18. or.); «Gerra eta *zikinker*, beti burrukan otsoak bezala» (Ilargiko bidea, 120. or.). Bereziki atzetik mugatzaileran bat daramanean, dela erakusle, zenbaki, erakusle edo adjektiboren bat: «*Txabolaker* hoiekin zer egin orai?» (Herritako txabolak, 19. or.); «*Astaker* bat esan zuelakoan lotsaturik atera zen gizajoa» (Gurea delako, 150. or.); «*Utziker* haundian egon izan dira» (Aralarko baseliza, 189. or.).

–*keta* atzizkia –*tza*-ren orde: «Nafarroko ibarretatik *jendeketaz* eta hedaduraz haundiena da eta Aiundamentuetan hedaduraz bigarrena eta *jendeketaz* hirugarrena» (Baztango Ballea, 47. or.).

–*kintza* atzizkia –*kuntza*-ren orde, *ikasi* eta *irakatsi* aditzei dagokienean: «*Ikaskintzako* psikologia, berak sortutako bidea omen da» (Begi zorrotza, 110. or.); «Ni ere herrizale naiz euskera *ikaskintzan* eta herritik ditut joskera jatorrenak hartu» (Herria alkate, 163. or.); «*Txuri* dio Euskal *Ikaskintzako* Lehen Batzarrera Oñatin agertutako paper batek» (Zuria, 218. or.); «Naparroako *Boletín Oficial* delakoan lehen orrialdearen beteko erabakia, euskeraren *irakaskintza* eta zabalkunde gure Diputazioak bere gain hartuaz» (Naparroaren ordua, 233. or.).

–*tsu* atzizkia –*txu* forma mespretxuzkoan emateko joera: «Bazkari aurrean *sasi-jakintxu* beti izaten dira hoietako bat gertatu zitzaigun ondoan» (Besteak bezala, 133. or.); «Ez al dira konturatzen andereñoak, beren asmo *berritxu* guziak baino zaharrago dela mundua!» (Aingeru txuriak, 146. or.); «Folklorekeria gure arteko *jakintxu* askorentzat eta gau erdiko ahuntzaren ez-tula sozial gaien jabe agertzen zaizkigun beste batzuen uste haunditan» (*Requiem* antzua?, 197. or.).

–*tzale* erabiltzen du ia beti (segur aski Luzaideko eraginez) batuko –*tzaile* atzizkiaren orde: «Euskalduna, berez, hasarre *bilatzalea* da, eztabaida maite du eta elkar larrutzea ere bai» (Gitarra dela eta..., 17. or.); «Bera zen orduan gure bihotz txikien *astinzale*» (Gizon haundi bat, 25. or.); «Jakindurizko argi *dirdiratzale* haundia» (Laire, 48. or.); «Zahar eta gazte, hamabi ezkil *jotzale* inguratu zaizkie ... Arbazuko ezkil *jotzaleen* esku ona» (Ezkilak, 64. or.); «1919garren urte hartan bertan sortu ziren Euskaltzaindiko lehenbiziko *laguntzaleak*» (Euskaltzaindia, III. Txerto berriak, 106. or.); «Duela zombait denbora Iruñeko *saltzale* bati entzun genion» (Eta Iruñen zer?, 88. or.); «Berak jakin gabe, maisuaren *goratzale* gertatu da» (Manezaundiren omenaldia, 76. or.); «Badakit euskaldunak ez gerala oso *leitzale* ... hasi al zera euskaraz leitzen?» (Urteberri!, 1968); «*Laguntzale* onak izan ditu egileak» (Erronkariko uskara, 92. or.); «Gaurko euskal gaztedi mito *kentzalea* batua da» (Udazkena, 144. or.); «Gurasoak bakarrik dira haurren hezieraren *aukeratzale*» (Aingeru txuriak, 146. or.); «Amets zoroen atzetik *ibiltzale*» (Oihanzaleak, 124. or.); «Eta gotzaia artxibo *zaintzaletzat* hartu al duzue?» (Aitziber, 230. or.); «Lege zahar *menperatzale* hoiengandatu beharra ikusten da» (Eta euskal izenak zer?, 211. or.); «Mutillako Zadar (oraiko Sadar) lekuan, mahasti bat saldu zen 1318an eta *saltzaleari* Zuria de Saiguos zerazkion» (Zuria, 218. or.).

Kasuren batean besterik ez dugu aurkitu –*tzaile* forma: «Otsagabiako *begiratzale* eta zaindaria Muskildako Ama Birjina da» (Zaraitzuko Ibarra, 24. or.); «Bere nortasuna *berritzailerik* ez zaio etorriko» (Altsasu, 52. or.); «Ekarri zuen *laguntzale* etxera bialdu eta...» (Aleluia...!, 129. or.).

–*zain* atzizkiaren –*zai* aldakia erabiltzen du ia beti: «Ez zuten kristau guziak Erromako Aita Sandua onartzen. Ez apez eta *gotzai* guziak ere» (Aleluia...!, 129. or.);

«Euskeraz *artzai* bakoitzak badu bere izen berexia: *artzai*, *behizai*, *txerzai* eta beste» (Unai, 195. or.); «Orreagatik hurbil, *artzain* batzuk beren artaldean zain egoten ziran» (Orriagako Ama Birjinaren ele zaharra, 27. or.).

3. JOSKERA

3.1. Juntadura

Aurkaritzan *baina* batuko formaren ordean *baino* erabiltzen du gehienetan, lehendabiziko urteetan batik bat: «*Baino* bada gehiago ere» (Oilarrak kurrukuku..., 40. or.); «*Baino* ixiltzen diren egunean, zer hutsa herrian!» (Ezkilak, 64. or.); «Gehienen iritzia *baino* ez denena» (Gurea delako, 150. or.). Azkeneko urteetan Baigorri inguruko *bainan* formari ematen dio lehentasuna: «Ez da ezerengatik, *bainan* gaurko egunean nik dakidan herri batean gertatzen ari dena datorkit burura» (Herria alkate, 163. or.); «Eskua zabaltzen hasiak ziren batzuk ... *bainan* azken bolara honetan berriz trabak badirela entzuna dut» (Mari, 177. or.).

3.2. Menderakuntza

Batuan *-en* den atzizkia edo menderagailua *-n* ematen du gehienetan, besteak beste, honako kasu hauetan:

- Erlatiboetan: «Kanpoan *dagona*, berriz, etxera begira» (Su bazterrean, 39. or.); «Otea eta ainarra besterik ez zen tokitan *dagon* aberastasuna!» (Andres Narbarte «Xalto» zena, 181. or.).
- Moduzkoetan: «Bataioko agiriak *dionez* gaixo zegon» (*Zigor* opera eskualduna, 71. or.); «Bego *dagon* eran» (Kale izenak, 220. or.).
- Zehargalderetan: «Ikusten duk zer *dion* horrek» ... «Horrek garbi esaten dik hemen zer *dagon*» (Beleak kua, kuaa!, 44. or.).
- Konpletiboetan: «Ez dut esan nahi iritzirik gabe *nagonik* gai hontan» (Bata-sunaren alorrean, 148. or.).

Batuan *-ela* den atzizkia edo menderagailua *-la* ematen du honako hauetan:

- Harridurazkoetan: «Iruñekoa bai ongi egina *zegola*!» (Zer gertatzen da eskualdunon artean?, 59. or.).
- Konpletiboetan: «Diru aldetik *dagola* koxka (diote)» (Besteak bezala, 133. or.).

Kausazko perpausetan *-lakotz* aldaera erabiltzen du maiz: *dituelakotz*, *dugulakotz*, *dutelakotz*, *egitekotz*, *lituelakotz*, *ginuelakotz*, *zigutelakotz*. Adizlagunetan ere *-tz* bukaera hori bera ageri da batzuetan: *azkenekotz*, *gaurkotz*, *ordukotz*.

Zenbait aldiz *nola* eta *bezala* erabiltzen ditu batuan *nolako* eta *bezalako* erabiliko genituzkeen testuinguruetan: «Bere gazten denborako lanbideak *nola* ziren adituta irri-karkail gutxi egiten dute» (Lukasen ogibidea, 38. or.); «Bere izatez *nola* zen Zubiri?» (Enrike Zubiri, 61. or.); «Izan ere, *hala* da Barranka, gure menditako erribera txikia» (Ezkil jotzaleak, 113. or.); «Ez dakit txorakeria izango den, herriak jende-

ak *bezala* direla esatea» (Lekunberri, 79. or.); «Ez dakiene ikusten ez duena *bezala* da» (Sueziatik etorria, 78. or.); «Nungua zen jakin nahi nuke, hura *bezala* ez izateko» (Besteak *bezala*, 133. or.); «Lukas Zufiaurre ... udaberriko txori bat *bezala* da» (Lukas hil da, 131. or.); «*Hala* dira lakuntzarrak, ardo zahar kementsua zagi berritan sartzen dakitenak» (Lakuntzako pertza, 167. or.).

Luzaideko euskararen eraginez, aditz izenekin osagarri zuzena genitiboan jarzen du maiz samar: «Berri *txarren* jakiteko bada denbora» (Ubaldo Huarde hil da, 63. or.); «Lan luzea izango da *denen* aztertzeke lana» (Batasuna, 115. or.); «*Itsuen* argitzeke jarriak» (Euskera eskoletara, 119. or.); «Ongi etorrik jaun jakintsuak gure *begien* idekitzera» (Sueziatik etorria, 78. or.); «Eta Artzaiak *batzun* eta *besten* sosegatzen nahiko lan bazuen» (Aleluia...!, 129. or.); «Gero hasiko zaizkie *ezpainen* gorritzen» (Artzai txakurra, 139. or.); «Ni *festaren* ikustera joana nintzen» (Huarte Arakil, 137. or.); «Hori *ametsen* betetzeke besterik ez da» (Aitor, 180. or.); «Behar-*tuak* gera lan *ixilaren* aipatzera» (Sua eta biak, 184. or.); «Zenbat aldaketa behar izaten den gero eskubide *baten* lortzeke!» (Nerea, 210. or.).

4. ONOMASTIKA

Testuen transkribaketarako irizpideen azalpenean aipatu dugun bezala, onomastikan egileak erabilitako aldakiak errespetatu ditugu. Kontuan izatekoa da artikulua hauek 1966 eta 1973 bitartean idatziak direla eta Euskaltzaindiak *Euskal Herriko Udalen Izendegia* ez zuela 1979 arte argitaratu. J. M. Satrustegik berak bultzatuta Euskaltzaindiak argitarara eman zituen pertsonen *Euskal Izendegia* liburuxken lehendabiziko argitalpena 1972an izan zen. Hortaz, artikulua hauetan ageri diren leku eta pertsona izenen formek eta aldakiek argi aski adierazten dute ezer arauturik ez zen garai hartan, edozein euskal idazlek bezalaxe, Satrustegik berak –onomastikazale amorratua izan arren–, zituen zailtasun eta zalantzak euskal onomastika behar bezala idazteko. Ildo horretatik, erraz ulertzen ahal da arruazuarraren euskal izenak aztertu eta arautzearen aldeko interesa eta eragina Akademiaren barruan. Aipatu ditugun zalantzen eta arautze beharraren lekuko dira ondoko hiru atal hauetan sailkatuak ematen ditugun zenbait adibide:

4.1. *Nafarroa* eta *Euskal Herria* izenak

Naparro(a) / *Nafarro(a)*. Testuetan ikusten ahal da egileak lehenbiziko urtetik azkenekoraino bi formak erabiltzen dituela. Lekuko eta maiztasunaren arabera, argi ageri da lehenbizikoetan *Naparroa* gehiagotan hautatzen duela eta azkenekoetan *Nafarroa*. Hala ere, biak erabiltzen ditu eta, zenbaitetan, bi formak artikulua berean. Adibidez, «Lanik asko eman du Unai izenak joan deneko urte hontan *Nafarroan* ... *Naparro*tik kanpora goraka joan zaigu Unai izena» (Unai, 195. or.); «Bizkaian sei-zortzi agiri emanak ditu Euskaltzaindiak. *Naparroan* bat ere ez ... eta hain zuzen ere *Nafarroako* izena da» (Maidier, 236. or.).

Naparro ala *Naparroa*? Absolutiboan biak erabiltzen ditu. Gainerako kasuetan maiztasun gehiago ematen dio lehenbizikoari, hots, ia beti *Naparroko* eta gutxi ba-

tzuetan *Naparroako*. Behin *Naparrotik* eta *Naparrora* eta inoiz ez **Naparroatik* eta **Naparroara*.

Nafarro ala **Nafarroa**? Absolutiboan *Nafarroa*, behin izan ezik, eta gainerako kasu gehienetan ere bai. Salbuespen gisa, behin bakarrik aurkitu ditugu *Naparrora* eta *Naparrorako*. *Nafarroko* forma, ordea, *Nafarroako* baino gehiagotan erabiltzen du. *Nafarroa* Garaia dagokionez, *Nafarrogaina* eta *Goi Nafarroko* aldakiak ageri dira aldiren batean eta *Nafarroa* Behereaz ari denean *Baxenabarreko*, *Baxenabarren*, *Beko Naparrokoekin* eta *Beko Nafarroko*.

Herritarrak izendatzeko, *napar* da erabiltzen duen aldaerarik arruntena, *napartar* behin edo beste, *nafar* eta *nafartar* gutxi batzuetan. *Nafarroa* Beherekoak izendatzeko, berriz, *baxenabartar* eta *manexa*.

Eskual Herria eta **Euskal Herria**. Lehendabiziko urteetan batik bat (1966 eta 1969 bitartean), *Eskual* hitza duen formari ematen dio lehentasuna, segur aski Luzaideko eraginez. *Euskal* forma duena ere ikus daiteke urte horietan, baina 1970etik aitzina hasten da modu arruntan erabiltzen. Grafiari dagokionez, era askotara ageri da: *Eskualerri*, *Eskualerria*, *Eskual-Erria*, *Eskual-herria*, *Euskalerri*, *Euskalerrria*, *Euskal Erria*, *Euskal-herria* eta *Euskal Herria*. Beste zenbait kasutan bezala, bateratasuna dela eta, berak izandako bilakaera kontuan izanik izenaren lehenabiziko hitza errespetatuz, bi hauetara egokitu ditugu aldaera guztiak: *Eskual Herria* eta *Euskal Herria* formetara.

4.2. Erabiltzen dituen zenbait toponimo nagusi

- Aezkoa*: *Aezkoa* (198), *Aezkoatik* (206), *Aiezkoa* (72).
- Agoitz*: *Aoitz* (197), *Aoitzdik* (175).
- Arrasate / Mondragón*: *Mondragón* (217), *Mondragoi* (164), *Arrasate* (217, 218).
- Arruazu*: *Arbazu* (114, 123), *Arbazuko* (64, 113, 114, 123), *Arbazun* (123, 128), *Arruazu* (114, 123).
- Artaxoa*: *Artajonako* (236), *Artaxonan* (218).
- Donostia*: *Donosti* (59, 154), *Donostia* (106, 153), *Donostiak* (141), *Donostian* (17, 26, 59, 145, 151), *Donostiara* (181), *Donostiatik* (174), *Donostiko* (59, 101, 144, 151), *Donostira* (62, 225).
- Errusia*: *Errusia* (120), *Errusiako* (135), *Rusia* (33), *Rusiako* (26).
- Espainia*: *Espainia* (59, 130), *Espainiako* (26, 32, 108, 129, 130, 133, 172, 178, 211), *Espainian* (41, 108), *Espainiako* (61), *Espaniako* (28).
- Ezkaroze*: *Eskarotzen* (24), *Ezkaroze* (24).
- Frantzia*: *Frantzi* (28, 127), *Frantzia* (86, 230), *Frantziako* (21, 24, 178, 204), *Frantzian* (41), *Frantziatik* (49, 204), *Frantziko* (85, 124), *Frantzira* (41, 52, 76, 85, 93, 124).

- Gasteiz:* *Gazteiz* (145), *Gazteizko* (154), *Vitoria* (122, 149).
- Ibiltzieta:* *Ubelzieta* (24).
- Ihabar:* *Iyabarko* (113), *Iyabarreko* (64), *Iyabarren* (64, 114).
- Iruñea:* *Iruña* (88, 106, 108, 112, 124, 149, 188, 216, 217, 220, 221, 225, 235), *Iruñara* (178, 218), *Iruñarako* (129), *Iruñen* (15, 26, 31, 55, 59, 60, 62, 71, 83, 88, 91, 93, 95, 108, 113, 114, 171, 175, 185, 192, 195, 197, 207, 218, 221, 229, 232, 235), *Iruñean* (55), *Iruñeko* (23, 27, 47, 54, 59, 60, 61, 71, 88, 129, 148, 156, 157, 171, 174, 180, 184, 185, 192, 195, 196, 206, 210, 220, 222, 223, 226, 228, 235, 236), *Iruñera* (178, 192), *Iruñerako* (178, 216), *Iruñetik* (21, 28, 145, 165, 187, 195, 210, 223).
- Irurtzun:* *Irurtzundik* (56), *Irurzundik* (57, 142).
- Izaba:* *Isaba* (149), *Isaban* (63, 221), *Izabako* (63).
- Lantz:* *Lantzen* (152), *Lanz* (47).
- Leitza:* *Leitze* (87), *Leiza* (157).
- Olatzagutia:* *Olazagutia* (145), *Olazagutian* (144), *Olazti* (145), *Olaztiko* (145), *Olaztin* (125, 144, 145).
- Orreaga:* *Orreaga* (158, 217), *Orreagako* (27), *Orreagatik* (27, 216), *Orriaga* (27, 48, 217), *Orriagako* (27), *Orriagara* (27, 197).
- Otsagabia:* *Otsagabia* (24), *Otsagabiako* (24), *Otsagabiko* (24), *Otsagabin* (24), *Otsagi* (73, 149), *Otsagin* (72), *Otxagabia* (73), *Otxagabin* (72).
- Uztarroze:* *Uztarrotze* (217), *Uztarrozeko* (63).
- Zangoza:* *Sangüesa* (149), *Zangotza* (205), *Zangotzako* (229).
- Zaraitzu:* *Saraitzu* (72), *Saraitzuko* (229), *Zaraitzu* (24, 74), *Zaraitzuko* (24).
- Zuberoa:* *Zuberoko* (24).

4.3. Hainbat ponte izen

- Amaia:* *Amaia* (174, 199, 232), *Amaya* (174).
- Antzina:* *Aintzina* (149, 192).
- Eneritz:* *Eneritz* (223), *Eneriz* (223).
- Idoibaltzaga:* *Idoibalzaga* (149).
- Itziar:* *Iziar* (149).
- Usoa / Uxue:* *Ujué* (147, 149, 207), *Usoa* (207), *Usua* (149, 199, 207), *Usue* (149, 207), *Uxoa* (207), *Uxua* (207), *Uxue* (207).

ZENBAIT ESAPIDE

- *Berritzen ez denarendako heriotza dago* (Gitarra dela eta, 17. or.).
- *Aberastu nahi ez duenak pobre izateko bidea merke du* (Zorigaiztoko h bat, 18. or.).
- *Aterako da ahal dugularik; ahalko dugu nahi duzularik* (Gizon haundi bat, 25. or.).
- *Erein gabe ez dago ezer biltzerik* (Euskera eskoletara, 26. or.).
- *Nire etxea pobrea, erregearena baino hobea* (Artzai euskalduna, 29. or.); *Nere etxe pobria, erregearena baino hobia* (Etxe izenak, 224. or.).
- *Urzorik hiltzen ez duenak gezurrez ditu zakuak betetzen eta biramuneko ere uzten* (Luzaide, 41. or.).
- *Kukua etorri gosea etorri, kukua jun gosea jun* (Lukasen laguna, 50. or.).
- *Sortzearen erdiminak berekin ditu berritzeak* (Altsasu, 52. or.).
- *Agotik hortzera ez dira elkarrez fiutzen* (Elkartzearen indarra, 57. or.).
- *Gizon haundien gauza txikiak jakingarri izaten dira* (Enrike Zubiri, 61. or.).
- *Ezkilak entzun eta ez jakin nun* (Ezkilak, 64. or.).
- *Behin galtzen duenak daki ongi osasunaren berri* (Ezkilak, 64. or.).
- *Ama elbarriena ere ez du seme batek inola baztartzten* (Manezaundiren omenaldia, 76. or.).
- *Uztan ditu ereileak begiak* (Urteberri!!!, 77. or.).
- *Ez dakiena ikusten ez duena bezala(koa) da* (Sueziatik etorria, 78. or.).
- *Artzaiak hasarratu eta gaztaiak agertu* (Lekunberrin... zer berri?, 80. or.).
- *Ez da aberatsa eskutan dirua darabilena, berea duena baizik* (Lekunberrin... zer berri?, 80. or.).
- *Norbaitek izan dezaken kalterik haundiena etsairik ez izatea da* (Lekunberrin.. zer berri, 80. or.).
- *Burutik hasten omen da usteltzen arraia* (Lekunberrin... zer berri?, 80. or.).
- *Bada lurra irauli eta prestatu baino lehen hazi erein nahi izaten duena* (Naparroko berriak, 87. or.).
- *Berek ezer egiteko gauza ez direnak ateratzen zituzten garraxi haundienak* (Naparroko berriak, 87. or.).

- *Goserik ez duenari jatekoa ematea, mando hilari zaldaria botatzea bezala da* (Naparroko berriak, 87. or.).
- *Burutik galtzen omen da arraia, eta Iruñetik galdu da Naparroko eskuara* (Eta Iruñen zer?, 88. or.).
- *Anitz dakienak gehiago jakin nahi du, guk dakigun pixka ez dezagun galdu* (Bideko arranoak, 91. or.).
- *Nortasunaren su zaharra, hauts azpian bada ere, hantxe dago bizirik* (Bideko arranoak, 91. or.).
- *Feri guzietan badira astokilo ostikalariak eta Euskal Herrian euskal gauzen etsaiak* (Etxarri Aranaz, 97. or.).
- *Ez da gauerdiko ahuntzaren eztula* (Euskaltzaindia, II. Jaiotza, 101. or.).
- *Bizi aberats baten neurria ez da harriak (hilarriak) ematen duena* (Huarte de San Juan, 108. or.).
- *Ikusi ondoan urrixia* (Begi zorrotza, 110. or.).
- *Bereak eta asto beltxarenak entzun ditu oraikoan Arbazuko herriak* (Arruazu, 114. or.).
- *Otsoak ez omen du bere haragia jaten; guk nahiko hozka egiten diogu geuron buruari* (Euskera eskoletara, 119. or.).
- *Nik, berriz, inungo jainko-txikitan sineste gutxi* (Arruazu, 123. or.).
- *Ez ginen hobeak, onak ginela esaten zigutelakotz. Ez eta orai gaistoago, ago gaiztotan gabiltzatelako* (Arruazu, 123. or.).
- *Ongi agintzen jakiteko obeditzen ongi jakin behar izaten da aurretik* (Urdian, 125. or.).
- *Udan garia bildu nahi duenak, neguan erein beharko du.* (Urdian, 125. or.).
- *Gizon ez ikasia bezain ausartarik ez omen da munduan* (Euskera zertako?, 130. or.).
- *Negu ona daramat, baño hosto berriari ojo!!* (Lukas hil da, 131. or.).
- *Sagarrak ez du barneko harra hoberena* (Besteak bezala, 133. or.).
- *Sagu urtean katakume kontua heldu zaigu gogora* (Besteak bezala, 133. or.).
- *Herri guztiak badaki ez dela bere baratzeke aza* (Herritako festak, 136. or.).
- *Bere iturrian behar zituen ur zikinak zuritu* (Ezin bertzean..., 141. or.).
- *Elkar hobeki ezagutzetik etorriko da eskuararen batasuna* (Ezin bertzean, 141. or.).
- *Ehiztariak usotan dituzte hankak eta begiak* (Udazkena, 144. or.).
- *Nolanahi dela, gurekin ala gu gabe, batasunarena da etorkizuna* (Batasunaren alorrean, 148. or.).

- *Teila eskaseko teilatua, dena itaxura* (Batasunaren alorrean, 148. or.).
- *Besterik da Donostia aldean geroztik egosi den lixiba* (Gipuzkera edo euskera batua?, 153. or.).
- *Nekazariak ez du bere hazia lurpean uzteko ereiten* (Atzera begira, 157. or.).
- *Elkartuz zerbait izango gera, banatuz ezer ez* (Beste udaberria, 159. or.).
- *Batasuna ez da amua bota eta zer arrai –edo arraio– aterako den begira dagoenaren jokua* (Herria alkate, 163. or.).
- *Bi aldiz hiltzen omen dira gizon ospetsuak; gorputzari lur ematean eta beren izena gizonen ahotan ixiltzean –Arrue jaunaren hitzetan–* (Bordel bertsularia, 165. or.).
- *Denbora txarrari aurpegi ona* (Bordel bertsularia, 165. or.).
- *Gu gera, ordea, betiko ardi berantak!!* (Erregeak, 172. or.).
- *Gosearen ametsa luzea da, eta bazen amets Nafarroan* (Ez adiorik!, 178. or.).
- *Gizona ez da ogiz bakarrik bizi eta Nafarroak badu lurra eta diruz landa bere ari-ma* (Ez adiorik, 178. or.).
- *Hanketakoak estutzen duten lekuan hartzen du bakoitzak mina* (Edurne, 188. or.).
- *Udaberri mukizu! Ez nauk gaizki izurratu!* (Aralarko baseliza, 189. or.).
- *Ekaitz gogorrenei mendez mende buru eman dion gaztain haundia ez ote ginuen barneko harrak jotzen hasia* (Gure beste harra, 201. or.).
- *Hortik azeria artaldea zaintzera!!!* (Gure beste harra, 201. or.).
- *Nork itzuliko sakanako urak beren iturrira?* (Ainhoa, 205. or.).
- *Bertsolaria entzunlerik gabe, ume gabeko titi mutua bezala agortuko litzake* (Bertsolarien deia, 208. or.).
- *Kanpoan lili eta etxean elorri* (Eta euskal izenak zer?, 211. or.).
- *Haienganako zabaltasuna gure urka bide gertatzen da* (Eta euskal izenak zer?, 211. or.).
- *Euri asko den lekuan urak bere bidea egina du* (Kale izenak, 220. or.).
- *Berriketa berriketak haizatzen du eta iraupenik ez du* (Etxe izenak, 224. or.).
- *Kezka asko eta erderaz mintzo, ametsez jantzitako hilarria* (Nafarroaren ordua, 233. or.).
- *Inungo bideari ezin zaio ibiltzerik eskatu... Bidelariak dute atzera ala aurrera egi-ten* (Nafarroaren ordua, 233. or.).

HIZTEGI HAUTATUA

Jose Mari Satrustegik artikulu hauetan erabiltzen duen hiztegiaren hautaketa eskaintzen dugu, gure ustez, bi ezaugarriren adierazle delako.

Batetik, egilearen bizi ibilbidearen lekuko da: Arruazu-Luzaide-Urdiain. Hortaz, hiztegitxo honetan hitz bakoitzaren ondotik lekukotasun hori adierazten duen laburdura zeinua jarri dugu. Jakina, zeinu hauek adierazten digute non bereganatu zituen Satrustegik hitz horiek; ez, inola ere, leku horietan soilik erabiltzen diren hitzak direla.

Bestetik, egilearen lexiko pertsonalaren adierazle ere bada:

- Zenbait hitzi bere ukitu pertsonala ematen dio: *arraztin* (arrastin), *bolara* (bola-da), *buluzik* (biluzik), *despegitu*, *iges egin*, *zugaitz* (despeditu, ihes egin, zuhaitz), *gaisto*, *piska*, *siska* (gaizto, pixka, xixka), *azpijorra* (azpijokoa) *gain-maila* (goi-maila), *garizima* (garizuma), *maltso* (mantso), *margol* (margo), *pixpilita* (pizpirita), *sahare* (sare, sarroia)...
- Beste batzuei erranahi berezia ematen die: *esakera* eta *esaera* (hitza), *haizatu* (zabaldu, hedatu), Iparraldean ‘Pirinioak’ izendatzeko erabiltzen duten *bortu* ‘Tbañetako mendatea’ adierazteko...
- Inoiz forma bereziak sortzen ditu: *ikaskintza*, *irakaskintza* (ikaskuntza, irakas-kuntza), *nekazantza* (nekazaritza), *entzunle* (entzule), *jotzale* (jotzaile)...
- Garai hartan euskal ordain ezaguna ez zuten izenak euskaraz idatzita emateko beharrak edo grinak zenbait hitz asmatzera bultzatu zuela ikusten da: *abelazkera-ikastegia* (abeltzaintza eskola), *basatipula* (mikrofonoa), *haurgintza* (haur hezkuntza), *ibailari* (gaztelaniazko ‘almadiero’), *ikustegi*, *ikustetxe* eta *margoltegi* (museo), *larru-zahar* eta *larru-idazki* (pergamino)...
- Euskal hiztegia osatzeko ekarpen interesgarri izan daitezkeenak ere ez dira falta: *atze-mami* (ipurmami), *negar-putz* (alferrikako lana), *txomin-erne* (gaztelaniazko ‘dominguillo’), *sasijakintza*...

Sarrera bakoitzean ematen den informazioa honako hau da. Sarrera bera beltzez, eta ondotik:

- Parentesi artean hitz hori erabiltzen den herri, ibar, eremu edo egilearen lexiko pertsonala adierazten duen laburdura. Ezaugarri hau sarrera gehienetan jarri dugu.
- Kategoria gramatikala letra etzanaz.
- Euskara batuan duen ordaina, komatxoaren artean. Argitasun gehiagoren beharra ikusi dugunean, definizio labur edo bestelako azalpenen bat eman dugu.
- Hitzaren aipua bere testuinguruan, letra etzanaz. Ondotik, parentesi artean, artikularen izenburua eta urtea. Sarrera bat artikulu askotan ageri denean, iruditu zaizkigun bizpahiru aipu interesgarrienak jaso ditugu.

Hiztegien erabilitako laburdura zeinuak:

<i>ad.</i>	Aditza
<i>adlag.</i>	Adizlaguna
<i>adond.</i>	Aditzondoa
Arr.	Arruazu (<i>SHD</i> -etik eta Arruazun ¹ bertan jasoak).
Bur.	Burunda (<i>SHD</i> -etik jasoak).
<i>esam.</i>	Esamoldea
<i>interj.</i>	Interjekzioa
<i>iz.</i>	Izena
<i>izlag.</i>	Izenlaguna
<i>izond.</i>	Izenondoa
<i>izord.</i>	Izenordaina
<i>junt.</i>	Juntagailua
<i>lok.</i>	Lokailua
Luz.	Luzaide (<i>LEH</i> -tik jasoak).
<i>onomat.</i>	Onomatopeia
<i>part.</i>	Partikula
<i>post.</i>	Postposizioa
Sak.	Sakana (<i>SHD</i> -etik jasoak).
Sak. erd.	Sakana erdialdea (<i>SHD</i> -etik jasoak).
Satr.	Jose Mari Satrustegik erabiltzen dituen hitzak edo aldakiak.
Urd.	Urdiain (<i>SHD</i> -etik jasoak).
<i>zenb.</i>	Zenbatzailea

Kontsultatutako bibliografia eta zenbaitetan erabili ditugun laburdura zeinuak:

<i>DBF</i>	P. Lhande, <i>Dictionnaire Basque-Français</i>
<i>DVEF</i>	R. M. de Azkue, <i>Diccionario Vasco-Español-Francés</i>
<i>EUH</i>	B. Estornés Lasa, <i>Erronkariko uskararen hiztegia</i>
<i>HB</i>	Euskaltzaindia, <i>Hiztegi Batua</i>
<i>LEH</i>	P. Kamino & P. Salaberri, <i>Luzaideko Euskararen Hiztegia</i> ²
<i>OEH</i>	L. Mitxelena, <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>
<i>SHD</i>	J. L. Erdozia, <i>Sakanako Hiztegi Dialektologikoa</i>

¹ Arruazuko zenbait hitzen lekukotasun eta argibide Luis Satrustegi, Jose Mari zenaren anaiari zor dizkiogu.

² *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitarata emandako artikuluek gain, eskura jarri digute beren datutegiko hiztegia.

A

- abarrikatu** (Luz.) *ad.* ‘abarrakitu, suntsitu’: *Itsuak behar du, ez abarrikatzeke, laguntza* (Gurea delako, 1970).
- abegorri** (Satr.) *iz.* ‘abegia’: *Ongi etorri eta abegorri izan dugu bazterretan* (Urte bat, 1967); *Lukasek egin zion abegorri eta ongi-etorria* (Lukasen laguna, 1967).
- abelazkera-ikastegi** (Satr.) *iz.* ‘abeltzaintza-eskola’: *Ultzamako Abelazkera-Ikastegi bat ipintzeko eginahalak eta urratsak ere eman dira* (Ultzama egunko egunean, 1966).
- aberekilako** *iz.* ‘abereekikoa’: *Aberekilako joku politik asmatu badu gizonak, artzai txakurren txapelketa da bat* (Artzai txakurra, 1969).
- abion** *iz.* ‘hegazkina’: *New Yorken abiona hartzeko gau batez lo egitea, hamar dolar gostatzen zaie* (Artzai euskalduna, 1966); *Hemen, batekin bakarrik dugu zurekin baino begiramendu gehiago: abionarekin* (Zezenak, 1967). Ikus **airezko untzia**.
- Absoluzio** *iz.* Ikus **Solbezio**.
- aditu / aitu** *ad.* ‘aditu, entzun’: *Baztandar mintzaira alaia da eta gogoz aitzen dena* (Baztango Ballea, 1967); *Jendea ataria joka eta nik ezer aditzen ez* (Lukasen urtebetetzea, 1969).
- adituketu** *ad.* *aditu* + *-ketu* *aditz* *aditzkia* ‘aditu izan’: *Lesakako zahar bati adituketu nion berriki* (Maiatza, 1966).
- afaitera** (Luz.) *iz.* ‘afaltzera’: *Gaixo oilar gorri, beste ordu batez kantari... afaitera doatzi* (Eguberri, 1968).
- ageriko** (Luz.) *interj.* ‘ikusiko da’: *Makurrena da sendagileak ordaina eskatu duela. Gaua? Ageriko izanen duen!! Beretako kopiloa, omenaldi bat egin beharko genioke eta...* (Sendagilea, 1968).
- ago** (Sak.) *iz.* ‘ahoa’: *Erronkariko eskualdunen agotik entzunak izan dira han diren erranak* (Erronkariko uskara, 1968). Ia beti aldaki hau erabiltzen du, *aho* behin edo beste soilik; erraterako: *Leze ahoa meharrago belarriak lehertzeko estutasunarekin* (Aralarko baseliza, 1971).
- agotz** (Sak.) *iz.* ‘ahotza, lastoa’: *Arto eta agotz lastoa ... jan zezaten* (Erregeak, 1971).
- agoz ago** ‘ahoz aho’: *Agoz ago dakigu aurrekoen berri* (Lukas Zufiaurre, 1966).
- aguztu** (Urd.) *iz.* ‘abuztua’: *Berriz ere egiteko prest! Bai, Jainkoak nahi badu! Aguztuaren, Ama Birjina ondoreko jaiaren* (Lakuntzeko pertza, 1967); *Han egon zen preso, bere aitak ereman eta, Naparroko erregegia, 1459ko aguztuaren 28tik hasi eta 1460 arte* (Nungua zen Kristobal Kolon?, 1968). Baztuetan *abuztu* ere erabiltzen du.
- ailatu** (Sak.) *ad.* ‘ailegatu, iritsi’: *Ailatu da errege izendatzeko garaia* (Zigor opera eskualduna, 1967); *Nork esan, duela urte pare bat bakarrik, Burundako hiriburuan hontara ailatu zaikenik!!* (Altsasuko eskolak, 1968).
- ainar** *iz.* ‘txilarra’: *Ikustekoa da orai, borroka askoren ondoan, otea eta ainarra besterik ez zen tokian dagon aberastasuna* (Andres NARBARTO «Xalto» zena, 1971). Goizuetan eta Malerrekari aldaki hau erabiltzen da, Baztanen *isetsainarra*.
- aingera** (Sak.) *iz.* ‘aingira’: *Erditzera dijoazen aingerak bizi legez joaten dira itsas beste aldera* (Oihanzaleak, 1969).
- aintzina** *adond.* 1. ‘aspaldi’: *Aintzinekoei ohore egiten diegu* (Bideko arranoak, 1968). Gehien erabiltzen duen aldakia *aintzina* izanagatik, *antzina* ere ageri da; erraterako: *Antzinako gizonak ikusten eta ikutzen diren gauzetan zuen asmo osoa* (Euskerazko hitzak, 1970). 2. ‘aurrera’: *Beti aintzina baztandarrak!* (Baztango Ballea, 1967).
- aipaldi** (Satr.) *iz.* ‘aipamen’: *Nunilo eta Alodia neskatz santuen gorputzak gordetzen zituzten elizan eta Birila, bizardun, txoriaren kantuarekin lokartu zenak aipaldi frango izan du bazter guzitan* (Leire, 1967).
- airezko untzia** *iz.* ‘hegazkina’: *Airezko untzien (abionen) etxe batek* (Zezenak, 1967). Ikus **abion**.
- aisa** (Luz.) *adond.* ‘aise’: *Bidea ikasi ondoan aisa da aurrera joatea* (Begi zorrotza, 1968); *Liburua ez da eztarrian gelditzen diren mordoilo hoietakoa. Aisa irakurtzen da eta ulertzen* (Gazte gera, gazte..., 1970). Beti *aisa* aldakia erabiltzen du.
- aitatu** (Urd.) *ad.* ‘aipatu’: *Herriko zaharrak eta hain zahar ez direnak aitatzen dute* (Ur-diain, 1968); «*Erria aitatzean au esan nai*

- da: ikasten jardun gabe euskera dakin erria» (Herria alkate, 1970).
- aitaxo** (Arr.) iz. 'aitatxi, aitona': Bere aitaxoren odola zainetan daramala zion jendeak (Bordel bertsularia, 1970); Aitor euskaldun guzian aitaxo zaharra dugu, Euskal Herriko Abraham haundia (Aitor, 1971).
- aitzeki** (Sak.) iz. 'aitzakia': Egia ote da edo aitzeki bat (Bakoitzari berea, 1968); Asmo maltzurak euskera maitearen aitzekian (Stop, 1970). Aitzeki aldakia ere erabiltzen du; erraterako: *Hauxe da gure beste harra. Euskera bai, ahoan, erdal mordoilokeriz oratua besterik ez bada ere, baina esan ez laiken beste jokabide baten aitzakia bezala* (Gure beste harra, 1971); *Eragozpenak sorzeagatik berdin zaie edozein aitzakia* (Aitziber, 1972).
- aizkan** (Urd.) adond. 'harrika': *Beti aizkan eta elur pilotaka* (Urdiain, 1968).
- ajola** (Sak.) iz. 'axola, ganora': *Zer ajola du Iruñen edo Donostian egiteak, ongi egina balin bada?* (Zer gertatzen da eskualdunen artean?, 1967); *Diru kontua du jendeak begien aurrean; jaiotetxeak ez dio ajolarik* (Etxe izenak, 1972). *Beti aldaki hau erabiltzen du.*
- akestu** (Sak.) ad. 'kamustu': *Aitzur zuri dirdiratsuena ere erdoitu eta akestu egiten da ez ibilian* (Bertsolarian egi, 1972).
- alderik alde** (Arr.) part. 'aldetik aldera': *Ez dakit zergatik baino haundi zait alderik alde Aralar mendia, eta denbora berean txiki, oso txiki, euskaldunen ametsen garaian* (Aralar mendia, 1968).
- alderrai** iz. 'ibiltaria': *Eskualduna berez ezin egona, alderrai eta sosegu gutxiko gizona dela uste izan dute* (Oihanzaleak, 1969).
- alegera** (Urd.) izond. 'alaia': *Pazkuetan dan alegereña Pazkua maiatzekua* (Pazkuetan alegereña, 1968); *Urteak hil bi ditu alegereirik, maietz apiribila loraz beterik* (Maiatz kantua, 1968).
- alegrantzia** (Luz.) iz. 'alaitasuna': *Ez zen berehalakoan etorri erdininak uxatu zituen alegrantzi hura* (Ezin bertzean..., 1969).
- alkar** izord. Normalki *elkar* erabiltzen badu ere, frankotan ageri da *alkar* aldakia: *Alkar hartu, bideak zelaitu, euskera batu ... zer ametsa ederra!* (Batasunaren alorrean, 1970).
- alki / aulki** (Sak.) iz. Bi aldakiak erabiltzen ditu: *Beretzeko bere alki suari eman ziona* (Maiatza, 1966); *Otsail txikiak bi aulki hu-*
- tsik ukan ditu Nafarroko Etxe Nagusian* (Ez adiorik, 1971).
- alper** (Arr.) izond. 'alferra': *Pernando alperra zen* (Lekunberrin... zer berri?, 1968).
- altsei** (Sak.) iz. 'ganadu zaintzailea': *Lukas Zufiaurre... altsei eta guarda izana bere gazte denboran* (Lukasen laguna, 1967).
- altsuar** (Bur.) izond. 'altsasuar': *Altsuarrak haiena zela eta urdindarrak ebeina* (Milakotxu, 1966).
- alxtatu** (Luz.) ad. 1. 'gorde': *Ama Birjinaren iduri edo imajina eder eder bat ... moroak etorri ziranean, eken beldurren lurpean alxtatua edo...* (Orriagako Ama Birjinaren ele xaharra, 1966). 2. 'hezi': *Euskaldun, fededun, izan da guraso hoién barne muina, eta era hortan nahi lituzkete beren haurrak alxtatu* (Aingeru txuriak, 1969).
- Amaletari** (Lakuntza) iz.: *Lakuntzarrak ere bazuten noizbait beren San Migela igotzeko eguna, Amaletari esaten ziotena* (Lakuntzako pertza, 1970). Luis Satrustegi eta Luis Igeltz informatzaileen hirtzetan, maiatzean -Azentzio egunaren hurrengo larunbatean, dirudienez- lakuntzarrek Aralarren egiten zuten errogatiba egunari deitzen zaio *Amaletari*. J. L. Erdoziak *Amalatei* aldakia ematen du eta beste adiera honekin: «San Miguel santua Aralartik herrira etortzen denean (Lakuntzan) egiten den elizkizun berezia» (SHD, 19 or.).
- aments** (Luz.) iz. 'ametsa': *Aments hori erdiesiz gauza baliosa, guziek konprenditzia familiako gisa* (Batasuna, 1968); *Juan da sortetxearen aments zabala* (Gaztain haundia, 1970).
- amurratu** (Arr.) izond. 'amorratu': *Euskeraren etsai amurratuak* (Euskera eskoletara, 1968).
- anitz** (Luz.) / **aunitz** izond. Bi aldakiak komunzki erabiltzen ditu: *Garai hartan eginak dira ur-ekartzte, mediku-etxe, eskola berri eta beste anitz gauza* (Luzaidoko ametsak, 1968); *Lan aunitzen ondorea, frutuak ugari* (Elkartzearen indarra, 1967).
- antzaldatu** ad. 'aldatu, itxuraldatu': *Gu eta gure eztabaida guziak baino zaharrago da munduan negu beltza, eta urtero antzaldatzen da udaberrian. Guk egin behar ginuke-na* (Beste udaberria, 1970).
- apez** iz. 'apaiza': *Sakanako apezten artean* (Aleluia..., 1969). *Beti apez aldakia erabiltzen du, behin izan ezik.*

- apezgai** iz.: *Apezgai eta apezak, zahar eta gazte, artzai eta artalde...* (Aleluia...!, 1969). Beti aldaki hau erabiltzen du.
- arbazu** (Arr.) iz. ‘arruazuarra’: *Hiru punturen alde eskaxa izan zuten bi arbazuarrak* (Arruazu, 1968).
- ardietsi** (Luz.) ad. ‘erdietsi’: *Olerki sariketa batean lehenbiziko saria ardietsi zuen* (Herriotze, 1966).
- argidura** iz. ‘argitasuna’: *Nundik datorkio batabateko argidura zerukoia legegizon jakintsuari?* (Amagoia, 1971).
- argisenti** (Arr.) iz. ‘eguzkia ateratzeko mementoa’: *Hango haize berrien bolaran, argisenti atsegin bat ikusten zuten* (Oliete: Erriberriko gaztelua..., 1966); *Argisentian, geldi, bakarka, iruzki berriaren ateratze ixila* (Ez-kilak, 1967); *Ikusi izan ditut argisentiarekin hasarrea piztu eta ilun ondoan ixiltzen* (Oihanzaleak, 1969); *Udaberri baten argisenti izan zen Naparroan. Argiari begiak idekitzea: ereintza* (Atzera begira, 1970).
- argitaldari** iz. ‘argitaletxea’: *Eta bilduma berdin gabea osotzen dute, ez argitaldari berak ematen dizkigulako; hari berdineko piruak direlako baizik* (Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, 1971).
- argizaiola** (Sak.) iz. ‘argizaria eusteko ohol txiki eta landua’: *Gure euskaltzaletasuna herri hustu hoietako argizaiola eta armariak jasotzera (ostu eta eramatera) igandetan joateko besterik ez bada, gurea joan da* (Requiem antzua?, 1971).
- arimea** (Urd.) iz. ‘arima’: *Elkar genuen penatzen eta arimea ere lainatzen* (Pazkuetan alegereana, 1968). Arima + -a artikulua = arimea. Ikus **mezea**.
- arkitu** ad. ‘aurkitu, kausitu’: *Lanik aski arkituko du* (Maiatza, 1966); *Hamabi eta hamahirugarren mendeko liburutan ere arkitu dugu* (Oier, 1972). Beti arkitu aldakia erabiltzen du.
- arrasta** (Luz.) iz. ‘galga, freno’: *Luzaideko Juan Pedro Iroz zuraz kargaturik zetorrela Frantziatik, kamionaren arrastak hautsi zaizkion Sauveterre Biarnekoan* (Juan Pedro Iroz, 1971).
- arraztin** (Satr.) iz. ‘arrastoa’: *Azkeneko urte hauetan Kolonen arraztinak han edo hemen harrapatu dituztela entzutera jarriak gaude* (Nongoa zen Kristobal Kolon?, 1968). (SHD: Arbizon eta Lizarragabengoan arrastin aldakia erabiltzen dute).
- artio** post. ‘arte’: *Orai artio beti uste izan dut azpizatea satorren lana zela* (Zer gertatzen da eskualdunon artean?, 1967); *Gauaz bildu eta auskolo noiz artio aritzen ziren ikasiten* (Huarte Arakil, 1969).
- artzai** iz. ‘artzaina’ eta ‘apezpikua’: *Eskual Herriko artzai guzietan lan hori bera egin nahi izan zuen* (Mendiz, 1966); *Gure elizbarrutiko artzai maitea kardenal izendatu du Aita Santuak* (Aleluia...!, 1969). Ia beti aldaki hau erabiltzen du. Behin edo betzer artzain forma ere ageri da; erraterako: *Orreagatik hurbil artzain batzuk beren artaldean zain egoten ziran* (Orriagako Ama Birjinaren ele xaharra, 1966); *Herriko artzainen beharrietan sort-lekuko berriak* (Mendiz, 1966).
- atal** (Satr.) iz. ‘atea, ataria’: *Aitor atsegin gertatu zitzaizen legegizoneri eta atal haunditik sartua dugu paper ofizialetan* (Aitor, 1971).
- atalburu** (Arr.) iz. ‘ateburua’: *Ojer de Ugarte esaten da Oartzungo atalburu batean* (Oier, 1972).
- atal-leiho** iz. ‘ate-leiho’: *Ilargiak gaizki hartu eta idekirik zegon atal-leiho txikitik sartuz, gizona bere ota soinak in ilargira ereman omen zuen* (Ilargiko bidea, 1969).
- atal-leihotila** iz. ‘atearen leihatila’: *Haurrik gabeko herria. Baztarrak ixil. Etxekoandre gazte baten burua atal-leihotilatik* (Sara-guetako margolak, 1971).
- atari** (Arr.) iz. ‘atea, ataria’: *Jeitxi da, ataria ideki du...* *Ilargi ederra zeruan eta kanpoan izotza* (Lukasen ogibidea, 1966); *Unai atari haunditik sartu da eta etorkizun ona izango duelako ustean gaude* (Unai, 1971); *Gaur Naparroan euskeraz irakurtzen dela esan dezakegu; handik eta hemendik ikastolak ideki nahian datorkizu jendea, eta euskera atari haunditik sartzen hasia da* (Arnas berri, 1971). Ia beti atari aldakia erabiltzen du. Ate behin soilik ageri da: *Eta etxera sartu zanean, zanpez atea etxi omen zuen* (Ilargiko bidea, 1969).
- atarixka** (Sak.) iz. ‘ate txikia’: *Ama onaren semeak atarixka hortatik sartzen ikusiak ditugu* (Artzai euskaldunak, 1966).
- ateru** ad. ‘gelditu, isildu’: *Beren iritziak ematen ari ziren eta ez ziren atertzen* (Arruazu, 1968); *Eta euskera baizik ez dakien base-rritarra ixildu dailela, TV haundiren bat erosten ahal dio maisu jaunak, atertu gabe hari begira ixilik egon dadien* (Naparroaren ordua, 1973).

atsalde (Sak.) *iz.* ‘arratsaldea’: *Goizeko seiretarik, atsaldeko zazpitara lan egiten ginuen* (Lukasen ogibidea, 1966); *Huartetik joaten ginela San Migel tontorrera, jai atsaldean soinurik ez zela faltatzen plazan* (Huarte Arakil, 1969). *Beti atsalde aldakia erabiltzen du.*

atxetatupinak (Luz.) *iz.* ‘Luzaideko ihauteetako pertsonaiak’: *Ez dute izen polita atxetatupinak, izatez ere joko trakets eta bortitza da. Bi mutil gaizki jantziek egiten dute besta. Bat larruz estalia eta emakume arropan bestea. Biak sonbel haundi, ator zirzil eta elorri latzekin ... Bazterretxe guziak ibili ondoan, ilunabarrean, ardi larru eta gonakeri guziak mutilari kentzeko egiten zituzten atxetatupinak* (Inauteak Naparroan, 1967).

atze-mami (Satr.) *iz.* ‘ipurdia’: *Eta idazlea ezin da zuzendari baten jostagailu eta morroi izan; gaur bai eta bihar ez, ostiko guzien atze-mami* (Neurriko atorra, 1971).

auskolo (Urd.) *esam.* ‘auskalo’: *Auskolo noraino helduarazteko moduan* (Ezki jorzaleak, 1968); *Auskolo noizko jakintza* (Lukas hil da, 1969); *Gauaz bildu eta auskolo noiz artio aritzen ziren ikasten* (Huarte Arakil, 1969).

auzmartu (Arr.) *ad.* ‘hausnartu’: *Mendi zulo sakon eta laino haunditan auzmartu behar izaiten ditu Fernandok bere gogoeta mami-tsuak* (Ezin bertzean, 1969); *Nornahi izanik eta nunahi zaudetela barrez auzmartu az-*

ken ordu hauetako gertakizunak (Bi gizon ilargian, 1969).

azpijan (Sak.) *iz.* ‘azpijokoa’: *ixildu ditezela behingoan azpijan eta zurrumurru guziak* (Bakoitzari berea, 1968); *Gutxi gera eta bakoitza bere alde dabil gure artean. Azpijana merke eta gezurra par-par* (Gure beste harra, 1971); *Eskoletako azpijana aski ez dela, etxe barnean sudurrak sartu nahi!* (Naparroako ordua, 1973). *Ikus azpijorra.*

azpijorra (Satr.) *iz.* ‘azpijokoa’: *Gure artean gero eta gutxiago ikasten den jatortasunaren urre garbia, ikastolen arteko azpijorrik gabeko lana* (Stop, 1970); *Gaizki dago ... gurasoeri beren haurrak kentzea, gaizkiago berek ez dakitela burua hustu eta azpijorra egitea* (Aingeru txuriak, 1969). *Ikus azpijan.*

aztapatu (Sak.) *ad.* ‘oztopatu, zangotrabatu’: *Mandoa... bide txar hartan aztapatu eta hankaz gora zamaria* (Lakuntza, 1967).

aztapu (Sak.) *iz.* ‘oztopoa’: *Eskerrak emateko da beren aztapuan ez erortzeko aurrez abisatzea* (Zer gertatzen da eskualdunon artean?, 1967); *Elgarren arteko aztapuak kendu* (Bakoitzari berea, 1968); *Ez da beti erreisa izan; zenbat aztapu ez zaigu sortu!* (Atzera begira, 1970).

aztapuka *adond.* ‘oztopoka’: *Berriz ere aztapuka eta borrokan joan beharko du bizi nahi badu Eskual Herriak* (Udazkena, 1969).

B

bailara *iz.* ‘harana, ibarra’. Gehienetan *ibarr* erabiltzen badu ere, batzuetan *bailara* ageri da; erraterako: *Oskotz Imotz Bailaran dago* (Oskotz, 1967). *Ikus bale, balle, ballera, ibarr.*

baina / baino junt. *Ia beti baina eta baino erabiltzen ditu: Honek ez zakien zer zen dirua, baino bazuen osasuna* (Zorigaiztoko h bat, 1966); *Muga batek lurra berezikitu ditu, baino eskubideak ez!* (Urdiaingo San Pedro, 1967); *Herritan asko erabiltzen da Edurne izena, baina ez da berdin idatzirik ikustea*

(Edurne, 1971). *Noizbehinka bainan ere sartzen du; erraterako: Bainan askatasunaren izenean* (Aingeru txuriak, 1969).

bainan. *Ikus baina, baino.*

bakantzak (Luz.) *iz.* ‘oporrak’: *Bakantzak finitu eta eskolara joateko egunean ekartzen dituzte gauzak, hain zuzen* (Erregeak, 1971).

bale *iz.* ‘ibarra, harana’: *Nafarroako mendiaren bale ederra Iruñetik 23 kilometrotara dagona ... Ultzamako Balea, gaurkoan, egiazko eraberritzeko bideetatik ibiltzen hasia dela*

- pozez *beterik erran dezakegu* (Ultzama egunko egunean, 1966); *Bale honek Nafarroko lurraldeen artean bere nortasuna badu, Baztan edo Erronkariko Baleak bezelakoa* (Zaraitzuko Ibarra, 1966). Ikus **balle**, **bailara**, **ballera**, **ibar**.
- balin** (Luz.) *part.* ‘balidin’: *Izen politik balin bada Aitziber da bat* (Aitziber, 1967). Behin izan ezik, beti *balin* aldakia erabiltzen du.
- balios** (Luz.) *izond.* ‘baliosua’: *Luzaideko eskuara! Manezaundiren hizkuntza baliosa* (Luzaide, 1967); *Negu sarrerako ereintza baliosaren ondorea* (Arnas berri, 1971); *Alferrik mintzatzea izango litzake lan balios honen laudoriotan urtzea* (Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, 1971).
- balon** *iz.* ‘baloia’: *Futboleko mutilak pertzaren gainean erakusten dute beren balona* (Lakuntzeko pertza, 1967).
- balle** *iz.* ‘ibarra, harana’. *Ibar* hitzarekin txandakatzen du artikulu berean, hots, *Baztango Ballea* eta *Baztango Ibarra* (Baztango Ballea, 1967). Zaraitzuz ari denean ere gauza bera egiten du: *Zaraitzuko Ibarra* eta *Zaraitzuko Balea* (Zaraitzuko Ibarra, 1966). Ikus **bailara**, **bale**, **ballera**, **ibar**.
- ballera** *iz.* ‘ibarra, harana’. Behin bakarrik ageri da aldaki hau: (*Luzaide*)... *izatez, Baztan, Erro eta Ultzama bezala, ballera bat da* (Luzaideko ametsak, 1968). Ikus **bailara**, **bale**, **balle**, **ibar**.
- bana-banaka** *adond.* ‘banan-banan’: *Gazteizko nere adiskideak egin zuena, bana-banaka zuzenketak egiterik ez dago gure artean* (Gipuzkera edo euskera batua?, 1970).
- banan banaka** *adond.* ‘banan-banan’: *Banan banaka joan zaizkio gure eskutan orri arinak* (Stop, 1970).
- barbailasku** (Urd.) *izond.* ‘liskartia’: *Estudiantete barbailasku bat* (Pazkuetan alegereana, 1968).
- bar-bar** *onomat.* ‘barra-barra’: *Txistu doinua bar-bar ilundura gabeko haize garbitan* (Urdaian, 1971). Ikus **par-par**.
- baretz** (Urd.) *part.* ‘baietz’: *Gogua baretz, baretz* (Pazkuetan alegereana, 1968).
- barna** (Arr.) *adond.* ‘sakon(ki)’: *Obispo jaunak bixkar hura aitzurtzeko manatzen du eta barna aitzurtuz Ama Birjinaren iduri edo imajina eder eder bat arkitzen dute* (Orriagako Ama Birjinaren ele xaharra, 1966).
- barrankes** (Sak.) *izond.* ‘Barranka-ko herritarra’: *Izan ere, hala da Barranka, gure menditako erribera txikia. Barrankesak menditarrak izanik, badute Erriberakoen azal gogor bat berekin. Hala esaten digute, behintzat* (Ezkil jotzaleak, 1968).
- baru** (Sak.) *iz.* ‘baraua’: *Apez berriari ere ... ereman zioten pertzean lehenbiziko baru haustekoa* (Lakuntzeko pertza, 1967).
- basagizona** (Satr.) *iz.* ‘basoko gizona, egurgile’: *Kanpoan ditugun basagizonak bazuten beren aldizkaritxo eta gurearekin elkartuz bialtzea eskatu ziguten* (Atzera begira, 1970).
- basapisti** (Arr.) *iz.* ‘basapiztia’: *Beste munduko basapistiak izan balira bezela, bi gazte* (Huarte de San Juan, 1968); *Basapistien legea, ongi begiratuta, haurtzarotik atera ez den herri baten jokabidea* (Gure beste harra, 1971). *Basapisti* aldakia erabiltzen du beti, behin izan ezik: *Andre zahar eroska bat behar zuen N. Villosladak bere gaiari gatza emateko, eta Amagoia gaixoa den basapiztia sortu zigan* (Amagoia, 1971).
- basatipula** (Satr.) *iz.* ‘mikrofonoa’: *Mikroa delako makilaren puntan ezartzen zaien basatipulak jaten die gelditzen zaien lasaitasun pixka* (Bertsolarien deia, 1972).
- baserreka** (Arr.) *iz.* ‘basoko erreka txikia’: *Baserreka bere amurraiekin ez zen igarikako on* (Urdaian, 1968).
- bat-banaka** (Satr.) *adond.* ‘banan-banan’: *Denbora hortako aleak hilabetearen izena bakarrik daramate, bat-banaka zenbatu gabe. Hamaiagarrean hasi ginen kondatzen* (Atzera begira, 1970).
- batu** (Satr.) *ad.* ‘elkartu’ adierazteko: *Ikusi nola jaten dituen herriak a organikak hitz batuetan: ezkil-torra, esate baterako, ez da ezki-la bera; ez edozein torre* (Arnas-berri dela eta, 1972).
- batzarre** *iz.* ‘batzarra’: *Abenduaren hogeia zen eta Diputazioko Jauregian batzarrea ... Beren aldizkaria bazuten eta batzarre mami-tsuak egiten ... batzarre hauetako batean* (Euskaltzaindia, I. Ereintza, 1968).
- baxka** (Urd.) *iz.* ‘soingainetik gerrirainoko brusa antzekoa’: *Gona beltza, alderdi batetik gerrian lotua zuen andregaiak, azpiko gorri ponpoxa erakusten zuela. Soingaineko txuria eta baxka beltza. Buruko zajauba oilobegiduna, bizkar gainean zeraman ezkondu aurretik* (Urdaian, 1971).

- baxtart** (Luz.) / **baztart** *izond.* ‘bastarta’: *Ma-llocrako batek dionez gure Príncipe de Vianaren seme baxtarta da Kristobal Kolon ... Ana etxeoandrea ere Príncipe de Viana eta Maria Armendarizzen alaba baztarta zen* (Nungoa zen Kristobal Kolon?, 1968).
- baztar** (Sak.) *iz.* ‘bazterra’: *Bide baztarreko be-lardi goxoan etzanik, mutil bat lo.* (Huarte de San Juan, 1968). Ia beti *baztar* aldakia erabiltzen du. Noizbehinka *bazter*; erraterako: *Herri askotako bazterrak hobe da, bai, ez ikusi* (Herritako txabolak, 1966).
- baztartu** (Sak.) *ad.* ‘baztertu’: *Ametsak baztar-tu eta egunoroko soka muturrari ekin behar-ra garratza da gehienetan* (Batasunaren alorrean, 1970). Ia beti *baztartu* aldakia ageri bada ere, batzuetan *baztertu* ere erabiltzen du; erraterako: *Amona bezala txokoa bazterturik egongo bada ere, badaki bere etxean dagola* (Eguberri, 1966).
- bazter.** Ikus **baztar**.
- bazter etxe** / **bazterretxe** (Luz.) *iz.* ‘baserria’: *Bazterretxetan mintzo den bezala* (Manezaundi, 1967); *Bazter etxetako bideak* (Luzaideko ametsak, 1968); *Bazterretxe zaharra da Luzaiden Bordelia* (Bordel bertsularia, 1970); *Ezagutzen dut Maite ize-neko bazter etxea Luzaiden* (Maite, 1970).
- beharri** (Luz.) *iz.* ‘belarria’: *Herriko artzainen beharritan sort-lekuko berriak* (Mendiz, 1966); *Gaurko joera Iparr Ameriketara da. Kalifornia izen polita! Idaho eta Nevada heldu zaizkio gazteari beharrietara* (Artzai euskalduna, 1966).
- beharrikako** (Luz.) *izlag.* ‘beharrekoa, beharrezkoa’: *Beharrikako horiek Manezaundiren omenaldikoan* (Bideko arranoak, 1968). (OEH, Duvoisin: *Beharrikako* ‘qui est nécessaire, qui doit être’).
- beila** (Luz.) *iz.* ‘erromeria’: *Alkozko elizan da-gon Belateko Amaren beila berpiztu da* (Ultzama egunko egunean, 1966).
- beilari** (Luz.) *iz.* ‘erromes’: *Beilari edo pere-grinoentzat ospitalea fundatu* (Orriagakoa Ama Birjinaren ele zaharra, 1966).
- belaxe** (Urd.) *adond.* ‘berehalaxe’: *Naparroaren ohore eta goralmen zela adierazi zuen belaxe* (Aleluia, 1969).
- beldur** (Luz.) / **bildur** (Sak.) *iz.* ‘bildurra’. Bi aldakiak erabiltzen ditu: *Hontaz ere nahi nuke noizbait mintzatu, baina bildurra ematen dit gehiegi esan dezadan* (Gipuzke-ra edo euskera batua?, 1970); *Ez naiz iritzi ezberdinen beldur* (Gure beste harra, 1971); *Urdinen orai arte ezagutu ez zena hamasei-hemezortzi neska mutil, bildurra botarik, beren jantzi ederrekin dantzari ikusi ditugu* (Urdiain. Gaztetxoan txokoa, 1971).
- berekilan** (Luz.) *adlag.* ‘berekin’: *Denbora gutxian gauza asko egiteak arrixku haundia du berekilan* (Artzai txakurren saioa, 1969).
- bertsu** (Satr.) *iz.* ‘bertso’: *Hona hemen Kaliforniatik neronek hartutako bertsu zati batzuk* (Batasuna, 1968).
- bertsulari** (Satr.) *iz.*: *Mugaz bertze aldeko bertsulari haundia dugu Xalbador* (Ezin bertzean..., 1969); *Bertsulari zahar bati omenaldia egin diote luzaidarrak* (Bordel bertsularia, 1970). *Bertsolari* hitza ere erabiltzen du behin edo beste: *Andres Narbar-te Goizuetako bertsolaria* (Bertsolarien deia, 1972).
- bezela** *adond.* Kontuan izatekoa da lehendabiziko urteetan ia beti aldaki hau erabiltzen duela. 1968tik aitzina hasten da *bezala* aldakiari sarrera ematen.
- bezik** (Luz.) *lok.* ‘baizik’: *Berrehun arima bezik ez ditu herriak* (Oskotz, 1967).
- biali** / **bialdu** (Satr.) *ad.* ‘bidali’. Bi aldaki hauek anitz erabiltzen ditu: *Kanpoan ditugun basagizonak bazuten beren aldizkari-txoa eta gurearekin elkartuz bialtzea eskatu ziguten* (Atzera begira, 1970); *Bilbaoko auzitegian ez zuten erabaki nahi izan eta Iruñera bialdu zuten* (Aintzina, 1971).
- bihozkor** *izond.* ‘atsegingarria’: *Han ginen eskualdunak –Euskaltzaindia barne– loriaturik atera ginen Diputazioak egin zigun ongietorri bihozkorrez* (Manezaundiren omenaldia, 1968).
- bilisgorri** (Sak.) *adond.* ‘biluzik, larrugorritan’: *Eta halako neska gazte pixpilita bat zekarren bilisgorrian egunorokoak* (Kale ize-nak, 1972). Ikus **buluzik** / **buluzirik**.
- binepein** (Arr.) *adlag.* ‘behinik behin’: *Pilota-riak, binepein, gutxitan gertatzen dira han esandakoak* (Herritako festak, 1969).
- biramon** (Arr.) *iz.* ‘biharamun’: *Garai hartan biramonean bataiatzen zituzten haurrak* (Lukasen urtebetetzea, 1969); *Biramonean ez zen jaikitze gaiza* (Lukas hil da, 1969). Lehenbiziko urteetan hiruzpalau aldiz ageri da aldaki hau. Behin bakarrik *biramun*. Azkeneko urteetan *biharamun* hobesten du.
- bixkar** *iz.* Toponimian duen erranahi berbera ematen dio, hots, garaiera txikiko mendi-

gain luzexka: *Belardiaren bixkar batean, iturri baten ondoan, gelditu zen, belaunikaturik, zerura begira* (Orriagako Ama Birjinaren ele xaharra, 1966).

bizpalau zemb.: *Ongi pintatzen zuen. Bizpalau kuadro badira Luzaiden* (Enrike Zubiri, 1967).

bolant (Luz.) iz. 'Luzaideko dantzaria (ddantzaria)': *Gero karrikan festa ederra. Nexkatoak dantzari arropan eta zonbait bolant* (Bideko arranoak, 1968); *Bolantak ezkereskuin, beren makilak eskutan, elizaren erdian. Bihotz kilika berexia badu bolanten mezak ... Denak gazteak ziren aurtengo bolantak* (Bordel bertsulalaria, 1970).

bolara (Satr.) iz. 'bolada'. Ia beti aldaki hau erabiltzen du: *Hango haize berrien bolaran argisenti atsegin bat ikusten zuten* (Olite: Erriberriko gaztelua, 1966); *Haize bolara honek nora eremango ginduen galdetzen zutenak baziren* (Aleluia...!, 1969); *Haize bolara baten hego txuriak argi senti bat ideki du Euskal Herrian* (Udaberria, 1969); *Udazkeneko hosto zimurren bolara* (Beste udaberria, 1970); *Molde berriko joerak, azken bolarak dakarren poesi gaztea esan nahi du* (Gazte gera, gazte..., 1970).

bordeltar (Luz.) izond. 'Bordelea baserrikoa'.

borta (Luz.) iz. 'atea': *Gure bortan bi txakur* (Elur melur, 1966).

bortu (Satr.) iz. 'mendia, mendatea': *Eguberri... bortua zuriz bezti!! ... Eguberri bortuan elurra ari! Otsoak joan dira hemendik* (Eguberri, 1968); *Ibainetako bortua luze eta nahasia delarik ez zitzaigun hain gais-toa iduritu* (Bordel bertsulalaria, 1970). Iparraldean *bortu* 'Pirinioak'.

botiga (Luz.) iz. 'denda': *Etxean luzaidar, botigan espainol ... dena mendi, zubi txiki eta botiga, egunez kalme eta gauzez erne* (Luzaide, 1967).

buluzik (Luz.) / **buluzirik** (Satr.) adond. 'biluzik': *Erdi buluzirik uzten dituzte biak* (Inautekak Naparroan, 1967).

buruil (Luz.) iz. 'iraila': *Zenbat lakuntzar ote zen herrian buruïlaren 18an?* (Lakuntzeko Pertza, 1968). Dena dela, aipu honetan *abuztu* adierazi nahi du, Lakuntzako pertza ospakizuna beti abuztuan izaten delako.

burruka (Sak.) iz. 'borroka, lehia': *Garai bateko burrukak* (Urdiaingo San Pedro, 1967); *lurrarekin burrukan irabatzen zuten ogia* (Oskotz, 1967); *Gerra eta zikinkeria, beti burrukan otsoak bezala* (Ilargiko bidea, 1969). Hasierako urteetan *burruka* aldaera gehiagotan ageri bada ere, *borroka* ere erabiltzen du: *Berriz ere borrokan joan beharko du, bizi nahi badu Eskual Herriak* (Udazkena, 1969); *Hor gabiltz bizi guzieren borrokan eta ez dugu nahi guzia lortzen* (Aitor, 1971).

D

damurik (Luz.) adlag. 'tamalez': *Herri batean berrogei urtetik gorakoak euskaldunak izanen dira, beste herri batean damurik hirurogei urtetik pasatziak euskeraz elerraiten gai edo gauza izanko dira* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).

ddantza ddauziak (Luz.) iz. 'Luzaideko dantzak (ddantzak)': *Gero karrikan festa ederra. Nexkatoak dantzari arropan eta zonbait bolant. Gustatu zauzkigu nexkatoen*

jantzi berriak. Halare, ez dugu uste ddantza ddauziak mutilekin egin behar lituzketenik. Iruñen elgarrekin hasiak dira, baina nahasketak hori ez da untsa ikusia. Bego mutilendako Luzaideko josteta seriosa (Bideko arranoak, 1968).

despeitu (Luz.) / **despegitu** (Satr.) ad. 'despeditu': *Joan-etorri guzitan lagundu gaituzte eta hondarrean Agur Jaunarekin despegitu* (Bideko arranoak, 1968).

E

- ebein** (Bur.) *izord.* ‘euren’: *Altsuarrak haiena zela eta urdindarrak ebeina* (Milakotxu, 1966); *Semeran bat eremanazten zioten ebein partez* (Lukasen urtebetetzea, 1969).
- ederti eskola** *iz.* ‘arte eskola’ (Ikus *OEH*, *ederti* sarrera): *Batzuk besteak baino hobeak, jakina, eta hauek ez dira txarrak. Beraz, bada nafar ederti eskola bat* (Saraguetako margolak, 1971).
- edozein** (Luz.) *izond.* ‘edozein’: *Izenburu traketza esango du edozeinek Uhin berri izeneko poesi bilduma ikustean* (Gazte gera, gazte..., 1970).
- egoiten** (Luz.) *ad.* ‘egoten’. Luzaide inguruko kontuez ari denean erabiltzen du aldaki hau.
- Eguerri** (Luz.) *iz.* ‘Eguberria’: *Gertatu zen lehenbiziko Eguerritan* (Pakea, 1967).
- eguneroko / egunoroko** (Satr.) *iz.* ‘egunkaria’: *Orduantxe nuen Amaia izeneko lantxoia idatzi eta Iruñeko egunerokora bialdu ... hartu dut egunorokoaren orria* (*Diario de Navarra*, 23.V.1970) *eta oso ona dela esaten du aitak* (Amaia, 1971); *Txoro bakoitzak bere pikuak, eta nik goizetan egunorokoa hartzean, jaioberrien errenkadari begiratu bat beti ematen diot* (Edurne, 1971); *Eta halako neska gazte pixpilita bat zekarren bilisgorrian egunorokoak* (Kale izenak, 1972). Aldaki hauek frankotan ageri dira, *egunkari* hitza gehiagotan erabiltzen duen arren. Ikus **egunkari**, **periodiko**.
- egunkari** *iz.* Ikus **eguneroko / egunoroko**, **periodiko**.
- elerran** (Erronkarin) *ad.* ‘hitz egin’: *Zaraitzuko uskara ... mendez mendeko elerranera bezetia ... beste herri batean damurik gabe hirurogei urtetik pasatziak euskeraz elerraiten gai edo gauza izanko dira* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).
- eliz-dorrea / eliz-torrea** *iz.* Bi aldakiak erabiltzen ditu: *Eliz-dorre txiki baten antzeko zerbait jasotzekotan dabiltz* (Aralarko baseliza, 1971); *Nik ezkilendako toki bat asmatu izan behar banu eliz-torrea egingo nuen. Goien-goienean merezi du eta* (Ezkilak, 1967); *Ezkil-torrea, esate baterako, ez da ezkila bera, ez edozein torre. Eliz-torrea esan nahi duenak, elizarekin zerikusia izanagatik, nortasun berexia duen beste zerbait jakinarazten du* (Arnas-berri dela eta, 1972).
- elkar** *izord.* Ikus **alkar**.
- emaiten** (Luz.) *ad.* ‘ematen’. Luzaide inguruko kontuez ari denean erabiltzen du aldaki hau.
- ematxar** (Luz.) *iz.* ‘emagaldua’: *Euskera maitea ematxar baten haurra bezala ezpainetatik kendu eta lurpean sartzen saiatu ziren* (Lekunberri, 1968).
- engoitik** (Luz.) *adond.* ‘honezkero’: *Arno xahar hunek engoitik badu hainbat kemen* (Eguberri, 1968).
- entzunle** (Satr.) *iz.* ‘entzulea’: *Ez dira berak euren buruz mintzo direnak; herri baten ahozko joeran sartzen da jatorriz datorkien erreiztasuna, entzunleen harrera ona bezala ... bertsolaria, entzunlerik gabe, ume gabeko titi mutua bezala agortuko litzake* (Bertsolarien deia, 1972).
- erakasle / erakusle** *iz.* ‘irakasgaia’: *Blas Fagoaga ... Iruñeko Seminarioko erakasle* (Heriotze, 1966); *Haur asko eta erakusle gutxi ... Tomas Diaz erakusle dutela, atsaldeko seiretan egiten dute bere saioa* (Altsasuko eskolak, 1968); *Erakusleak tituludunak izatea* (Euskera eskoletara?, 1968).
- erakusgai** (Satr.) *iz.* ‘irakasgaia’: *Huarte Donibanekoaren ... hainbeste denboraren buruan erakusgai gehienak gaur baliatu daizke* (Begi zorrotza, 1968).
- erakusketa** (Satr.) *iz.* ‘irakasketa’: *Izango dute Ultzamako uniak soinu eta euskal dantzen erakusketak ere* (Ultzama egunko egunean, 1966); *Erakusketa kontuan bigarren mailako eskolak baditu* (Altsasu, 1967).
- erakutsi** *ad.* ‘irakatsi’: *Badira beste asko eta asko Elizaren erakutsiak eta gizonen esku-bideak ikasi dituztenak ... Erdera eta euskera berdin erakutsiko direla* (Euskera eskoletara?, 1968); *Diputazioak euskal herritako eskoletan ordu erdi batez euskera erakusten hasteko erabakia* (Naparrokoko berriak, 1968); *Gure artean inoiz galdu behar ez zuen euskera erakusten hasi nahi duzue eta poztu egiten naiz* (Euskeraren mugak, 1969).
- erausi** (Luz.) *iz.* ‘zaunka’: *Norbaitek esango du, horko erausi eta garraxiak ez direla onezkoak ... bada garraxia eta dantzaz kan-*

- po beste zerbait* (Urdiain. *Gaztetxo*en txo-koa, 1971).
- erdera** iz. Ia beti aldaki hau erabiltzen du. *Er-dara* behin edo beste soilik.
- erdoitu** (Arr.) *ad.* ‘herdoildu’: *Aitzur zuri dirdiratsuena ere erdoitu eta akestu egiten da ez ibilian* (Bertsolarien deia, 1972).
- ereman** (Luz.) *ad.* ‘eraman’: *Hiru gizon hoiak ereman dituzten tresnak ere ez dira oso egokiak* (Ilargiko bidea, 1969). Ia beti aldaki hau erabiltzen du. Noizbehinka *eraman*; erraterako: *Ixiltasunik haundienean eramanak dira gauzak* (Besteak bezala, 1969).
- erleju** (Sak.) iz. ‘erlojua’: *Gaur, sokak hautsi eta erlejuzko ezkil jotzeak asmatu dituztenean.* (Ezkillak, 1967).
- erraiten** (Luz.) *ad.* ‘esaten’. Luzaide inguruko kontuez ari denean erabiltzen du aldaki hau.
- erran** (Luz.) *ad.* ‘esan’. Beti ez bada ere, Luzaide inguruko edo Baztan eta Bortzerrietako kontuez ari denean maiz samar erabiltzen du; adibidez: *Lesakako zahar bati adittuketu nion berriki erran xahar hau* (Maiatza, 1966); *Bertsulariak bezala erranen dugu: gora Luzaide eta luzaidarrak! Atsegin zaizkizuela gure erranak!* (Luzaide, 1967).
- errebes** (Luz.) *izond.* ‘aldrebes’: *Hauxe bai mundu errebesa eta nahasia!* (Manezaundiren omenaldia, 1968).
- erreix / erreiz** (Arr.) *adond.* ‘erraz’: *Egia esateko ez da hain erreixa hango jokabidea* (Altsasuko eskolak, 1968); *Oso erreixa da hutsak besteren gain botatzea* (Bakoitzari berea, 1968); *Ez zen erreix izango beste bat harrapatzea* (Artzai txakurren saioa, 1969); *Noiz den bat eta noiz den bestea, ez da hain erreiz ezagutzen* (Arnas-berri dela eta, 1972). Gehienetan aldaki hauek erabiltzen ditu, baina behin edo beste erraz eta erreis ere ageri dira: *Erraz alde jota ere, aski lan izango du euskerak* (Zorigaiztoko h bat, 1966); *Ez da beti erreisa izan, zenbat aztapu ez zaigu sortu! Baino eskoletan sartu gera* (Atzera begira, 1970).
- erreiztasuna** (Arr.) iz. ‘erraztasuna’: *Ez dira berak euren buruz mintzo direnak; herri baten ahozko joeran sartzan da jatorriz datorrien erreiztasuna* (Bertsolarien deia, 1972).
- errekontru** (Luz.) iz. ‘istriputa’: *Azken udan errekontru haundi baten berri ukan du munduak* (Juan Pedro Iroz, 1971).
- errezkada** (Urd.) iz. ‘saila, ilara’: *Undianoko Juan abadearen liburu errezkadan XVI. mendeko euskal kantuen liburu bat agertzen dela jakinarazten digu* (Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, 1971); *Izendegi asko sortu zaigu azkenaldi hontan. Batzuk hobexagoak, eta oso txarrak besteak. Izen errezkadak, izenaren xehetasunik gabe* (Eta euskal izenak zer?, 1972); *Bost edo sei aldiz ikusi dugu Iruñeko sortu berrien errezkadan* (Nerea, 1972).
- esakera / esaera** (Satr.) iz. ‘hitza’ adierazteko: *Ikustekoak dira gure herritako gizonak, zahartu ondoan, esakera xebreak belarritan sartzen* (Gipuzkera edo euskera batua?, 1970); *Nafarroan Eneriz esan ohi dugu. Gernikako haurtxoari Eneritz deitzen diote. Nik ez dakit zoin den esaera jatorrena, hizkuntzalarien gauza da* (Eneriz, 1972).
- esamesa** (Satr.) iz. ‘hitza’ adierazteko erabiltzen du maiz; erraterako: *Nungo liburu mardulak eman dezaiguke hori bezalako esamesak duten ikasgai lehen iturrikoa? ... konturatzan al gera zer bide jatorrak ixten dizkiogun leku-izenak eta beren esamesak galtzen, herri baten arnasa azertu lezaken jakintzari?* (Leku izenak, 1972). Beste zenbaitetan ‘erran-merrana, berriketa, zurru-murrua’ adierazteko: *Orain bi urte Lizasoko herriaren salmentari buruz esamesa auzin eta izkribu gehiegi izan zirenian, Ultzamako izena mundu guzian zabaldu zan* (Ultzama egunko egunean, 1966); *Ixilduko dira, orai, esames guziak* (Sua eta biak, 1971); *Herriak ez zuen inoiz halakorik ikusi eta era guzitako esamesak baziren elizkizunaren aurreko egunetan* (Urdiain, 1971). *Azkenik, atsotitz zentzua ere ematen dio: ehun ipuiek gora, esames (refran) eta gertaerak. Bertsu zahar eta herriko koplak* (Lukas Zufiaurre, 1966).
- eskina** iz. ‘izkina, kantoia’: *Bide erdi bat bada-go: bakoitzak beretik eskinak berdintzea* (Zorigaiztoko h bat, 1966).
- eskukaldi** (Luz.) iz. ‘esku ukaldia’: *Príncipe de Viana elkargoaren babes eta eskukaldiarekin argitaratua izan da* (Errokariko uskara, 1968).
- esola** (Sak.) iz. ‘hesi ola, pareta’: *Oholez egindako etxea edo pareta. Hobe izango zen, noski, zimurtzen dijoan euskal lurraldeari esolak ezartzen ahalegindu bagina* (Gure beste harra, 1971); *Euskaldun langilei ogibide egokia eskaini eta gure muga estueri esolak sartzea, Euskal Herriko dirudunei gehiegi eskatzea ez ote?* (Requiem antzua, 1971).

estuason (OEH) iz. ‘estutasuna’: *Norbaiti arnasa berritzea, atorra aldatzen den bezala biririkak trukatzeara izan laike; edo oxigenoaren bidez estuasona kentzea* (Arnas-berri, 1972).

etxalde / etxealde iz. ‘baserria bere lur-ondasunekin’: *Ezin ezkondu zahartu zen etxealde oneko semearen ezteiak baserriko udaberria esan nahi du* (Udaberria, 1969); *Ara-bako mugan, esate baterako, etxealdeak puskatu egiten dira eta seme alaba bakoitzari zati bana eman ... gurasoak seme bat egiten dute etxeko; ezin da etxalde puskatu ... etxalde hoietan izan diren nagusi eta etxekoandre guztiak etxearen izena hartu dute* (Etxe izenak, 1972).

etxerik etxe (Satr.) ‘etxez etxe’: *Etxerik etxe mundu guzira heltzen den bake horren berri*

(Pakea, 1967).

euritu (Luz.) ad. ‘euria egin’: *Euritzen badu euri gehiegi delako, eta bero balin bada ur eskasez, beti badute haiek tiluki bat* (Udazkena, 1969).

euskera iz. Ia beti aldaki hau erabiltzen du. *Euskara behin edo beste soilik.*

ezkaratz iz. ‘etxeko sarrera’: *Egur-pila arteko ezkaratz luzea datorkit gogora* (Aralarko baseliza, 1971); *Etxe sarreraren badut nik haritzondo lodi bat, ezkaratzaren erdian* (Zuria, 1972).

ezkil-torrea iz. ‘ezkil-dorrea’: *Ezki-torrea, esate baterako, ez da ezki bera, ez edozein torre. Eliz-torrea esan nahi duenak, elizarekin zerikusia izanagatik, nortasun berexia duen beste zerbait jakinarazten du* (Arnas-berri dela eta, 1972).

F

famelia (Sak. erd.) iz. ‘familia’: «*Fede santuaren amenturako iloba bat gehio baduzu. Famelian bostgarrena*» (Lukasen urtebetetzea, 1969). Erregulariki familia erabilten du.

fantesi (Luz.) iz. ‘fantasia’: *Ilargiak bezalaxe, gizonaren gaurko jokabideak dituen itzalak. Batzuen eta besten fantesi hutsa* (Ilargiko bidea, 1969).

fiatu (Arr.) / **fidatu** (Luz.) ad.: *Agotik hortzera ez dira elkarrez fiatzen* (Elkartzearen indarra, 1967); *Ez da bere buruaz fidatzen* (Ezin bertzean, 1969).

fini(tu) (Luz.) ad. ‘amaitu’: *Ez zen hortan fini solasa* (Ezin bertzean, 1969); *Bakantzak finitu eta eskolara joateko egunean ekartzen dituzte gauzak* (Erregeak, 1971).

G

Gabonak / Gau Onak iz. ‘Eguberriak’: *Aziedadak beren deia izan omen zuten Gabonetan* (Oilarrak kukurruku, 1966); *Euskal Herriko Gau Onak sua behar dute ederra* (Su bazterrean, 1966). Ia beti *Gau On* aldakia erabiltzen du, bizpahiru aldiz *Gabon*.

gaindik (Satr.) post. ‘gaindi’: *Ikasketak Parisen gaindik eginak zituen* (Manezaundi, 1967). Luzaiden –tik gaindi erabiltzen da.

gain-maila (Satr.) iz. ‘goi-maila’: *Espainiako gotzaien ohorezko gain-mailan jarriko zen orduan eta irrutiko zerbait izango zen gure-*

- tako bere izena (Aleluia...!, 1969); Xalbador ez da behar bezala ezagutua gure artean. Olerkarien gain-mailako arnasa badute bere bertsuak (Ezin bertzean..., 1969).*
- galdeera** (Satr.) iz. ‘galdera’: *Denek galdeera bera; zer esan nahi duen (Aitor, 1971); Eta galdeera bat orai (Ainhoa, 1971).*
- ganer** (Luz.) iz. ‘bihitegia’: *Bazen Goienetxeko ganerrian meta ederra (Enrike Zubiri, 1967).*
- gaisto** (Satr.) izond. ‘gaizto’: *Hazi gaistoz ez gera gaizki. Eta ikusten denez, Eskual Herrian ere itasiasa da hazi hori (Besteak bezala, 1969). Aldaki hau nahiko arrunta bada ere, gehiagotan erabiltzen du gaizto, eta aldiren batean biak elkarren ondoan; erraterako: Ez ginen hobek, onak ginela esaten zigutelakotz. Ez eta orai gaistoago, ago gaiztotan gabiltzatelako (Arruazu, 1969).*
- gaitzitu** (Luz.) ad. ‘gaizki hartu’: *Mundu txiki hontako istiluak latzak dira. Zuzendari batek ezin du bere etxetik atera besteari gaitzitu gabe ... Ilargira bi gizon ereman dituen tresnari itzal egiteko hor zebilen errusoen beste tresna bat, zertako zen inork ez zekielako (Bi gizon ilargian, 1969).*
- galde modua** iz. ‘galdera’: *Beste edozein haurrei egiten zaizkien galde moduak egin eta kito (Naparroaren ordua, 1973).*
- galtzartile** (Arr.) iz. ‘galtzerdi’: *Kaiku urdin-gorri eta ator zuria mutilak, pantalon urdin, galtzartile eta zata larruzkoekin (Urdiain, 1971).*
- ganbara** iz. 1. (Luz.) ‘gela’: *Bere amarendako Enrike zen beti; margol artista bezala, Zubiri; bere ganbaran sartzen zelarik, Manezaundi (Manezaundi, 1967); Bederatzi urtez segidan, Manezaundik gehienik maite zuen ganbaran lo egina dut eta ohe berean (Enrike Zubiri, 1967). 2. ‘teiltatupeko solairua’: *Ganbarako mahai haundia gauzez betea da (Eguberri, 1971); Bitartean ardiak gose eta ganbaran lastorik ez (Aralarko baseliza, 1971).**
- gantzuketa** iz. ‘oliadura’: *Sendagarri ote ala heriotz minak ezititzeko gantzuketa epela? (Naparroaren ordua, 1973).*
- garagarril** (Bur.) iz. ‘ekaina’: *Garagarrilaren 22an zuten bere festa haundia (Huarte Arakil, 1969).*
- garraxi** (Luz.) iz. ‘garrasi’: *Norbaitek esango du, horko erausi eta garraxiak ez direla onezkoak ... bada garraxia eta dantzaz kan-*
- po beste zerbait (Urdiain. Gaztetxoeren txokoa, 1971).*
- garizima** (Satr.) iz. ‘garizuma’: *Garizima ondolan aleluia (Udaberria, 1969).*
- gaztai** (Bur.) iz. ‘gazta’: *Gure zaharrak ziotena, artzaiak hasarratu eta gaztaiak agertu (Le-kunberrin... zer berri?, 1968).*
- geinbera** (Sak. erd.) iz.: *Geinbera da eta nundinahiit ikusten dira txakurraren joan-etorriak (Artzai txakurren saioa, 1969).*
- geroz gehiagora** esam. ‘gero eta gehiagora’: *Azken urte hauetan badira gure artean Oier izeneko haurrak eta geroz gehiagora joango da (Oier, 1972).*
- gertatu** (Satr.) ad. ‘agertu’, ‘bertaratu(?)’: *Pilotariak, binepein, gutxitan gertatzen dira han esandakoak (Herrikako festak, 1969).*
- gizaundi** (Satr.) iz. ‘gizandi, erraldoi’: *Gaurkoa da eta noizbaiteko gizaundiaren mito kutsua hartzen ari zaigu (Umeen deia, 1971).*
- goiztegi** (Arr.) iz. ‘goiztiria, egunsentia’: *Bat-batean goiztegiak hoztu eta eguna laburtzean udazkenean gerala konturatzen gara (Udazkena, 1969).*
- goldarron** (Arr.) iz. ‘soroetako belar txarra, sustrai luzeak dituen’: *San Pedro ondoko soroa latz ikusi, eta prozesiotan Otxobik beste letania bat sartzen omen zuen «San Pedro ondoko goldarronak! Ora pro nobis» (Otxobi tanporrero, 1969). (SHD: Etxarrin golda-erren eta goldarren).*
- goralmen** (Satr.) iz. ‘gorapen’: *Berea ez baino Naparroaren ohore eta goralmena zela adierazi zuen belaxe ... Bere goralmenak Iruñeko elizbarrutia goratzen du. (Aleluia...!, 1969).*
- Gorputz Eguna / Gorputz Kristiak** (Bur.) iz. ‘Corpus Cristi’ eguna: *Azentzioak eta Gorputz Kristiak heldu dirade pazku maiatzekoak (Maiatz kantua, 1968); Haurtxoen Egunean meza berezia eta Jai Nagusian, Gorputz Egunean, herri meza (Barandiarandar on Joxe Migel. Omenaldia, 1973). Ikus Korputz.*
- gustora** (Sak.) adond. ‘gustura’: *Gustora zeuden nunbait beren txaboletan (Herriko txabolak, 1966); Joan nahi nuke ikustera. Gustora egoten naiz. Lagun onak izaten ginen (Lukasen laguna, 1967); Pilota lekuan beren dantzaldiak ikusten ari ginen guziak gustora ginauden (Huarte Arakil, 1969).*
- guzi** izond. ‘guzti’. Ia beti aldaki hau erabiltzen du, behin edo beste guzti.

H

- haizatu** (Satr.) *ad.* ‘zabaldu, hedatu’ adierazteko: *Gai berexi bati lotzen hasi ginen gero zenbaki bakoitzean eta Huarte de San Juan, Príncipe de Viana, Manezaundi, Larreko eta beste gizon ospetsu batzuen izenak haizatu ditugu* (Atzera begira, 1970); *Abesti zahar eta berritan haizatuia izan da* (Maite, 1970). *Uxatu edo bota adierazteko ere erabiltzen du: De Gaulle, mutil haundia baita –eta hortzak ere baduzke–, parez pare zabaldu zioten ataria eta beharbada haunditu ere bai! Gero, bere etxera itzuli eta lehenbiziko gauza, sudurreko haizearekin amerikano guziak haizatu zituen* (Artzai euskalduna, 1966).
- halare junt.** ‘halere’. Beti aldaki hau erabiltzen du.
- hanketako** (Urd.) *iz.* ‘oinetakoa’: *Nola ezagutzen dituzte haurrak bizi diren etxeak? Hanketakoa leihoan ikusita?* (Erregeak, 1971); *Denok poztu ginen, haurra hanketako berriekin bezala* (Neurriko atorra, 1971); *Hanketakoak estutzen duten lekuan hartzen du bakoitzak mina, eta gure Iruña bedein-katu hori dugu euskal izenen zapeta estua* (Edurne, 1971). Beti *hanketako* edo *zapeta* erabiltzen ditu, behin bakarrik ageri da *oinetako*: *Guk artoa sartzen genien oinetakotan* (Erregeak, 1971). Ikus **zapeta**.
- hantu** (Luz.) *ad.* ‘puztu’: *Haur ttipiaren begiak hanturik* (Eguberri, 1968).
- harrikan** (Sak.) *adond.* ‘ziztu bizian’: *Baten ator puska, bestearen xapela; ardi larru eta elorriak, han joaiten dira harrikan. Erdi buluzirik uzten dituzte biak* (Inauteak Napparroan, 1967).
- hasarre** (Sak.) *iz.* ‘haserre’: *Hasarre haundiak ziren bi herrien artean* (Urdiaingo San Pedro, 1967); *Garai hartan Lakuntzeko pertza aipatzea hasarre-bide ona bilatzea izaten zen* (Lakuntza, 1967). Beti *hasarre* aldakia erabiltzen du.
- haundi** *izond.* Beti aldaki hau erabiltzen du.
- haundiki / haundizki** *adond.*: ‘handiki’: *Haundiki egiten dituzte Etxarrin gauzak* (Etxarri Aranaz, 1968); *Ez gera euskerari ohorez eta haundizki lur ematera mugitu: iraupen luze baten arnasa txertatu nahi diogu* (Atzera begira, 1970); *Jainkoak saritu dezala haundizki beste batzungen bere bizia utzi duen gizona* (Juan Pedro Iroz, 1971).
- haurgintza** (Satr.) *iz.* ‘haur hezkuntza’ adierazteko: *Erabaki hau ateratzeko egunetan –haurgintzan– gertatua* (Naparroaren ordua, 1973).
- hedatsu** *izond.* (DVEF ‘zabaldua’): *Fagadoi ederrak, ariztoi hedatsuak, izadi zabalak* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).
- helendar** *izond.* ‘heleniar’: *Helendar eta erro-mako mitologiak hitzak onartzen baditugu, eskubide berdina dutela geureak* (Amagoia, 1971).
- herdoitu** (Sak.) *ad.* ‘herdoildu’: *Aitzur zuri dir-diratsuen ere herdoitu eta akestu egiten da ez ibilian* (Bertsolarien deia, 1972).
- hertsi / hetsi** (Luz.) / **hetxi** *ad.* ‘itxi’: *Begi guzien leihotilak hertsita nere barne minak eta pozak nahi ditut bakarrik* (Stop, 1970); *Gizonen bihotzeko ostatuak etsiak ditu Jainkoak* (Gaua da, 1968); *Zanpez atea etxi omen zuen* (Ilargiko bidea, 1969).
- hil-ezkila** *iz.* : *Bakoitzaren lagunik hoberena, herriko ezkila. Norbait hil balin bada, hil-ezkilak, otoi-tza. Aita-amen hil-ezkilen samina!* (Ezkilak, 1967); *Erronkariko eskuaren hil-ezkilak zenbat aldiz ez dira joak!* (Erronkariko uskara, 1968).
- hitzautzi** (Sak. erd.) *izond.* ‘hitzontzia’: *Gure herria bezalakorik, ez! Politena, ederrena eta garbiena. Eta gu hitzautzienak* (Herri-tako txabolak, 1966).
- hoben** (Luz.) *iz.* ‘errua’: *Inguruko etsaiak izaten dituzte askorentzat hoben guziak* (Gure beste harra, 1971); *Ez da hoben guzia auzokoena* (Maidier, 1972).
- hondar** (Luz.) *izlag.* ‘azkena’: *Hau zen Isaban eskuara mintzo zuen hondar gizona* (Ubaldo Hualde hil da, 1967); *Urte zaharraren hondar egunak* (Egutegia, 1967); *Euskaldun bezala agertu zen beti munduaren aurrean eta euskeraz egin zion Jainkoari bere hondar otoi-tza* (Xabier, 1972).
- hondarrean** *adlag.* ‘azkenean’: *Joan-etorri guzitan lagundu gaituzte eta hondarrean Agur jaunarekin despegitu* (Bideko arranoak, 1968).
- hortaratu** *ad.* ‘jabetu, konturatu’: *Ez dakit hortaratuko geran!* (Urdiain, 1971).

I

ibailari (Satr.) *iz.* ‘almadiazaina’ adierazteko: *Urez Iratiko egurra jeisten zuten gizonak, haren esku jartzen omen ziren ... Saraitzuko ibailarien otoitza euskeraz entzun zuen Nora-ko Amak harrera ona izan dezala oraiko euskaldunetan* (Nora, 1972). (EUH: *almadiazai* ‘almadiero’).

ibar. Ikus **bailara**, **bale**, **balle**, **ballera**.

ibileria (Satr.) *iz.* ‘ibilera’: *Galte haundiak ekartzen zizkien neskatxeri ibileria honek* (Urdiain, 1969).

ideki / **idiki** (Luz.) *ad.* ‘ireki’: *Euskaltzaindiaren mundura etortzea ez zan goizeko loretxo baten iruzkitara idekitzea izan* (Euskaltzaindia. II. Jaiotza, 1968); *Idekitzen hasiak ziren nere begiak* (Stop, 1970). Ia beti *ideki* aldakia erabiltzen du, behin bakarrik *idiki*: *Natibitate gabea zerua idiki zuten* (Natibitate gabea, 1967). Zenbaitetan *iriki* ere ageri da. Ikus *iriki*.

idor (Luz.) *izond.* ‘lehorra’: *Eskual Herria ez da ama idorra atera* (Mendiz, 1966); *Katilu bat esne emateko gauza ez ziren behi idorrrak kendu* (Oskotz, 1967); *Haize idor eta iruzki bila dabiltzen euskaldunentzat da bigarren deia* (*Requiem* antzua?, 1971).

idorte (Luz.) *iz.* ‘lehortea’: *Ur asko balin bada eihera (errota) hasi eta idorte beroan edariak saldu* (Udazkena, 1969).

iduri (Luz.) *iz.* ‘irudia’: *Gure Mikel Goiaingearuaren iduria bakarra da munduan* (Aralar mendia, 1968).

iduritu (Luz.) *ad.* ‘iruditu’: *Euskaltzaindiari... ez zaio iduritu batasunarena baino beharrezkoagorik bazenik gure artean* (Batasuna, 1968); *Pagadi lerdan adar gabeak utzi genituen bidean; hemezortzi urteko poxpolinen gerri lirainak iduri zuten* (Aralarko baseliza, 1971); *Etxe berrien izen euskaldunak ongi iduritzen zaizkit* (Etxe izenak, 1972).

ifernu *iz.* ‘infernu’: *Ifernuko etsaiari etzaio gogoratzen bide berria handik botatzea!* (Herrietako txabolak, 1966); *Bera nahiko ez zela, ez zan hobea bi urte baino lehen aitak etxera ekarri zuen emakumea. Erregegaia-*rendako ifernuko zata baina gaiztoago* (Naparroko erregegaia, 1968). *Infernu* aldakia ere erabiltzen du: *Elur, melur, eta infernuko**

debru! ez nuk gaur zuen beldur!! (Elur, melur, 1966); *Etxeko egunkari batek ere Prointzi eta Naparroaren arteko lezea infernuko zoloraino sakondu nahi izan du noizbait* (Besteak bezala, 1969).

igan (Luz.) *ad.* ‘igo’: *Orriagara igan dadila* (Orriagako Ama Birjinaren ele xaharra, 1966).

igarika (Arr.) *adond.* ‘igerika’: *Baserreka bere amurraiekin, ez zen igarikako on* (Urdiain, 1969); *Igarikan zebiltzen haurrak ez itotzeko otoitz egiten zioten* (Nora, 1972).

igartu (Luz.) *ad.* ‘ihartu’: *Idazteko gogo eta amets zabalik igartu eta lurpean gelditu balira bezala, mendebalak jo du nire bihotza* (Ubaldo Hualde hil da, 1967).

igaz (Satr.) *adond.* ‘iaz’: *Zernahi eskeintzen zuen igaz eta ez du orai ezer eman nahi* (Stop, 1970).

iges egin (Satr.) *ad.* ‘ihes egin’: *Hori bai, hankak arin behar zituzten iges egiteko* (Lakuntza, 1967); *Beldur eman behar zuen amaren seme ginela esateak. Hortako egin zuen iges Aitzurre izeneko baserrira* (Mane-zaundiren omenaldia, 1968); *Goizuetako nextatzen iges egin beharrak* (Sua eta biak, 1971).

iges joan (Satr.) *ad.* ‘ihes joan’: *Gerraren atzaparretatik iges joanak, Donibane Garazin ziren hura sortzean bere gurasoak* (Mane-zaundi, 1967).

igeska (Satr.) *adond.* ‘iheska’: *Gaztedia igeska eta igande atsaldean arimarik ez herriko plazan. Etorkizun iluna zonbaitzun ustez* (Bordel Bertsularia, 1970).

ihats (Luz.) *iz.* ‘erratzat’: *Gero, ihats eta makilak botako dituzte* (Inauteak Naparroan, 1967).

ihitai (Arr.) *iz.* ‘igitaia’: *Ihitai bat behar zinueke zuk orai ... garia erein orduko ihitaia?* (Beleak kua kua!, 1967).

ihitari (Arr.) *iz.* ‘igitaria’: *Ihitariak begien aurrean du bere lanaren saria: gari aberatsa* (Euskera eskoletara, 1966).

ihitatu (Arr.) *ad.* ‘igitatu’: *Garia jαιο eta, hori-horia, ihitaitzeko moduan harrapatu du* (Beleak kua, kuaa!, 1967).

ihiztari (Luz.) *iz.* ‘ehiztaria’: *Zenbat urzo hiltzen da Luzaiden? Ez da aisa jakitea. Hori*

- bai; urzorik hiltzen ez duenak, gezurrez ditu zakuak betetzen, eta biramuneko ere uzten. Ihiztari solas (Luzaide, 1967).*
- ijili-ajala** (Sak.) *adond*. ‘ondorioak kontuan izan gabe aritu’: *Eta zertatik jan? Denak fabrikara! Denak ijili-ajala!* (Urdiain, 1969).
- ikaskintza** (Satr.) *iz.* ‘ikaskuntza’: *Ni ere herri-zale naiz euskera ikaskintzan eta herritik ditut joskera jatorrenak hartu* (Herria alkatetza, 1970).
- ikusketa** (Satr.) *iz.* ‘erakusketa’: *Haragikeriaren eta lizunkeriaren ikusketa (feria) egin berri da Kopenhagen* (Aingeru txuriak, 1969); *Lantzen hasiak diren molde berrien ikusketa baliosa dela esango nuke nik* (Gazte gera gazte, 1970).
- ikuspide** (Satr.) *iz.* ‘ikuspegia, ikuspuntua’: *Hona hemen Iturmendiko zatitxo eder baten ikuspidea* (Iturmendiko herria, 1966).
- ikustegi** (Satr.) *iz.* ‘museoa’: *Bazen Andra Mari bat hamahiru-hamalaugarren mendekoa, eliza behartuen laguntzeko utzi zutena. Bere balioa ikusirik, Iruñeko gotzaiak ez zuen Nafarroatik ateratzeko baimenik eman eta Iruñeko eliz gauzen ikustegian egoten da* (Ene-riz, 1972). Ikus **ikustetxe, margoltegi**.
- ikustetxe** (Satr.) *iz.* ‘museoa’: *Ikustetxe Nagusia* (‘Museo de Navarra’) (Aralar mendia, 1968). Ikus **ikustegi, margoltegi**.
- ikutu** (Arr.) *ad.* ‘ukitu’: *Euskera maitearen barne mina ere bihotza ikutzen hasia da* (Lekunberri, 1968); *Bakoitzaren nortasuna ikutzen duen izate bat dakarkigu bihotzera gure etxe zaharrak* (Etxe izenak, 1972). Hala ere, *ukitu* gehiagotan erabiltzen du; erraterako: *Nire etxean egon da eta luzaz eskuara gaiak ukitu ditugu* (Sueziatik etorria, 1968).
- ilbeltz** (Sak.) *iz.* ‘urtarrila’: *Laurogeita zortzi urte ilbeltzean beteak zituen* (Lukas hil da, 1969); *Ilbeltzarekin batera joan zaizkigu biak* (Ez adiorik!, 1971). Lehendabiziko urteetan *ilbeltz* erabiltzen du eta azkenekoetan *urtarril*; erraterako: *Urtarrilaren (ilbeltzaren) bedratzian sasi-larre erretzen ari zen Aduntziko errekan, Etsolla mendian* (Andres Narbarte «Xalto» zena, 1971); *Urtarrilaren hamarreko zenbakia seinale* (Naparroaren ordua, 1973).
- imarmau** (Arr.) *iz.* ‘armiarma’: *Gelako imarmau bat hiltzeko kurariarik ez zuen gizonak zer kalte egin ote zezaken munduan?* (Enrike Zubiri, 1967).
- indartasuna** (Satr.) *iz.* ‘indarra’: *Euskerari, modu batetik eta bestetik, bere laguntza, indartasuna, eta ontasuna eman dizkiote* (Bordel zenaren oroimenez, 1970).
- inun / inungo** *adond*. ‘inon, inongo’. Beti aldaki hauek erabiltzen ditu.
- ipui** (Arr.) *iz.* ‘ipuin’: *Herriz herri bildutako ipui eta ohiturak ekartzen ditu* (Sueziatik etorria, 1968); *Garai hartako basapistien ipuia datorkit gogora* (Gure beste harra, 1971). Beti aldaki hau erabiltzen du.
- irakaskintza** (Satr.) *iz.* ‘irakaskuntza’: *Euskeraren irakaskintza eta zabalkunde gure Diputazioak bere gain hartuaz* (Naparroaren ordua, 1973).
- iretsi** (Luz.) *ad.* ‘irentsi’: *Euskaldun odol garbia zainetan daraman edozeinentzat ezin iretsia baita, gure gizon bizkorrenaren izen ona berak erabili zuen eran ezin esana* (Xabier, 1972); *Beste batzuk, mundua iretsi nahi dute* (Eta euskal izenak zer?, 1972). Beti aldaki hau erabiltzen du.
- iriki** (Satr.) *ad.* ‘ireki’: *Ultzaman eskolategi bateratu berria irikiko da ... Golf Elkarteak... bideak iriki dizkio Ultzamari* (Ultzama egunko egunean, 1966). Ikus **ideki / idiki**.
- irriño** (Luz.) *iz.* ‘irribarrea’: *Gizon burutsueri irriño bat eginarazten zien hizkuntza bixiarekin* (Umeen deia, 1971); *Izar beltzaren itzala kentzeko, haurtxo baten irriñoa gehiago da liburu haundiak baino* (Amagoia, 1971).
- irrutü** (Sak.) *adond*. ‘urruti’: *Haurra egiteko joan ziren hemendik; eta ez irrutira joan ere! Xabier pasatu eta, Aragoiko lehenbiziko herrian sortu zitzairen haurra* (Nafarroko erregegaia, 1968); *Batzuk ziotenez, irrutiegi* (Urdiain, 1969). Beti aldaki hau erabiltzen du, behin izan ezik: *Aurrez aurre, garrantzi haundienekoak; atzerago, bigarren mailakoak, eta urrutü batean besteak* (Sara-guetako margolak, 1971).
- iruzki** (Sak.) *iz.* ‘eguzkia’: *Euskaltzaindiaren mundura etortzea ez zan goizko loretxo baten iruzkitara idekitzea izan* (Euskaltzaindia. II. Jaiotza, 1968). Ia beti aldaki hau erabiltzen du, behin edo beste *eguzki*; erraterako: *Egun luze, nahiz eguzki motza* (Udaberria, 1969).
- ispetore** (Satr.) *iz.* ‘ikuskatzaile, inspektore’: *Ikastola bat herrian, eta sei-zortzi eskola bestelakoak. Ispetore jauna agertu da* (Naparroaren ordua, 1973).

itaxur (Luz.) *iz.* ‘itogina’: *Teila eskaseko teila-tua, dena itaxura* (Batasunaren alorrean, 1970); *Zink edo zikinkeri horrekin da orai-koa. Egia esan, berea egin du, hainbeste urtez itaxurak kendu baititu. Halare, ez da hori hain jaun haundiari dagokion sonbela* (Aralarko baseliza, 1971).

ito (Satr.) *ad.* Kasuren batean ‘estali’ adierazteko erabili du: *Nik uste, sakristiako ataria ere ito beharra izango dela* (Aralarko baseliza, 1971).

itzaldura (Satr.) *iz.* ‘bukaera’: *Lantegi hauek kanpora joateko jendearen joerako itzaldura ekarriko dute, uste denez* (Ultzama egunko egunean, 1966).

ixinplu (Urd.) *iz.* ‘istorioa’: *Beste noizbait aipatuko ditugu Lukasen ixinpluak* (Lukas Zufiaurre, 1966); *Lukas joan da, baina Lukasen barne argia, bere ixinplu jatorrak bizi dira* (Lukas hil da, 1969).

izaiten, izaiteko... (Luz.) *ad.* ‘izaten, izateko’. Luzaide inguruko kontuez ari denean erabiltzen ditu aldaki hauek.

izanki (Luz.) *ad.* (*izan* + *-ki* aditz atzizkia) ‘izaki’: *Pedro Jose Zufiaurre izan beharra zen aita ordeko, kanpoan izanki, bere seme Lukasek jaso zintuen* (Lukasen urtebetetzea, 1969); «*Ni joana neok*», *esan izan behar zien. Azkeneotan izanki* (Andres Narbarte «Xalto» zena, 1971); «*Geurea hemen izanki, nun ibili gera orai arte!*», *entzuten nion gizaki bati* (Urdiain, 1971). *Beti aldaki hau erabiltzen du.*

izentsu (Satr.) *iz.* ‘intsentsua’: *Izentsua. Lehen elizan ibili ohi zen. Orai munduko jauntxo-en aurrean... Jainkoari dagokion izentsua* (Stop, 1970).

izkribitzaile (Satr.) *iz.* ‘idazlea’: *Manezaundi zana hoge mendeko Nafarroko euskal izkribitzaile onenetakoa da* (Bordel zenaren oroimenez, 1970).

J

Jainko / Jaungoiko / Jinko *iz.* Askotan ageri da testuetan, ia beti *Jainko* aldakia erabiltzen du, bi aldiz *Jaungoiko* eta behin *Jinko*.

jaioterri (Arr.) *iz.:* *Bere jaioterrian daukagu lan eta lan* (Barandiarandar on Joxe Migel. Omenaldia, 1973). Ikus **sorterri** eta **sortleku**.

jaiotetxe (Arr.) *iz.:* *Diru kontua du jendeak begien aurrean, jaiotetxeak ez dio ajolarik* (Etxe izenak, 1972). Ikus **sortetxe**.

jaiski *iz.* ‘saski’: *Behin batez ongarri jaiski haundi bat agindu zieten Altsasun* (Lukasen urtebetetzea, 1969). (*OEH*: Burundan eta Etxarrin *jaski*; *SHD*: Urdiainen *saski* eta *Izag. jaiskiya*).

jeitxi / jetxi (Arr.) *ad.* ‘jaitsi’: *Bere lauogeita bost urteak belauetara zaizkio jetxi* (Lukas Zufiaurre, 1966); *Arranoak mendiak bezalaxe jeitxiko zaizkio gizonak* (Ilargiko bidea, 1969). (*SHD*: Sakanan *ja(i)txi*).

jin (Luz.) *ad.* ‘etorri’: *Gauaren erdian argi bat jinik zerutik* (Eguberri, 1968).

joaiten, joaiteko... (Luz.) *ad.* ‘joaten, joateko’. Luzaide inguruko kontuez ari denean erabiltzen ditu aldaki hauek.

joku (Sak.) *iz.* ‘jokoa’. Ia beti aldaki hau erabiltzen du, aldiren batean *joko*.

jorrail *iz.* ‘apirila’: *Jorrailaren hamalauan itzali zen* (Lukas hil da, 1969). *Dena dela, behin bakarrik ageri da jorrail aldakia, gainerakoetan apiril erabiltzen du. Arruazun apiribila erraten zaio. (SHD: Arbizun uztailla adierazteko. Gainerako herrietan uztaillari garil deitzen zaio).*

joskura *iz.* ‘jostura’: *Hari batek egiten ez duen joskura denen artean egiteko* (Oskotz, 1967).

jostagailu (Luz.) *iz.* ‘jostailua’: *Idazlea ezin da zuzendari baten jostagailu edo morroi izan, gaur bai eta bihar ez, ostiko guzien atzemami* (Neurriko atorra, 1971).

juzgado *iz.* ‘epaitegia’: *Eta Juzgado hoietako gizonak zer diote izen hontaz?* (Maite, 1970); *Eibarko Juzgadoak euskal izenen is-*

tiluan Naparrora jo izan du orai arte (Usoa, 1971); *Juzgado askotatik galdetu izan digute izen honen berri* (Oier, 1972); *Haur bat izandu dugu eta Tolosako Juzgadoan Aitzi-*

ber ezartzeko trabak sortu dizkigute (Aitziber, 1972); *Lehen Mailako Juzgadora ereman zuten gurasoek auzia* (Garikoitz, 1973).

K

kafi (Sak.) *iz.* ‘habia’: *Biligarro kafiko lasto bakoitzak baluke bere biziko poema ixila* (Udaberria, 1969); *Baino ez dute esaten ez zirela eskolara joaten, kafi bilan ibiltzen zirela* (Euskera zertako, 1969).

kamion *iz.* ‘kamioia’: *Ez da lekurik! Kamionak gaizki dabilta!* (Luzaideko ametsak, 1968); *Kamionaren arrastak hautsi zaizkion Sauveterre Biarnekoan* (Juan Pedro Iroz, 1971).

kanton (Sak.) *iz.* ‘izkina’: *Eskual izenak laster ikusi nituen etxe kantonetan: Burgiberria, Barrikata, Mendigatxa, Izarjentea..., inguruko mendixka guzien izenak Isaban* (Kale izenak, 1972).

karkula (Luz.) *iz.* ‘kalkulua, kontua’: *Paper eta karkulak berak zer gosta ote dira?* (Luzaideko ametsak, 1968).

karrika (Luz.) *iz.* ‘kalea’: *Berak ekarri zigun karrikatik lehenbiziko berria* (Enrike Zubiri, 1967); *Sauveterreko karrikan* (Juan Pedro Iroz, 1971); *Karrikako lokatza kentzeak hiritako ametsa ekarri zien askori gogora* (*Requiem* antzua?, 1971); *Hotz zen Iruñeko karriketetan* (Arnas berri, 1971). *Kale gehiagotan erabiltzen badu ere, karrika frankotan ageri da.*

karrikatarr (Luz.) *izond.* ‘herrian edo herribilduan bizi dena’, baserritarrengandik edo bazterretxetarrengandik bereizteko: *Ihauite asteartea zen karrikatarrrena* (Inauteak Napparroan, 1967).

karroin (Luz.) *iz.* ‘horma’: *Giro txarra zuten aurtien Sortaldeko hiru Erregeak. Elur eta karroin, ez dakit nola ibiliak izango diren bide hoietan* (Erregeak, 1971).

karrosa (Luz.) *iz.* ‘zalguardia’. J. M. Satrustegik ‘autoa’ adierazteko erabiltzen du: *Mogimendu haundia zen abuztuaren 23an eta*

uda guzian hala izan omen da. Mila bostehun karrosa noiznahi (Bordel bertsularia, 1970). **Ikus oto / otomobil.**

kausitu (Luz.) *ad.* ‘aurkitu’: *Eta denbora berean sekula baino argiago kausitu ditugu baztarrak. Txukun eta garbi herri inguruak, dena berde, oihan eta pentzeak, udaberri baten gaztetasuna bezala* (Bordel bertsularia, 1970).

kenka (Satr.) *iz.* ‘kinka’: *Zaraitzuko uskara ... kenka txarrean ... hilzorian dago* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).

kera (Arr.) *iz.* ‘itxura’: *Budin kerako maisu eskualdunak ere alde batera uzten ditut* (Gure jokabidea, 1966).

kilika (Luz.) *iz.* ‘kili-kilia, kilima’: *Bihotz kilika berexia badu Bolanten mezak* (Bordel bertsularia, 1970).

kiterrra (Arr.) *iz.* ‘gitarra’: *Zenbat aldiz mutilak, festazale, kiterrak bizkarrean zituztela* (Lakuntza, 1967).

kitorik (Luz.) *adlag.* ‘doan, dohainik’: *Nik neretik eman diet, kitorik, behar den lur guzia* (Luzaideko ametsak, 1968).

kokildu (Urd.) *ad.* ‘kikildu’: *Ez kokiltzeko bultzada jatorra* (Beste udaberria, 1970).

konzintzia / kontzintzia (Arr.) *iz.* ‘kontzientzia’: *Pozgarri da gure euskal konzintzia esnatzen hasten dela ikustea* (Lekunberrin... zer berri?, 1968); *Ez dute kezka haundirik kontzintzian* (Euskera eskoletara, 1968).

koperatiba *iz.* ‘kooperatiba’: *Koperatiba delako elkargoa egin eta hirugarren urtean dioja* (Oskotz, 1967); *Koperatiba delako elkargoa sortu dute eta danon jakingarri da beren jokabidea* (Elkartzearen indarra, 1967).

Korputs (Satr.) *iz.:* ‘Corpus Cristi’: *Korputs eta Solbezio dira bi egun haundienak* (Lakun-

tzako pertza, 1970). Ikus **Gorputz Eguna / Gorputz Kristiak**.

kortzeiru (Luz.) *iz.* ‘astalkaia’ (‘devanadera’ gaztelaniaz): *Etxian eder kortzeiru, dabiltzanien inguru, etxe hontako etxekandera zer emazte plaxenta!* (Santi batek, andere..., 1966).

kostuma (Luz.) *iz.* ‘ohitura’: *Ez gabiltza edereez, ez eta ere beharrez, kostuma zaharren*

uztez, erreprotxa beldurrez (Santi batek, andere..., 1966).

kuraia (Luz.) *iz.* ‘adorea’: *Goraki mintzatu dira Frantziako egunkariak Pantxoren kuraiaz* (Juan Pedro Iroz, 1971).

kutsu (Luz.) *izond.* ‘gutxi, pixka bat’: *Elur kutsia bazen Ibañetan* (Bideko arranoak, 1968).

L

lapin (Luz.) *iz.* ‘untxia’: *Eliz atzean lapin hazkuntzako kutxatila sareduna, hutsik* (Sarguetako margolak, 1971).

larre *iz.* ‘landu gabeko lurra’: *Hor geldituko dira larre gure lur guziak* (Urdiain, 1968); *Gari bikor asko dira sasi-larre zen euskera-aren alorrean...* (Umeen deia, 1971).

larri (Luz.) *izond.* ‘handia, nagusia’: *Beren euskera jatorra da eta jende larrien nortasuna haundia* (Etxarri Aranaz, 1968).

larru-zahar (Satr.) *iz.* ‘pergaminoa’: *Hamabigarren mendeko larru-zaharretan bada Nafarroan izen hau* (Unai, 1971).

larru-idazki (Satr.) *iz.* ‘pergaminoa’: *Naparroako liburu eta larru-idazki zaharretan* (Usoa, 1971).

legun (Sak.) *izond.* ‘leuna’: *Bertsu legunekin gozatu zuen* (Lakuntzeko pertza, 1968); *Lukasen hitz legunak* (Lukas hil da, 1969); *Bainan denborak harri biziak ere leguntzen baititu* (Lakuntzako pertza, 1970); *Sagar-dotegitako bertsua mikatza izango zen, eta oraikoa leguna* (Bertsolarien deia, 1972).

leher edo zapart egin (Luz.) *ad.* ‘lehertu’: *Ez da indar kontu, leher edo zapart, idi saiotan gertatzen dena* (Artzai txakurra, 1969).

lepatu (Sak.) *ad.* ‘kimatu’: *Orain udaberria: jorra, xerto eta lepatze guzien artetik, lur iraultze eta hazi sartze guziak baino lan hobea, pozgarriagoa* (Euskaltzaindia I. Ereintza, 1968).

lepozur *iz.* ‘lepo hezurra’: *Han zegoen lurrean nagusia, pagotik bota eta lepozurra hautsirik* (Artzai txakurra, 1969).

leran *adond.* ‘eran, moduan’: *Ahuntz larruarekin joan behar zuen, mendian ibiltzen den*

leran, baino hori ere ez zuen nahi (Artzai txakurra, 1969); *Lurrak Urdiainen ibiltzen den leran ezin du irabazi haundirik eman* (Urdiain, 1969).

lerdoi *iz.* ‘pinudia’: *Egundoko lerdoiak* (Zaraitzuko Ibarra, 1966). (*EUH*: lerdoi ‘pinar’).

liburutegi (Satr.) *iz.* ‘argitaletxea’ adierazteko: *Xalbadorren liburua moldatzen hasi zen bertularien aingeru begiralea den Auspoa liburutegia* (Ezin bertzean, 1969).

lili (Luz.) *iz.* ‘lorea’: *Arrosaz eta liliz apainduta gazte eder baten irudian agertzen zuten* (Maiatza, 1966); *Etxe guziak xuri eta anitz lili; jendea ere huntsa bezti* (Luzaide, 1967); *Asko ugartuko da orai arte jorratua izan den izen polit hau, gure euskal alorretako lili berexia* (Maite, 1970); *Kanpoan lili eta etxean elorri esaten zuten gure zaharrak* (Eta euskal izenak zer, 1972).

lipu (Luz.) *iz.* ‘armiarma’: *Faustina etortzeko erran dinat, lipia (araña) badela ganbaran. Eta hantxe, lipia hiltzera joan behartu zitzaion amatxiri* (Enrike Zubiri, 1967).

lorgate (Arr.) *iz.* ‘egurra biltzeko kate lodi eta luzea’: *Zer gabeko (abstrakto) hitzak eta asmakizun hutsak ez zitzaizkion buruan sartzen, ibaiko ura lorgatez lotzea bezela zen harentzat* (Euskerazko hitzak, 1970).

loriatu (Luz.) *ad.* ‘biziki poztu’: *Loriatuak ateara ginen Diputazioak egin zigun ongietorri bihozkorrez* (Manezaundiren omenaldia, 1968).

lotsaia egin *ad.* ‘losintxa egin’: *Gero, Urdingo alkateak lotsaia egin zion gizaioari* (Milakotxu, 1966). (*SHD*: Urdiainen losaja egin).

M

- makets** (Urd.) *izond.* ‘kamutsa, faltsua’: *Andra mutur maketsa* (San Juanen kantaita, 1968).
- makurrena egin** (Arr.) *ad.* ‘(gauzarik) zailena gainditu’: *Lotsa bota eta jende aurrean agertzen hastea da gaztedi euskaldun baten lehenbiziko urratsa eta pausua. Hori egin duenak makurrena egin du* (Urdiain. Gaztetxoan txokoa, 1971).
- makurtu** *ad.* ‘okertu’: *Gure gaztetxoak ... ez badira makurtzen, beste giro bat sortuko dute Urdiainen. Zorionak.* (Urdiain. Gaztetxoan txokoa, 1971).
- mallo** *iz.* ‘haitz punta, mendi katea’: *Abodiko mendi-malloa bale hontan ere da* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).
- maltso** (Satr.) *izond.* ‘mantso’: *Idi maltso haundien patxada gozoak, trator mardulen prisa ekarri du* (Altsasu, 1967).
- manatu** *ad.* ‘agindu’: *Obispo jaunak bixkar hura aitzurtzeko manatzen du* (Orriagako Ama Birjinaren ele xaharra, 1966).
- manexa** (Luz.) *izond.* ‘Nafarroa Beherekoa, baxenabartarra’: *Baxenabartarrerri erraiten diete manexak, Maneztipi eta Manezhaurra... hainbeste bada! Izan ere, sortzez manexa zen Zubiri. Gerraren atzaparretatik iges joanak, Donibane Garazin ziren hura sortzean bere gurasoak. Luzaide hainbeste maite zuen gizona ez zen Luzaiden sortua* (Manezaundi, 1967).
- margol** (Satr.) *iz.* ‘margoa’ izendatzeko: *Bi aldetatik bildua du gure gizonak bere izen haundia, margol (pintura) aldetik eta idazlanetatik* (Manezaundi, 1967); *Badakizu margola hauen berri?* (Enrike Zubiri, 1967); *Begi zorrotzez jo zituen Saraguetako elizan aldare nagusiko margolak (pinturak)* (Saraguetako margolak, 1971).
- margoltegi** (Satr.) *iz.* ‘museoa’ adierazteko: *Madrilgo Prado margoltegiaren erabaki beharra zen auzia* (Saraguetako margolak, 1971). Ikus **ikustegi**, **ikustetxe**.
- marildu** (Arr.) *ad.* ‘horitu’: *Ez dakit mariltzen hasiak diren Urbasa eta Aralar aldeko pago hostoen eritasuna den, edo itzuliko ez den uda txar baten heriotza* (Udazkena, 1969).
- marratu** (Satr.) *ad.* ‘marratu’ adierazteko: *Atal gainean badu harri marratu bat, Nafarroko lehenbiziko erregea han egin zutela esaten duena* (Milakotxu, 1966); *Asko esatea da, baino atari haundiko harriak hala dio. Gregorio bigarren Erromako Aita Santuak onartu zuela, eta paper hoiek Burundako artxiboan zeudela itsasten dio. Harri marratu hori, 1647 eliza berritu zenekoa da* (Urdiaingo San Pedro, 1967); *Harri marratu ederra ezarri diote bertsulariaren sortetxeari* (Bordel bertsularia, 1970).
- marratuño** *iz.*: *Ehun urtemuga dela eta elitaike gaizki Luzaideko eskol-etxe xaharrean harri marratuño baten ezartzea* (Manezaundi, 1967).
- medar** (Urd.) *izond.* ‘estua, mehea’: *Balio zuen, bide medarrak badira ere, Oskotz ezagutzeak* (Elkartzearen indarra, 1967); *Susmo zabaleko zirta mugagabea, hauspo medarretan bularretan itotzea* (Arnas-berri dela eta, 1972).
- mezea** (Urd.) *iz.* ‘meza’: *Estudiante barbalaiskua, noiz eman behar dok mezea, hire mezearen diruarekin egin behar diat lobeia* (Pazkuetan algerena, 1968). *Meza* + *-a* artikulua = *mezea*. Ikus **arimea**.
- mobimendu / mogimendu** *iz.* ‘mugimendua’: *Gaur Oskotz zerbait da Naparroko mobimendu berritan* (Elkartzearen indarra, 1967); *Berei bakarrik zor zaie Olaztikoko mobimendu eder hau* (Euskeraren mugak, 1969); *Mogimendu haundia zen abuztuaren 23an eta uda guzian hala izan omen da* (Bordel bertsularia, 1970).
- mokor** (Arr.) *iz.* ‘suko enbor adarduna, sukibela’: *Aitak ekarri du sukibeleko trunku motz, adar biziko mokorra* (Eguberri, 1968). Ikus **sukibel**.
- molkots** (Arr.) *iz.* ‘morkots’: *Moztasuna izaten da gure neska mutilen gaineko axala; bildurtasunaren molkots latza* (Urdiain. Gaztetxoan txokoa, 1971).
- moltso** (Urd.) *iz.* ‘multzo’: *Diputazioko erabakiak beste herri moltsoa zekarren* (Nafarroko berriak, 1968); *Urdiaingo ardi txakurrrak bulkatu du barrura ardi moltsoa* (Artzai txakurren saioa, 1969).
- mugaz handiko** ‘mugaz beste aldekoa’: *Ama mugaz handikoa eta aita hemengoa zuen haur batek galdetzen zion bere gurasoeri:*

Zertako ez dira Espainiako Erregeak beren garaian heltzen (Erregeak, 1971).

mustaki iz. Urdiango Mikel Agirrek erran digunez, *mustakiak* lurtean tinkatzen diren makila edo ziriak dira, ondoren haiei loturik hesi bat edo jarri ahal izateko.: *Belarra txerriak uxarraturik, askotan erdi hutsak piszinak, mustakiak falta...* (Urdiain, 1969).

mutu (Arr.) *izond.* 1. 'itsua, estalia' adierazteko: *Baziren han leiho mutu batzuk agertu beharrak. Zer izango eta, mozarabe kutsukoak ... barneko harriak agertzen antzinako eliza baten leiho mutuak atera dira orai* (Aralarko baseliza, 1971). 2. 'lehorra, agorra': *Bertsolaria, entzunlerik gabe, ume gabeke titi mutua bezala agortuko litzake* (Bertsolarien deia, 1972). 3. 'zenbakirik gabea': *1966. otsailean agertu zen lehenbiziko zenbakia. Gure asmoa Roncesvalles, napar izen zahar eta entzunarekin bataiatzea*

zen. Orreaga ere aipatu zuen norbaitek; baino bestea entzunagoa omen da. Izenburu euskal kutsukoa egina ginuen, otsailekoaren aurretik zenbaki muttu bat (numero gabea) atera ere bai (Atzera begira, 1970).

muturjoka (Sak.) *adond.* 'kolpeka, muturrean kolpeak emanez ibili': *Batasuna ez da esku lana. Eskuak uztartzeko on dira, eta muturjokako ere bai. Norberaren barneak ditu eskuak mugitzen* (Batasunaren alorrean?, 1970); *Haurrak erakusten zaiena ikasten dute; nahiko gera gu, haur haundiok, letra muttu batengatik muturjoka ibiltzeko* (Gipuzkera edo euskera batua, 1970).

muxinguen (Urd.) *adond.* 'haserretu eta golpeka': (Lehengo gazteek) *muxinguen besterik ez omen zuten pentsatzen* (Urdiain, 1968).

muxurkatu (Urd.) *ad.* 'muturkatu, txerriak muturraz lurra irauli': *Lur muxurkatze eta aitzur lanak* (Oskotz, 1967).

N

nafar / nafartar / napar / napartar *izond.* Lau aldaki hauek erabiltzen ditu. Ikus liburu honetako "Jose Mari Satrustegiren hizkeraren zenbait ezaugarri" atala.

naguse (Arr.) *iz.* 'nagusia': *Dirua naguse* (Gaua da, 1968); *Gaurko lokarriak barnea dute itotzen, haragiaren askatasuna izan dedin naguse munduan* (Aingeru txuriak, 1969); *Artzai txakurren saiotan burua da naguse* (Artzai txakurra, 1969).

naski (Luz.) 1. *adond.* 'irudi duenez': *Naski aldakia gehiagotan ageri bada ere, noski ere erabiltzen du.* 2. *iz.* 'arto irinez egindako ogi buruhandia': *Ogi zuria aberatsen gauza baizen, naskia jaten zuen Milakotxuk* (Milakotxu, 1966).

negar-putz (Satr.) *iz.* 'alferrikako negarra': *Zenbat negar-putz eta errepika merke!* (Gure beste harra, 1971).

nehor (Luz.) *izond.* 'inor': *Ez da sistema ona bazkal ondoko loa nehoi galaraztea* (Ezin bertzean, 1969); *Ez du ilargiaren adarrik eskatzen, gure eskubidea bakarrik, nehoen kalterik gabe, beste herriak bezala* (Amagoia, 1971). Luzaide eta bere inguruko

gaiak ukitzen dituenean erabiltzen du gehienbat aldaki hau.

nekazantza (Satr.) *iz.* 'nekazaritza': *Nekazantzarik ez bada, nundik sortuko dira jatekuak?* (Urdiain, 1968).

neskix (Sak.) *iz.* 'andereñoa': *Bakoitzak bere bizia ateratzeko bide egoki bat amesten zuten Urdiaingo neskix gazteak* (Urdiain, 1969); *Galte haundiak ekartzen zizkien neskixeri ibileria honek* (Urdiain, 1969).

nolabeit (Sak.) *adond.* 'nolabait': *Nolabeit adierazi zien Iñaki baino jatorrago zela Iñigo* (Iñigo, 1971). Beti aldaki hau erabiltzen du.

norabeit (Sak.) *adond.* 'norabait': *Arnasa es-tua izatea gauza bat da, eta arnas-estu norabeit heltzea beste bat* (Arnas-berri dela eta, 1972).

norkeria *iz.* 'berekoikeria': *Nor bere gaiari lotu beti eta norkerriak baztatu. Hori gabe ez da elkarriketarik ez bakerik* (Neurriko atorra, 1971).

nun *adond.* 'non'. Ia-ia beti *nun* aldakia erabiltzen du, eta ondorioz: *nunahi, nunbait, nunbaiteko, nundik, nundinahitik, nungo,...*

O

- odoldio** (Urd.) iz. ‘goroldioa’: *Gorostia eta elurra jeisten dira menditik eta odoldio gaixoak ematen du etxetan lanik aski* (Eguberri, 1966).
- oinetako** iz. Ikus **hanketako**.
- okasio** (Arr.) iz. ‘liskarra’: «*Batzutan gexegi edan ere bai. Etxera baño len okasioa seguro*» (Lukasen urtebetetzea, 1969).
- okatu** (Arr.) ad. ‘nazkatu’: *Hori esaten duten batzuk amaren bular onez okatutako haurrak ez ote dute iduri* (Euskera zertako?, 1969).
- okulu** (Urd.) iz. ‘ukuilu’: *Lurrak errentan hartuak ditugu ... hiru urtez, hiru barne, ideki ditugu okulutako* (Elkartzearen indarra, 1967).
- ondoan / ondorean** (Arr.) adond. ‘ondoren, ondotik’: *Apez berri egin ondorean Lesakako herrian egon omen zen* (Heriotze, 1966); *Garbitu ondoan zer edo zer luzatu dute* (Aitziber, 1967); *Ikustekoa da orai, borroka askoren ondoan, otea eta ainarra besterik ez zen tokian dagon aberastasuna* (Andres Narbarte «Xalto» zena, 1971); *Elizaren aldetik eragozpenik ez zegola esan ondorean* ... *Aintzina euskal izena onartua izan da* (Aintzina, 1971).
- ondore** iz. ‘ondorioa’: *Jan aunitzen ondorea, frutuak ugari* (Elkartzearen indarra, 1967); *Negu sarrerako ereintza baliosaren ondorea* (Arnas berri, 1971); *Gogorkeriak ondore txarrak izaten ditu* (Eta euskal izenak zer?, 1972).
- orai** (Luz.) adond. ‘orain’. Ia-ia beti aldaki hau ageri da, eta horren ondorioz: *oraikoa, oraikoen, oraikotik, oraitik...* baina *oraindik, oraindikan, oraindo...* Behin edo beste erabiltzen ditu *orain, oraindio, oraintxe* aldakiak.
- orrexatu** (Satr.) ad. ‘orrxatu, ikasi’: *Príncipe de Viana aipatu baidugu, Italiako eskola hoberenetan ikasi zuen. Musikari eta idazle bere sendimendu finak han orrexatuak zitu* (Olite: Erriberriko gaztelua..., 1966).
- ota** (Satr.) iz. ‘soinekoa’ (kota-ren zentzua ematen dio): *Gizona bere ota soinak in ilargira ereman omen zuten* (Ilargiko bidea, 1969).
- oto / otomobil** (Luz.) iz. ‘autoa’: *Otoak uzteko lekia* (Luzaidoko ametsak, 1968); *Otomobilean sartu dute* (Artzai txakurren saioa, 1969). Ikus **karrosa**.

P

- paperra** (Luz.) iz. ‘papera’: *Paperrezko etxe eta zilar ura* (Eguberri, 1966); *Paperrak eskuan dauzkagu* (Luzaidoko ametsak, 1968); *Behin eta berriz beren izentxoak paperretan ikusteak, zenbat haurtxoren poza ez zuen haizatu?* (Umeen deia, 1971). Gehienbat Luzaide inguruko kontuez ari denean erabiltzen du aldaki hau.
- parabisu** (Luz.) iz. *Etxe hontako etxekanderia Parabisuan aingeru* (Santi batek, andere... 1966).
- par-par** onomat. ‘barra-barra’: *Azpijana merke eta gezurra par-par* (Gure beste harra, 1971).
- partida** (Luz.) iz. ‘jokoa, apustua’: *Hori bera esan ginuen Anoetako azken txapelketako pilota partida tresna hoietan ikusi ondoan* (Zer gertaten da euskaldunon artean?, 1967); *Pilota partida ikustetik etorri ziran* (Huarte Arakil, 1969). Aldiro *partida* aldakia erabiltzen du.
- pentze** (Luz.) iz. ‘euntzea, belatsoraa’: *Dena berde, oihan eta pentzeak, udaberri baten gaztetasuna bezala* (Bordel bertsularia, 1970).
- periodiko** iz. ‘egunkaria’: *Behin baino gehiagotan gertatu zaigu periodikora berek bialdutakoa, Registroan gezurtzat ematea*

- (Edurne, 1971). Aldaki hau behin edo beste bakarrik erabiltzen du. Ikus **eguneroko / eguneroko, egunkari**.
- pilota-plaza** (Luz.) *iz.* ‘pilotalekua’: *Guk dugun guzia iturriko ura, eta pilota-plazaren urte saria* (Lekunberrin... zer berri?, 1968).
- piru** (Sak. erd.) *iz.* ‘erbatza, haria, izpia, zuntza’: *Eta bilduma berdin gabea osotzen dute, ez argitaldari berak ematen dizkigulako, hari berdineko piruak direlako baizik* (Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, 1971); *Ardatza ekatze eta egingo dut piru* (Edurne, 1971).
- piska** (Satr.) *iz.* ‘pixka’: *Goazen piskaka* (Zorizaiztoko h bat, 1966); *Eta gelditzen diren piskak puskak falta dituzte edo herri barnean geldituak dira* (Herri izenak, 1972). Bartzuetan aldaki hau erabiltzen badu ere, gehienetan *pixka* idazten du.
- pitxi** (Sak.) *iz.* ‘lorea’: *Bizia barrutik heldu da, belar zahar arteko lehenbiziko pitxik bezala* (Udaberria, 1969); *Euskal alorretako pitxi berxiena den ekintza hontan ere ez gera gaizki gelditu* (Bertsolarien deia, 1972).
- pixpilita** (Satr.) *izond.* ‘pizpirita’: *Halako neska gazte pixpilita bat zekarren bilisgorrian egunorokoak* (Kale izenak, 1972).
- plaxent** (Luz.) *izond.* ‘begikoa, atsegina’: *Etxe hontako etxekanderia zer emazte plaxenta!* (Santi batek, andere..., 1966).
- polekitxo** (Sak.) *adond.* ‘polikitxo’: *Joan den lau-bost urtean polekitxo eskua zabaltzen hasiak ziren batzuk* (Mari, 1971).
- pottoko** *iz.* ‘zaldikumea’: *Arrisku haundiko basa-pottokoen heziketa* (Artzai txakurra, 1969); *Zoin den soka-muturrekoaren ize-*
- na? Batasuna. Ez da pottoko txarra* (Batasunaren alorrean, 1970).
- prediku** (Luz.) *iz.* ‘predikua, sermoia’: *Eskuaraz dena, otoitz eta kantiak, berdin jaun erretoraren predikia, eder da Luzaideko meza* (Bordel bertsularia, 1970).
- present** (Luz.) *iz.* ‘oparia’: *Aiundamenduan dagona, Xabier Zubiri pentsalari haundiaren anai batendako egina zuen. Ezteietako presentia. Gero ezkontza hura desegitean herriari utzi zion* (Enrike Zubiri, 1967).
- probintzi / prointzi** (Sak.) *iz.* ‘Gipuzkoa’: *Leku onean dago, probintzitik gertu eta bide onak inguruan* (Altsasu, 1967); *Urte askoz kanpoan irabazi behar izan dute urdindarrak beren eguneroko ogia: Olaztin, Altsasun, Prointzian* (Urdiain, 1969); *Etxeko egunkari batek ere Prointzi eta Napparroaren arteko lezea infernuko zuloraino sakondu nahi izan du noizbait. Eta sagarrak ez du barneko harra hoberena* (Besteak bezala, 1969); *Prointzi osoko aldizkaria izan nahi lukenak baluke buruhauste polita, Mondragoi, Goierri edo Oiarzungo euskera hartuko luke eredutzat? Herri bakoitzak berea du hoberena.* (Herria alkate, 1970); *Prointzian edozein herritan badira kale izen euskaldunak* (Kale izenak, 1972).
- prointziar** *izond.* ‘gipuzkoar’: *Beraz, Arantzazun esandako prointziarren batasunari bultzada ederra eman zaio Napparroan* (ixilian egina ez da diktadura) (Gipuzkera edo euskera batua?, 1970)
- propi** (Luz.) *izond.* ‘polita, garbia’: *Erran zakun dantzaritako nexkato propi batek* (Bideko arranoak, 1968).

R

- registro** *iz.* ‘erregistroa’: *Berri hauek Registrotako aldizkarian argitaratu dira* (Maite, 1970); *Asko da Iruñeko Registroan eragozpenik ez duela aitortzea* (Iñigo, 1971); *Erderazko itzulpena duen izenik ezin da Registroan sartu* (Eta euskal izenak zer?, 1972).

S

- sahare** (Satr.) *iz.* Sakanan erabiltzen den *sare* (< *saroe*) ‘sarioa, ganaduaren biltokia’ adierazteko: *Ardiak saharean sartuak ziren eta bera ere (txakurra) barnera bialdu zuen nagusiak* (Artzai txakurra, 1969); *Saharean sartuarazi behar zuten artaldea* (Artzai txakurra, 1969). Ikus **txagadi**.
- saldo** (Sak.) *iz.* ‘animalia multzoa’: *Behi eta ardi saldoaren zaintzeko* (Aitziber, 1967).
- samalda** (Urd.) *izond.* ‘mordoa, pila’: *Hasiera guzien neke zamaldak izan ditu* (Urte bat, 1967); *Aita Damaso Intzako euskaltzain osoa. Txile aldean urte samalda ederra egin ondoan itzulua* (Euskaltzaindia III. Txerto berriak, 1968).
- sasijakintza** (Satr.) *iz.*: *Medikuen jakintza sasijakintzatik ateratzen ari zen oraindik* (Begi zorrotza, 1968); *Batasuna ez da amua bota eta zer arrai –edo zer arraio– aterako den begira dagonaren jokua. Ur nahasien bila dabiltzanak entzun bezate. Sasijakintzan ezin ginen beherago erori* (Herria alkate, 1970).
- sasimaisu** (Satr.) *iz.* ‘sasijakintsua’: *Esan garbi Euskal Herriko sasimaisu guziera «euskera zertako» besterik ez bada, mundu zabaleko aurrerabidean ez motz gelditzeko* (Euskera zertako?, 1969).
- segurtamen** (Luz.) *iz.* ‘segurtasuna’: *Beste batzuk, mundua iretsi nahi dute eta behar den segurtamenik gabe aurrera dijoaz* (Eta euskal izenak zer?, 1972).
- seirehun / seiretan**. *Beti aldaki hauek erabiltzen ditu: Eta seirehun urte baditu jolasak* (Aleluia...!, 1969); *Zenbat urte dituzu? Bost, seirako bidean* (Artzai txakurra, 1969); *Goizeko seiretan askatu zuten ganbelatik astoa eta bizkarrera bota pertza* (Lakuntzako pertza, 1970). Ikus **zazpirehun**.
- serios** (Luz.) *izond.* ‘serioa’: *Bego mutilendako Luzaideko josteta seriosa* (Bideko arranoak, 1968).
- siets** (Urd.) *izond.* ‘leku heze eta urtsua’: *Gaur askok ez dakiten euskal geografia. Berdin lur meheak eta hare-lurrak, zuriak eta beltzak, sietsak eta legarteak* (Leku izenak, 1972).
- siska** (Satr.) *iz.* Luzaiden erabiltzen den *xixka*, hots, ‘lan ederra’ adierazteko.: *Juan da sortetxearen aments zabala negu aldian inaren siska bezala* (Gaztain haundia, 1970).
- Solbezio** (Arr.) *iz.*: *Korputs eta Solbezio dira bi egun haundienak* (Lakuntzako pertza, 1970). Aralar mendiaren inguru handi batean kokatuak dauden herrietatik santutegira joaten ziren egunari deitzen zaio *Solbezio* edo *Absoluzio*. Egundorik abuztuaren azkeneko igandea izaten zen erregularki. *OEH*-ak dioenez, ordea, *Solbezio* eguna Andre Mariaren sorteguna da, hots, irailaren 8a. Malerrekako Oitz herrian ere irailaren 8ko Ama Birjinaren egunari deitzen zaio *Solbezio*.
- soldado** *iz.* ‘soldadua’: *Haurtzai, soldado eta usoak* (Huarte de San Juan, 1968); *Ez hon-taz hitzik esan herri txikitako jakintsu haundieri. Berena dute bakarrik gogoan: soldado denbora, ezin moldatua eta lotsa* (Euskera zertako?, 1969); *Jakina da nola egon zen gure bertsularia Donostian soldado* (Luzaide, 1970); *Aurtengo soldadogaiak sartu dira gure atzetik. Auspo soinu asko eta dantza gutxi. Kinto eguna* (Andres Narbarte «Xalto» zena, 1971).
- sonbel** (Arr.) *iz.* ‘kapela’: *Bat larruz estalia eta emakume arropan bestea. Biak sonbel haundi, ator zirzil eta elorri latzekin* (Inauteak Naparroan, 1967); *Irrati baten zurrunburrunaren sonbel azpian, diren berriekin sortu laike iskanbila ederra* (Herria alkate, 1970); *Ez da hori jaun haundiari dagokion sonbela* (Aralarko baseliza, 1971).
- sor** *izond.* ‘gorra’: *Zer den sorra izatea!* (Lukasen ogibidea, 1966).
- sorterri** *iz.*: *Halare, sorterriko ezkilaren soinurik finenak herritik kanpo bizi den semeak entzuten dituenak* (Ezkiak, 1967). Ikus **jaioterri** eta **sort-leku**.
- sort-leku** *iz.*: *Herriko artzainen beharritan sort-lekuko berriak, bederatzi urtez erein zituzten* (Mendiz, 1966). Ikus **jaioterri** eta **sorterri**.
- sortetxe** *iz.*: *Harri marratu ederra ezarri diote bertsulariaren sortetxeari* (Bordel bertsularia, 1970); *Juan da sortetxearen aments za-*

bala (Gaztain haundia, 1970); *Euskera gal-tzen hasi diren familiak, lotsatu egiten dira beren herri eta sortetxez* (Etxe izenak, 1972); *Burnizko saretan sartuta bezala idazten zuen bere sortetxearen izen kuttuna, galtzeko beldur izan balitz bezala* (1972). Ikus **jaiotetxe**.

sujet (Luz.) iz. 'gaia' adierazteko: *Bordeltarrak ziren beren festako sujeta nagusi* (Bordel bertsularia, 1970).

sukibel iz. 'suko enborra, mokorra': *Aitak ekarri du sukibeleko trunku motz, adar biziko mokorra* (Eguberri, 1968). Ikus **mokor**.

supil (Urd.) iz. 'lurreko suan jartzen den enbor handia': *Su bazterrean, supil haundiaren ondoan amets egitera natorkizu* (Su bazterrean, 1966); *Haur amets goxoak nituen orduan ezpainetan nik: supila eta gaztain erreak, etxe txokoa eta amona zaharra* (Stop, 1970).

T

tei (Luz.) iz. 'zerritegia': *Gizonaren tei gehienetan* (Gazte gera, gazte..., 1970).

tiluki (Arr.) onomat. 'tiliki': *Euritzen badu euri gehiegi delako, eta bero balin bada ur eskasez, beti badute haiek tiluki bat* (Udazkena, 1969).

tira ahala (Luz.) adond. 'indar guztiekin': *Gaztetxoan jai atsalde zoragarria. Neska-mutilak tira ahala dantzan eta euskera garbian mintzo* (Beste udaberria, 1970).

trankilistatu (Luz.) ad. 'lasaitu': *«Enekin jeutsi herrira eta etzakoten hitzik erran. Orduan trankilistatu zen»* (Enrike Zubiri, 1967).

tresondagarri (Arr.) izond. 'desondragarria': *Zapeta berriak jantzita, eguneroko arropan, galtzik gabe, festara ateratzen den gizon tresondagarri bat iduri dute etxe gaixoak* (Herritako txabolak, 1966).

TT

ttipi (Luz.) izond. 'txiki': *Enrike zen anai ttipiena* (Enrike Zubiri, 1967).

ttipitu (Luz.) ad. 'txikitu': *Herria ttipituz omen dijoa* (Bordel bertsularia, 1970).

ttuttul (Arr., Luz.) iz. 'burua ongi ez duena': *Iruñeko legegizonak nunbaiteko lo zorrotik ateratzea askotxo gostatzen da. Muxarrak bezala ttuttul motelduak genituen, euskal gauzetan lo* (Garikoitz, 1973).

TX

txagadi (Satr.) *iz.* ‘ganaduaren biltokia’: *Txakurraren poza!! Beren bidetik baztatu eta sartu omen zituen txagadin* (Artzai txakurra, 1969). Ikus **sahare**.

txairo *izond.* ‘ederra’: *Orhi mendia ... lerdin lirian eta txairoa da* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).

txamini (Satr.) *iz.* ‘tximinia’: *Ahuntz burua txamini baztarrean* (Huarte Arakil, 1969). (SHD: Sakanan *txameni*, *txemeni* eta *tximini*).

txerzai (Sak.) *iz.* ‘txerrizaina’: *Txerzai lehenik, behizai eta herriko guarda gero, Urbasa mendiko pago eta beheko basoko jentilen*

*haitzetatik du, Lukasek, bere jakinduri harri-
rrigarria* (Lukas Zufiaurre, 1966).

txirrika (Urd.) *iz.* ‘(gurdien) gurgila’: *Gure bide berriak ez dira gehiago herritan sartuko, kioletako oiloak ez ditu auto zaharren txirrikak lehertuko* (Herri izenak, 1972).

txomin-erne (Satr.) *iz.*: *Haurrak, berriz, txomin-erne aurreratu bat dirudi* (Aitziber, 1967).

txomin-errero (Satr.) *iz.*: *Nunbaiteko txomin-errero guziak hobeki ezagutzen ditugu Eskual Herrian gure txokoko jaunak baino. Eta jaun ginuen Manezaundi* (Manezaundi, 1967).

U

udate (OEH AN: ‘udate euritsua’) *iz.* ‘udaldia’: *Haurren udatea* (*Requiem* antzua?, 1971).

udazale *izond.* ‘udatiarra’: *Eta hango udazale guzien kolore biziak* (Aralar mendia, 1968); *Udazale hoi en azaleko betegarria ... udazaleak aspaldi ikasia zuten Lekunberriko bidea* (Lekunberri, 1968).

ukaldi (Luz.) *iz.* ‘kolpea’: *Uste dugu eskuarak ez duela gure artean inoiz ezagutu halako esku ukaldi ederrik* (Naparroko berriak, 1968); *Nik erdi ahaztua nuen eta ez nintzan oroitu ere, aurtien telefono ukaldi bat izan ez banu* (Nerea, 1972).

ukan (Luz.) *ad.* ‘izan’: *Txikia izateko ukan du etsai Naparroak!* (Naparroko erregegaia, 1968); *Erregegaiarendik ukan zuen semea izango zen Kristobal Kolon* (Nungoa zen Kristobal Kolon?, 1968).

untsa (Luz.) *adond.* ‘ongi’: *Jendea ere untsa bezti* (Luzaide, 1967); *Nahasketa hori ez da*

untsa ikusia (Bideko arranoak, 1968).

urdirindar (Bur.) *izond.* ‘urdiaindar’: *Altsuarrak haiena zela eta urdirindarrak ebeina* (Mila-kotxu, 1966).

urritil (Sak.) *iz.* ‘iraila’: *Nolanahi dela, hasiera ona eman dakio eta uste dut fruitu ugariak emango dituela bere egunean urritileko Batzarrek* (Batasuna, 1968).

urtarril. Ikus **ilbeltz**.

urzo *iz.* ‘usoa’: *Zenbat urzo hiltzen da Luzaiden?* (Luzaide, 1967).

usu (Satr.) *iz.* ‘usadioa’ adierazteko: *Luzaideko herriak fama haundia du, dela hango dantzariak (Bolantiak), dela hango usuez (ehiza-usutegiak), dela bere festaz, etxe eta auzoaz eta baita bere euskeraz ere* (Bordel zenaren oroimenez, 1970).

uxarratu (Bur.) *ad.* ‘txerriak lurra muturrarekin irauli edo mugitu’: *Belarra txerriak uxarraturik* (Urdiain, 1969).

X

- xardoki** (Luz.) *ad.* ‘mintzatu, solasean aritu’: *Nafarroko hizkuntzaz xardokitzen dakitenak* (Zaraitzuko Ibarra, 1966).
- xarmant** (Luz.) *izond.* ‘zoragarria’: *Ixiltasun ederrean segitu zituen herriak Juan Cruz Arrosagarai-en bertsu xarmantak* (Bordel Bertsularia, 1970).
- xatar** (Urd.) *iz.* ‘haurren oihala’: *Sugarrak berotzen ditu, neguan, haur txikien xatarrak* (Su bazterean, 1966).

- xingarketa** (Luz.) *iz.* ‘xingar bila’: *Santi batek igortzen gaitu xingarketa gu ere* (Santi batek, andere..., 1966).
- xinta-minta** *iz.* (Arruazun umeen arteko joku mota bat da) *iz.:* *Ni ikasle nintzala bederatziz hilabetez egoten ginen etxera etorri gabe. Zer atseginarekin hartzen ginuen sanjuanetan etxerako bidea! Xinta-minta guzietatik ohartzen ziren gure begiak* (Herri izenak, 1972).

Z

- zajauba** (Satr.) *iz.* ‘buruko estalkia edo beloa’: *Buruko zajauba oilobegiduna bizkar gainean zeraman ezkondu aurretik* (Urdiain, 1971). (OEH: *zajau* ‘pañõ de ofrenda’).
- zaldare** (Arr.) *iz.* ‘abereen bazka, pentsua’: *Goserik ez duenari jatekoa ematea, mando hilari zaldaria botatzea bezala da* (Naparroko berriak, 1968); *Bezperako Martinen zaldare irinak konpuesto guziak baino indar gehiago zuen nunbait* (Lakuntzeko pertza, 1968).
- zapeta** (Luz. Arr.) *iz.* ‘zapata’: *Zapeta berriak jantzi* (Herritako txabolak, 1966); *Hanketakoak estutzen duten lekuan hartzen du bakoitzak mina, eta gure Iruña bedeinkatu hori dugu euskal izenen zapeta estua* (Eduarne, 1971). Ikus **hanketako**.
- zarpil** (Luz.) *iz.* ‘trapuzko pilota’, (inauteetako atxetatupinek daramatena): *Plazari hiru itzuli eman ondoan hasten da kalapita; eta zer kalapita! Zarpilak –trapuzko pilota estua da “zarpila”–, badu non eman* (Inauteak Naparroan, 1967).
- zata** (Arr.) *iz.* ‘abarka’: *Artzaia eta laborariak beren zata eta xamarrekin* (Inauteak Naparroan, 1967); *Kaiku urdin-gorri eta ator zuria mutilak, pantalon urdin, galtzartile eta zata larruzkoekin* (Urdiain, 1971).
- zazpirehun**: *Bi edo hiru herritakoak bildu ditunik eta, bakoitzean zazpirehun hitzetik gora*

jaso dut (Leku izenak, 1972). Ikus **seirehun**.

- zenbeit** (Bur.) *izord.* ‘zenbait’: *Zenbeit euskalkitan amona edo amatxi bezala erabiltzen da* (Amagoia, 1971). Ikus **zonbeit**.
- zentzaje** (Arr.) *iz.* ‘seinalea’: *Gogoan dut duela urte gutxi ikusi nuena: Calle de la Fuente, inungo iturrien zentzajerik ez zen lekuan eta Calle de Sta. María, bizi guzian Iturtxulo esan izan zitzaion iturri zaharreko bidean* (Kale izenak, 1972).
- zeru-sapai** *iz.* ‘zeru-zola, zeruaren azpia’: *Begi aurrean muga gabeko zeru-sapaia* (Bi gizon ilargian, 1969); *Zeru-sapaian utzi* (Gazte gera, gazte..., 1970).
- zeru-zola** *iz.* ‘zeru-sapaia, zeruaren azpia’: *Eskuara ahantzia zuela erran zidalarik arrano beltzak ikusi nituen Luzaideko zeru-zolan* (Bideko arranoak, 1968).
- zirritu** (Urd.) *iz.* ‘zirrikitu’. *Beti aldaki hau erabiltzen du: Muturrarekin ahal zuen bezala zirritua hesian ideki eta sartu zen* (Artzai txakurra, 1969); *Irratiak ere hor dira zirritu guzietatik etxe zokotan sartuak* (Bertsolarien deia, 1972).
- zittelkeria** (Sak.) *iz.* ‘zitalkeria’: *Txinako egunkariak ez dute ilargira heltzearen berri eman. Zittelkeriak* (Bi gizon ilargian, 1969); *Sarritan entzun izan ditugu era hortako zittelkeriak* (Besteak bezala, 1969).

zoin (Luz.) *izord.* ‘zein’: *Horra hor biak zoin baino zoin hobek (Batasuna, 1968); Zoin baino zoin hobeki ari ziren biak (Ezkil jottzaleak, 1968); Zoin izango ote da euskera batu horren maisu jatorra? (Herria, alkate, 1970).* Ia beti zoin aldakia erabiltzen du, behin edo beste zein.

zonbait (Luz.) *izord.* ‘zenbait’: *Banekien zurrun-burrin zonbait sortzen hasia zela baztarretan ... zonbaitzuk ez dira konten (Ainhoa, 1971).* Gehienetan *zonbait* aldakia erabiltzen, *zenbait* ere ageri da batzuetan.

zonbeit (Arr.) *izord.* ‘zenbait’: *Noraino helduko dira zonbeit legegizonen trabak? (Amagoia, 1971).* Ikus **zenbeit**.

zugaitz (Satr.) *iz.* ‘zuhaitza’: *Non dira Erronkariko zugaitz mardulak! (Ubaldo hil da, 1967); Iruñen, Taconera delako zugaitzian dauka bere harria (Huarte de San Juan, 1968).*

zurrin-burrin (Arr.) *iz.* ‘zurrumurru’: *Geroztik ez du inork ixildu aitak hilarazi zuelako zurrin-burrin latza (Naparroko erregegaia, 1968); Eztiak zurrin-burrin iluna sortzen ere badaki bere inguruan. Eta erle xixtada minak (Urteberri!!, 1968); Irrati baten zurrin-burrinaren sonbel azpian, diren berriekin sortu laike iskanbila ederra (Herria, alkate, 1970); Banekien zurrin-burrin zonbait sortzen hasia zela baztarretan (Ainhoa, 1971).* *Zurrin-burrin* aldakia erabiltzeko joera badu ere, *zurrumurru* ere ageri da; erraterako: *Beste era batean adierazteko, ez da mendi sakonaren zurrumurru baregarria, ez goizeko ihintzaren ukitu xuri ametsgarria (Gazte gera, gazte..., 1970).*

zut (Luz.) *izond.* ‘pikoa’: *Gainbehera zuta baita karrigan (Juan Pedro Iroz, 1971); Oho-lezko eskilera zutak (Aralarko baseliza, 1971).*

AURKIBIDE ONOMASTIKOA

1. Toponimoak

Jose Mari Satrustegiren artikuluetan ageri diren toponimoak letra etzanean eta datozen deklinabide kasuan jaso ditugu. Toponimo forma horiek Euskaltzaindiaren gaur egungo izen arautu edo hobetsiekin bat ez datozenean edota deklinatuak daudenean, irakurleak izen bakoitza erraz aurkitu ahal izateko, toponimoaren kasu absolutiboa jarri dugu aitzinetik. Halaber, herritar izenak ere jaso eta dagokion herri izenaren ondotik paratu ditugu.

Parentesi artean ageri diren zenbakiek liburuaren orrialdea adierazten dute.

- Abadiño*: *Abadiano* (149).
Abaltzisketa: *Abalzisketa* (149).
Abaurregaina: *Abaurregainera* (197).
Abodi: *Abodiko* (24).
Aezkoa: *Aezkoa* (198).
 Aezkoatik (206).
 Aiezkua (72).
Afrika (116).
Agoitz: *Aoitz* (197).
 Aoitzdik (175).
Ahuntz-sare (227).
Aia (149).
Aibar. *Ikus Oibar*
Aiegi (149).
Aingeruen iturria (27).
Ainhoa: *Ainhoa* (149, 205).
 Ainhoa (205).
 Ainhoak (205).
 Ainhoaz (205).
Aintzila: *Aintzile* (192).
Aitziberko Andre-etxea (50).
Aitziberko baseliza (203).
Aitziberko plaza (49).
Aitzurre (76).
Akelarre (227).
Alcalá de Henares: *Alcalá de Henaresen* (108).
Alduntzingo erreka: *Aduntziko errekan* (182).
Alemania:
 - *Herritarra*: *aleman* (33, 77, 211).
Alkotz: *Alkozko* (21).
Almandoz: *Almandotz* (47).
Alquería roja (84). *Ikus Bordagorri*
Altsasu: *Alsasu* (15).
 Altsasu (52, 87, 89, 149, 157).
 Altsasuk (22, 52).
 Altsasuko (22, 52, 53, 89, 108).
 Altsasun (52, 53, 90, 122, 125).
 Altsasura (88).
 Altsasutik (216).
 Altsuko (50).
 - *Herritarra*: *altsasuar* (50, 53, 89).
 altsuar (22).
Altza: *Alza* (149).
Altzania (227).
Altzate: *Altzateko* (87).
Ama Birjinaren iturria (27).
Amarrendegi (187).
Amerika: *Amerika* (32).
 Amerikak (32).
 Ameriketako (84).
 Ameriketari (29, 32, 39, 124).
 Ameriketara (29, 128).
 - *Herritarra*: *amerikano* (32, 84, 121).
Amezketaketa: *Amezketaketa* (149).
 Amezketako (213).
 - *Herritarra*: *amezketar* (80).
Andia (kalea) (221).
Aniz: *Anitz* (47).
Anoeta: *Anoetako* (59).
 Anoetan (59).
Anue (47, 149).
Araba: *Arabako* (218, 225).
Aragoi: *Aragoi* (85, 226).
 Aragoiko (84, 85, 129).

Arakil (72).
Aralar: *Aralar* (25, 64, 65, 79, 111, 112, 113, 139, 144, 167, 189, 190, 228).
Aralarko (228).
Aralarko baseliza (189).
Aralarren (189).
Arantzazu: *Arantzazu* (149, 153, 174).
Arantzazuko (115, 205).
Arantzazun (153, 154).
Arbazu. *Ikus Arruazu*
Argentina (29).
Aristregi: *Aristregui* (216).
Aristregui (216).
Arizkun: *Arizkun* (47).
Arizkungo (28).
Arnabarreta: *Arnabarretako* (123).
Arnegi: *Arnegiko* (93, 166).
Arnegin (236).
Arnegitik (93).
Arraioz: *Arraiotz* (47).
Arraitz: *Arraiz* (21).
Arraitza: *Arraiza* (149).
Arrasate / Mondragón:
Arrasate (217, 218).
Mondragoi (164).
Mondragon (217).
Arrate Ataun: *Ataun-San Gregorioko* (237).
Arrosadia: *Arrosadia* (220).
Rosalia (220).
Arruazu: *Arbazu* (114, 123).
Arbazuko (64, 113, 114, 123).
Arbazun (123, 128).
Arruazu (114, 123).
- *Herritarra*: *arbazuar* (114, 128).
Artaxoa: *Artajonako* (236).
Artaxonan (218).
Artegiak (227).
Artxueta: *Altxueta* (25, 228).
Artxueta (190, 228).
Artzaren baratza (227).
Artzibar: *Artzibar* (175, 198).
Artzibarren (175).
Artzibarretik (197).
Astabizkar: *Altabizkar* (186).
Altobizkar (228).
Astabizkar (228).
Astabizkarreko (186).
Asturias: *Asturiasko* (181, 184).
Atarratze: *Tardets* (106).
Ataun: *Ataun* (237).
Ataungo (237).
Ataun-San Gregorioko. *Ikus Arrate Ataun*
Atximistalde (kalea) (221).
Auntxainaenea: *Auntxaina* (91).
Auñamendi: *Auñamendiko* (27, 33, 198, 228).
Auritz: *Auritz* (217).
Auritzera (175).
Australia: *Australian* (78).
Axerizuloeta: *Axerizulota* (227).
Azkoien (217).
Azkoitia (149).
Azoleta: *Azoletako* (41).
Azparne. *Ikus Hazparne*
Azpeitia (149).
Azpilkueta (47).
Baeza: *Baezako* (108).
Baigorri: *Baigorriin* (141).
Baiona: *Baiona* (37, 106).
Baionan (144).
Barranka: *Barranka* (113).
Barrankan (15).
- *Herritarra*: *barrankes* (113).
Barrenkalde (221).
Barrikata (etxea) (221).
Bartzelona: *Barzelonako* (26).
Barzelonan (86).
Barzelonara (52, 85).
Baxenabarra. *Ikus Nafarroa Beherea*
Baztan: *Baztan* (23, 24, 47, 93).
Baztan-Bidasoko (23).
Baztan Ibarrak (47).
Baztango (29, 47).
Baztango Ballea (47).
Baztango Ibarra (47).
Baztanko (28).
- *Herritarra*: *baztandar* (23, 47).
Baztantzubi: *Baztanzubi* (47).
Beasain (149).
- *Herritarra*: *beasaindar* (236).
Beko Nafarroa. *Ikus Nafarroa Beherea*.
Belardi (227).
Belate: *Belateko* (21).
Belen: *Beleneko* (73, 74).
Belenen (74).
Belenera (74).
Belengo (116, 147, 168).
Bera: *Bera* (157).
Bera Bidasoako (87).
Beriain (228).
Berlin: *Berlinen* (213).
Berria (kalea) (221).
Berriobeiti: *Berrioplanon* (112).
Berriz (149).
Berroeta (47).
Bertizarana (47).

Betarran:
 - Herritarra: *betarrandar* (235).
Biafra: *Biafra* (116, 135).
Biafrak (168).
Biarno: *Sauveterre Biarnekoan* (204).
Bidasoa: *Bazan-Bidasoko* (23).
Bera Bidasoako (87).
Bidasoa (47).
Bilbo: *Bilbao* (149).
Bilbaoko (192, 203).
Bilbaotik (52).
Bilboko (30, 71, 101, 119).
 - Herritarra: *bilbotar* (119).
Bizkaia: *Bizkai* (235).
Bizkaia (210).
Bizkaian (188, 236).
Bizkaiani (195).
Bizkaiatik (38).
Bizkaiko (17, 106).
Bizkaira (203).
 - Herritarra: *bizkaitar* (113, 114, 119, 210).
Bordagorri (84). *Ikus Alquería roja*
Bordele: *Bordale* (213).
Bordelea: *Bordeleko* (166).
Bordelia (156, 165).
Bordelian (156).
 - Baserritarra: *bordeltar* (165).
Bortziriak: *Bortziriko* (199, 200).
Buenos Aires: *Buenos Airesko* (64).
Buenos Airestik (29).
Burgiberria (etxea) (221).
Burgos: *Burgosen* (53).
Burunda: *Burunda* (125).
Burundako (52, 53, 89, 124).
Burundan (53, 100).
Busturia (149).
Calle Arriba (221).
Calle Camino (221).
Calle de la Constitución (221).
Calle de la Fuente (220).
Calle de Santa Maria (221).
Calle del Cuartel (221).
Chamartin: *Chamartin* (174).
Chamartingo (174).
Dantxarina: *Dantxaria* (205).
Deba (149).
Deikaztelu (149).
Deustu: *Deusto* (106).
Donamaria: *Donamari* (47).
Doneztebe: *Doneztebeko* (16, 113).
Donibane Garazi:
Donibane Garazin (60, 61, 108).
Donibaneko (108, 110).
Donibaneko plazara (41).
Donibanen (41).
Donostia: *Donosti* (59, 154).
Donostia (106, 153).
Donostiak (141).
Donostian (17, 26, 59, 145, 151).
Donostiara (181).
Donostiatik (174).
Donostiko (59, 101, 144, 151).
Donostira (62, 225).
Dormitalería (221).
Durango: *Durango* (149).
Durangoko (95).
Eaurta. *Ikus Jaurrieta*
Eibar: *Eibar* (149).
Eibargo (236).
Eibarko (207).
Eibarren (207).
Eibartik (207).
Elbete: *Eluete* (47).
Elizondo: *Elizondo* (47, 87, 157, 168).
Elizondoko (47).
Elizondotik (178).
Elordi (227).
Eneritz: *Eneritz* (223).
Eneriz (223).
Eratsun: *Eratsun* (234).
Eratsungo (234).
Ergoiena (114).
Erlategi (227).
Erletokieta (220).
Erratzu: *Erratzu* (47).
Erratzuko (23).
Erribera: *Erribera* (217).
Erriberako (113, 216).
Erriberri: *Erriberri* (217).
Erriberriko Gaztelua (33).
Olite (33).
Errigoiti (149).
Errioxa: *Errioxan* (198).
Erro (93).
Erroibar (47).
Erroldanen harria: *Erroldan harria* (228).
Erroma: *Erroma* (87).
Erromak (177).
Erromako (53, 129, 211).
 - Herritarra: *erromatar* (20, 177).
Erronkari: *Erronkari* (18, 48, 63, 72, 92, 157, 217).
Erronkarin (18, 63, 221).
Erronkariko (24, 63, 92).
Erronkaritik (88).
Errumania: *Errumaniako* (135).

- Errusia: Errusia* (120).
Errusiako (135).
Rusia (33).
Rusiako (26).
- Eskual Herria. Ikus Euskal Herria*
- Espainia: Espainia* (59, 130).
Espainiako (26, 32, 108, 129, 130, 133, 172, 178, 211).
Espainian (41, 108).
Españiako (61).
Espaniako (28).
- Espartza: Espartza* (24).
Espartzako (74).
Espartzan (24).
- Estafeta* (221).
- Estella. Ikus Lizarra*
- Estellerrri: Estellerrriko* (113).
- Esteribar* (47, 149).
- Etsolla* (182).
- Etxabakoitz* (226).
- Etxabarri* (226).
- Etxalar* (47).
- Etxaleku* (226).
- Etxarri Aranatz: Etxarri* (15, 97, 226).
Etxarri Aranaz (15, 97).
Etxarriko (15, 97, 99).
Etxarrin (15, 97, 98, 150, 157).
Etxarriren (98).
- Etxebeltzea: Etxebeltzeko* (23).
- Etxepareinea: Etxepareinean* (60).
- Etxexuri: Etxexuriko* (166).
- Europa: Europa* (28, 33, 41, 48, 71, 108, 130, 161, 175, 228).
Europako (29, 130, 165).
European (26, 130).
- Euskal Herria:*
- Eskual Herri* (58, 72, 223).
Eskual Herria (17, 28, 59, 63, 141, 146, 170).
Eskual Herriak (49, 58, 76, 78, 102, 124, 141, 144, 146).
Eskual Herrian (17, 49, 55, 56, 60, 134).
Eskual Herriaren (30, 38, 63, 65, 88, 93, 170).
Eskual Herriari (52, 59, 148).
Eskual Herriko (28, 29, 30, 39, 41, 59, 60, 63, 150).
Eskual Herrira (29).
Eskual Herriatik (31).
Euskal Herri (25, 26, 107, 151, 164, 168, 174, 180, 191, 193, 198, 209, 226, 231).
Euskal Herria (25, 26, 115, 145, 201).
Euskal Herriak (25, 119, 124, 131, 235).
- Euskal Herrian* (79, 97, 101, 104, 112, 119, 127, 144, 156, 174, 177, 183, 192, 203, 205, 207, 213, 218, 219, 224, 232, 236, 237).
Euskal Herriaren (25, 115, 197, 199, 201).
Euskal Herriko (26, 95, 124, 130, 146, 149, 150, 164, 168, 177, 180, 185, 191, 198, 199, 202, 205, 208, 209, 217, 226, 235).
- Ezkaroze: Eskarotzen* (24).
Ezkaroze (24).
- Ezkurra: Ezkurrera* (181).
- Frantzia: Frantzi* (28, 127).
Frantzia (86, 230).
Frantziako (21, 24, 178, 204).
Frantzian (41).
Frantziara (104).
Frantziatik (49, 204).
Frantziko (85, 124).
Frantzira (41, 52, 76, 85, 93, 124).
 - *Herritarra: frantses* (205, 226).
frantzes (50).
- Gabarbide* (41).
- Galoze* (24).
- Garazi:*
 - *Herritarra: garaztar* (41).
- Garde* (149).
- Gares* (223).
- Gartzain* (47).
- Gartzaron: Gartzarongo* (184).
- Gasteiz: Gazteiz* (145).
Gazteizko (154).
Vitoria (122, 149).
- Gaztela: Gaztel* (85).
Gaztelako (151).
- Gernika-Lumo: Gernika-Lumo* (223).
Gernikako (17, 223).
Gernikan (223).
Lumo (149, 223).
- Getxo: Getxoko* (192).
- Gipuzkoa: Gipuzkoa* (195).
Gipuzkoan (214, 221, 235, 236).
 - *Herritarra: giputz* (133).
Ikus Probintzia
- Goi Nafarroa. Ikus Nafarroa Garaia*
- Goienetxe: Goienetzeko* (61).
Goienetxerako (60).
- Goienkalde* (221).
- Goierri* (164).
- Goiko kale* (221).
- Goizueta: Goizueta* (181).
Goizuetako (182, 184, 208).
Goizuetan (182, 184).
Goizuetara (181).
- Goñi: Goñiko* (112).

Gordexola: Gordejuela (149).
Gorliz (149).
Gorriti: Gorritiko (59).
Gortza: Gortza (24).
 Güesa (24).
Granada: Granadan (108).
Guarden etxe: Guarden etxe (111).
 Guarden etxeko (111).
 Guarden etxetik (138).
Güesa. Ikus Gortza
Hamarretako harria (227).
Hazparne: Azparneko (127).
Hego Amerika: Hego Amerika (29).
 Hego Ameriketako (135).
Hendaia: Hendaiaiko (93).
Hernani: Hernani (181).
 Hernanin (218).
Huarte Arakil. Ikus Uharte Arakil
Huesca: Huescan (108).
Ibañeta: Ibañetako (165).
 Ibañeta (41, 91, 93, 217).
 Ibañetako (27, 156).
 Ibañetan (41, 93).
Ibarra: Ibarra (235).
Ibiltzieta: Ubelzieta (24).
Idaho (29).
Idiazabal: Idiazabalgo (171).
Igari: Igarri (24)
Ihabar: Iyabarko (113).
 Iyabarreko (64).
 Iyabarren (64, 114).
Ilzarbe. Ikus Itzarbeibar
Indiano etxea: Indiano (124).
 Indiano etxeak (29).
Intza: Intzako (107).
Ipar Amerika: Ipar Amerika (120).
 Ipar Ameriketako (26, 178).
 Ipar Ameriketara (29).
Iparralde: Iparraldean (236).
 Iparraldeko (47, 153).
Irati: Iratiko (24, 229).
Iriberrri: Iriuerri (218).
Irulegi: Irulegiko (213).
Irun (93).
Irunlarrea: Irunlarrea (220).
 Irunlerrea (220).
 Iruñalarrea (220).
 Iruñalerrea (220).
Iruñea: Iruña (88, 106, 108, 112, 124, 149, 188, 216, 217, 220, 221, 225, 235).
 Iruñara (178, 218).
 Iruñarako (129).
 Iruñean (55).
 Iruñeko (23, 27, 47, 54, 59, 60, 61, 71, 88, 129, 148, 156, 157, 171, 174, 180, 184, 185, 192, 195, 196, 206, 210, 220, 222, 223, 226, 228, 235, 236).
 Iruñen (15, 26, 31, 55, 59, 62, 71, 83, 88, 91, 93, 95, 108, 113, 114, 171, 175, 185, 192, 195, 197, 207, 218, 221, 229, 232, 235).
 Iruñera (178, 192).
 Iruñerako (178, 216).
 Iruñetik (21, 28, 145, 165, 187, 195, 210, 223).
 Pamplona (42).
Irurita: Irurite (47).
Irurtzun: Irurtzundik (56).
 Irurtzundik (57, 142).
Israel (135).
Italia: Italiko (33).
 Italian (84).
Iturmendi: Iturmendi (16, 149).
 Iturmendik (16).
 Iturmendiko (16).
Iturtxulo (221).
Itza: Iza (149).
Itzalle (24).
Itzaltzu: Itzalzu (24).
 Itzalzun (24).
Itzarbeibar: Ilzarbe (223).
 Valle de Valdizarbe (221).
Iurreta (149).
Iyabar/Iyabar. Ikus Ihabar
Izaba: Isaba (149).
 Isaban (63, 221).
 Izabako (63).
Izarjentea (etxea) (221).
Izize (24).
Izpegi: Izpegin (141).
Izurtza: Izurza (149).
Jatsu:
 - *Herritarra: jatsutar* (226).
Jaurrieta: Eaurta (24).
 Eaurtan (24).
 Jaurrieta (24).
Jentilen haitza (49).
Jentilen harria: Jentil-harri (227).
Jentilen leiho (49).
Jentilen sukalde (49, 227).
Kale Nagusi (221).
Kalifornia: Kalifornia (29).
 Kalifornian (124, 165).
 Kaliforniatik (102).
Kaluxa (221).

Katalunia:
 - Herritarra: *katalan* (86, 130).
 katalandar (86, 98, 148, 211).
Kalbario leku (227).
Kongo (70).
Kopenhage: Kopenhagen (146).
Kordoba: Kordobako (234).
Kuba (135).
La Reina. Ikus Larraina
Lakuntza: Lakuntza (65, 66, 167).
 Lakuntzako (65, 117).
 Lakuntzako plaza (167).
 Lakuntzan (65).
 Lakuntzara (66).
 Lakuntzeko (65, 66, 67, 111).
 - Herritarra: *lakuntzar* (65, 66, 67, 111, 167).
Lamintzulo: Lamin-zulo (227).
Lantz: Lantzen (152).
 Lanz (47).
Lapurdi (47).
Larraina: La Reina (220).
Larrate. Ikus Zarrakaztelu
Larraun: Larraun (80, 81).
 Larraunen (79, 81).
 Larraungo (80, 81).
Laugarren kurutzea (227).
Leire: Leire (48, 149).
 Leirek (48).
 Leireko (48, 155, 213).
Leitza: Leitze (87).
 Leiza (157).
Lekaroz: Lekarotz (47).
Lekunberri: Lekunberri (79, 80, 81).
 Lekunberrik (78, 80).
 Lekunberriko (79, 80).
 Lekunberrin (80).
 Lekunberriren (79).
 Lekunberritik (138, 167).
Lerida: Leridara (85).
Lesaka: Lesaka (157).
 Lesakako (20, 23).
 - Herritarra: *lesakar* (210).
Lindatxikia (221).
Lizarra: Estella (149).
 Lizarra (217).
 Lizarratik (168).
Lizarraga: Lizarraga (15, 114).
 Lizarragako (113).
Lizaso: Lizasoko (21).
Los Arcos: Los Arcostik (180).
Lumo. Ikus Gemika-Lumo
Luzaide: Luzaide (28, 41, 60, 93, 151, 165, 156, 158).
 Luzaidek (93).
 Luzaideko (41, 46, 60, 61, 91, 93, 156, 165, 166, 204).
 Luzaiden (37, 41, 60, 61, 91, 94, 151, 156, 165, 171).
 Luzaideri (166).
 Valcarlos (165).
 Valcarlosek (93).
 - Herritarra: *luzaidar* (41, 60, 151, 156, 165).
Madril: Madrid-tik (174).
 Madrila (119).
 Madrildik (171, 174).
 Madrileko (130, 133, 213).
 Madrilen (15, 49, 119, 133, 174, 178, 180, 199, 201, 211, 212, 213, 223, 236).
 Madrilera (195, 23, 235, 236).
 Madriletik (52).
 Madrilgo (130, 133, 174, 175, 176, 195, 211).
 (*Real Madrid*, 209).
Maite (etxea) (171).
Mallabia (149).
Mallorca: Mallorcako (84).
 Mallorcan (84).
Manexa. Ikus Nafarroa Beherea
Mañueta (221).
Marimaite (etxea) (171).
Maule: Mauleko (213).
Medinaceli:
 - Herritarra: *medinacelitar* (84).
Mendabia (149).
Mendigatxa (etxea) (221).
Mendigorria (149).
Miami: Miamin (181).
Milutze: Miluz (220).
 Miluze (220).
Mondragón. Ikus Arrasate / Mondragón
Motrico. Ikus Mutriku
Moxo (baserria) (182).
Murieta: Murietako (25, 183).
Muruzabal (149).
Muskilda: Muskildako (24).
Mutilbako. Ikus Mutiloa
Mutiloa: Mutilbako (218).
Mutriku: Motrico (149).
Nafarroa: Nafarra (16, 156).
 Nafarrak (156).
 Nafarran (156).
 Nafarro (45).
 Nafarroa (168, 176, 216).
 Nafarroak (33, 41, 42, 45, 91, 178).

Nafarroako (16, 27, 28, 208, 209, 220, 223, 224, 226, 236).
Nafarroan (45, 176, 178, 179, 183, 188, 195, 216, 221, 223).
Nafarroatik (223).
Nafarroko (21, 22, 24, 28, 29, 33, 34, 36, 42, 47, 119, 156, 169, 178, 181, 182, 185, 195, 216, 220).
Nafarrosa (207).
Nafarrosako (209).
Naparro (88, 92, 228).
Naparroa (28, 33, 52, 85, 86, 133).
Naparroak (85, 86, 133, 155, 157, 197, 216).
Naparroako (207, 228, 232, 233, 237).
Naparroan (18, 31, 46, 48, 52, 71, 76, 87, 93, 101, 105, 112, 129, 154, 157, 164, 198, 206, 233, 234, 235, 236).
Naparroaren (66, 71, 129, 133, 233).
Naparroari (52, 129, 133).
Naparroaz (85).
Naparroko (18, 28, 45, 47, 48, 52, 53, 54, 57, 60, 64, 77, 78, 84, 85, 86, 87, 88, 101, 108, 110, 112, 129, 133, 134, 142, 145, 153, 154, 155, 158, 197, 201, 204, 206, 213).
Naparroa (207).
Naparrotik (195).
Navarra (149).
 - Herritarra: *nafar* (156, 176, 207).
 nafartar (23).
 napar (28, 48, 54, 88, 105, 110, 158, 226, 233).
 napartar (42, 71).
Nafarroa Beherea: Baxenabarren (37, 102, 103).
 Baxenabarreko (141, 192).
 Beko Nafarroko (47).
 Beko Naparrokoekin (47).
 - Herritarra: *baxenabartar* (60, 235).
 manexa (60).
Nafarroa Garaia: Goi Nafarroko (47).
 Nafarrogaina (217).
Nevada (29).
New York: New Yorken (32).
Nueva (kalea) (221).
Obispo Irurita (kalea) (220).
Oiartzun: Oiartzundik (154).
 Oiartzungo (164, 213).
Oibar: Aibarko (71).
Oitz: Oiz (16).
Oka-Ibarruri (149).
Olatzagutia: Olazagutia (145).
 Olazagutian (144).
 Olazti (145).
 Olaztiko (145).
 Olaztin (125, 144, 145).
Olite. Ikus Erriberri
Oltza: Olza (149).
Oñati: Oinati (224).
 Oñate (149).
 Oñati (115).
 Oñatik (95).
 Oñatiko (106, 142).
 Oñatin (106, 115, 143, 218).
 Oñatira (142).
 - Herritarra: *oinatiar* (224).
Ondarroa (106).
Ondarrola: Ondarrolako (62).
Ordizia: Ordiziako (171).
Orhi (24).
Ormaetxe (192).
Orokieta: Orokietako (128).
Oronoz: Oronotz (47).
Orontze: Orontze (24).
 Orontzen (24).
Orozko (149).
Orreaga: Orreaga (158, 217).
 Orreagako (27).
 Orreagatik (27, 216).
 Orriaga (27, 48, 217).
 Orriagako (27).
 Orriagara (27, 197).
Oskotz: Oskotz (56, 57, 58).
 Oskotzek (58).
 Oskotzen (57).
 - Herritarra: *oskozdar* (56).
Otalde (kalea) (221).
Otsagabia: Otsagabia (24).
 Otsagabiako (24).
 Otsagabiko (24).
 Otsagabin (24).
 Otsagi (73, 149).
 Otsagin (72).
 Otxagabia (73).
 Otxagabin (72).
Palestina (70).
Pamplona. Ikus Iruñea
Paris: Paris (181).
 Parisen (60).
 Parisko (93).
Paue: Pau (93).
Perunezarre (237).
Placencia de las Armas. Ikus Soraluze
Plaza Consistorial (221).
Portilla. Ikus Zabalate
Porto Colom (84).

Portugal:
 - Herritarra: *portuges* (111).
Portuko kale (221).
Probintzia = Gipuzkoa: *Probintzitik* (52).
 Prointzi (133, 164).
 Prointzian (125, 221).
 - Herritarra: *prointziar* (154).
Puentenuevo: *Puentenuevoko* (38).
Putterri (227).
Rosalia. Ikus *Arrosadia*
Rusia. Ikus *Errusia*
 Sadar: *Zadar* (218).
Saigos: *Saiguos* (218).
Sakana: *Sakana* (15, 113, 167).
 Sakanak (113).
 Sakanako (15, 129).
 Sakanan (15, 113).
 Sakanara (206).
Salamanca: *Salamancatik* (55).
Salbaterra: *Sauveterre* (204).
 Sauveterreko (204).
Saldias: *Saldiasko* (28).
San Anton (kalea) (42).
San Adrian (ermita) (227).
San Fermin (kalea) (220).
San Gregorio. Ikus *Arrate Ataun*
San Juan (kalea) (220).
San Martinkalde (kalea) (221).
San Migel (Aralarkoa): *San Migel* (49, 138, 167).
 San Migel gaineko (167).
 San Migel tontorrera (138).
 San Migela (65, 167).
 San Migeleko bidea (65).
 San Migelen (111).
 San Migelen basoeliza (49).
 San Migelera (138).
 San Migelgo bidean (66).
 San Migelgo eliza (190).
 San Migelgo sarrera (190).
 San Migelko bide berria (138).
 Ikus *Aralar*
San Migel kalea (220).
San Pedroko plaza (53).
San Saturnino (kalea) (220).
Sangüesa. Ikus *Zangoza*
Santa Grazi: *Santa Engrazia* (48).
Santa Marina (ermita) (50, 227).
Santa Zuria: *Sanctazuria* (218).
 Sandazuria (218).
Santiago: *Santiago* (93).
 Santiagora (213).
 Santio (48).
Santiago plaza (93).
Sarabe: *Sarabe* (203, 230).
 Sarabek (49).
 Sarabeko haitzak (49, 203).
Saraitzu. Ikus *Zaraitzu*
Saragueta: *Saragueta* (175).
 Saraguetako (175, 176).
 Saraguetan (175).
Sarriés. Ikus *Sartze*
Sartze: *Sartze* (24).
 Sarriés (149).
Sauveterre. Ikus *Salbaterra*
Sevilla: *Sevillan* (230).
Soldado kale (221).
Somport (48).
Soraluze: *Placencia de las A.* (149).
Sorauren (16).
Sos del Rey Católico: *Sos* (85).
Suezia: *Sueziako* (78).
 Suezian (78).
 Sueziatik (78).
Taconera: *Taconera* (108).
 Taconerako (108).
 Taconeran (108).
Tafalla: *Tafalla* (145).
 Tafallako (144).
 Tafallan (137, 144).
 Tafallara (168).
Tarazona: *Tarazonatik* (119).
Tardets. Ikus *Atarratze*
Toledo: *Toledorako* (129).
Tolosa: *Tolos* (37).
 Tolosa (149).
 Tolosako (174, 230, 231).
 Tolosan (180, 230, 231).
 Tolosatik (230).
 - Herritarra: *tolosar* (174).
Torralba (149).
Tresponde: *Trespunte* (149).
Trespunte. Ikus *Tresponde*
Tutera: *Tudela* (168, 207).
 Tudelan (129).
 Tudelara (178, 206).
 Tudelatik (178).
Txapitela (221).
Txekoslovakia (116).
Txemeneke borda (182).
Txile (29, 107).
Txina: *Txina* (235).
 Txinako (135).
Ubelzieta. Ikus *Ibiltzieta*
Uharte Arakil: *Huarte* (138).
 Huarte Arakil (137).

Huarte Arakilek (136).
Huarte Arakilen (129, 139, 142, 227).
Huarte Arakilez (136).
Huarterko (65, 136, 137, 138, 142, 143).
Huarten (137).
Huartera (138, 142).
Huarteretik (138, 143).
Ultrapuertos (156).
Ultzama: Ultzama (21, 47, 57, 93).
 Ultzamak (21).
 Ultzamako (21).
 Ultzamara (21).
 Ultzamari (21).
Undiano: Undianoko (186).
Untziti: Untziti (149).
Urbasa (30, 142, 144, 159).
Urdiain: Urdiain (53, 104, 125, 126, 149, 187, 202).
 Urdiaina (22).
 Urdiainek (22).
 Urdiainen (30, 53, 82, 104, 121, 125, 131, 187, 221).
 Urdiaingo (49, 53, 100, 125, 126, 142, 143, 203, 230).
 Urdinen (50, 187).
 Urdingo (22, 30).
 - *Herritarra: urdindar* (22, 49, 53, 125, 203, 221).
 urdiaindar (83).
Urepele: Urepeleko (141).
Uribarri-Ganboa: Ulibarri-Ganboa (218).
Urkimakurra (227).
Urumea (181).
Urraul: Urraul (198).
 Urrauldik (197).
Urrexola (149).
Urrizti: Urriztiko basoa (203).
 Urriztín (126).
Uruguai (29).

Uskartze (24).
Uxue: Ujué (149, 207).
 Usoa (207).
 Ussoa (207).
 Usua (149, 207).
 Usue (149, 207).
 Uxoa (207).
 Uxua (207).
 Uxue (207).
Uztarroze: Uztarrotze (217).
 Uztarrozeko (63).
Valcarlos. Ikus Luzaide
Valentzia: Valenzia (216).
Valdizarbe. Ikus Itzarbeibar
Viana: Vianako (180, 199).
 Vianatik (206).
Vietnam (70, 116).
Vitoria. Ikus Gasteiz
Xabier (85).
Xalbadorrenea: Xalbadorrenian (141).
Zabalate: Portilla (149).
Zadar. Ikus Sadar
Zangoza: Sangüesa (149).
 Zangotza (205).
 Zangotzako (229).
Zaraitzu: Saraitzu (72).
 Saraitzuko (229).
 Zaraitzu (24, 74).
 Zaraitzuko (24).
Zarrakaztelu: Larrate (217).
Ziga (47).
Ziordia: Ziordira (142).
 Ziorditik (178).
Zizur (149).
Zuberoa: Zuberoko (24).
Zuia (149).
Zumaia (106).
Zuñiga (149).

2. Antroponimoak

Honako hauen aipamenak ageri dira:

Abiron (224).
Abraham (180).
Abuztuko Andra Mari (167).
Acha (187).
Agirre (89, 100, 106, 149).
Agnes (85).
Aguirre (62).
Aiala (149).
Aingeru (gonadun) (190).
Ainhua (149, 205).
Ainoa (205).
Aintzane (188).
Aintzina (149, 192).
Aiora (155).

Aita Damaso (28, 107).
Aita Eneco (155).
Aita Felipe (25, 183).
Aita Sandua (86, 129).
Aita Santua (53, 129).
Aitor (161, 168, 180, 199, 201, 232).
Aitorren seme (168, 180).
Aitziber (49, 50, 51, 149, 177, 187, 203, 230, 231).
Aitziberko Ama (49, 203).
Aitziberko Ama Birjina (49, 50, 51, 230).
Aitziberko Andra Mari (49, 50).
Aizpea (149).
Akileo (210).
Akiles (25).
Aldaz (187).
Aldrin (135).
Alodia (48).
Altzibar (49).
Alxarte (149).
Ama Birjin (150, 177).
Ama Birjina (27, 40, 49, 67, 73, 100, 149, 150, 177, 205).
Ama Birjina Arantzazukoa (205).
Ama Birjina Xuria (218).
Ama Birjina Zuria (218).
Amagoia (199).
Amaia (174, 199, 232).
Amaya (174).
Armstrong (135).
Amuna (155).
Amunia (155).
Ana (84).
Andere (27).
Anders (120).
Andikona (149).
Andion (149).
Andra Mari (49, 50, 167, 177, 192, 205, 218, 223, 229, 230).
Andra Mari Karmengoa (135).
Andra Mari Zuria (218).
Andre Dena Mari Neketako (129).
Andre Mari (15).
Andregoto (155).
Andres (181, 182, 184, 208).
Angel Mari (187).
Antonino (187).
Antonio (113, 114).
Apala (155).
Apolo (120).
Apraiz (107).
Arantxa (177, 205).
Arantzazu (149, 174, 177).
Arantzazuko Andra Mari (205).
Areitio (149).
Aristide (95).
Aristoteles (110).
Arizaga (149).
Arkiloain (149).
Armendariz (84).
Arrako (149).
Arrasabia (155).
Arrate (149).
Arratibel (113, 114).
Arregine (149).
Arrigorria (149).
Arrosagarai (165, 166).
Arrue (151, 165).
Artinano (95).
Artiza (149).
Arturo (95, 101, 106).
Artzai (apezpikua) (129).
Artzai Nagusia (apezpikua) (129, 180).
Asier (232).
Askoa (149).
Astibia (59).
Atxetatupinak (46).
Auger (213).
Auñamendiko Erregina (27).
Auria (155).
Auriol (155).
Auriola (155).
Axpe (149).
Axular (105).
Azentzio (100).
Azitain (149).
Azkue (83, 101, 106, 107).
Aznar (155).
Azpilicueta, el doctor navarro (60).
Azpilikueta (60).
Azubeli (155).
Barandiaran (101, 237).
Barberia (128).
Barria (149).
Basaba (149).
Bazo (93).
Beataxis (149).
Begoña (149).
Beizama (90).
Belasko (155).
Belateko Ama (21).
Belengo Haurtxoa (147, 168).
Benita (187).
Berekoetxea (59).
Berezi (149).
Bernardita (91).

Berroeta (181).
Bilbao (186).
Birila (48).
Bizenta (61).
Blanca (218).
Blas (23).
Bolant (91).
Bolantak (46, 165, 166).
Bonaparte (printzea) (47).
Bordagorri (84).
Bordel (151, 156, 165, 166).
Borman (120).
Brochon (174).
Cami3n (71, 95, 101, 105, 106).
Carlos (187).
Castelladoriz (84).
Cerd3 (84).
Ci3rvide (207).
Clevestar (85).
Coro (187).
Dabid (90).
Damaso. Ikus *Aita Damaso*
Datan (224).
De Gaulle (32).
Diaz (90).
Diego (128).
Diez de Ulzurrun (42, 54, 105, 184).
Dodon (155).
Dolores (150, 188).
Domingo (106).
Domitila (210).
Doniansu (149).
Donna Maier (236).
Dorleta (149).
Duke de Alba (84).
Echeverria (187).
Eduardo (211).
Edurne (188).
Edurzeta (149).
El Bobo (46).
Eladio (210).
Eleizalde (106).
Elgezabal (106).
Enbeita (192).
Eneco (155, 185).
Enec3n (155).
Eneko (150, 155, 185, 232, 236).
Eneritz (223).
Eneriz (223).
Enrike (60, 61, 62, 76, 91, 156).
Erdozia (149).
Erisenda (155).
Eriz (155).
Erkuden (50, 149).
Ermin (149).
Ermisenda (155).
Errasabia (155).
Errege Katolikoak (86).
Erregeak (33, 125, 172, 173).
Erregina ((27, 33, 85).
Erregi3na (149).
Esaberri (226).
Esandi (226).
Esarte (226).
Escudero (71).
Eseberri (226).
Esparza (210).
Estibalitz (223).
Estibaliz (149, 223).
Estornes Lasa (92, 186).
Etxaide (236).
Etxamendi Larralde (156).
Etxandi (226).
Etxaniz (101).
Etxarte (226).
Etxeberri (226).
Etxeberria (61, 128).
Eunate (149).
Exemen (155).
Exemena (155).
Exemeno (155).
Eximina (155).
Eximino (155).
Ezozia (149).
Fabiola (209).
Fagoaga (23).
Faustina (62).
Felipe. Ikus *Aita Felipe*
Felix (45, 76).
Fermin (50).
Fernandez Romero (171).
Fernando (84, 86, 141, 192, 195).
Fernando Katoliko (85).
Filipe. Ikus *Santu Filipe*
Fort3n (155).
Fortunio (155).
Francisco Juan (187).
Froila (155).
Gabriel (107).
Gaiarre (71).
Galarza (142, 187).
Galindo (155).
Galind3n (155).
Ganboa (64, 113, 114).
Garabieta (187).
Garbi3ne (150, 188, 211).

García (155).
García de Larragueta (207).
García de Salazar (213).
Garde (92).
Garikoitz (235).
Garmendia (187).
Garralda Gastesi (235).
Gartzia (71).
Garzia (155).
Garzia Jimenez (53).
Gasanz (187).
Gebara (224).
Geraldo (155).
Gerra (218).
Gilesindo (155).
Gloria (188).
Goicoechea (187).
Goikuria (149).
Gomesano (155).
Gómiz (155).
Goñi Gaztambide (155).
Gonzalez (187).
Gorritiz (149).
Goto (155).
Grazia (128).
Gregorio (53).
Guillem (155).
Guridi (122).
Guriditar (122).
Hanni (155).
Haur Txikia (40).
Haurra (Jesus) (27).
Heinz Walberg (71).
Hernandorena (181).
Herodes (44, 116).
Hipolito (180).
Hiribarren (186).
Holbein (175).
Holmer (78).
Homero (25).
Hualde (63).
Huarte (45, 76, 178).
Huarte de San Juan (108, 110, 158).
Huarte Donibanekoa (110).
Hugo (155).
Ibargutxi (107).
Iben (155).
Idoia (98, 99, 149, 177).
Idoibalzaga (149).
Idurre (149).
Ignacio (150, 185).
Iker (236).
Iñaki (150, 185).
Iñigo Arista (185).
Iñiguez (189).
Inmaculada (187, 188).
Intzakoa. Ikus Aita Damaso
Iparragirre (17, 186).
Iratxe (149).
Iribarren (95).
Irigarai (60).
Irigoién (203).
Iroz (204).
Iruña (149).
Irur Erregeak (73).
Isaak (107).
Isabel (84, 85).
Isasi (149).
Isinario (155).
Ismael (183).
Iturralde y Suit (95).
Itxaso (149).
Izaskun (149).
Iziar (149).
Jainko (15, 20, 22, 23, 25, 30, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 43, 44, 53, 63, 67, 70, 75, 91, 97, 111, 112, 116, 122, 123, 127, 129, 132, 135, 146, 154, 165, 168, 169, 177, 191, 201, 204, 206, 224, 226, 235).
Jainkoaren Ama (177).
Jauna (Jesuskristo) (23, 60, 74, 116, 182).
Jaungoiko (70, 73, 186).
Jauregi (99).
Javier (226, 235).
Jeskristo (72, 74, 104, 177, 182).
Jeskristoren Ama (177).
Jesus (Jesuskristo) (38, 40, 44, 62, 72, 73, 74, 173, 235).
Jesus (38, 40, 62, 73, 74).
Jesus Haurra (36, 44, 72, 173).
Jesusen Bihotza (235).
Jesusen Jaiotza (173).
Jimena (155).
Jimeno (155).
Jon (186, 236).
Jose (42, 72, 143, 187).
Jose A. (187).
Jose Esteban (45).
Jose Luis (187).
Jose Maria (143).
Josefina (89, 187).
Joxe (74).
Joxe Mari (137, 155).
Joxe Migel (101, 237).
Joxemiel (237).
Juan (84, 156, 165, 174, 192, 236).

Juan abadea (Undianokoa) (186).
Juan Cruz (165, 166).
Juan Haundi (60).
Juan Pedro (204).
Juana M. (187).
Juana Maria (83).
Judas (224).
Julio (106).
Karlomano (213).
Karlos III (60).
Karlos IV (86).
Kennedy (116).
Kiteria (180).
Kodes (149).
Kolon (Kristobal) (84, 120).
Korputs (167).
Kostantino (117).
Kristo (72, 73, 100).
Kristobal Kolon (84).
La Antigua (149).
La Blanca (219).
Lain (155).
Lakarra (213).
Larraitz (149).
Larreko (158).
Lasagain (149).
Lasarte (182).
Latorre (42).
Lazkau Txiki (182).
Legarda (149).
Legarra (149).
Legundia (155).
Leioar (155).
Leire (48, 149).
Lekuona (71, 101, 107).
Leonor (155).
Leorin (149).
Lertxundi (30).
Lhande (106).
Lierni (149).
Lizarraga (187).
Loinaz (149).
Lop (155).
Lopa (155).
Lope (155, 213).
Lopez Mendizabal (107).
Lore (71).
Lorea (199).
Lovell (120).
Luar (155).
Luiar (155).
Lukas (30, 50, 51, 121, 122, 131, 132, 142).
Lukas Txiki (121).
Luna (129).
Lupo (155).
Lurgorri (84).
Luther King (116).
Luzia (104).
M. Lourdes (187).
M. Paz (187).
M. Sol (187).
Madame Marider Carriquiri (236).
Magallanes (120).
Maidier (236).
Maitane (171, 236).
Maitte (171).
Mancia (155).
Mancio (155).
Manezaundi (41, 60, 61, 62, 76, 91, 105, 151, 156, 158, 166).
Manezhaurra (60).
Manezttipi (60).
Manterola (107).
Manuel (57, 107, 154).
Mao (116).
Marañón (110).
Marc (211).
Marcos (211).
Margarita (84).
Mari (149, 177, 223).
Mari (Jesusen Ama) (177).
Mari Eder (226).
Mari Tere (171).
Maria (74, 84).
Maria (Jesusen Ama) (72, 74).
Maria Arantzazu (177).
Maria Asun (199).
Maria Birjina (72).
Maria Brigida (121).
Maria del Amor (171).
Maria Dolores (61, 62).
Maria Josefa (122).
Maria Nieves (188).
Maria Teresa (171, 192).
Maria Usua (207).
Mariano (187).
Marisa (187).
Martin (67, 95, 111, 129, 142).
Martxueta (90).
Marzelino (92).
Massiel (95).
Mayer de Quoquerel (236).
Mendi (149).
Mendia (30).
Menéndez Pidal (107).
Menosa (155).

Menoza (155).
Micaela (187).
Michel Garikoitz (235).
Michelena (207).
Miel Otxin (46).
Miel-Anton (38).
Migel (62).
Migel Jabier (179).
Miguel (235).
Miguel Angel (187).
Miguel Garikoitz (235).
Miguel Ignacio (187).
Mikel (112, 189).
Mikel Goiaingerua (112, 189, 190).
Mikela (145).
Milagros (145).
Milakotxu (22).
Moises (39).
Monoza (155).
Moxo (182).
Munio (155).
Murietakoa. Ikus Aita Felipe
Muskilda (149).
Muskildako Ama Birjina (24).
Narbaitz (236).
Narbart (181, 184, 208).
Nati (187).
Natibitate (72, 73, 75).
Navarro Villoslada (180, 199, 232).
Nekane (150, 188, 211).
Nemesio (101).
Nerea (210).
Nereo (210).
Nieves (188).
Nils M. (78).
Nixon (135).
Nora (149, 229).
Nora-ko Ama (229).
Nora-ko Ama Birjina (229)
Nuestra Señora de la Antigua (192).
Nunilo (48).
Obispoa (27, 86, 220).
Ochoa (155, 187).
Odon (107).
Oger (213).
Ogier (213).
Ogier de Dacia (213).
Ogier el Danés (213).
Ohier (213).
Oier (213).
Oierko (213).
Oitia (149).
Ojer (155, 213).
Ojer de Ugarte (213).
Olatz (149).
Oneca (155).
Oneka (27, 155).
Oreja (111).
Oria (155).
Orienteko Erregeak (73).
Orreagako Ama Birjina (27).
Orriagako Ama Birjina (27).
Orti (155).
Oskia (149).
Osser (213).
Ostiza (187, 203).
Otón (155).
Otxobi (128).
Oxer (213).
Oyer (213).
Oyer Amezketakoa (213).
Pablito (155).
Pankrazio (210).
Pantxo (204).
Patxi (203).
Paularena Gorraiz (188).
Pedro (42, 54, 113, 114, 129, 187, 192).
Pedro Esteban (121).
Pedro Jose (121).
Pele (209).
Pernando amezketarra (80).
Pierre (106).
Pio XII (235).
Placencia (155).
Príncipe de Viana (18, 24, 26, 28, 33, 36, 42, 45, 48, 77, 84, 85, 91, 92, 105, 151, 158, 175, 178, 179, 199, 206, 209, 214, 215).
Purificación (150).
Redentorea (73).
Rekalde (57).
Robert (116).
Roberto (161).
Sabas (83, 100).
Saenz Lazcano (207).
Salbatzalea (73, 74).
San Cosme y Damián (220).
San Femin (108, 129, 195, 220, 235).
San Jose (40).
San Juan (100, 104, 137, 138, 189, 191, 192, 220).
San Juan Bautista (104).
San Martín (152, 236).
San Migel (49, 65, 66, 100, 111, 113, 138, 167, 190, 191).
San Pedro (22, 53, 100, 128).
San Sebastián (121).

Sancha (155).
Sánchez Carrión (234).
Sancho (155).
Sancho de la Rosa (27).
Sanctam Mariam Zuriam (218).
Sanroman (187).
Sansa (155).
Santa Isabel (50).
Santa Kruz Maiatzeko (128).
Santa Kurutze (100).
Santa Maria (218).
Santa Maria Zuria (218).
Santa Marina (50, 227).
Santi (37).
Santiago (93, 213).
Santio (48).
Santu Filipe (100).
Santxa (155).
Santxo (71, 155).
Santxo Garzes (71).
Santxo Tiipia (71).
Sanz (155).
Saturno (120).
Sebastian (121).
Sebeino (181, 182).
Senar (113, 114).
Sinforosa (161).
Sokorri (149).
Sor Idoia (98, 99).
Sorkunde (211).
Tarragona (211, 212).
Terrarubra (84).
Toda (155).
Tomas (64, 90, 113, 114).
Tomasiko (64).
Torres (183).
Txomin-erne (49).
Txomin-errero (60).
Txuri (218).
Uba (149).
Ubaldo (63).
Uda (149).
Ugain-borda (175).
Ugarte (149, 213).
Ujué (207).
Ula (149).
Unai (150, 195, 196).
Unamuno (25).
Uranga (45, 175, 190).
Urdaspal (71).
Uretako Ama (229).
Uribarri (149).
Urko (236).
Urmeneta (76, 178, 179).
Urquijo (106).
Urraca (155).
Urraka (155).
Urrategi (149).
Urretxa (149).
Urrexola (149).
Usoa (207).
Ussoa (207).
Usua (149, 199, 207).
Usue (149, 207).
Uxo (207).
Uxua (207).
Uxue (207).
Vara Anbustegi (195).
Vázquez de Mella (48).
Velasco (155).
Veremundo (155).
Vicente (181, 182).
Villar Palasí (127).
Virgen Blanca (219).
Virila (155).
Xabier (62, 226, 235).
Xaho (180).
Xalbador (141).
Xalto (181, 182, 184).
Xaverius (226).
Xemeno (155).
Zabal (149).
Zaindari Nagusi (San Migel Aralarkoa) (112).
Zalba (129).
Zaloe (149).
Zanpanzar (46).
Zarpilak (46).
Zelaia (50).
Zeruko Ama (199).
Zuberoa (149).
Zubiri (60, 61, 62, 76, 91).
Zubiri Gortari (156).
Zubiria (121, 187).
Zufiaurre (30, 83, 104, 121, 131, 187).
Zunbeltz (71).
Zuri (218).
Zuria (218, 219).
Zuria de Saiguos (218).
Zuriñe (203, 218).

3. Bestelakoak

- Aduana* (93, 165, 116).
Aita gurea (146, 182).
Aitorren hizkuntza (180, 201).
Aiundamendua (47, 60, 62, 145, 165, 220).
Aiundamentua (47).
Aiuntamendua (21, 47).
Amaletari (167).
Amaya (liburua) (180, 232).
Aralar-Mendi (elkartea) (137, 142, 143).
Arantzazuko Batzarra (115, 205).
Archivo Histórico Nacional (207, 213).
Artes y Oficios (60, 61).
Artzai Deia (28).
Asociación Euskara (95).
Aste Sandua (129).
Auñamendi argitaraldia (186).
Auspoa libururegia (141).
Auzitegi Nagusia (236).
Bizkaiera (153).
Boletín del M. De Justicia (199).
Boletín Oficial (233).
Breve historia del hombre primitivo (237).
Canon (102).
Concurso Nacional de Redacción (130).
Danone (21).
Ddantza ddauzia (46, 91).
Diario de Navarra (171, 174, 188, 207).
Diccionario de Mitología Vasca (237).
Diputación Foral de Navarra (42).
Diputazioa (19, 26, 34, 45, 48, 54, 76, 80, 87, 95, 97, 101, 105, 115, 157, 168, 178, 179, 233, 234).
Diputazioko Jauregia (95).
Diputazionia (60).
Dirección General de Registro (180).
Donostiko Diputazioa (101).
Donostiko Seminarioa (144).
Eguberri (36, 39, 74, 78, 116, 117, 118, 120, 168, 169, 172, 174, 227).
Eguerri (70).
El hombre prehistórico en el País Vasco (237).
El Idioma Vasco Hablado (78).
El mundo en la mente popular vasca (237).
El Romance navarro antiguo (207).
Erromako Kapitolio (211).
Erronkari 'ko uskara (92).
Eskaldunak (186).
Estelas funerarias (237).
Euskal Akademia (26, 95, 101, 106, 115).
Euskal lehen gizona (237).
Euskaldun, fededun (146).
Euskaltzaindi (26, 76, 95, 96, 101, 106, 107, 115, 119, 151, 192, 199, 205, 212, 216, 222, 236).
Euskeraren Adiskideak (23).
Euskeraren Aldeko Saila (24, 105).
Examen de Ingenios (108, 109, 110).
Famili Sandua (44).
Fontes Linguae Vasconum (207).
Frente (70).
Frontoi (21, 97).
Fronton (15).
Fuero (134, 221).
Gaba On (75).
Gabon-afaria (36).
Gabonak (36, 40).
Gau Onak (37, 39, 68, 70, 146, 147, 206).
Gaztelera (161, 211, 226).
Gipuzkera (153, 154).
Golf elkartea (21).
Gorputz Eguna (237).
Gorputz Kristia (100).
Guardia Civil (230).
Gurutze (Santua) (146).
Herriko Etxea (93, 97, 171, 191, 192, 195, 211).
Ikastetxe Nagusi (unibertsitate) (26, 78).
Ikastolen Elkargoa (179).
Ikustetxe Nagusia (112).
Ilargi (38, 116, 120, 135, 138, 168, 200).
Imperialismo (153, 154).
Iruñeko Seminarioa (23).
Jaunaren Bataioa (60).
Jaungoikoa ta Arbola (186).
Jauregia (27, 29, 33, 34, 48, 95, 97, 124, 226).
Karrikiri (55).
Kattalinen Gogoetak (236).
Lakuntzetxea (65).
Lege Zaharra (36, 85, 133, 211).
Liburu Sanduak (177).
Liburu Santuak (110).
Liburu Txuria (127).
Luzaideko ikusgarria (60).
Luzaideko plaza (margoa) (60).
Marte (135).
Mendekoste (39, 82).
Mendiz (aldizkaria) (28, 158).
Merindade (156).
Meza Nagusia (165).

Meza Santua (148, 153).
Mitología Vasca (237).
Museo de Navarra (112).
Nafarroako Diputazioa (16, 24, 134, 158).
Nafarroko Etxe Nagusia (178).
Naparroako Unibertsitatea (237).
Naparroko Ikastetxe Nagusia (78).
Nire (liburua) (210).
Notas lingüísticas a Colección Diplomática de Irache (207).
Oñacinos y Gamboinos (218).
Orreaga (aldizkaria) (158).
Pazko (82, 100, 129, 131).
Pazkoaldia (129).
Pazku (82, 100).
Porlantegia (145).
Prado margotegia (175).
Pribilejioa (133).
Prosistas Navarros (60).
Real Madrid (209).
Registro (171, 185, 188, 201, 235).
Registro Civil (192).

Roncesvalles (aldizkaria) (158).
Rubio (txakurra) (139, 142, 143).
Sainduen bizitzea (236).
Sala de Cultura Actualidades (151).
Salve Regina (27).
Sanferminak (25, 55, 59, 109).
Sanjuanak (50, 78, 136, 216, 227).
Santueri (gaztelua) (84).
Solbezio (167).
Sortalde (169, 172, 173).
Sueziako Unibersidadea (78).
Testamentu Zaharra (30).
Uhin berri / Uhain (poesia bilduma) (152).
Umeen Deia (25, 183).
Unibersidade (47, 78).
Unibertsidade (26).
Unibertsitate (237).
Urteberri (36, 43, 77, 142, 148, 174).
Urtezahar (68, 116, 148).
Utrimque roditur (85).
Zigor (opera) (71).

